

AURKIBIDEA

1. 2003/2004ko OROIT-IDAIZKIAREN HITZAURREA

2. VITORIA-GASTEIZKO SINDIKO EDO HERRITARREN DEFENDATZAILEAREN JARDUERAREN LABURPENA

2.1 GASTEIZKO SINDIKOAREN BULEGOAN EGINDAKO APARTEKO TXOSTENAK ETA DUTEN GARRANTZIA

- 2.1.1 Aisialdiko aretoek gaueko ordutegia ez betetzea eta zaratak egiteari buruzko txostena
- 2.1.2 Udaleko gizarte zerbitzuen funtzionamenduari buruzko txostena
- 2.1.3 Vitoria-Gasteizen bizikletaren erabilera bultzatzeari buruzko txostena
- 2.1.4 Euskaltzaindiaren plazako eskultura
- 2.1.5 Gasteizko Alde Zaharreko kaleen izenak
- 2.1.6 Gizarte Larrialdietarako Laguntzei buruzko txostena
- 2.1.7 Euskararen erabilera
- 2.1.8 Barrenkalean bideozaintzako kamerak jartzea
- 2.1.9 Txakurrentzako gunek hirian
- 2.1.10 Handizkako azokaren egoera higienikoa
- 2.1.11 Aisialdiko hainbat areto ikuskatu eta jarraipena egitea
- 2.1.12 Trafikoaren zarata eta abiadura gutxitzeko neurriak Tanis Agirrebengoa kalean

2.2 GIZA ESKUBIDEEN ETA HERRITARREN KULTURA ERAIKITZEKO JARDUERAK

- 2.2.1 Erakunde, talde eta eragile sozialekiko harremanak eta lankidetzak
- 2.2.2 Giza eskubideak babesteko erakundeekiko harremanak eta lankidetzak
- 2.2.3 Kexei konponbidea bilatzeko Vitoria-Gasteizko Udalarekin izandako harremanak
- 2.2.4 Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen ikerketa eta ikuskaritza jarduerak.

2.2.5 Vitoria-Gasteizko Estrategi Plana

2.3 AHOLKULARITZA ETA ORIENTABIDE JARDUERAK

2.3.1 Herritarrei aholkularitza eta orientabidea ematea

2.3.2. Herritarren Defendatzaile edo Sindikoa eta Iradokizun eta Erreklamazio Batzorde Berezia koordinatzeko proposamena

2.4 Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak eman dituen ebazpenak (gomendioak, ezesteak, bideratzeak, aholkuak eta beste) sailez sail

2.4.1 HIRIGINTZA SAILA

2.4.2 OGASUN SAILA

2.4.3 INGURUMEN SAILA

2.4.4 UDALTZAINGOA

2.4.5 GIZARTEGINTZA SAILA

2.4.6 ETXEBIZITZARAKO ETA HIRI BERRIKUNTZARAKO UDAL ERAGINTEGIA

2.4.7 MUGIKORTASUN ETA GARRAIO ZERBITZUA

2.4.8 OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

2.4.9 AMVISA

2.4.10 KIROL SAILA

2.4.11 KULTURA SAILA

2.4.12 HEZKUNTZA SAILA

2.4.13 LEHENDAKARITZA SAILA

2.4.14 TEKNOLOGIA BERRIEN SAILA

2.4.15 ZERBITZU OROKORRAK

2.4.16 TUVISA

2.4.17 UDAL ERAKUNDE AUTONOMOAK

2.4.18 BESTE BATZUK: EZ DAGO HORRETARAKO ZERBITZURIK

3. IZAPIDETZEN ARI DIREN DOSIERRAK

4. AZTERTZEKO DAUDEN GAIAK

5. EGINDAKO ANALISIAK

5.1. Vitoria-Gasteizko Udaleko gizarte langileak

5.2 Vitoria-Gasteizko Udaleko Herritarrei Laguntzeko Zerbitzua (010)

5.3 Kexen eta kontsulten estatistika-azterketak 2003-2004 epealdian

5.4 Zerbitzuaren balioespena Vitoria-Gasteizko herritarren arabera

6. ERANSKINAK

6.1 Dibulgaziozko artikulak

- Herritartasun tailerra
- Animaliak eta gizakiak
- Gaitasuna eta ezintasuna
- Kontsumerismoa eta hiritarrak
- Hiriaren balioa
- Gasteizko teoria
- Azken malkoa
- Laikotasuna
- Laïcitet et spritualites a la cite
- Zer da Sindikoa edo Herritarren Defendatzailea?
- Gora bizikleta!
- Euskal hiria

6.2 Prentsako txostena

6.3 Mestizaje-topaketa: “Hiri-kultura eta kultur trukea”, Gipuzkoako Galizia Etxeak antolatua. 2003 ekaina. Emandako hitzaldiaren agiria eransten da.

6.4 Hitzaldia, Perpignano hirian, hiriaren izpiritualtasunaren gainean; Perpignan hiriko kanpo harremanetarako sailak antolatua. 2003ko abenduan.

6.5 Catalunya eta Lonbardiako Sindiko eta Herritarren Defendatzaileen Jardunaldiak, Badalonan, 2003ko irailaren 24an.

1. HITZAURREA

Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen funtzionamenduaren bigarren urte honetan esan genezake bulegoa errotuta dagoela; izan ere, kopuru bertsuetan eutsi zaie aldi honetan bulegoan jaso eta erantzun diren kontsulta, kexa eta iradokizunen kopuruei. Hain zuzen ere, **161 dossier**¹ bideratu dira; horrenbestez, guztira **342 dossier** abiarazi dira 2004ko otsailaren 29ra arte, hau da, 2003/2004ko oroit-idazki hau bukatu aurretik. Hainbat **jarduera**² egin dira; guztira, **856 laguntza eskariri** erantzun zaie telefono bidez, bulegoan bertan, eta, neurri txikiagoan bada ere, mezu elektronikoen bitartez. Egindako laguntza eskarrietatik, hau da, 856 laguntza eskarrietatik, **250 kontsultari**³ erantzun zaio, eta horietako batzuk kexa bihurtu dira. Telefonoz jasotzen dira, edo, zuzenean, dena delakoak bulegora jotzen duelarik. Posta elektronikoz nahiz posta arruntaren bitartez ere jaso da bakarren bat.

Inon bada, hiria da espazio publikoa, erabilera intentsiboko lekua, non egunero eta kale guztietan elkartzen baita jendea, era guztietako gizon-emakumeak, bizitza-proiektu desberdinekoak, ideologia nahiz erlijio ikuspegi desberdinekoak, eta, hala ere, guztiak ere herrikide. Ez da harritzekoa gure bizitza sozialaren izaera dinamikoa agerian jartzen duen erabilera intentsibo hori, aldi berean, interes-liskarren kausa izatea, baita errealtate sozialaren pertzepzio desberdinen iturri ere. Ez dago okerrik horretan.

¹ **Dosierra:** dossierrez ari garenean, erabiltzaileek behar bezala bete eta izenpetutako kexak hartzen ditugu aintzat.

² **Jarduera:** nola edo hala erantzun zaio erabiltzaileari, dela orientabidea emanez, hitzordua jarritz...

Desberdintasunen eta aniztasunaren espazioa da hiria; hortik zibilizazioak desberdintasunen kudeaketa zibila (ez militarra, ez apaizena) esan nahi izatea. Hortik hiriaren oinarri den ondarrerik preziatuena, hain zuzen ere, elkarbizitzaren bermea izatea, liskarrak eta desberdintasunak kudeatu eta konpontzeko tresnak instituzionalizatzea.

Irakurketa errazte aldera, gaika egiterik izan dadin, udal sailen arabera ordenatu ditugu gure jarduerak oroit-idazki honetan. Hala ere, lehenik eta behin, sailez sail taxututako kasuei ekin aurretik, aparteko zenbait txosten nabarmendu ditugu, beren munta dela eta bereiz jorratu beharrekoak izaki.

Esan beharra daukagu, Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Araudiaren 40. artikuluan ezarritako ebaluatzeko obligazioaren haritik, gure ustez hiriko zerbitzu publikoen kalitate demokratikoaren maila oso ona dela; ez baitu esan nahi, jakina, arazorik ez dagoenik eta, besterik gabe, dagoeneko eginda dagoenarekin konforma gaitezkeenik.

Aipamen berezia merezi dute 2003. urtean udalbatzari aurkeztutako txostenean nabarmendu genituen bi gaiak: aisialdi aretoek sortutako gaueko zarataren arazoak, batetik, eta Gizarte Larrialdiko Laguntza eskarien gehikuntza nabarmenak, bestetik. Gai bati nahiz besteari dagokionez, berriz ere egin dugu gomendiorik, bi arazo horien bilakaera eta udalak eman dizkien erantzunak aintzat hartu ditugularik.

³ **Kontsulta:** Sindikoaren bulegotik nolabaiteko orientabidea eman zaio erabiltzaileari, nahiz eta hark formalki kexarik aurkeztu ez duen.

Bulegoak emandako gomendioekin zerikusia duten gaiekin batera, giza eskubideak babestearen alorreko beste erakunde batzuekin nahiz bestelako talde eta eragile sozialekin izandako lankidetzaren baitako jardueren berri ere ematen dugu. Hiriko alkate izandako José Ángel Cuerda jaunak gonbidaturik, Bolivar hegoaldeko eskualdean giza eskubideak zanpatzeari buruzko Parisko nazioarteko iritzi-epaitegiaren bilkuretan parte hartu nuen, Kolonbiako Errefuxiatuen Elkarteko kide den Mario Calixto jaunarekin batera.

Orobat parte hartu dugu Vitoria-Gasteizko 2010 Estrategi Planaren lanetan, herritarrei eta elkarbizitzari dagozkien kontuetan.

2002/2003ko oroit-idazkian bezala, egindako zenbait azterlan sartu ditugu honetan ere: udaleko gizarte langileei buruzkoa, Herritarrei Laguntzeko Zerbitzuari buruzkoa, 2003/2004 aldiko kexa eta iradokizunei buruzko azterketa estatistiko bat eta datu bilketa bat, erabiltzaileek berek gure bulegoa eta eman diegun zerbitzua nola ebaluatu duten (bete dituzten inkestak baliatu ditugu horretarako).

Hona zenbait ohar, zer dugun oraindik ere aztertzeke:

- Administrazioa gizatiarrago egiteko prozesuei buruzko guztia, baita udalak herritarren idazkiei berariaz –hala behar baitu– erantzuten dien jarraipena egiteari dagokion guztia ere.
- Zaratari buruzko Legea, arauzkoa izaki, zenbateraino aplikatzen den udalerrin osoan, egungo udal ordenantzetan jaso gabe dauden alderdiei dagokienean.

- ...

Oroit-idazkia bukatzeko, oso-osorik aldatu ditugu bertara egindako gomendioak eta ezetsitako eskabideak, prentsan argitaratu ditugun artikulua –Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen behatokitik ikusitako zenbait arazoren ingurukoak– eta prentsa dossier bat.

Egindako lana –agiri honetan azaltzen duguna– baliagarri izatea espero dugu, Vitoria-Gasteizko Udalak bere zerbitzuen kalitateari eutsi diezaion eta, are gehiago, hobetu ere egin dezan, eta Gasteizko herritarrei behar bezala erantzun diezaien.

Eskerrik asko.

Vitoria-Gasteizen, 2004ko apirilean.

2. VITORIA-GASTEIZKO SINDIKOAK EGINDAKO JARDUEREN LABURPENA

2.1 GASTEIZKO SINDIKOAREN BULEGOAN EGINDAKO APARTEKO TXOSTENAK ETA DUTEN GARRANTZIA

Sindikoaren bulegoak bete du dagoeneko bigarren urtea (2003ko martxotik 2004ko otsailera). Bigarren aldi honek egin diren txostenak ditu ezaugarri nagusi; txosten garrantzitsuak gasteiztarrentzat, hiriko hainbat alorretan eztabaidarako abiagune izan direnak. Une honetan gasteiztarrek kezkatzen dituzten gizarte egoerei erantzuna emateko, Udalari eskaintzen dituen zerbitzuak hobetu ditzala gomendatzeko egin dira txosten hauek.

Txosten hauek honakoak dituzte xede: Udalak hiritarren beharrei ematen dien erantzuna neurtzea, hauen beharra aztertzea, eta udal zerbitzuak eta dauden baliabideak hobetzeko proposamenak zehaztea; hartara, bermatu egingo baitira hiritarren eskubideak eta dituzten arazoei arreta zuzena eskaintzea.

Gaiak oso garrantzitsuak izan dira, *aisialdirako aretoek gaueko ordutegia ez betetzea, areto horiek sortzen dituzten zaratak, bizikletaren erabilera hirian, Udaleko Gizarte Laguntzak, gizarte larrialdietarako laguntzak murriztea, Vitoria-Gasteizko kale-izendegia, euskararen erabilera administrazioan, hiriko eskulturak hiriaren ezaugarritzat eta bisitariak erakartzeko onik zaintzea, txakurrentzako gune bereziak jartzea...* Hauek hiritarrei, oro har, dagozkien arazoak dira eta Sindikoa aztertu eta konpontzen saiatu da hiritarrak eguneroko bizitza erraztuko dioten zerbitzu guztiak hirian aurki ditzan.

Hona hemen bulego honetan egindako txostenak:

2.1.1 Aisialdiko aretoek gaueko ordutegia ez betetzea eta zaratak egitea

Gaueko zaraten arazoa izan da Sindikoaren bulegoan gehien egin den kexa. Aisialdirako aretoek duten ixteko ordutegia maiz ez da betetzen eta inguruan bizi direnei etengabe sortzen dizkiete kalteak (lorik egin ezina eta bestelakoak) eta ez dute egoera hori zertan jasan. Udal administrazioaren eskumena da gaueko ordutegiak betetzen diren eta egiten dituzten zarata mailak neurtzea. Hori guztia dela eta, Udalak kontrol neurri zehatzak hartu behar ditu – hala nola, poliziak ikuskatze lan gehiago egitea– arlo horretan abenduaren 16ko Eusko Jaurlaritzaren 296/1997 Dekretua betetzen dela galdatzeko.

Hona hemen aisialdirako aretoek gauez egiten duten zaratagatik eta ordutegia ez betetzeagatik Sindikoak Gasteizko Udalarari egiten dio **GOMENDIO OROKORRA**.

Kasuaren aurkezpena

Gaueko orduetan aisialdiko lokalek ordutegia sistematikoki huts egitearen eta zaratak sortzearen arazoa da sindikoaren bulegora maizenik aurkeztutako kexuetako bat. Izan ere, gaueko zaratek eragozpen larriak eragiten dizkiete aisialdiko lokalen (tabernak, disko-pubak, pubak, diskotekak...) inguruan bizi diren herritarrei. Eta eragozpen

horietatik gehienak erabat edo ia erabat saihestuko lirateke Eusko Jaurlaritzak ikuskizun publikoen eta aisialdiko jardueren ordutegiei buruz onartutako dekretua betetze hutsarekin.

Aisialdiko lokalek sistematikoki ordutegi mugak huts egitearen kausa da gizarteak erresistentzia handia duela muga horien aurka, bai halako aisialdiaren erabiltzaile eta kontsumitzaileen aldetik, bai eskariaren mende dabilzan sektoreko enpresaburuen aldetik.

Ordutegi erregimena sistematikoki huts egitea eragiten duen beste faktore bat da establezimendu askok bere *jarduera baimeneko* baldintzak gaindituz jardutea.

Jarduera baimenen erregimenaren helburu da *jarduera baimenduetariko bakoitza* kasu bakoitzari «instalazioaren diseinuak edo jardueraren kokalekuak ingurumenaren gainean dituen eragin kaltegarriak murriztu, desagerrarazi edo berdintzeko» neurri zuzentzaile egokiak aplikatzea.

Aisialdiko lokalen gaian, jarduera baimena *lau kategoria taldetan* dago bereizita. Hona hemen:

1. TALDEA Adingabeentzako lokalak, alkoholgabeak (dantzagelak eta gazteentzako diskotekak, dastalekuak, eta abar)	2. TALDEA Tabernak, upeltegiak, jatetxeak, erretegiak, kafetegiak, txokoak, elkarte gastronomikoak, sagardotegiak, eta abar	3. TALDEA Taberna bereziak, whiskitegiak, klubak, amerikar tabernak, pubak, disko-barrak, karaokeak, eta abar (dantza pistarik gabe)	4. TALDEA Dantzalekuak, diskotekak, kafe antzokiak, ikuskizunarekiko jatetxeak, eta abar (dantza pistarekin)
---	--	--	--

Kalifikazioko ezberdintasun horiek eragin nabarmenak dituzte *neurri zuzentzaileen* (soinugabetzea, erregulazio aparatu baimenduak, edukiera...) arloan eta *ordutegien* arloan:

OSTALARITZAKO ETA IKUSKIZUNETAKO LOKALAK	1. TALDEA Adingabeentzako lokalak, alkoholgabeak (dantzagelak eta gazteentzako diskotekak, dastalekuak, eta abar)	2. TALDEA Tabernak, upeltegiak, jatetxeak, erretegiak, kafetegiak, txokoak, elkarte gastronomikoak, sagardotegiak, eta abar	3. TALDEA Taberna bereziak, whiskitegiak, klubak, amerikar tabernak, pubak, disko-barrak, karaokeak, eta abar (dantza pistarik gabe)	4. TALDEA Dantzalekuak, diskotekak, kafe antzokiak, ikuskizunarekiko jatetxeak, eta abar (dantza pistarekin)
IXTEKO ORDUTEGI OROKORRA	22:30	00:30	02:00	04:00
OSTIRALETAN, LARUNBATETAN ETA JAI BEZPERETAN	23:30	01:30	03:00	05:00

EKAIN- AREN 1ETIK IRAILAREN 30ERA	ORDUTEGI OROK.,	23:00	01:00	02:30	04:30
	OSTIR., LAR., JAI BEZP.	00:00	02:00	03:30	05:30
Ordutegi berezia: zaindariaren jaiak, Aste Santua (ostegunetik astelehenera), inauteriak (ostegunetik asteartera) Eguberriak (abend. 21etik urtarr. 6ra) Udalak ordutegi hori alda dezake		AURREKO ORDUTEGIAK BAINO BI ORDU GEHIAGO			
EUSKO JAURLARITZAREN 210/1998 DEKRETUAZ, ORDUTEGI HORIEI 30' ERANSTEN ZAIZKIE, JENDEZ HUSTEKO					

Hala ere, sistema horrek indarra galtzen du neurri handi batean. Izan ere, baimenaren baldintzetatik haratago aritzen dira sistematikoki lokal asko: 2. taldeko kalifikazioa izanik, 3. edo 4. taldekoak balira bezala jarduten dute.

Ez betetze hori AURREKO beste batek eragiten du, lokalak kontrolatu eta ikuskatzea zailtzen duen beste batek; hau da, Ordutegien Dekretuko (296/1997 Dekretua, abenduaren 16koa) 6. artikuluan ezarrita dagoen ORDUTEGIAK ARGITARATZEKO BETEBEHARRA huts egiteak. Betebehar horri jarraituz, ONDO IKUSTEKO MODUKO TOKIAN jarrita egon behar du irekitzeko eta ixteko gehieneko ordutegiak, gutxienez 25 x 14 cm-koa den euskarri zurrunean, Ordutegien Dekretuan bertan jasota dagoen ereduarekin bat.

Betebehar hori, baina, sistematikoki huts egiten da, jadanik indarrean ez dagoelako ustea finkatzeraino.

Gure ustez, hala ere, arian-arian gaueko aisialdiko jardueretan ordutegi erregimena aplikatzea lortu beharko litzateke, lehenik eta behin *Ordutegien Dekretuan* jasotako *betebehar formal* hauek betez:

- a) Emandako baimena eta egindako jarduera *bat etortzea*.
- b) Emandako baimenari dagokion ordutegi erregimena *informatzeko betebeharra*.

Gomendioa

Azaldutako horren guztiaren ondorioz, GOMENDIO hau egiten dugu:

- *Udaltzaingoak* bere jardun protokoloan sar dezala *ordutegi erregimenari buruz informatzeko betebeharra* betearazteko *informazio eta ohartarazpen* kanpaina bat. Informatzeko betebehar horretarako, arestian aipatu dugun dekretuko 6. artikuluan adierazitako *eranskineko* eredia erabili behar da:

MAILA:

GRUPO:

NEGUA / INVIERNO:

UDA / VERANO:

ASTEGUNAK:

DIAS ORDINARIOS:

OSTIRAL ETA JAIEGUN BEZPERAK: *VIERNES Y VÍSPERAS DE FESTIVOS:*

Ireki / *Apertura*

Ireki / *Apertura*

Itxi / *Cierre*

Itxi / *Cierre*

- *Informazio eta ohartarazpen* kanpaina hori bukatu eta zentzuzko denbora bat pasatakoan, betebehar hori huts egiteari dagokion erregimenari jarraituz *ZIGORRAK* aplikatu daitezela.

- Ostalarien sektoreko lanbide elkarteek jakinarazpena jaso dezatela, euren elkartekideen artean *informazio betebeharr* hori borondatez betetzea susta dezaten.

2.1.2 Udaleko gizarte zerbitzuak

Gasteizko Udalak hiritarrei eskaintzen dizkien baliabide eta gizarte prestazioak hiriaren ezaugarri dira; guztia hiritarren ongizate ekonomiko, kultural eta soziala lortzeko eta baztertuenei babesa eskaintzeko egiten duelarik. Hortaz, Gasteizko Udalak hiritarrei Gizarte Zerbitzuak eskaintzen dizkienez, hauek zerbitzu publikoen eraginkortasun eta efikazia bermatzeko moduan antolatu behar ditu.

2003ko maiatzean Sindikoak lehen Oroit-idazkia udalbatzari aurkeztu zionean, Gizarte Larrialdietarako Zerbitzuen funtzionamenduan ziren arazoak aipatu zituen. Sindikoak garai hartan zerbitzu horien inguruan adierazitakoa baieztatzen duten hainbat kexa jaso dira, hain zuzen ere zerbitzu horien funtzionamendua ez dela egokia azpimarratzeko. Honakoak dira kexa horien funtsak: zerbitzua erabiltzen duten pertsonen eskariei erantzuteko berehalako hitzordua ez ematea (zenbaitetan hilabetez itxaron beharra), zerbitzuak bezeroa hartzen duenean eskaintzen zaion denbora mugatua, zerbitzua behar bezala ez eskaintzea langile gutxi direlako eta zerbitzuan parte hartzeko eskaera gehiegi daudelako, izapideak egiteko burokratizazio maila handiegia, lehen hitzordua hartzeko luze itxaron beharra ...

Jendeari arreta egiteko denbora asko pasatzen denez, maiz erabat okertzen da eskatzaileen egoera ekonomikoa, izan ere gizarte larrialdietako laguntzak hartzeko atzerapenak izaten baitira. Honek arazo larriak dakartza batzuetan, izan ere erabiltzaileek ezinbesteko dituzte laguntza horiek etxebizitzaren alokairuak ordaindu ahal izateko. Laguntza horiek atzeraeraginekoak izan badaitezke ere, zenbaitetan hiru hilabetezko atzerapena aterperik gabe geratzera eramán ditzakete.

Ondorioz, GOMENDIO OROKORRA egin zaio Gasteizko Udalari, gizarte Zerbitzuek erabiltzaileei zerbitzu hobea eskaintzeko neurriak har ditzan. Hona hemen:

I.- Arazoaren aurkezpena

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen erabiltzaileen zenbait kexa jaso dugu, dagokion gizarte langilearekin lehenengo hitzordua izateko denbora luzeegi itxaron behar dutela eta, erabiltzailearen egoera larria bada ere.

Txiroekin Bat Eginik elkarteak ere kexa orokor bat aurkeztu digu, haien ustez orain dagoen laguntza eskaera eta antolakuntza direla kausa Gizarte Larrialdietarako Laguntzak sistematikoki berandu banatzen baitira eta horrek arazo larriak baitakarzkie eskatzaileei.

Beste alde batetik, zenbait herritarrek beren ezinegona adierazi digute, uste dutelako Udalak gizartegintzaren alorrean daraman politika oso eskuzabala dela etorkin eta pertsona baztertuekin eta ez horrenbeste Gasteizen errotuta dauden eta talde baztertuetan sartzen ez badira ere laguntza beharrean dauden beste biztanle batzuekin.

II.- Aurkeztutako arazoaren azterketa.

Jatorri ezberdina izanik ere, aipatu arazo guztiek gizarte zerbitzuekin lotuta daudenez, batera aztertuko ditugu; dena dela, iritzi ezberdinak ditugu horiei buruz.

A) Gizarte Zerbitzuez baliatzeko prozedurari eta herritarrei ematen zaien informazioari dagokienez, eta jaso ditugun kexetatik ondoriozta dezakegunaren arabera, arazoaren muina hauxe da: Oinarrizko Gizarte Zerbitzuarekiko lehen

harremana administrari laguntzaile batekin izaten da, berak hartzen baitu eskaera. Pertsona horrek, berez, ez du ahalmenik egindako eskaera benetan premiazkoa den erabakitzeke eta dagokion gizarte langilearekin lehenengo hitzordua ematera mugatzen da. Familia eskatzaileen kopurua nahiko hazi denez, bai eta gizarte langileek egin behar dituzten tramiteak ere, lehenengo hitzordurako *30 eta 45 egun bitartean* itxaron behar izaten da, baina inork ez du alde zuzetik aztertzen eskatzailea benetan larrialdi egoeran dagoen edo gizarte laguntza interesatuari kalterik egin gabe berandutu daitekeen.

Gaur eguneko antolakuntzan, hasierako azterketa hori administrari laguntzaile baten ardurapean dago; hark gaitasuna duen arduradun baten ikuskaritzapean jarduten badu ere, horrek ez du bermatzen kasuen larritasuna behar bezala balioetsiko duenik, dela ikuskapena batzuetan urrutikoa delako, dela gizarte langilea edo arduraduna bertan ez daudelako edo lanpeturik daudelako, dela administrari laguntzaileak ez duelako behar den prestakuntza.

Bi kezaren kasuan (144/03 eta 168/03), administrari laguntzailearekiko lehen harremana azalekoa izan zen: herritarrei ez zitzaizkien inolako azalpenik eman eta ez zen aztertu eskaerak izan zezakeen larritasuna. Eskaera, hain zuzen, hirugarren adinekoentzako arretarekin lotuta zegoen, kontuz lantzeko gaia beraz, eta baliteke informazio egokia emanda geroko hitzorduaren beharrik ere ez izatea.

Hainbat alderdik baldintzatzen dute zerbitzuaren lan antolakuntza:

1.- Vitoria-Gasteizko Udala –bakarretakoa da horretan– ez da mugatzen Eusko Jaurlaritzatik Gizarte Larrialdiko Laguntzetarako jasotzen dituen baliabideak kudeatzera, gainera bere baliabideak ere jartzen ditu eta, ondorioz, eskaera guzti-guztiak aztertzen ditu. Beste udal batzuek, berriz, jasotako baliabideak kudeatu besterik ez dute egiten, eta horiek amaitutakoan ez dute eskaera gehiago onartzen. Beraz, Vitoria-Gasteizko Udala ez da euskal araudietan erabakitako laguntzetarako eskaerak jasotzeko gutunontzia izatera mugatzen, bere baliabideak ere erabiltzen dituen laguntzen gaineko jarrera aktiboa baitu, haiek kontrolatzearren.

2.- Udaleko gizarte langileak, bestalde, laguntzen kudeatzaile eta gizartegintzaren alorreko profesionalak diren aldetik, kudeaketa hutsaz gain, eta laguntzen kudeaketa eta dokumentazio lanaz arduratzen diren bitartean, bestelako lanetan ere aritzen dira eskatzaileekin (harremanak, aholkularitza, ebaluazioa eta jarraipena) eta horrek eskatzen duen dedikazioa, bai denborari bai sakontasunari dagokienez, askoz handiagoa da.

3.- Aipatutako arrazoiak direla medio, lana antolatzean gizarte langileak “banakako hitzorduak” egiteko erreserbatzen dira, eta leihatilako lehen arreta administrari laguntzaileen esku geratzen da, haiek gizarte zerbitzuetan eta gainerako alderdietan prestakuntza berezirik ez badute ere.

Lehenengo arreta teoriar arduradun batek ikuskatzen du, baina ikuskapena askotan ez da hurbilekoa izaten, eta ezin du eragotzi oraingo jokabidea, hots, agiriak eskatu eta 30 edo 40 egun barrurako hitzordua ematera mugatzea. Herritarraren ikuspuntutik epea hain luzea izatea ez da beti onargarria.

168/03 zenbakiko kasuan hauxe zen herritarraren arazoa: haren gurasoak (adinean sartuak eta beren kabuz moldatzeko arazoak dituztenak) ordura arte zaintzen zituen pertsonaren falta. Herritarrak Judimendiko gizarte etxeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzura jo zuen, etxeko laguntza zerbitzuaz, etxeko jatorduez edo antzeko zerbitzuren batez balia ote zitezkeen eta zein baldintzatan egin zezaketen jakiteko, bestela kontratazio pribatuaz baliatu beharko baitzuen. Zalantza hori argitzeko 40 egun geroagorako hitzordua eman zitzaion eta agiri gehiago eskatu. Herritarrak, jakina, informazioa UKATU zitzaiola ulertu zuen, berak ezin baitzuen 40 egun itxaron bere gurasoen egoerari irtenbidea emateko.

144/03 zenbakiko kasuan, hauxe da *kexa*: herritarrak Judimendiko gizarte etxeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzura jo zuen alargun geratu zen 83 urteko senitarteko batentzat telealarma eska zezakeen jakiteko, premiazkoa baitzen; kasu horretan ere erantzuna bera izan zen, *40 egun barrurako hitzordua*.

Bai batean bai bestean eskatzaileek informazioa garaiz jasotzeko eskubidea zuten.

B) Gizarte Larrialdietarako Laguntzak jasotzeko atzerapenari dagokionez.

Laguntza horiek finantzatzeko Eusko Jaurlaritzak emandako baliabideak erabiltzen dira. Horretaz gain, Udalak bere balaibide propioak erabiltzen ditu neurri handi batean. Hala

ere, atzerapenean eragin zuzena du Eusko Jaurlaritzatik datozen baliabideak eskuratzeko itxaron behar izaten duen denbora.

C) Azkenik, Gasteizko zenbait herritarrek azaldu diguten **iritzia**, kanpokoek bertan jaio edo luzaro bizi izan direnek baino laguntza gehiago jasotzen dutelakoa, funtsik gabea dela uste dugu. Udalak gizartean esku hartzerakoan irizpidea ez da –eta ezin da izan– etnia edo herritarren antzintasuna, baizik eta herritartasun administratiboa eta gizarte erantzukizuna, objektiboki egiaztaturiko benetako beharrak asetzeko eta gizarte bakea eraikitzeko asmoz.

III.- Ondorioak

Hori kontuan izanik, eta aztertutako arazoak konplexuak direla jakin badakigun arren, GOMENDIO orokor bat egin nahi dugu arazo horiei aurre egiteko, aukeran ematen ditugun irtenbideak aintzat har daitezen, edo zerbitzuak berak beste batzuk proposa ditzan:

1. - Eusko Jaurlaritzaren atzerapenak direla kausa gertatzen diren berandutzeen kasuan, lehenengo eta behin dagokion administrazio mailari ohartarazi behar zaio, baliabide horiek urte hasieran azkarrago jar daitezen eskura, baina Udalak alde aurretik laguntzak finantzatzeko aukera ere azertu beharko litzateke, erabiltzaileek laguntzak jasotzeko itxaron behar izan ez dezaten.

2.- Baliabideak gehitzea litzateke zerbitzua oro har hobetzeko irtenbidea, jakina, horrela gizarte langileen plantila handitzeko aukera bailegoke; baliabide horiek Eusko Jaurlaritzak eman beharko lituzke. Ezinbestekoa zaigu irtenbide hori proposatzea, udalean gizarte zerbitzuen eskaera gero eta handiagoa dela ikusirik.

3.- Beste aukera bat eginkizunak eta esleitutako baliabideak bitan banatzea litzateke: batetik Eusko Jaurlaritzaren laguntzen tramitazioa prozedura erraztu baten bitartez, eta bestetik Udaleko programen baitako laguntzak eta prozedura konplexuagoa behar duten gizarte langileen esku-hartzeak. Horrek gizarte larrialdietarako laguntzak azkarrago tramitatzeko aukera emango luke eta aldi berean gizarte langileek ez lukete burokrazia eta tramitazio lan hutsetan denborarik eman beharko.

4.- Eskatzaileek beren beharren larritasunaz duten ustea hasiera batean argitzeko larrialdi zerbitzu zentralizatu bat sor liteke –beste garai batzuetan ere egon da–, arreta medikoaren alorrean, Osakidetzan, dagoenaren antzera. Hartara, esku-hartze oso eta sakonik gabe gutxienez bereiztu ahalko litzateke zein kasutan komeni den eskatzaileak denbora gehiegirik ez itxarotea bere arazoaren lehen balioespen bat egin arte, hura mugatua bada ere.

5.- Esku-hartze programei buruzko INFORMAZIOA eskatzen dutenei ematen zaien arreta hobetzeko beste irtenbide bat gizarte etxeetan oinarritzko gizarte zerbitzuetako leihatiletan ari diren administrari laguntzaileak gaitu eta lanpostuan egonkortzea litzateke. Hartara, beraiek balioets lezakete zuzenean erabiltzaileen eskaeraren larritasuna. Horretarako Funtzio Publikoaren Sailaren laguntza beharko litzateke, bai eta

nolabaiteko berariazko osagarriren bat ere, lanpostu horretan dauden langileen ezegonkortasuna eragozteko. Izan ere, lanpostu horrek zailtasun nabaria du: administrari laguntzaileek zein gizarte langileek askotan estres eta gatazka egoeretan egin behar diete aurre erabiltzaileekiko harremanei; horregatik da hain handia lanpostu horietako mugikortasuna eta hain txikia berariazko prestakuntza.

6.- Gizarte laguntzak direla eta zenbait herritarrengan antzeman diren neurri bera erabiltzen ez delako “ustek”, funtsik gabekoak badira ere, kontuan hartu beharko lirateke Udalak egiten dituen informazio eta sentsibilizazio kanpainetan, herritarrek kanpokoaren aurrean agertzen duten mesfidantza gainditu eta administrazioak bultzatzen dituen gizarte esku-hartzeak hobeto uler ditzaten.

2.1.3 Bizikletaren erabilera bultzatzea Vitoria-Gasteizen

Gasteiz aitzindari izan da ibilgailu eta oinezkoen bideetatik kanpo dauden azpiegiturak diseinatu eta eraikitzeke orduan.

Gasteizko bidegorrien sareak eremu handia hartzen du eta hutsuneak baditu ere, bizikleta erabiltzeko aukera egokiak eskaintzen ditu, bereziki trafikoa gutxitzea badakar eta oinezkoen esparruak ere partekatzeke aukera badago. Horretaz gain, trafikoak sortzen dituen hainbat arazo ere murriz badaitezke: zarata, kutsadura, istripuak.

“La bicicleta en la Movilidad Urbana de Vitoria-Gasteiz” izeneko lan bat egin zuen Euskal Herriko Unibertsitateak eta hori oinarritzat hartuta txostena prestatu du Sindikoak eta herritarren defendatzaileak. Txosten horretan bizikletaren erabilera

bultzatzeko eta Gasteizen eskas geratu diren azpiegiturak hobetzeko proposamenak aurkeztu dituzte. Halaber, “*Mr / Ms Bicicleta*” pertsona sortzea planteatzen da. Honek bizikleta garraiobide gisa bultzatzeko eragiten duten arloak eta gainontzeko garraiobideekin bateragarriak izateko arloak koordinatuko ditu.

Hona hemen, hiriko bizikleta erabiltzaileen iritzi eta ikuspuntuak bildu ondoren Sindikoak edo Herritarren defendatzaileak Udalari egindako GOMENDIOA:

SARRERA

Duela zenbait hamarkadatik hona, bada halako adostasun bat –hirigintza, ingurumen, gizarte nahiz politika arloa aintzat hartzen direlarik–, zeinen arabera gure hirietan norbanakoen joan-etorrietarako autoa neurritz gain erabiltzea bateraezina baita nahi genukeen bizitza-kalitatearekin. Uste horrek halako bilakaera bat ekarri du Europako mugikortasun eta garraio politiketan, garraio publikoa (metroa, tranbia, autobusa...) sustatzera bideratu direlarik, baita jendea ibilgailuak modu partekatuan erabiltzera nahiz *bizikleta erabiltzera* bultzera ere, eta, aldi berean, areagotu egin da hiri erdialdeetan trafikoa murrizteko premia, hau da, oinezkoentzako alderdiak handitzekoa.

Autoa –zein, bestalde, mugikortasun tresnarik hoberenetako bat eta lehen mailako ekonomi faktorea baita– halako bilakaera eta orokortze puntura iritsi da, non izandako arrakastaren biktima izaten hasi baita: ez aurrera ez atzera galdutako orduak, ingurumenari egiten zaion kaltea (airearen kutsadura eta zarata), istripuetan hiltzen den jendea eta halakoen kostu ekonomikoa, aparkatzeko zailtasunak eta bestek autoen zabalkuntzari nolabaiteko mugarrria jartzeko premia (oinetzkoentzako kaleak, hiri

inguruetako parkingak...) azpimarratzera eraman ditu bateko eta besteko adituak, eta bestelako garraio moduak proposatzera.

Gero eta argiago ikusten da *bizikleta* gure artean izango dela, ez bakarrik aisialdirako eta kirola egiteko tresna gisa, baizik eta baita *hirirako benetako garraiobide* gisa ere.

1990. urtean, jada, hizpide hartu zuen Europako Batzordeak bizikleta –“**Hiri ingurunearen gaineko liburu berdea**”–, eta hirietako trafikoaren itomenaren kontra jarduteko baliabidetzat jo zuen, baita autoen trafikoak sortzen dituen zenbait arazo –hala nola zarata, istripuak, airearen poluzioa, hiri espazioak alferrik galtzea, arkitektura-ondarearen suntsipena, herritarren osasunari kalte egitea edo hiriaren erdialdeko biztaleek bertatik alde egitea– murrizteko tresna egokitzat ere.

Aurreneko jarrera horren ildo beretik, bizikleta sustatzearen alde egiten jarraitu du Europako Batzordeak, eta, hartara, Europako udalerrietan bizikleta erabiltzeko eskuliburu bat argitaratu zuen 1999an, “*Ciudades ciclables, ciudades con futuro*” izenburupean, Europa hiriak bizikletaren erabilera sustatzeko konpromisoa hartzera animatzeko, ez sentsibilizazio neurriekin bakarrik, baizik eta zeinu zehatzak baliatuz, bizikleta garraiobidetzat hartzeko aukera gero eta ikuserrazago eta erosoago bihurtze aldera. Gasteizen duen bidegorri sareak –aski zabala baita, zer konpondurik ere baduen arren– *aukera* ona ematen du bizikleta erabiltzeko, bereziki ibilgailuen trafikoaren “lasaitze” orokor batekin eta oinezkoentzako alderdiak partekatzeko aukerarekin konbinatzen bada.

Europar Batasunak egindako ikerketen arabera, hauxek jotzen dira bizikleta erabiltzeko hiririk egokienak: 50.000 biztanletik 500.000ra bitartekoak, aski ordeka

direlarik eta eguraldi oso txarraren mende ez daudelarik. Esate baterako, badira zenbait hiri, hala nola Groninga (Suedia), Delft (Holanda), Munster (Alemania), % 40etik gorako erabilera indizeak dituztenak, hirian eginten diren joan-etorri guztien gainean.

Europaren baitan, hiri ugari daude bizikletaren erabileraren sustapenean arrakastaz nabarmendu direnak, eskari sozial eta politikoaren ondorioz, hala nola Amsterdam, Bremem, Ferrara, Graz, Strasburg...

Zenbait metropoli handik ere lortu du bizikleta garraiorako benetako aukera bihurtzea, nahiz eta beren neurriengatik berezko izan ibilgailuen trafikoa eta bizikletena bateragarri egiteko zailtasunak. Hor ditugu, esate baterako, Basilea, Berlin, Berna, Bolonia, Bordele, Geneva, Groninga, Kopenhage, Londres, Nantes, Nottingham, Paris eta Zurich.

Hiri horietako asko federatu egin dira, “Bizikletaz ibiltzeko hirien kluba” delakoan, baita “Bizikletaren lagun diren udalerrak” izenaren pean ere.

Gasteizek badu bidegorri sare aski handia (30 km), Espainiako handienetako bat, zein, nahiz eta zatien arteko lotura eskas duen, beste bide seguru batzuen erabilerarekin konbinatu baitaiteke; hartara, bizikleta modu egokian erabili ahal izateko aukera egokiak bildu litzake bere baitan. Izan ere, bizikletaren erabilera ez baitago gure artean, oraindik, lehenago aipatu ditugun Europako hiri horietakoaren mailan.

Euskal Herriko Unibertsitateak Udalaren beraren eskariz egindako ikerketan – *“La bicicleta en la Movilidad Urbana de Vitoria-Gasteiz” (diagnóstico)*– oso panorama egokia ageri da, Gasteizen bizikletaren presentzia, hiriko garraio bide gisa, gero eta

handiagoa izateari dagokionean; izan ere, hiriaren ezaugarri urbano nahiz fisikoak oso egokitzen jotzen dira, eta bertan egiten diren joan-etorriak, guztiak ere, bizikletaz mugitzeko mugatzat jotzen den 7,5 km-ko mugatik oso beherakoak baitira. Oro har ordeka den hiria dugu, Erdi Aroko hirigunea salbu, eta, hor ere, ez da ezinezkoa bizikletaz ibiltzea. Beharbada gure artean zabalduen dagoen aurreiritzia hau da: Gasteizen egiten duen eguraldiak galarazi egiten duela bizikletaz ibiltzea; oso bestela da, ordea, ezen erakutsia baitute Europa iparraldeko beste hiri batzuek, askoz ere eguraldi txarragoa izan ohi dutelarik ere, bizikleta garraio bide bat ez ezik norbereren bizimoduan txertatutako zer edo zer ere izan litekeela bizikleta.

II. ONDORIOAK

Aipatu dugun txostenean hainbat proposamen aurreratzen dira, eta geure egiten ditugu, GOMENDAGARRItzat baititugu, Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Araudiaren (2001eko irailaren 28koa) 19. artikuluan xedatutako ondorioetarako:

*I.- Hiriko bidegorri sarearen erabilera bultzatzea:
Horretarako, hainbat jarduera burutu beharko dira "joan-etorriak" ugaltzeko aukera gehien ematen duten bidegorri-zatietan, txosteneko inbentarioaren arabera:*

1.- Arriagako zirkuitoa

a) Arriagako zirkuitoa: Juan Garai kaleko zatia

- Arriagako parkearen barrutik doan oinezkoen igarobidearen albo batean margotutako bidegorria berreskuratu.

b) Arriagako zirkuitoa: Forondako ateko zatia

- Latinoamerika plazarekiko elkargunean, biribilunea inguratzen duen bidegorri zatia berreskuratu, erabat ezabatua baitago gaur egun, eta, beraz, ez baita ikusten.

c) Arriagako zirkuitoa: Artapadura kaleko zatia

- Bizikletentzako bide-zati hori Arriagako ateko zatiarekin lotzen duen oinezkoentzako zatitxo berreskuratu.

2.- Lakuabizkarra

- Seinaleztapen bertikala nahiz horizontala jarri, gaur egun ez baitago.

3.- Wellingtono dukea – Antonio Machado

- Seinaleztapen horizontala nahiz bertikala jarri, gaur egun ez baitago.
- Oinezkoentzako igarobideen ondoan zerrenda gorri bat margotu, bizikletariak bertatik gurutzatzerik izan dezaten.

4.- Zorraostea kalea eta Antonio Machado kalearen aldameneko berdegunea

- Seinaleztapen bertikala nahiz horizontala jarri, gaur egun ez baitago.

5.- Aztegietea

- Zaintze lanak egin.
- Bidegorriaren hasiera adierazi, seinale bertikalez.
- Seinaleztapen horizontala jarri.
- Bidegorria oztopatzen duten landarean aldian-aldian inausi.

6.- Betoñuko atea (Landako bidegorria)

- Seinaleztapen bertikala nahiz horizontala jarri.
- Bidegorria oinezkoentzako zerrenda batez osatu, bidegorrian sar daitezen galarazteko, batez ere jende gehien ibiltzen den sasoietan.

7.- Zurbanoko atea

- Seinaleztapen bertikala jarri.

8.- Alegria Ibaiaren ibilbidea

- Seinaleztapen bertikala jarri.

9.- Euskal Herria bulebarra – Pablo Neruda kalea

- Oinezkoentzako igarobideen alboetan zerrenda gorriak jarri, bizikletaz igarotzea errazteko gurutzalekuetan, zebrabideetan sartzeko beharrik gabe.
- Karrilak bereizteko marrak eta "bizikletak" ikurrak jarri bidegorrietan.

10.- Gasteiz hiribidea

- Arriagako Kofradiaren kaleko gurutzalekuan (bereziki arriskutsua da), seinaleztapen bertikala eta horizontala jarri, Guayaquil kalearen erdiko bidea eta Konstituzio plaza elkartzen dituen bidegorri-zatian.
- Seinaleztapen horizontala berri, oso ezabatua baitago zenbait zatitan.
- Bizikletaz gurutzatzeko lekuen sekzioa adierazten duten bide-markak jarri (Venezuela kalearekiko bidegurutzean badago).
- Udalak berak jarriak diren beira, paper nahiz plastiko edukinontziak tratatutako kendu.
- Lurreko zulo eta artesiak konpondu.

11.- Arriagako Kofradiaren kalea

- Marrak jarri, luzetara, eta bide-markak, gurutzalekuetan.

- Seinaleztapen bertikala osatu, urria baita.
- Gasteizko Taldearen kaleko 20.aren parean dagoen autobus geltokiko informazio-kartela lekuz aldatu, bidegorriaren erdi-erdian baitago, eta enbarazu handia egiten baitu bertatik igarotzeko.

12.- Paraguai kalea

- Karrilak bereizteko marra eta norantza adierazteko geziak jarri.
- Galtzadarekiko intersekzioetan bidegorri sekzioa mugatzeko marra jarri.

13.- Nafarroako Errege-Erreginen kalea – Kantabrikoaren hiribidea

- Bidearen parterik handienez falta den seinaleztapen horizontala jarri.
- Marra etendunak jarri, intersekzioak mugatzeko, bizikleten igarobidean.

14.- Arambizkarreko parkeko zirkuitoa

- Lurrean ugari diren zulo eta zirrikituak konpondu.
- Garbiketa hobetu.
- Ia ezabatuta dagoen seinaleztapen horizontala berriro pintatu.

15.- Micaela Portilla

- Seinaleztapen horizontala nahiz bertikala jarri, ez baitago.

16.- Prado parkean

- Seinaleztapen bertikala jarri.

17.- Unibertsitateko ibilbidea

- Izardui Komandantearen kaleko zatian seinaleztapena jarri.

18.- Nieves Cano kalea

- Bizikletentzako igarobideak pintatu, oinezkoentzako igarobide semaforodunetan, Nieves Cano eta Izardui Komandantearen kaleetako zatietan.
- Bi bidegorri-zati horien intersekzioa seinaleztatu.
- Erdi ezabatuta dagoen seinaleztapen horizontala berriro pintatu.
- Intersekzioetan bidegorria markatu.

19.- Justo Velez de Elorriaga kalea

- Erdi ezabatuta dagoen seinaleztapen horizontala berriro pintatu.

20.- Juan Ibañez de Santo Domingo kalea

- Seinaleztapen bertikala nahiz horizontala jarri, ez baitago.
- Zenbait lekutan behar bezala ikustea galarazten duten zuhaitzak aldian behin inausi, Ingeniaritza Eskolaren aurrean.

21.- Lasarteko atea

a) **1. zatia**

- Ibilbidearen jarraipena adierazi, bidea bukatzen den lekuan, Carlos Ymbert Eskultorearen kalearen eta berdegunearen artean, Nieves Cano kalean bezala.

b) **2. zatia**

- Karrilaren marrak eta bidegorriaren sekzioa pintatu, intersekzioetan.

c) **3. zatia**

- Seinaleztapen horizontal egokia jarri, ezabatuta dagoena berriro pintatuz.
- Lasarteko atea eta Malizhaeza kalearen elkargunean bide seinale bat jarri, eta bide-marka bat, bidegorriaren nondik norakoa adierazten duena, galtzadan.

22.- San Prudentzio – Uletagaina (Hegoaldeko parke lineala)

- Seinaleztapen horizontala pintatu, ez baitago.

23.- Jacinto Quincoces kalea (Armentigaina)

- Seinaleztapen bertikala jarri, ez baitago.

24.- Iturritxu kalea (Hegoaldeko parke lineala)

- Seinaleztapen horizontala pintatu, zirkulazio norantzak bereiztuz, marra etendunarekin, ibilbide osoan (lehen zatian bakarrik dago).

- Falta den lekuetan seinaleztapen bertikala osatu.

25.- Jauregilanda kalea

- Seinaleztapen horizontala pintatu.
- Seinaleztapen bertikala osatu.

26.- Olarizu

- Seinaleztapen horizontala osatu, lehen zatian bakarrik baitago.
- Berdin, seinaleztapen bertikala.

27.- Jacinto Benavente kalea

a) 1. zatia

- Ezabatuta dagoen seinaleztapen horizontala berriro pintatu.
- Bidegorriaren muga markatu, galtzadako intersekzioetan eta oinezkoentzako igarobideetan.

b) 2. zatia

- Seinaleztapen bertikala nahiz horizontala jarri, ez baitago.
- Zuloak eta artesiak konpondu, eta trenbidearen azpitik igarotzen den zatian argiak jarri.

28.- Arkatxa (Estibalizgo bidegorria)

- Seinaleztapen bertikala nahiz horizontala jarri, gaur egun ez baitago.

II.- Berariazko zeregin-esleipena.

Bizikleta garraiobide gisa sustatzearen inguruko kontu guztiak bere gain hartuko dituen eta halakoez arduratuko den funtzionario bat izendatzea, eta behar den zeregin esleipena egitea. Funtzionario horrek, jakina, mugikortasun arloan egon beharko du kokatua.

Figura hori, *“Bizikleta jaun / andre”* izenaz deitua, badago gure inguruko zenbait udalerritan, hala nola Donostian, eta esperientzia erabat baliagarria da, bizikleta garraiobide gisa sustatzearen eta hirian barrena mugitzeko gainerako moduekiko bateragarritasun arrazoizkoaren inguruko alderdi desberdinen arteko benetako koordinazioa egiteko aukera ematen baitu, eta kaleen kudeaketa arrazionala egitekoa.

Gainera, gai horretan esku hartzen duten gizarte sektoreen arteko komunikazio bizkor eta trabarik gabea ahalbidetzen du, eta hobetu egiten du udalak erantzuteko ahalmena, arlo horretan. Askotan galdu egiten dira bizikleta sustatzeko aukerak, erraz balia litezkeenak, jarraipen koordinatu eta etengaberik egiten ez delako galdu ere, eta jarraipen hori, gogora ekarri berri dugunez, berariazko zeregin-esleipenaren bitartez lortu daiteke.

III.- Jundizko industrialdea eta bizikleta

Aparteko aipamena merezi du Jundizko industrialdeko baliabideak bizikletaz ibiltzeko egokitzeko premiak; izan ere, milaka joan-etorri egiten dituzte eguneko, ordu jakinetan, 7.000 inguru langilek, eta horietako askok eta

askok bizikletan egin ahal izango lukete, errepideetan sarbide eta karril egokituak baleude.

Behar diren aurreikuspenak egin beharko lituzke *GILSA Gasteizko Industria Lurra, SA* udal sozietate publikoak mugikortasun espazio garrantzitsu hori bizikletaren sustapenetik at gera ez dadin. Lan jarduera zentro hori, izan ere, dagoen distantziara egonik eta ordutegien erregulartasuna dela eta, oso egokia da bizikleta mugitzeko medio normalizatu gisa balia dadin, neurri handian.

IV.- Sentsibilizazioa eta herritarren heziketa.

Azkenik, eta honek ere badu garrantziarik, edozein sustapen politikatan aurrera egiten den guztietan bezala, beharrezkoa da herritarren aldetik harrera ona izatea, horiek baitira, azken batean, udal politikaren hartzailleak, eta ezinbestekoa baita horien laguntza edozein udal politikak arrakasta izan dezan. Ezin dugu ahaztu oinezkoen nahiz mugitzeko bestelako medioen erabiltzaileen hainbat ohitura eta jarrera egokitu eta aldatzeko beharra dakarrela berekin bizikletaren sustapenak, eta, beraz, udalak informazio jarduera pedagogikoren bat bideratzea gomendatzen da.

Hori guztia Udalaren epeen eta dauden aukeren barruan.

2.1.4 Euskaltzaindia plazako eskultura

Euskaltzaindia plazako iturria onik zaintzeko beharrari buruzko kexak jaso ditugu sindikoaren bulegoan. Plaza horretan Imanol Marrodán eskuturgilearen “La Inocencia, lo inesperado” eskultura dago

Eskulturak eta oro har hiriko edozein monumentu publiko, zainketa egoera onean mantendu behar dira, izan ere hiriaren irudi ezaugarritsu, ikusi-memoria eta hiriko espazioen erreferentzia baitira.

Sindikoaren edo herritarren defendatzailearen ustez, hiriak osasun egoera egokia izan behar du eta horren haritik bi gomendio orokor egiten dizkio Gasteizko Udalari. LEHEN GOMENDIO OROKORrean Euskaltzaindia plazako iturria eta inguruak egokitzeko eskatzen zaio. BIGARREN GOMENDIO OROKORrean berriz, Konpentsazio Batzarrari "La Inocencia, lo inesperado" eskulturaren jabetza eska diezaiola galdatzen dio Udalari. Hona hemen Sindikoak Gasteizko Udalari helarazitako txostenak:

I.- Arazoaren aurkezpena

Auzo horretako herritar baten kexa jaso dugu Gasteizko Euskaltzaindia plazan dagoen “*La inocencia, lo inesperado*” eskulturaren inguruan, eta orobat izan dugu Imanol Marrodán artistak berak eskultura onik zaindu eta mantentzeko beharra dela agertutako kexen berri.

Bertan izan gara, artelana eta inguru guztia begiztatzen, eta hauxe ikusi dugu: artelana dagoen urmaela oso egoera txarrean dagoela garbitasunari dagokionez, eta goroldioz, lirdingaz, lurrez eta zikinkeriaz josia ageri dela, eta orobat ageri direla bertan baldosa eta adreilu hondarrak. Argiztapen sistema bat du eskultura dagoen urmaelak, artelanaren beraren parte baita.

II.- Azterketa.

Artelan oro da aparteko produktu bat. Salerosketaren bitartez edozein produkturen gainean lortzen den jabetza-eskubideak ez du eduki bera hartzen artelan baten kasuan. Jabetza erosi izanak ez ditu deusezten, ez indarrrik gabe uzten sortzaile edo artistaren eskubideak –jabetza intelektualala eta egile eskubidea–, eta horien bidez eusten dio hark artelanarekiko loturari.

Artelan baten jabetza besteren esku utzita ere, zenbait eskubide moral izaten jarraitzen du artistak, Jabetza Intelektualari buruzko 1/1996 Legean jasota dagoenez; besteak beste, artelanarekiko errespetua galdatu ahal izatekoa eta haren egile den aldetik bere osperei kalterik egin dakiola galaraztekoa (14.4. artikulua).

Artelan bat erosten duenaren betebeharrak gogora ekartzen dizkiguten oharpen horiek egoki zaizkigu, kontuan hartzen dugularik jabea administrazio publiko bat dela, eta aztergai dugun artelana monumentu publikoa, hau da, hiriaren beraren irudi enblematikoa ere bai neurri batean, hirigune horren erreferentzia, oroimenean errotua.

Ildo horretatik, modu praktikoan erakusten du gure hiriak, Gasteizek, bere museoen – Arte Ederren Museoa, Artium Museoa...– kalitatea nahiz apaintzen duten eskultura eta monumentuen ugaritasuna direla medio, sorkuntza artistikoarekin arduratua dagoen hiria dela, eta arteak zeregin handia betetzen duela bere bizitzan eta hiri gisa duen kontzientziaren bilakaeran, eta berezko duen moduan laguntzen duela haren bilakaera moralean, gure hautamena edertasunerako heziz.

Delako obra, “*La inocencia, lo inesperado*”, espazio publiko zabalean dago gainera, kalitate urbanistiko handiko lekuan, Euskaltzaindiaren plazan, hain zuzen ere.

Artelana bera, “*La inocencia, lo inesperado*” izenekoa, egoera guztiz onean dago, baina obra dagoen urmaela, nolabait eskulturaren abiapuntu dena, zaindu gabe dago, erabat, eta, gure ustez, erraz konpon liteke egoera hori, eta, bide batez, obrari berari eta ingurune guztiari duintasuna eman.

Uste dugu zaindu gabe egote hori ez datorrela bat gure hiriko estandarrekin, ezta artelana errespetatzeko konpromisoarekin ere, edozein subjektibotasun artistiko gorabehera.

Guzti hori aintzat harturik, Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Araudian aurreikusitako prozedurei jarraiki eta bertan adierazitako eraginarekin, hona gure **GOMENDIOA:**

III. Gomendioa

1.- “*La inocencia, lo inesperado*” eskultura dagoen urmaela garbitu dadila, eta garbitze lan horiek udalaren garbiketa zerbitzuen ohiko eta aldian aldiko jardueraprotokoloen baitako zeregintzat jo daitezela berehalakoan.

2.- Eskulturak duen argiztapenari dagokionez, argiztapena duten hiriko beste eskulturamultzo batzuei ematen zaien tratamendu bera eman dakiola.

Hona hemen Sindikoak Udalari egiten dion **errekerimendua:**

Euskaltzaindia plazako iturriaren egoera txarra zela eta Udalari egin genion gomendioaren haritik, eta egindako kontsultekin bat, hauxe adieraz dezakegu: bertan dagoen Imanol Marrodanen "La Inocencia , lo Inesperado" eskultura oraindik Udalak hartu gabe dagoenez, ezin izan du iturriaren zainketa lanak erabat bere gain hartu.

Hala ere, bulego honetan aztertu ditugun agirietan ikus daitekeenez (Cfr. J.A-ren gutuna, N.E. S.L-ren ordezkaria), 2003ko otsailaren 24an eskultura amaitu eta bertan jarri zen egoki, eta obrari amaiera ematen dion egiaztagiria eman zitzaion Konpentsazio batzarrari, bertan elkargoaren oniritzia, kalitateen egiaztagiria eta gainontzeko agiriak zirelarik.

Urtebete pasa da egileak lana Konpentsazio Batzarrari eman zionetik. Hori kontuan hartuta, 2003ko azaroaren 14an egin genuen GOMENDIOAri jarraipena ematea egokitzat jo dugu, eta ondorioz ERREKERIMENDUA egitea. Hain zuzen ere Konpentsazio Batzarrari proposatzea eskultura-multzo hori udalari eman diezaiola, aldez aurretik Bide Publikoen Zerbitzuko ingeniari buruak egindako txostenean adierazitako akatsak zuzen ditzala eskatuta. Horrela eginez gero, eskultura hori hiriko kultur eta material alorreko ondare izatera pasa daiteke normaltasun osoz.

2.1.5 Gasteizko Alde Zaharreko kaleen izenak

Hiriko kaleen izenak bideak ezagutzeko modua da, topografia zerrenda eta baita leku publikoak identifikatzeko era ere. Hiritar batek egindako kexan adierazten zuenez, Gasteizko Alde Zaharreko kale-xafletan akatsak daude. Kale-xaflak bi hizkuntza ofizialetan egoteko

eskatu beharra dago, euskaraz eta gaztelaniaz, izan ere, horrela galdatzen baitu normalkuntza linguistikorako legeak.

Hortz, sindikoak edo herritarren defendatzaileak GOMENDIO OROKOR BAT helarazi dio Gasteizko udalari. Bertan adierazten denez, Gasteizko alde zaharreko kale-xafla guztiak bi hizkuntzetan –euskaraz eta gaztelaniaz– jartzeko eskatu dio, kaleen izendegiak erabiltzean berdintasuna eta zuzentasuna bermatze aldera:

Arazoaren aurkezpena

Vitoria-Gasteizko kale izendegiko akatsak zuzendu eta kaleen euskal izenak onartzea erabaki zuen Udaleko Gobernu Batzordeak 1999ko martxoaren 12an, hartara hiriko kaleen izenen erabileran bateratasuna bermatzeko, erakundeei nahiz herritarrei zegozkienetan.

Udaleko Kultura Sailaren txostenaren ildotik hartu zen erabaki hori, eta txostenak, berriz, Udaleko Euskara Zerbitzuak Euskaltzaindiaren eta GEU elkartearen aholkularitza eta laguntzarekin egindako lana zuen oinarri.

Hala ere, gaurko egunez, hainbat kexa jasoak gara Erdi Aroko hiriguneko zenbait kale oraindik ere udal erabaki horretara egokitu ez direla eta. Hauek dira, hain zuzen ere:

- 1.- “*Machete Plaza*”, honela jarri behar da euskaraz “*Aihotz plaza*”.
- 2.- “*Los Arquillos*” (ibilbidea eta eskailerak), honela jarri behar da euskaraz: “*Arkupeko ibilbidea*” eta “*Arkupeko eskailerak*”.

- 3.-“*Barruko Kale Berria*”, honela jarri behar da euskaraz: “*Barnekale Berria*”.
- 4.-“*Pintoreria Kalea*”, honela jarri behar da euskaraz: “*Pintore kalea*”.
- 5.-“*Cuchillería Kalea*”, honela jarri behar da euskaraz: “*Aiztogile kalea*”.
- 6.-“*Kanpoko Kale Berria*”, honela jarri behar da euskaraz: “*Kanpokale Berria*”.
- 7.-“*Sandroke Kantoia*”, honela jarri behar da euskaraz: “*San Roke kantoia*”.
- 8.-“*Herrería Kalea*”, honela jarri behar da euskaraz: “*Errementari kalea*”.
- 9.-“*Correría Kalea*”, honela jarri behar da euskaraz: “*Hedegile kalea*”.
- 10.-“*Zapatería Kalea*”, honela jarri behar da euskaraz: “*Zapatari kalea*”.
- 11.-“*Mateo de Moraza Kalea*”, honela jarri behar da euskaraz: “*Mateo Moraza kalea*”.
- 12.-“*Escaleras del Machete*”, honela jarri behar da euskaraz: “*Aihotz plazako eskailerak*”.

Hiriko kaleen izendegia, kaleak identifikatzeko sistema bat ez ezik, oroimen kolektiboaren formetako bat ere bada, gure topografiaren nolabaiteko zerrenda eta espazio publikoen identitatearen adierazgarri. Gure kasuan, bi hizkuntza ofizial izanik, ezinbesteko betebeharra dugu errotulazio ortografiko egokia egitea.

Normalkuntza ortografiko eta gramatikala lortzeko prozesu neketsua jasan behar izan du euskarak XX. mendearen bigarren erdian, Euskaltzaindiaren gidaritzapean, eta aginte publiko guztiek zor diote begirunea horri. Bestalde, bi hizkuntzetako batean –kasu honetan euskaraz– errotulazioa ezin da izan bestean baino kaskarragoa, eta kalitate arau soil gisa galda daiteke zuzentasun ortografiko bera bi hizkuntzetan, zerbitzu publikoa izaki.

Gainera, Udal Kazetan argitaratu zen “*Vitoria-Gasteiz hiriko kale izendegia*” 2000ko otsailaren 19an, eta udalaren web-orrian ere jarrita dago. Horregatik, Udaleko Gobernu

Batzordearen 1999ko martxoaren 2ko erabakian adierazitako arrazoien ildotik, kale izenen erabileran bateratasuna eta zehaztasuna bermatze aldera, gure kaleetako errotulazioa kale izendegiko izenetara eta horien ortografia zuzenera egokitu beharra dago, hala hizkuntza ofizial batean nola bestean.

Ondorioak

Hortaz, 2001eko azaroaren 28ko Araudian aureikusitakoaren ildotik, eta bertan adierazitako ondorioekin, GOMENDATZEN dut ezen, aurrekontuek aukera ematen duten neurrian eta arrazoizko epean, kale hauen errotulazioan atzemandako akatsak zuzendu ditzala udalak:

- 1.- "*Machete Plaza*", honela jar dadila euskaraz "*Aihotz plaza*".
- 2.- "*Los Arquillos*" (ibilbidea eta eskailerak) honela jar dadila euskaraz: "*Arkupeko ibilbidea*" eta "*Arkupeko eskailerak*".
- 3.- "*Barruko Kale Berria*" honela jar dadila: "*Barnekale Berria*".
- 4.- "*Pintorería Kalea*" honela jar dadila: "*Pintore kalea*".
- 5.- "*Cuchillería Kalea*" honela jar dadila: "*Aiztogile kalea*".
- 6.- "*Kanpoko Kale Berria*" honela jar dadila: "*Kanpokale Berria*".
- 7.- "*Sandroke Kantoia*" honela jar dadila: "*San Roke kantoia*".
- 8.- "*Herrería Kalea*" honela jar dadila: "*Errementari kalea*".
- 9.- "*Correría Kalea*" honela jar dadila: "*Hedegile kalea*".
- 10.- "*Zapateria Kalea*" honela jar dadila: "*Zapatari kalea*".
- 11.- "*Mateo de Moraza Kalea*", honela jar dadila: "*Mateo Moraza kalea*".
- 12.- "*Escaleras del Machete*" honela jar dadila: "*Aihotz plazako eskailerak*".

Beste edozein desberdintasun egokituz gero kalean jarritako izenen eta 1999ko martxoaren 12an onartutako kale izendegiaren artean, azken hori aintzat harturik zuzendu dadila, Udaleko Euskara Zerbitzuak Euskaltzaindiaren eta GEU elkartearen laguntzaz egindako txostenean jasotakoak irizpideak betetzen direlarik.

2.1.6 Gizarte Larrialdietarako Laguntzei buruzko txostena

Hainbat jende etorri da Sindikoaren bulegora gizarte larrialdietarako laguntzak murriztu egin zaizkiela adierazteko, hain zuzen ere 2003ko urriko, azaroko eta abendukoak. Horren ondorioz beharrezko dituzten gastuei aurre egiteko ahalmena gutxitu egin zaie. Gizarte Larrialdietarako laguntzak txirotasun egoera larria bizi duten pertsonen babes emateko dira, batez ere. Zehatzago esanda, ohiko edo aparteko izaera duten gastu zehatzei aurre egiteko, diru laguntza gisa ematen diren prestazio ekonomikoak. Ez dira aldian behingoak izaten.

Gizarte Larrialdietarako Laguntzak Gasteizko udalak duen aurrekontuaren menpe daudenez, hainbat izan dira diru laguntzak jasotzen dituztenen egoera aldatzeko zioak; hala nola, gero eta jende gehiagok jasotzea laguntza horiek; izan ere, diru laguntza hauen benetako premia zeintzuk duten erabakitzeke ez da irizpiderik, eta gero eta jende gehiagok eskatzen du. Ondorioz, laguntza hauek xede duten elkartasunaren sistemaren porrota sortzen da.

Gizarte Larrialdietarako Laguntza hauek jasotzen dituzten pertsonen egoera aldatu egin denez, sindikoak **TXOSTEN** bat helarazi dio Gasteizko Udalari,

kaltetuen egoerari aurre egin ahal izateko neurriak har ditzan eskatuz. Hona hemen txostena:

GIZARTE LARRIALDIETARAKO LAGUNTZEI BURUZKO TXOSTENA

I.- GLLen lege oinarriak

Gizarte Bazterkeriaren aurkako maiatzaren 22ko 12/1998 Legeak zioen adierazpenean ezartzen duenaren arabera, bazterkeriari aurre egiteko politikek pobrezia egoera larrian dauden giza taldeen baitan ageri diren egoera guztiei egin behar diete aurre, jatorria zein den kontuan izan gabe, hau da, langabeziagatik dela, soldata txikiak direla, familia desagitea dela, Egoera irregularrean dauden etorkin taldeetako kidea izatea dela, gaixotasuna dela, minusbalia edo ezintasuna, alkohol-zaletasuna, drogazaletasuna edo antzeko beste edozein arazo.

Bazterkeria eragiten duten arrazoiak egiturazkoak direnez, ondorioek bata bestearen gainean pilatzeko joera dutenez, eta hainbat eratan agertzen denez, gizarteak, orokorrean hitz eginda, eta administrazio publikoek bereziki, arazoari aurre egin nahi badiote, jarduteko modu zabala abiarazi behar dute, bi helburu dituztela: batetik, egituran ezinbesteko aldaketak egiten hasi eta bideratzea, ezinbestekoak baitira gertakari hori gutxika-gutxika desagerrarazteko; bestetik, bazterkeriako prozesu eta egoerek gizartean dituzten ondorio larriak arintzea epe laburrean.

Jarduteko modu horrek, nahitaez, arlokako hainbat neurri izan beharko ditu, gizarteko era guztietako esparruetara iritsi ahal izateko. Euskal Autonomia Erkidegoan hainbat ahalegin egin dira, eta guztiak ere oinarritzko osagaiak dira bazterkeriaren aurka

jarduteko eta pobrezia eragiten duten arrazoiak desagerrarazteko. Hauek aipatuko ditugu: enpleguaren aldeko politika eta, zehazkiago esanda, langabeziari aurre egiteko ekimenak; lanbide-heziketa sustatzeko politika (prestakuntza mota eta maila lan-merkatuak dituen premiei egokitzeko asmoz); etxebizitza sozialak ugaritzeko politika; eskolan integratzeko ekintzak; osasun-zerbitzuak denen eskura jartzea edo gizarte-babeseko laguntzak sendotzea. Ikuspegi orokor horretan Gizarte Larrialdietarako Laguntzen funtsezko helburua pobrezia egoera larrian dauden pertsonen bizitokia eskuratzeko aukera eskaintzea da.

Gizarte Larrialdietarako Laguntzetarako oraingo sistema Euskal Autonomia Erkidegoan abiarazi zen, 1989an, «Euskadi 1993ko Europan» egitarauaren barnekoa zen Pobreziaren aurkako Plan Integralarekin. Gainerako autonomia erkidego gehienek legeriek plan horri jarraitu diote, eta eredugarri gertatu da abian jartzeko azkartasunagatik eta lortu duen eraginkortasunarengatik, ia berehala eman baitie asistentzia onuradun gerta zitezkeen herritarrei.

Gaur egun Gizarte Larrialdietarako Laguntzen sistema Gizarte Bazterkeriaren aurkako Legean arautzen da. Bertan finantzazio erregimen arrunta zehazten da:

1.– Gizarte laguntzaren arloan zuzeneko ekintzak aurrera eramateko eskumena duenez, **Eusko Jaurlaritzak finantzatuko ditu lege honetan araututako laguntza ekonomikoari aurre egiteko beharrezko diru-baliabideak.**

2.– Foru-aldundiek eta udalek, urtero, diru-laguntzak eta gizarte arloko gainerako tresnak kudeatzeko eta lege honetan jasotako eskumenak aurrera eramateko beharrezko diru-baliabideak jasota utziko dituzte aurrekontuetan.

3.– Gizarte larrialdietarako laguntzak finantzatzeko diru-baliabideak Eusko Jaurlaritzak aldundiei eta aldundiek udalei nola banatu jakiteko irizpideak Gizarteratzeko Erakunde Arteko Batzordeak aztertuko ditu. Era berean, eta beharrezkoa bada, irizpide horiek aldatzea ere proposatuko du.

Finantzazio oinarri horiek Eusko Jaurlaritzak Gizarte Larrialdietarako Laguntzak arautzeko landu zuen Dekretuan zehazten dira, ondoren adieraziko den moduan.

Legea garatzen duen Dekretuak honakoa ezartzen du:

32. artikulua.– Finantziazioa.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan, urtero-urtero, Gizarte Larrialdietarako Laguntzak ordaintzeko behar beste baliabide ekonomiko gorde beharko da.

2.– Foru-aldundiek urtero zehaztuko dituzte, bakoitzak bere aurrekontuetan, Eusko Jaurlaritzatik transferitzen diren zenbatekoak.

3.– Udalek, urtero-urtero, Gizarte Bazterkeriaren aurkako Legeak eta dekretu honek ematen dizkieten eskumenak gauzatzeko behar beste baliabide ekonomiko gorde beharko dute beren aurrekontuetan (lege hori maiatzaren 22koa da, eta 12/1998 zenbakia dauka).

II.- Gizarte larrialdietarako laguntzen azterketa.

Gizarte larrialdietarako laguntzak honela daude definituta legean: aldian aldikoak ez diren diru-laguntzak dira, finalistak, gastu zehatzei aurre egiteko helburua dutenak. Ohikoak edo ohiz kanpokoak izan daitezke gastu horiek, eta gizarte-bazterkeria eragin dezaketen egoerei aurre egin, egoera horiek konpondu edo saihesteko beharrezkoak. Besteren esku jarri ezinak dira, gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrerak –orain Oinarrizko Errenta deritzo– dituen muga berekin.

Ohartarazi behar da Legearen arabera gizarte larrialdietarako laguntzak eskuratu ahal izateko, aurrekontuan behar beste diru egon beharko dela, eta, gainera, gizarte-zerbitzuek frogatu beharko dutela benetako premia dagoela.

Egoera halakoa izanda, legeak oinarrizko eginkizuna onartu die oinarrizko gizarte zerbitzuek egingo dituzten balorazioei (laguntzak eman edo ez erabakitzea dela eta), hor ikusiko baita ematea bidezkoa den eta zenbateko laguntza emango den. Hots, Udalaren berezko eskumena horixe da, oinarrizko gizarte zerbitzuei beren gizarte esku-hartzeko lanean dagokiena, sortzen den premia egoera bakoitza balioetsiz eta horien jarraipena eginez, eta beharrezko zenbatekoa zehazten kasuan-kasuan.

Gizarte Bazterkeriaren aurkako Legea apirilaren 20ko 199/1999 DEKRETUAN garatzen da, zeinak Gizarte Larrialdietarako Laguntzak arautzen baititu. Bertan honakoa ezartzen da:

Eusko Jaurlaritzaren barruan gizarte-zerbitzuetako eskumena duen sailak ezarriko ditu, urtero, agindu bidez, gizarte larrialdietarako laguntza gisa emango diren urteko gehienezko kopuruak [...]

Laguntza ematea ez da administrazio lan hutsa, aldez aurretik egoera bakoitza egiaztatu eta balioetsi behar baita. Horri dagokionez Laguntzei buruzko Dekretuak honakoa ezartzen du 15. artikuluan:

Gizarte Larrialdietarako Laguntzarik ematekotan, oinarritzko gizarte-zerbitzuek egiaztatu beharko dute benetako beharra dagoela, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan badagoela egintza horretarako diru-kopuru bat izendaturik.

Legearen arabera, kasuak banan-banan jarraitzea da sistemaren funtzionaltasunaren oinarria; izan ere, Laguntzei buruzko Dekretuaren 29. artikulua honakoa dio:

Euskal Autonomia Erkidegoko udalak gizarte larrialdietarako laguntzen onuradunen erreparaoan egongo dira, jarraian, jakiteko laguntzak, benetan, diren horretarako erabiltzen diren, eta jasotzeko orduan bete behar ziren baldintzak -halakorik baldin bazegoen behintzat- orain ere betetzen diren jakiteko.

Nolanahi ere, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Gaietarako Sailak zuzentzen du Gizarte Larrialdietarako Laguntzen sistema oro har, eta KEXAREN BAT aurkeztu nahi dutenek badute haiengana jotzeko aukerarik, dekretuan ezarritakoaren arabera:

30. artikulua.– Errekurtsoak eta kexa-idazkia.

1.– Gizarte larrialdietarako laguntzak eman nahiz ukatzeko ebazpenen aurka, eta eman behar ez ziren laguntzak itzularazteko prozeduretan hartzen direnen aurka, indarrean den legedian zehazturiko errekurtsu administratibo eta jurisdikzionalak aurkez daitezke.

2.– Interesdunek kexa arrazoitu bat egiteko aukera ere badute, errekurtsu horiek aurkeztu nahiz ez aurkeztu. Eusko Jaurlaritzan gizarte-zerbitzuen eskumena daukan sailari egin beharko diote.

Sail horren barruan gizarte-zerbitzuen eskumena duen organoari zuzendu beharko zaio kexa-idazkia. Kexaren zergatiak ere azaldu beharko dira idazkian, baina errekurtsu administratibo edo jurisdikzionalak eragin ditzaketen gorabehera berberak ezin dira halako arrazoitzat argudiatu.

Hartu beharreko neurriak hartarako eskumena duen organoak hartuko ditu, baina hori bai, kexa zer-nolakoa, neurriek ere haren arabekoak izan beharko dute.

III.- Gizarte ikuspegia.

Laguntzen eskaera gero eta azkarrago hazi da azken urteetan: 2003ko lehen urte erdian bakarrik %48 hazi da Gasteizen; Eusko Jaurlaritzak ematen dituen laguntzen finantzazioa, berriz, %4 baino ez da hazi.

Ez diogu faktore bakarrari egotzi nahi egoeraren jatorria, baina bada arrazoi ukaezin bat: azken bi urteetan, laguntzen eskaeran izandako igoera gero eta immigrante gehiagoren etorrerak sortu du neurri handi batean, lan merkatuan sartzeko dituzten zailtasunak direla eta premia handia baitute. Paradoxikoa bada ere, lan merkatuan sartzeko zailtasunen arrazoietakoa bat Atzerritarren Legean lan txartela lortzeko ezinbestean ezarritako kupo sistemaren urritasun eta zurruntasuna da. Dena dela, etorkinak ez dira iristen laguntzak jasotzen dituzten pertsona guztien %30era.

Itzal handiko zenbait adituren ustez gobernu zentralak ezarritako immigrazio kupoaren urritasuna da etorkinen bazterketaren arrazoietakoa bat. Esaterako, **Juan Diez Nicolás jaunak**, Romano Prodiaren taldean immigranteak Europar Batasunean nola integratu aztertzeaz arduratzen den kideak honakoa adierazi du gure artean: *“Egiaren aldekoa naiz. Hona urtean 150.000 edo 200.000 (etorkin) iristen badira, ez du zentzurik 30.000ko kupo batez hitz egiteak. Errealitatera egokitu behar dugu, eta orain kopuru hori hartzen ari bagara beharrezkoa izango da. Nahiago dut iristen denak lana legearen barruan egitea, lanik aurkitzen badu. Nahikoa zaila da lana izatea gainera eragozpen gehiago jartzeko. Eta begien bistakoa da hobe dela herrialde batean dauden bitartean lanean aritzea, horrela delitutan hasteko arriskua gutxitzen baita. Areago, herrialdeak egoismoagatik ere egin beharko lukeela uste dut: haien legearen barruan badaude, osasun txartelaren jabe izango dira, haien seme-alabak eskolatuta egongo*

dira, alegia, prestazioak jasoko dituzte, beraz, onena Gizarte Segurantzari kotizatzea izango da, eta zergak ordaindu behar izateko beste irabazten badute hobe”.

Lurraldera nola iritsi diren alde batera utzita, Espainian errotutako immigranteen egoera zentzuz erregularizatu beharra hiriaren eskumenez gaindikoa da, baina zalantzarik gabe badu eraginik hirian eta bertako gizarte politiketan. (Cfr. ***La inmigración irregular. Derechos y deberes humanos.*** Gema Varona Martínez. ARARTEKO. 1993)

Bestetik, EAEko udalerrietan banatzen diren gizarte larrialdietarako laguntzen artean aldeak daude: horrek desorekak sortarazten ditu, eta udalerrri batetik besterako erroldatze aldaketak. Eusko Jaurlaritzak, horretaz jakitun, laguntzak berdintzeko erak aurkitu beharra aipatu du, bai irizpideei bai laguntzak lortzeko aukerei eta horien zenbatekoei dagokienez. Gizarteratzeko Euskal Plana argitaratu behar du Gobernu Batzordeak laster, eta bertan emango dira helburu horiek erdiesteko argibideak.

Gizarte larrialdietarako laguntzak direla eta Gasteizen gertatutakoa ezin da ulertu Euskal Autonomia Erkidegoan edo Espainian gertatzen dena aintzat izan gabe, Gasteiz ez baita irla bat. Argitaratu diren berrien arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan ia 75.000 pertsonak (edo 38.000 familiak) jasotzen dute oinarritzko errenta “pobrezia larria” deritzon egoera arintzeko. Horietatik, 25.000 inguru GLLen jasotzaile potentzialak dira; behar zehatzetarako laguntza horiek gehienetan etxebizitza alokatzeko ematen dira. Baina 16.500 pertsonak bakarrik jasotzen dituzte. Orain arte (2003ko urria) ez da eskaerarik ezetsi Eusko Jaurlaritzaren ekarpenak gutxi izateagatik, Aldundiak eta Udalak egiten baitzieten aurre Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretako ekarpenekin ordaintzen ez ziren eskaerei.

Vitoria-Gasteizko Udalak, bestalde, badu *Udaleko Gizarte Laguntza Programa* bat, 1999ko ekainaren 11ko Ordenantzak arautua. Hainbat laguntza aurreikusten dira bertan:

Etxebizitzetarako diru-laguntzak: pisu alokatuen bermeak ordaintzeko, egozketak eragozteko, oinarrizko konponketak egiteko, zubi-laguntzak.

Familian giro egokia ez duten gazteentzako laguntzak.

Beste zenbait laguntza, aldian aldikoak ez diren eta gizarte babeseko beste sistema batzuek ordaintzen ez dituzten gastuetarako: protesiak, aparteko gastuak, betaurrekoak, botikak, audiofonoak...

Diruaz bestelako laguntzak ere badaude: *jantoki soziala, hiriko garraioa doan edo Udalaren kirol instalazioetan sartu ahal izatea.*

IV.- Gauzatzeko eta kontrolatzeko zailtasunak

Laguntzen eskaera hainbeste hazi denez gizarte langileek denbora luzea eta ahalegin ugari eskaini behar izan diete lan burokratikoari, balioespen eta jarraipen lanen kaltean. Horrenbestez, GLLak tramitzeko prozesua aldatu behar da, eta alderdi administratibo batzuk arindu; bai araudietan bai ezartzeko eskuliburuan erabiltzen diren kontzeptu batzuk ere argitu, erraztu eta zehaztu egin behar dira.

Udalaren Gizartegintza Sailaren aburuz, gaur indarrean dagoen Gizarte Larrialdietarako Laguntzen sisteman benetako premiarik ez dagoen egoerak antzemateko garrantzitsuak

diren zenbait alderdi ez daude aski zehaztuta, eta ez dago GLL ukatzean azalpen egokiak ematea erraztuko duen irizpiderik. Honelako egoerak gertatzen dira:

- Ikasketak direla eta gurasoen etxean bizi ez diren ikasleak, nahiz eta beren benetako elkarbizitza unitatea hura izan. Egoera hori kontrolatzea zaila da.
- Kontratu formula ezberdinen bidez lotuta dauden pertsonak, benetan izatezko bikotea osatzen dutenek, prestazioak jasotzen dituzte nahiz eta horretarako eskubiderik ez izan edo eskubide mugatua izan.
- Bizikidetzako unitate ekonomiko bera osa dezaketen senideen arteko kontratuak ez onartzea.
- Jendea pilatuta bizi den etxebizitza edo osasun egoera egokian ez dagoena ez onartzea. Pilaketaren definizio argia behar da, eta etxebizitzaren neurriak jakitea, katastroaren edo erroldaren bidez, etxez etxeko bisiten eta beharrezko bada Osasun eta Kontsumo Sailaren ikuskapenen bidez.
- Jarduera Ekonomikoen Zergan alta emanda ez dauden ostatuak ez onartzea, edo legeak eskatzen dituen baimenak egunean ez dutenak.
- Proposamenik ez onartzea etxebizitzaren tamaina eta bertan erroldatuta dauden pertsonak –laguntzarik jasotzen dutenak izan ala ez– kontuan hartuz pilaketa dagoela uste izateko arrazoirik bada. Etxebizitza batek duen gela kopurutik gorako kontraturik (maizter bat baino gehiago, bigarren alokairua, geletako kontratuak) ez onartzea.
- Bigarren alokairuko kontratuetan, alokairu osoaren zenbatekoa bider erroldatutako guztiak egitea (familiak izan ezik), GLLrik jaso zein ez.

Autonomia Erkidegoko Udalen artean lortu behar den homogeneousazioa dela eta, Udalaren Gizartegintza Sailak uste du, bere esperientzian oinarrituz, Euskal Autonomia

Erkidegoaren Aurrekontu Nagusietan izendatutako baliabideak banatzeko irizpideei beste batzuk gehitu beharko litzaizkiekeela, hala nola:

- Udal bakoitzak aurreko urtean eman dituen GLLen kopurua eta ordaindu duten kopuru osoa. Alde horretatik, zentzuzkoagoa dirudi ahalegin ekonomiko handiagoa egiten duten udalak saritzea, ezen ez bat ere egiten ez dutenak.
- Udalerri bakoitzeko etorkin kopurua, erroldaren arabera.
- Gizarte zerbitzuetan arreta ematen zaien etorkinen proportzioa, prestazio bakoitzean (GLL, oinarrizko errenta, etab.) duten pisua zehaztuz.
- Etxebizitzen eta alokairuen prezioa udalerrien arabera (etxebizitzaren m²-ko prezioa salmentan eta alokairuan)
- Beste urte batzuetan erabili diren pobrezia indizeak berraztertzea, eta langabezia indizearen barruan gazteen eta emakumeen langabezia bereiztea.
- Ehunekoak beste era batean banatzea, honen arabera: langabezia eta oinarrizko errenta jasotzen dutenen portzentajeari, % 30; bi berriei % 15 eta kotizatu gabekoen pentsioak jasotzen dituztenei % 10.
- Pobrezia batez ere hiri eremuetan biltzen dela kontuan hartzea.

V.- Ordainketak direla eta

Urtero, Gizarte Laguntzak berritzeko unea heltzen denean arazoak sortzen dira udalen kudeaketa ekonomikoan, berritzeko prozesuak azkar agindu behar baitituzte oraindik Eusko Jaurlaritzaren ekarpenak jaso ez dituztenean. Beraz, komenigarria

litzateke Eusko Jaurlaritzak konturako zenbateko batzuk ematea banaketa agindua onetsi bitartean, jasotzaileei kalte handia ekarriko lieketen atzerapenak saihesteko.

VI.- Ondorioak

Horregatik guztiarengatik, honako GOMENDIOAK egiten ditugu, Vitoria-Gasteizko sindiko edo herritarren defendatzaileari buruzko araudian (2001eko irailaren 28koa) ezarritakoaren ildotik:

1.- Vitoria-Gasteizko Udalak auzian esku duten gainerako administrazioei (Eusko Jaurlaritza eta Arabako Foru Aldundia) finantza ahalegin ekitatibo eta proportzionala egin dezatela eskatu beharko lieke, orain arte gure artean erabili izan den elkartasun aktiboaren printzipioari eutsi ahal izateko; izan ere, Gasteizen kasuan hiri gisa duen ezaugarrietako bat dela esatera ausartuko ginateke.

Kontuan izan behar da gizarte larrialdietarako laguntzen murrizketak gizarte talde ahulenei eragiten diela, zeinak, legeak berak dioen bezala, pobrezia egoera larrian baitaude hainbat arrazoi dela medio.

Gure ustez inkongruentzia da gizarte larrialdiko egoeran dauden talde horietaz ez arduratzea herri agintariak aldi berean aurrerapen ekonomikoaren eta gizarte dinamismoaren irudia eman nahian dabiltzanean, bizitzaren alderdi guztietan inbertsio handiak eginez: erakundeen publizitatea, kirola, kultura, jai eta olgeta jarduerak, kaleko argiak eta altzariak, herritarren parte hartzea, turismoa, merkataritza, hiri garapena, garraioa eta abar.

Ikuspuntu sozial batetik, hobe litzateke Eguberriak direla eta aurreikusi diren argiteria eta gastu bereziak alde batera uztea (jaiaren zentzuarekin berarekin ere baterago letorke) hiriko talde baztertuenei bizitokia izateko aukera ematen dieten laguntzak ukatzea baino.

Ikuspuntu sozialetik Gizarte Larrialdietarako Laguntzak aurrekontu ezagatik murrizteak, legean aurreikusita dagoen aukera izanda ere, gizarte elkartasuneko sistemaren porrota dela dirudi. Areago, ikuspuntu psikologiko batetik ustekabeko murrizketa hori dramatikoagoa gertatzen zaie eragindakoei aurrekontu ezagatik hasieratik laguntza ukatu izana baino. Bizipen dramatikoagoa izan daiteke lortutako laguntza galtzea laguntza berria ukatzea baino.

Argitaratu denaren arabera, une honetan laguntza guztiak ordaindu ahal izateko aurrekontuan falta den kopurua 1.300.000 euro ingurukoa da (o. edo h.e.). Zenbateko handia da, baina ez eskuraezina, ahalegina zerikusia duten hiru administrazioen artean era ekitatibo eta proportzionalean banatzen bada.

Gure iritziz, ATZERAKO ERAGINEZ bada ere, alde hori era ekitatiboan ordaindu ahal izateko hiru administrazioek hartu beharko lukete bere gain; Eusko Jaurlaritzak, berriz, erantzukizun berezia izan beharko luke, ezin baitugu ahaztu Eusko Legebiltzarraren lege baten aginduz hartzen duela bere gain Estatutuan gizarte laguntzaren alorrean zuzenean jarduteko ematen zaion eskuduntza eta hori dela medio berari dagokiola Gizarte Bazterkeriaren aurkako Legean araututako diru laguntzak ordaintzeko **behar diren diru-baliabideak finantzatzea.**

Hori guztia ikusirik, badirudi ez direla beharrezko baliabide ekonomikoak eman.

2.- Dena dela, hori ezinezkoa bada Udalak dituen gainerako gizarte baliabideei (Harrera Sozialerako Udal Zentroa, Aterpea...) al bait etekin handiena atera behar die, arrazoia edozein dela ere premia larriko egoeran dagoen INOR ez dadin bizitokirik gabe gera gizarte larrialdietarako laguntzak murriztearen ondorioz.

3.- 2004 urtean gizarte larrialdietarako laguntzen sistema mantentzeari dagokionez, gure iritziz Eusko Jaurlaritzak laguntzetarako ematen duen aginduan Udalaren Gizartegintza Sailak egindako ohartarazpenak (4 eta 5. puntuetan aipatuak) kontuan hartu beharko lituzke.

4.- Nolanahi ere den, Vitoria-Gasteizko Udalak eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek gizarte laneko irizpide profesionalekin egin beharko lukete laguntzak balioetsi, kudeatu eta jarraitzeko lana (Cfr. *Intervención comunitaria en Euskadi. Acercamiento a la acción social sobre la exclusión*. Jorge Morquecho Ibáñez. ARARTEKO. 1999) eta horretarako ezinbestekoa dirudi hiriak dituen gizarte langile baliotsuei lan burokratiko hutsen zama gainetik kentzeak, beren ahaleginak lagundu behar dituzten pertsonen egoera pertsonala eta soziala ezagutzera bidera ditzaten, haiekin harremanak izateko bideak ezartzera eta gizarteratze prozesuak tresna egokien bitartez ahalbidetzera. Bestetik, egoera pertsonalak kroniko bihurtzea eragotzi behar da ahal dela, eta beharrezkoa bada jasotzen diren prestazioetan (EB eta GLL) eta epeetan mugak ezarri. Azkenik, gizarte larrialdietarako laguntzak jasotzea beste administrazio batzuek eskaintzen dituzten bestelako baliabideekin (oinarrizko errenta, BIZIGUNE, PAGAMI...) eta Udalak berak, Arabako Foru Aldundiak edo Eusko Jaurlaritzak prozesu horiek ahalbidetzeko sortzen dituzten politika aktiboekin lotu behar dira.

5.- Geroan ematen diren laguntzei dagokienez, nahitaezkoa da 2004 urte osoan zehar, bai eta hurrengoetan ere, gizarte laguntzetarako erabiltzen diren kopuruen proiektzioak egitea, horien bilakaera eta aurrekontu zuzkidurak aldez aurretik kalkulatu ahal izateko.

2.1.7 Euskararen erabilera

Administrazio Publikoetan betebeharreko eginkizuna da euskara erabiltzea, hala ezartzen baitu 10/82 Legeak (Euskararen Normalkuntzarako Oinarrizkoa). Legeak xedatzen duenez, ekintza orok Euskal Herriko bi hizkuntza Ofizialetan (euskara eta gaztelania) agertu behar du.

Udalak hainbat iragarki jarri zituen Gasteizko Udaletxea bisitatzeko egunen berri emateko, eta horietan, hainbat huts antzeman ditu sindiko edo herritarren defendatzaileak. Hori dela eta, agiri publikoetan euskararen normalkuntzari buruzko araudia bete beharra duela gogorarazten dio sindikoak udal administrazioari.

Ofiziozko Gomendioa

I.- Gaiaren azalpena

Udalak egindako zenbait jakinarazpen publiko gaztelera soilik eman direla jakin dugu.

II. Azterketa

Gasteizen gaztelera izanik gehiengoak erabiltzen duen hizkuntza, inertziaz Euskera alde batera uztea gerta daiteke. Horrexegatik nahi eta nahizkoa da bereziki gai horri kasu ematea, herri administrazioak, Euskararen Normalkuntzarako Oinarrizko Legeak (azaroaren 24ko 10/1982) jasotzen

dituen printzipioen konpromisoa bete dezan, hain zuzen ere, Lege honek, 8.2 artikuluan, Udaleko jakinarazpenetan elebitasuna derrigortzen baitu.

Onartu berri den Euskararen Normalkuntzarako Udal Planak ere, are gehiago, babesten du jarrera hau.

Euskara herritar guztion ondare kultural eta adierazpide izanik, berau babeste aldera, oso garrantzitsua da, hizkuntza honen normalkuntzarekin lotuta dagoen edozer gauza, alderdikerietatik eta konnotazio ideologikoetatik aldentzea, horrela, bazterzaile eta banatzaile bihurtu ez dadin, baizik eta bat egitea eta bizikidetzatza bultzatu ditzan.

III. Gomendioa

Guzti honengatik, Vitoria – Gasteizko Udalak jakinarazpen publiko guztietan hiriko bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko duen betebeharra GOGORARAZI nahi dugu.^o

2.1.8 Barrenkalean bideozaintzako kamerak jartzea

Segurtasunaren arazoa oso garrantzitsua da hiritarrarentzat. Hori dela eta, bere kalean bere burua seguru ikusten ez duen hainbat jendekek kexak helarazi dizkigu– batez ere Barrenkaleko auzolagunak–, kalean izaten den pertsona ugariaren joan-etorriak auzokoen artean segurtasun eza sortzen dutela adieraziz.

Auzoan gertatzen diren arazoei aurre egiteko, Barrenkaleko auzo elkarteak kale horretan bideozaintza kamerak jartzea proposatu dio Sindiko edo Herritarren defendatzaileari.

Proposamena aztertuta, Sindiko edo Herritarren defendatzailearen ustez, Barrenkaleko segurtasun-eza ez da une honetan alde zaharreko beste kale batzuetakoarengandik ezberdina. Ondorioz, egun udaltzaingoak eskaintzen dituen sistemak egokitzat jotzen ditu.

Hona hemen, Barrenkalean bideo-zaintza kamerak jartzeari buruz Sindiko edo Herritarren defendatzaileak emandako ebazpena:

I.- Arazoaren aurkezpena

Barrenkaleko auzokoen arabera, kale horretan ez da segurtasunik eta horri konponbidea emateko bideo kameraren sistema bat jartzea egoki dela uste dute eta Udalari hala gomendatzeko adierazi digute.

II.- Azterketa

Bideozaintzari buruzko abuztuaren 4ko 4/97 Lege Organikoak arautzen ditu gune publikoan bideo zaintzako sistemak jartzeko baldintzak, hau da, lege horrek Segurtasun Indarrek gune publikoetan bideozaintza sistema nola erabili arautzen du (186 zk. ko BOEn argitaratua, 1997ko abuztuaren 5ean)

Legearen zio-adierazpenean xedatzen denez, *“la prevención de actos delictivos, la protección de las personas y la conservación y custodia de bienes que se encuentren en situación de peligro, y especialmente cuando las actuaciones perseguidas suceden en espacios abiertos al público, lleva a los miembros de las Fuerzas y Cuerpos de Seguridad al empleo de medios técnicos cada vez más sofisticados. Con estos medios, y en particular mediante el uso de sistemas de grabación de imágenes y sonidos y su posterior tratamiento, se incrementa sustancialmente el nivel de protección de los bienes y libertades de las personas.”*

Hala ere, bideo zaintzako kamerak jartzea ez da gauza erraza, eta lege inplikazioak ditu, izan ere, oinarrizko eskubideak ukitzen baititu, hala nola, irudi eskubidea eta bilera eskubidea. Hori dela eta, baldintza eta kontrol zorrotzak bete behar dira kamera hauek jartzeko, eta kameren bidez lortutako irudiak eta soinuak grabatu eta erabiltzeko.

Horren haritik instalazio finkoak ezartzeari buruzko Legeak 3. artikuluan xedatutakoa kontuan hartu beharrekoa da:

1. La instalación de videocámaras o de cualquier medio técnico análogo en los términos del artículo 1.2 de la presente Ley está sujeta al régimen de autorización, que se otorgará, en su caso, previo informe de un órgano colegiado presidido por un Magistrado y en cuya composición no serán mayoría los miembros dependientes de la Administración autorizante.

*2. Las instalaciones fijas de videocámaras por las Fuerzas y Cuerpos de Seguridad del Estado y de **las Corporaciones Locales** serán autorizadas por el Delegado del Gobierno en la Comunidad Autónoma de que se trate, previo informe de una Comisión cuya presidencia corresponderá al Presidente del Tribunal Superior de Justicia de la misma Comunidad. La composición y funcionamiento de la Comisión, así como la participación de los municipios en ella, se determinarán reglamentariamente.*

3. No podrá autorizarse la instalación fija de videocámaras cuando el informe de la Comisión prevista en el apartado segundo de este artículo estime que dicha instalación supondría una vulneración de los criterios establecidos en el artículo 4 de la presente Ley Orgánica.

Legaren 4. artikulua xedatzen ditu instalazio baimen horiek zuritzeko baldintzak:

“Para autorizar la instalación de videocámaras se tendrán en cuenta, conforme al **principio de proporcionalidad**, los siguientes criterios: asegurar la protección de los edificios e instalaciones públicas y de sus accesos; salvaguardar las instalaciones útiles para la defensa nacional; constatar infracciones a la seguridad ciudadana, y prevenir la causación de daños a las personas y bienes.”

Prntzipio horiek 6. artikuluan arautzen dira: *Principios de utilización de las videocámaras*

1. La utilización de videocámaras estará presidida por el principio de proporcionalidad, en su doble versión **de idoneidad y de intervención mínima**.

2. La idoneidad determina que sólo podrá emplearse la videocámara cuando resulte adecuado, en una situación concreta, para el mantenimiento de la seguridad ciudadana, de conformidad con lo dispuesto en esta Ley.

3. La intervención mínima exige la ponderación, en cada caso, entre la finalidad pretendida y la posible afectación por la utilización de la videocámara al derecho al honor, a la propia imagen y a la intimidad de las personas.

4. La utilización de videocámaras exigirá la existencia de un razonable riesgo para la seguridad ciudadana, en el caso de las fijas, o de un peligro concreto, en el caso de las móviles.

Arestian aipatutako guztia dela eta, honakoa adierazi behar dugu Sindikoaren bulegoek kale horretara egindako bisitak eta inguru horretan diharduen auzozaingoarekin eta hainbat bizilagun eta dendarekin izandako elkarrizketen ondotik: Barrenkaleko segurtasun eza ez da une honetan Gasteizko Erdi Aroko hiriguneko beste lekuetakoarengandik ezberdina, eta Udaltzaingoak egoera horretara egokitutako jardute-protokolo etengabeak bideratzen ditu.

Hortaz, ezin dugu eskaera bideratu; ezin dugu kale horretan bideozaintzako kamerak jartzeko gomendioa egin, izan ere **ez baitaude neurri berean** tresna horien bidez lor daitezkeen helburuak eta bizilagunek jasango dituzten eskubideen urraketak. Halaber, Udaltzainak eta beste polizia indarrak bertan izatean egin ahal dezaketen lana kontuan hartuta, ez dira egokitzen horrelako jarduera tekniko batek duen eraginkortasuna eta kostea.

2.1.9 Txakurrentzako guneak hirian

Vitoria-Gasteizko txakur asko kaleetan, eta inoiz parkeetan, ibiltzen dira jabeek arretaz zaintzen dituzten bitartean.

Hortaz, txakurrak umeak jostatzen dira lekuetan ibili ohi dira ez baitute beraientzat leku berezirik. Arazo honen inguruko hainbat kexa iritsi zaizkigu.

Hiriak berdegune asko ditu eta txakurrentzako gune mugatuak jartzeko gomendioa egiten dio Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak Vitoria-Gasteizko Udalari.

Hona hemen gomendioa:

VITORIA-GASTEIZEN TXAKURRENTZAKO GUNEAK JARTZEARI BURUZKO GOMENDIOA

1.- Arazoaren aurkezpena

Kexu agertu dira hainbat herritar Sindikoaren bulegora, uste baitute ezen, informazioaren alorreko neurriak bakarrik hartu dituela udalak txakurrak edukitzeari dagokionez bete beharreko arauen

gainean, baina, aitzitik, ez dela txakur jabeek horiek aske, hau da, lotuta edukitzeko beharrik gabe, edukitzerik izan dezaten leku mugatu eta seinaleztaturik inon jarri.

2.- Arazoaren azterketa

Hain zuzen ere, hainbat aurreikuspen egin izan dira udal ordenantzetan, txakurrak leku publikoetan edukitzeari dagokionez. Hona hemen:

GASTEIZ HIRIKO ESPAZIO IREKI ETA AISIALDI LEKUEN ERABILERARI BURUZKO ORDENANTZA (1983/04/27)

6. artikulua.-

Pertsonen aldean joan beharko dute txakurrek, uhalez behar bezala lotuta, eta, hartarako mugatzen diren eremuetan izan ezik, ibiltokietan barrena ibili beharko dute, belarra zapaldu nahiz pertsoneri enbarazu egin gabe; orobat galarazi beharko zaie haurrentzako jolas lekuetara inguratzea.

Debekatuta egongo da txakurrak belardi, parke, lorategi, urmael eta iturrietan sartzea eta txori eta hegaziak uxatzea.

Txakurrak daramatzatenek jaso egin beharko dituzte haien gorotzak, eta zakarrontzietara edo inguruan dauden hustubideetara bota. Nolanahi ere, pertsonak ibiltzen diren lekuetan kaka egin dezaten galarazi beharko diete txakurrei, eta, bereziki, haurren jolaslekuetan.

ANIMALIAK EDUKITZEARI ETA BABESTEARI BURUZKO UDAL ORDENANTZA (1994/04/25)

22. artikulua.-

Kale eta parke publikoetan, bai eta pertsonen igarobide diren gainerako lekuetan ere, lepokoz eta kate edo uhalez lotuta eraman beharko dira txakurrak; muturrekoa erabiltzea udal agintariek aginduko dute, egoera sanitarioak hala eskatzen duenean eta hark

dirauen arte. Muturrekoa eraman beharra izango dute, kalean, lehendik ere koska egiteko joera erakutsi duten txakurrek, baita jabearen ustez arriskutsu suerta daitezkeen ere.

23. artikulua.-

Debekatuta egongo da txakurren gorotzak kale eta plaza publikoetan, haur parkeetan, lorategietan eta, oro har, apaingarrizko zein pertsonen igarobide diren lekuetan uztea.

Hori dela eta, txakurrak daramatzatzenek galtzadara eraman beharko dituzte haiek, espaloi ondora, estolderia-isurbidetik ahalik eta gertuenera, edo udalak horretarako egokitutako lekuetara.

Hala ere, gorotza espaloietan edo oinezkoen igarobide diren lekuetan geratuz gero, jabeak edo animalia daramanak izango du bere gain hura bertatik kentzeko ardurua, eta boltsa iragazkaitzetan sartzen duelarik, eta itxi ondoren, zakarrontzira edo udal zerbitzuek zehaztutako antzekoren batera bota beharko du, edo etxeko zabor boltsara; bestela, estolderia sareko isurbideren batetik bota beharko du gorotza.

Animaliaren batek kalea zikintzen duelarik, jabeari edo animalia daukanari egindako kaltea berehalakoan konpontzeko eskatzeko eskubidea izango dute beti ere herritarrek.

24. artikulua.-

Udalak, aurrekontuek aukera ematen duten neurrian eta komenigarri deritzon, lorategi eta parke publikoetan txakurrak ibili eta jolasteko seinaleztatutako leku aproposak egokitzen saiatuko da, bai eta kaleetan laguntzako animalien gorotzentzako beharrezko ekipamendua jartzen ere, behar bezala seinalatuta eta adierazita.

Ordenantza horiek hitzez hitz hartuz gero, bistan da udalak zenbait berdegunetan behar bezala seinaleztatutako leku mugatuak jartzea erabaki lezakeela, eta horietan, txakur arriskutsuak salbu –horiek, beti ere, muturrekoa eraman beharko baitute–, gainerako txakurrak aske ibili ahal izango lirakeela, beren jabeen begiradapean.

Vitoria-Gasteiz hiriak, gainera, berdegune ugari ditu –eraztun berdea–, eta harro dago horretaz hiria, eta harro bertako herritarrak; beraz, badirudi horietan zenbait leku mugatu eta seinaleztatu litezkeela, hirian behar bezala erroldatutako txakurrek aske ibiltzerik izan dezaten bertan, beren jabeen zaintzapean.

3.- Ondorioak

Aurreikuspen hori udalaren beraren egokitasun eta komenientzi irizpideen mende ageri da ordenantzetan.

Gure ikuspuntutik, hiriko txakurren erroldaren munta eta bertan dauden berdeguneak aintzat hartzen ditugularik –txakurrak dituztenek horiek bertara eramateko eta haien bakarriz erabiltzeko lekuak mugatu bailitezke bertan–, hauxe **GOMENDA** dezakegu, 2001eko irailaren 28ko Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Araudian aurreikusitakoaren ildotik: eskumena duten udal zerbitzuek (Osasun eta Kontsumo Saila, Ingurumen Saila) zenbait leku aukeratu, seinaleztatu eta muga ditzatela, eta horietan posible izan dadila behar bezala erroldatutako txakurrak aske paseatzea, beti ere jabeen zaintzapean eta haien ardurapean; gainera, seinaleztatzeaz aparte, txakurren gorotzak jasotzeko leku egokiak jarri beharko liriateke bertan.

2.1.10 Handizkako azokaren egoera higienikoa.

Hainbat kexa jaso ditugu Handizkako Azokaren eta inguruaren higie-egoera dela eta. Ondorioz, inguru horretan higie eta osasun muga batzuk mantentzeko daitezela eskatzeko egiten da honako gomendioa.

I.-Arazoaren aurkezpena

1.- Vitoria-Gasteizko *Handizkako Fruitu, Ortuari, Barazki eta Arrain saltzaileen Azoka* (Oto hiribidea, 72) inguratzen duen hesian hondakin solido ugari pilatu dela ikus daiteke. Honela, beraz, higiene eta osasun kalitate eskasa erakusten du, are gehiago elikagaiak maneiatzen diren leku batez ari garelako kontuan hartuta.

2.- G.V. S.L (kontratatista) taldeko ordezkari batekin ikuskapena egitera joan gara, eta arazoak jakitun direla adierazi digute baina hala ere, arazoa konpongaitza dela. Hain zuzen ere, ondoko eraikinean bizi diren pertsonekin harreman txarrak dituzte; hauek ez dituzte azokaren hesiak errespetatzen eta umeei bertan sartzen uzten diete. Horretaz gain, animaliak –baita zaldiak ere– sartzen dituzte bertan bazka daitezen; azokako langileek arreta deituz gero, iraindu eta mehatxatu egiten dituzte; garbitzaileak beldurtu egiten dituzte. Arrazoi hauek guztiak direla kausa, zaila da lekua garbi mantentzea.

3.- Gertakari horien ildotik, hainbat IKUSKAPEN-BISITA eta TXOSTEN egin ditu Osasun eta Kontsumo Saileko Osasun eta Kontsumo arloak. Hona hemen akta eta txosten horien berri:

a) 2000/05/17. G.V. S.Lren lehendakaria den D.J. H jaunaren aurrean Udaleko albaitariak jasotako akta.

b) 2000/7/07. Osasun txostenaren akta, D. J.L.H jaunaren aurrean.

c) 2002/01/31. Osasun-ikuskapena. Ikuskatzaileak honela adierazi zuen aktan:

“Oto hiribideko etxebizitzekin muga egiten duen hesia zabor eta zikinkeriaz beterik dago. Egoera onartezina da, izan ere azokan merkaturatzen diren jakientzat KUTSADURA iturri eta ARRISKU izan baitaiteke”

d) 2002/02/19. Higiene eta osasun ikuskapena. Honela adierazten da aktan:

“Gaurko egunez ikuskatu ahal izan da, Fruta eta Barazkien azokako osasun eta higiene egoera ez dela aldatu; 2002/01/31ko 011731 zk.ko aktan jaso bezala dirau”.

- e) **Zabor eta hondakin pilaketa direla eta, Handizkako fruitu eta barazki saltzaileen lonjan egindako esku hartzei buruz** Udaleko albaitariak egindako **txostena**. (2003/01/28koa).

“Vitoria-Gasteizko handizkako fruitu eta barazki saltzaileen azokak arazo berbera bizi du aldiroz, berriz ere erabiltzeko diren ontzien biltegitratze esparruko egoera higieniko sanitarioa dela eta.

Ontziak gordetzeko esparru honek XXXXXX eta bere familia bizi direnako etxebizitzarekin egiten du muga (Oro hiribidean). Bi eremuen arteko bereizketa hesi metaliko txiki baten bidez egiten da. Hau apurtuta egon ohi da, nahiz eta behin eta berriz konpondu.

Muga hau zikin egoten da beti, Fruitu eta Barazki lonjan egiten den zereginekin zerikusirik ez duten hondakin organiko eta ez organikoz betea. Adibide gisa esan dezakegu, maiz umeen pixoihalak eta azokaren esparruaren barrura igaro ohi diren animalien gorotzak ere aurki ditzakegula.

Aurkeztutako agirietan ikus daitekeenez, hainbatetan egin izan dira ikuskapenak eta txostenak idatzi dira. Guztietan egoera txarra zela adierazten zenez, dossier zigortzailea abiarazi zen.

Fruitu lonjako langileek aldiro aldiro ingurua garbitu badute ere, ahalegina alferrekoa izan da, garbitu eta denbora gutxira arazoa errepikatu egiten baita.

Fruitu saltzaileei duten erantzukizuna aitortzen bazaie ere, arazoari konponbidea aurkitzea zaila deritzot, izan ere bestek baitira arazo-sortzaile nagusi.

Bestalde, Bartolomé Cortes jaunarekin gai honen inguruan hitz egin nahi izan dudanean, ez du lagundu nahi izan, are gehiago, duela gutxi iraindu eta mehatxatu egin ninduen arrain-lonjako zamarako kaitik bereak ziren hiru zaldi ateratzeko esan nionean.

Gainera, zama-kai horiek, hau da egunero arrain freskoaren kutxak biltegitratzen diren lekuak, zaldi gorotzez estalita zeuden une hartan.

Ez dut gehiegi luzatu nahi kutsadura mota hau elikadurekin elkartzean sor dezaketen osasun arriskuak adierazten, besterik gabe, arrisku honekin loturiko gaixotasunak ugari eta maiz, larriak direla adierazi nahi dut bakarrik.

Zaila da arazo honi konponbidea aurkitzea bi alderdi arlo elkartzen baitira: batetik osasun eta higieena arloa dugu eta bestetik, eta konpongaitzagoa, gizarte arloa.

Arazoari behin betiko konponbidea aurkitzeko, bi alderdiei ekin behar zaie. Batetik ezinbestekoa da arazoa sortzen duten etxebizitzako bizilagunekin akordio batera iristea, eta bestetik garrantzitsua izango litzateke arrain eta fruitu lonjetara sartzeko kontrola izatea.

Nire iritziz, bi neurriak batera hartu beharrekoak dira, bestela arazoa konpontzeko lortu nahi den eraginkortasuna galdu egiten baita.”

f) Argazkiak (arrain eta Fruitu lonjetan egindako esku hartzeen laburpenaren eranskina)

Argazkietan antzeman daitekeenez, zikinkeria ugari pilatzen da berriz ere erabiltzeko diren ontzien biltegi inguruan; zabor pila onartezina.

Cortés familiaren etxea eta lonja bereizteko dagoen hesi erdi apurtu eta xumetik, hainbat animalia pasatzen direla ikus daiteke. Egoera horren ondorioz, lonjaren lurretan gorotzak aurki daitezke (argazkian ikus daitekeenez).

Argazki hauek 2000ko maiatzean egin ziren. Inguru horretako egoera hobetu eta gutxira okertu egin ohi da. Edonola ere, inoiz ez du osasun eta higieena aldetik baldintza egokirik izaten. (ikus argazkiak).

II.- Lege ohartarazpenak

1.- Kasu honetan ezargarri direnak:

- 7/1985 legea, apirilaren 2koa, Toki Jaurbidearen Oinarriari buruzkoa.
- 14/1986 lege orokorra, apirilaren 25ekoa, osasungarritasunari buruzkoa
- 26/1984 lege orokorra, uztailaren 19koa, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileak babesteari buruzkoa.

2.- Horietaz gain, ezgarriak dira Udalaren eta G.V. S.L-ren arteko harremanetarako, handizkako azokaren zerbitzuaren emakida esleitu eta ustiatzeko erabili ziren Baldintza juridiko administratibo eta ekonomikoen orriak. Kontratua 1995eko martxoaren 6an sinatu zen, eta esleipendunen eskubideei dagokionez, honela xedatzen du zazpigarren baldintzak:

- h) Udalarengandik zerbitzua emakidan adierazi bezala kudeatzeko beharrezko duen babes eta laguntza izateko eskubidea du.*

II.- Gomendioa

1.- Adierazitako guztiaren haritik, honakoa adieraz dezakegu: Handizkako azokan osasun eta higiena arloko ARAZO LARRIA dago, eta honek eragotzi egiten du handizkako azoka kudeatu eta ustiatzeko ZERBITZU PUBLIKOA egokia izatea.

2.- Arazo hori dela eta, Udalak hainbat esku hartze egin ditu; dagozkion ikuskatze zerbitzuek aktak jaso dituzte, baita G.V.S.Lren kontrako errekerimenduak eta diziplina neurriak ezarri ere. Baina arazoaren benetako gakoa ez dago G.V. S.Lren erantzukizunean bakarrik oinarrituta, enpresak XXXX familiarekin dituen harremanak ere garrantzitsuak baitira. Hauek behin eta berriz apurtu egiten dituzte azokaren itxiturak eta, ondorioz, ezinezko gertatzen da instalazioetan garbiketa lanak ondo egitea.

3.- Hortaz, ezinbestekoa da handizkako azokaren esparrua bereizteko egun dagoen hesi eta babes sistema aldatzea, bereziki XXXX familiaren etxebizitzarekiko mugan (Oto hiribidea). Jarri beharreko sistemak garbi mantenduko du esparrua eta ezinezko egingo du hesia apurtu eta bertara sartzea. Hesi sistema aldatzeak ERABERRITZEA adierazten du eta baldintza orrien HAMAL AUGARREN klausuletan ezarritako eraberritzetako bat dugu:

“Ikuskapena egin ondoren konponketa, egokitzapen zein eraberritze lanak egitea beharrezkotzat jotzen bada, esleipendunak bere kontura egin beharko ditu udalak adierazitako epean.

4.- ARAZOA LARRIA denez, esleipendunak eraberritze lanak egiteko eginkizuna betetzen ez badu, udalak (dituen eskumenak baliaturik) bere kabuz egingo du, besteak ordaindu beharko duelarik.

5.-Halaber, zuzentasun arrazoiengatik, eta kontratistaz gain neurri handi batean bestelako hirugarren batzuen ekintzetatik sortutako arazoa denez, udalak aztertu egin beharko du azokaren hesiak konpontzeko nolabaiteko laguntza ekonomikoa eman beharra duen.

2.1.11 Aisialdiko hainbat areto ikuskatu eta jarraipena egitea

Sindiko edo herritarren defendatzaileak kexa ugari jaso ditu aisialdiko aretoek gaueko ordutegia huts egiten dutelako. Hori dela eta, gaueko zaratei eta gaueko ordutegiei buruzko txostena egiten zen, eta bertan adierazten zen kategorien arabera zeintzuk diren aisialdiko aretoek ixteko dituzten orduak. Gomendioa egin arren, aretoetako zaratak zirela eta herritarrek kexaka jarraitu zuten eta ondorioz bigarren gomendioa egiten da; hain zuzen ere, salatutako aretoek araudia bete dezaten, zainketa eta ikuskapen lana egiteko eskatzen da.

1.- Arazoaren aurkezpena

XXX kalean dagoen XXXX PUBaren inguruan bizi diren herritarrak guregana etorri ziren eta PUB horren gaueko jarduna dela eta sortutako kalteen inguruko kexa eta salaketen historial luzea aurkeztu zuten.

Aretoak PUB kategoria du eta egiten den salaketa objektiboetako bat ordutegi erregimena sistematikoki huts egitea da.

2.- Azterketa

Kasu honetan ezargarri da 296/1997 DEKRETUA, abenduaren 16koa, Jendaurreko ikuskizunak eta jolas jardueren ordutegiak eta jarduera horiei buruzko beste alderdi batzuk ezartzen dituen Euskal Autonomi Elkartearen eremuan. Bertan areto mota honetarako ordutegi hau ezartzen da:

3. taldea.– Dantzarako pista izan barik, jarduera berezi gisa, musika izateko baimena duten lokalak eta instalazioak, esaterako:

– taberna bereziak, whiskitegiak, klubak, bar amerikarrak, pubak, disko-barrak, karaokeak eta asimilagarriak **02:00etan**.

3.- Gomendioa.-

XXX PUBak sistematikoki ez du betetzen ixteko ordutegia, eta bertako musika aparailuek eta billarrak sortutako zarata dela eta, urratu egiten da bizilagunek atsedenerako duten eskubidea, etengabeko kalte larria eragiten zaielarik. Eskubide hau konstituzioak jasotzen du, hain zuzen ere, etxebizitzan intimitaterako eskubidearen urraketa baita eta osasunerako kaltegarri. Eskubide hauek babesteko bada jurisprudentzia zibila zein penala.

Hori guztia aintzat harturik,

2001eko irailaren 28ko Sindikoaren edo Herritarren Defendatzailearen Araudian ezarritakoaren haritik, honako GOMENDIOA egiten diogu udaltzaingoari: XXX PUBak ordutegia betetzen ez duela aztertzeko, datozen HIRU ASTEETAN IKUSKAPEN ETA ZAINTZA lanak egin ditzatela, 296/1997 dekretuan ezarritako ordutegiak errespetatzen direla ziurta dezaten edo hala ez bada, SALAKETAK egiazta ditzaten.

2.1.12 Trafikoaren zarata eta abiadura gutxitzeko neurriak Tanis Agirrebengoa kalean

Auzo elkarte bateko kideak Sindikoaren bulegora etorri dira San Prudentzio ibilbidean ingurumen arazoak daudela adierazteko. Hainbat gauza eskatzen dituzte: zara gutxitzea, trafikoari buruzko azterlana egitea... Areago, alderdi horretarako proposatu den proiektua aldatzeko eskatzen dute, izan ere proiektu horretan ez da jaso ibilbide horretatik pasako den trafikoaz babesteko zarata maila jaisteko neurririk ez bestelako prebentzio arlokorik.

Hori guztia dela eta, honako Gomendioa egiten da, hiriaren hegoalderako trafiko arloko proiektuan ingurumen arazoak kontuan har daitezen.

I. Arazoaren aurkezpena

Auzo elkarte batek Tanis Agirrebengoa kalearen inguruko auzokoek bizi duten egoerari buruzko kexa bat aurkeztu zuen sindikoaren bulego honetan. 2000. urtean Vitoria-Gasteizko Plan Orokorra berrikusi zen (1990eko Plan Orokorreko 5. sektorean esparrua) eta horren haritik oinezkoentzako bide zen kalea errepide izatera pasa da:

Eskaerak honako aurrekariak aipatzen ditu:

- A) Aipatutako gune hori BERDEGUNE ETA ESPAZIO LIBREETARAKO erabiltzea aurreikusten zen 1986ko Hiri Antolakuntzarako Plan Orokorren barruan Vitoria-Gasteizko iparraldeko 5. sektorearen (San Prudentzio hiribidea, iparra) Plan Partzialaren onespenean.
- B) Arlo horretako garapen eta gauzatzea (hau da plan partziala idaztea eta gerora Konpentsazio proiektuaren bidez gauzatzea), eta aurreikusitako egoitzen proiektu eta eraikuntza egitean, aipatutako BERDEGUNE ETA ESPAZIO LIBRE horiek hartu dira kontuan. Halaber, Vitoria-Gasteizko Hiri Antolakuntzarako Plan Orokorren berrikusketak (abenduaren 278ko 135/2000 Foru Dekretu bidez onetsia; 29001eko urtarrilaren 19ko ALHAO, 8.zk) aldaketa ikaragarria dakar gune horren erabilerari

dagokionez. Hau da, berdegune izatetik errepide izatera pasatzen da, eta bertan bi edo lau karriletako bidea egitea aurreikusten da, hartara hiriaren ingurabideetako bat amaitzeko.

Guri dagokigun kasu honetan, zehatz eta hertsi hartuta, hiri antolakuntzaren esparru horretako aldaketa horrek ez du inolako aldaketarik sortu jabeek duten eskubide eta hirigintza betebeharren arloan, hau da, ez dakar lur sail pribatu horien sailkapena, kalifikazioa eta hirigintza-aprobetxamenduan inolako aldaketarik.

Hala ere, argi dagoenez, antolakuntza aldaketa horrek – bereiziki, dagoen parke lineala desagertzea eta esparru horretan hiriaren ingurabidearen atala den errepidea jartzea – espazioan aldaketa handia dakar eta zuzenean eragiten die lur sail horiek dituzten hiri-ezaugarriei.

Aldaketak ondorio hauek dakartza:

- a) *HIRI-KALITATEA GALTZEA.* Hiriaren ehuna aldatzeak inguru horretako bizi-kalitatea gutxitzea ekar dezake eta ondorioz, egun dauden lursailen eta eraikuntzen balioari eragin diezaioke.
 - b) *BERTAN DIREN ETXEBIZITZEN EZAUGARRIAK ETA INGURUNE BERRIA EZ DATOZ BAT.* Hiri-espazioan aldaketa handia ekarriko du antolakuntza berriak, hortaz lur sail pribatu eta espazio publikoaren arteko loturan ere bai. Ingurune zehatz baterako diseinatutako eraikuntzak kalitate galera izan dezake, bat batean ingurune hori aldatuz gero.
- *Plan Orokorraren berrikusketak (2001eko abenduaren 27an behin betiko onartua) nahikotxo aldatu du aipatutako eremu horren izaera. Hain zuzen ere, aldaketa hori egun parke lineala dagoen tokiari eman nahi zaion erabilera berriaren ondotik sortzen da, hego-mendebaldeko ingurabidea deritzon errepidearen zati izatera pasako baita.*

GASTEIZKO HIRIAREN EGITURAN BIDE BERRI HORREK IZANGO DUEN FUNTZIOA

- *Lehenik eta behin bide horrek Gasteizko errepide sarean izango duen papera hartu behar da kontuan. Plan Orokorrak aitortzen duenez, hiriko trafikoa konpontzeko (bereziki hego-mendebaldekoa) sistema orokor bat dugu honakoa. Errepideari amaiera ematen zaionean. Gasteizko hegoaldeko hirigunetik pasatuta, N-1 errepideko lehengo sarrera (Madril aldetik etorrira) eta Irun aldera joateko N-1 irteera loturik geratuko dira.*
- *Gasteizko mapa bati erreparatuz gero ikus daitekeenez, barne aldeko errepide honek hiria inguratzeak aukera emango du; iparraldean, hiriak bere dituen hainbat gune utziko ditu (Lakua egoitza-esparrua ipar-mendebaldean eta hainbat industrialde ipar-ekialdean) eta hiriaren ekialde eta mendebaldean, berriz, egoitzetarako guneak izango direla aurreikusten da, izan ere, Plan Orokorraren azterketak inguru horiek hartzen baititu egoitzak bultzatze aldera. Hortaz, hegoaldea bakarrik geratuko litzateke ingurune naturalarekin eta egoitza gune txikitxoekin loturik.*
- *Ingurabide hau ia amaituta dago, hiru laurden baino gehiago eginak baitira; hiriaren iparralde, ekialde eta mendebaldeko zatiak eginak daude eta hegoaldearen % 50 baino gehiago."*

II. Arazoaren azterketa

Kexaren azken atala Plan Orokorraren Berrikusketaren aurkakoa da (2001eko abenduaren 27an behin betiko onetsia). Eskatzaileek auzitan jartzen ari dira plangintza ahalmena bera. Hau da, eskumena duten aginte publikoei legeak hainbat alorretarako ematen dien ahalmena; esaterako, ekoizpen eta etxebizitza guneen kokapen egokiena arautzeko, biztanleen dentsitateen araberrako erabilera guneak zehazteko, *bide publikoen nondik norakoak* adierazteko ...

Plangintza ahalmena eskumeneko ahalmena dugu. Administrazioari dagokio titularitatea eta partikularrek ezin dute titularitate hori ordeztu. Ahalmen hori baliatzeak “ius variandi” delakoa esan nahi du, hau da aurreko erabakiak berrikusi eta aldatzeko Administrazioak duen eskubidea. Administrazioak, beraz, kale honen kasuan eskubide hori baliatu du Planeko zehaztapenak aldatzeko. Aldatzeko botere hori eskumeneko - kontrol juridikzional bakarrik du, hortaz arazo hau ez da Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen eskumenetan sartzen. Alderdi horretatik ezin dugu plangintzaren ahalmena ebaluatu edo auzitan jarri, defendatzaileen gomendioek ez baitute ekintza administratibo irmo horiek aldatu zein baztertzeko ahalmenik. Hori dela eta, Auzi administrazioetarako juridikzioak bakarrik azter dezake kasu hau, eta hona (STS.6.VI.1995) jurisprudenzia:

“... se extenderá, en primer término a la verificación de la realidad de los hechos para, en segundo lugar, valorar si la decisión planificadora discrecional guarda coherencia lógica con aquéllos, de suerte que cuando se aprecie una incongruencia, incongruencia o discordancia de la solución elegida con la realidad que integra su presupuesto o una desviación injustificada de los criterios generales del Plan, tal decisión resultará viciada por infringir el ordenamiento jurídico y más concretamente el principio de interdicción de la arbitrariedad de los poderes públicos – art. 9º . 3 de la Constitución – que, en lo que ahora importa, aspira a evitar que se traspasen los límites racionales de la discrecionalidad y se convierta ésta en fuente de decisiones que no resulten justificadas.”

III. Ondorioak

Zer egin dezake herritarren defendatzaileak arazo honetan?

Plangintza ahalmenaren berrikuspena Sindikoaren gomendio baten menera ez dagoela argi eta garbi utzirik, uste dugu bizilagunen interesak defendatzeko ekintzak egin ditzakegula zenbait arlotan. Hori dela eta, hona hemen gure GOMENDIOA:

1.- Udal Administrazioari informazioa zabaltzeko eskatzea, alegia, interesatuek egindako eskaera eta idazkiei berariaz (ez administrazio-isiltasunaz) ERANTZUN beharra dagoela gogorarazi. (30 / 92 legearen 142. artikulua).

2.- Parke lineala desagertzearen ondorioz kalteak gertatu dira, zalantzarik gabe, ingurabide berriaren ondoan geratzen diren etxebizitzetan eta, horren haritik gertatu den eragina gutxitzeko har daitezkeen neurri zuzentzaile guztiei ekitea:

- a) *Zaraten aurkako neurriak, 2002ko ekainaren 25eko Europako Parlamentuko eta Kontseiluaren 2002/49/CE arauaren haritik.*
- b) *Trafikoaren abiadura moteltzeko eta errepidea bide azkartzat erabiltzea eragozteko neurriak hartzea.*

3.- *Arkitektura proiektu aldatetak baimentzea, ukitutako lur sailak Planaren Berrikusketaren ondotik sortutako egoera berrira egoki daitezen, egoera 1990ko Plan orokorrean ezarritakoaren erabat bestelakoa baita*

4.- *Ingurabide berriaren ondoko lur sailetan eragindako kaltea arintzeko balio dezakeen beste edozein neurri aintzat hartzea.*

2. VITORIA-GASTEIZKO SINDIKO EDO HERRITARREN DEFENDATZAILEAREN JARDUERAREN LABURPENA

2.2 GIZA ESKUBIDEEN ETA HERRITARREN KULTURA ERAIKITZEKO JARDUERAK

2.2.1 Erakunde, talde eta eragile sozialekiko harremanak eta lankidetzak

2003. urtean zehar, bere lehenbiziko oroit-idazkia Vitoria-Gasteizko Udaleko udalbatzaren aurrean aurkeztu zuenetik, jarduera ugari bideratu ditu Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak giza baliabideen kultura hurbiltzeko gizartera, ideia bat gauzatze aldera: herritar guztiek dituzte funtsezko eskubide komun batzuk, eta horiek baliatu beharra daukate.

Zentzu horretan, hizlari gisa hurbildu da Sindiko edo Herritarren Defendatzailea herritarrengana, hainbat jardunaldi, hitzaldi, mintegi eta bestetan, gizarteari giza eskubideen errealitatearen berri emateko, egunez egun. Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak hizlari gisa parte hartu duen jardunaldien zerrenda ematen dugu ondoren:

- Vitoria-Gasteizko Udaleko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako teknikariei zuzendutako hitzaldia, Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen figuraren berri emateko. 2003ko apirilaren 4an.
- Vitoria-Gasteizko Adinekoentzako Zentro Soziokulturaletako kideei zuzendutako hitzaldia, Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen figuraren berri emateko. 2003ko maiatzaren 28 eta 29an.

- Gipuzkoako Galizia etxeak antolatutako jardunaldiak: “*Cultura ciudadana e interculturalidad*”. 2003ko ekainean. Emandako hitzaldiaren agiria eranstean da (ikus 6.3. eranskina).
- EHUren udako ikastaroaren zuzendari, “*Estrategias de Seguridad Integral para una ciudadanía democrática*” mintegiaren baitan, Donostian. 2003ko irailaren 1, 2 eta 3an.
- Vitoria-Gasteizko hirugarren adinekoen gelei zuzendutako hitzaldia, Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen figuraren berri emateko. 2003ko irailaren 11n.
- Hitzaldia, Vitoria-Gasteizko Escuela Social Diocesanas delakoan. 2003ko urriaren 21ean.
- Hitzaldia, Vitoria-Gasteizko Club Rotario elkartearen, Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen figuraren berri emateko. 2003ko azaroaren 3an.
- Hitzaldia, Amurrioko Escuela Social Diocesanas delakoan. 2003ko azaroaren 11n.
- SOS Arrazakeria erakundeak antolatutako hitzaldia, Vitoria-Gasteizko arrazakeriaren eta xenofobiaren kontrako XII. jardunaldietan. 2003ko azaroaren 17an.
- ERDUk antolatutako hitzaldia, Vitoria-Gasteizen, inmigrazioaren eta administrazioak fenomeno horren aurrean duen zereginaren gainean. 2003ko azaroaren 20an
- Hitzaldia, Kolonbiari buruzko epaitegian, Parisen. 2003ko azaroaren 27 eta 28an.
- Hitzaldia, Perpignango hirian, hiriaren izpiritualtasunaren gainean; Perpignan hiriko kanpo harremanetarako sailak antolatua. 2003ko abenduan. (ikus 6.4. eranskina)

Gonbidatu gisa ere izan da Sindiko edo Herritarren Defendatzailea hainbat erakunde, elkarte eta instituziok antolatutako hitzaldi, jardunaldi eta ekitaldietan, errealitatea ezagutu eta herritarrak gertuagotik ikuste aldera.

Sindiko edo Herritarren Defendatzailea edo berorren ordezkoren bat gonbidatu gisa joan den jardunaldi eta ekitaldien zerrenda ematen dugu ondoren:

- Bizikleteroak elkarteak antolatutako “*II Jornadas de Bicicletas en Vitoria-Gasteiz*”, Vitoria-Gasteizen. 2003ko martxoan.
- Hitzaldia, “*Participación Ciudadana y presupuestos participativos de Albacete*”, Hikatenekoak antolatua, Vitoria-Gasteizen. 2003ko martxoaren 10ean.
- Arabako Auzo Elkarten Federazioaren biltzar orokorra, Vitoria-Gasteizen. 2003ko martxoaren 15ean.
- “*Administrazioaren, elkarteak sortzearen eta parte hartzea bultzatzearen arteko harremani buruzko azterlana*”ren gaineko jardunaldia, ADOSek antolatua, Vitoria-Gasteizen. 2003ko apirilaren 4an.
- “*I Foro sobre Justicia Penal y Social*”, Gizarte Lanerako Eskolak antolatua, Vitoria-Gasteizen. 2003ko apirila.
- “*Down sindromea*” erakusketa, Isabel Orbe elkarteak antolatua, Vitoria-Gasteizen. 2003ko uztailaren 23an.
- III. Ate Ireki jardunaldiak, Arabako unibertsitate campusean, Vitoria-Gasteizen. 2003ko maiatzean.
- Andre Maria Zuriaren jaien hasierako ekitaldia. 2003ko abuztuan.
- Vitoria-Gasteizko Udaleko Haurtzaro Zerbitzuaren Pablo Neruda Eguneko Zentroa inauguratzea. 2003ko irailean.
- Vitoria-Gasteizko Gazteen Argibideetarako Bulegoa inauguratzeko ekitaldia. 2003ko irailean.
- Espainiako inmigrazio politiken erduei buruzko hitzaldia, Catalunyaeko Generalitat-eko Inmigratorako Idazkaritzan antolatua, Bartzelonan. 2003ko irailean.
- M.K.Gandhi institutuaren fundatzaileari –Mahatma Gandhiren biloba– harrera egitea, Vitoria-Gasteizko udaletxean. 2003ko azaroaren 28an.

- “*Agrupémonos todos, Gregarismo, ocio y otros motivos de reunión*” erakusketaren inaugurazio ekitaldia, ARTIUMen. 2003ko urrian.
- Toki korporazioetan prozesuak hobetzeari buruzko ikastaroa, Vitoria-Gasteizko Udalak antolatua. 2003ko urriaren 23 eta 24an.
- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoari buruzko ikastaroa, Vitoria-Gasteizko Udalak antolatua. 2003ko urriaren 30ean.
- Arabako Arte Eder Museoen Elkartearen aretoak inauguratzeko ekitaldia. 2003ko azaroan.
- Parte-hartzea sustatzeko jardunaldiak, ERDUK antolatuak, Vitoria-Gasteizen. 2003ko azaroaren 17an.
- “*Politika Sozialari eta Herritarren Segurtasunari buruzko Biltzarra*”, Gizarte Lanerako Eskolak antolatua. 2003ko azaroan.
- Fernando Buesa Blanco fundazioaren Gogoeta Sozialei buruzko Jardunaldiak, Vitoria-Gasteizen. 2003ko abenduaren 4an.
- Hitzaldia, “Migration, Futures: Conflict or Cohesion in the European Union”, Deustuko unibertsitatean, Bilbon, “pertsonen mugimenduei, ideiei eta kultura aniztasunari buruz”. 2003ko abenduan.
- Giza Eskubideen I. René Cassin Saria, Lehendakaritzak antolatua. 2003ko abenduan.
- “Naia del Castillo” erakusketaren inaugurazio ekitaldia, ARTIUMen. 2004ko urtarrilean.
- Bartzelonako 2004ko Forumaren aurkezpena, Artiumen. 2004ko otsailean.
- Etxebizitzari buruzko jardunaldia, Euskal Herriko bide, ubide eta portu ingeniariaren elkargoak antolatua. 2004ko otsailaren 18an.

Hainbat bilera egin ditu Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak Gasteizko gizarte erakunde eta taldeekin, dela bere burua aurkezteko, dela bulegora iritsi diren kexen berri emateko, eta, aldi berean, nola edo hala kexa horiekin zerikusia dutenen ikuspegiaren berri jasotzeko.

- Bilera, Arabako Ostalarien Elkartearekin. 2003ko apirilaren 10ean.

- Kaleidos fundazioaren aurkezpena, Gasteizen. 2003ko apirilaren 15ean.
- Bilera, Euskadiko Kontsumitzaileen Elkartearekin. 2003ko maiatzaren 6an.
- Elkarrizketa, ONCE elkarteko arduradunekin. 2003ko maiatzaren 16an.
- Bilera, Gasteiz On-ekin, Eusko Jaurlaritzaren ordezkariarekin eta Bujanda tabernarekin, hirian tranbia jartzearen inguruan. 2003ko maiatzaren 30ean.
- Bilera, Sarkis-Lagunketa enpresarekin, Vitoria-Gasteizko parkingen egoerari buruz hitz egiteko. 2003ko ekainaren 11n.
- Elkarrizketa, Artiumeko zuzendariordearekin, museoko seinaleztapenari eta publizitateari buruz hitz egiteko. 2003ko ekainaren 18an.
- Bilera, Gasteizko HIESaren aurkako Batzordearekin. 2003ko ekainaren 30ean.
- Bilera, udalbatza berria osatzen duten udal talde politikoekin, udal hauteskundeen ondoren: IU-EB, PP, EA, PSE-EE eta PNV/EAJ. 2003ko irailean.
- Bilera, Gasteizko azokako ordezkariarekin, inguruko eskale-jendearen egoerari buruz hitz egiteko. 2003ko irailaren 10ean.
- Bilera, Gao Lacho Drom elkartearekin. 2003ko irailaren 26an eta azaroaren 6an.
- Bilera, Garapenean Laguntzeko Zerbitzuarekin. 2003ko urriaren 22an.
- Bilera, Gasteizko Mejora fundazioarekin. 2003ko azaroaren 3an.
- Bilera, Berrenkale auzo elkartearekin. 2003ko azaroaren 18an.
- Bilera, Jabetza Ganbararekin, etxebizitza alokairuetako bermeei buruz hitz egiteko. 2004ko urtarrilaren 19an.
- Elkarrizketa, Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen menpeko Ajuria egoitzako zuzendariarekin. 2004ko urtarrilaren 19an.
- Bilera, Emilio Guevararekin, Euskaltzaindiaren plazako iturrirako konpentsazio batzarreko kide den aldetik. 2004ko urtarrilaren 21ean.
- Bilera, Gasteizko epaitegietako fiskal buruarekin (Alfonso Aya). 2004ko urtarrilaren 26an eta otsailaren 12an.

- Bilera, Gaixo Mentalak Babesteko Arabako Fundazioarekin, Gasteizko beren instalazioetan. 2004ko urtarrilaren 29an.
- Bilera, Arabako Gaixo Mentalen eta Senideen Elkartearekin (ASAFES). 2004ko otsailaren 4an.
- Bilera, udal talde politikoekin, toki erakundeei buruzko lege berria koordinatu eta Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Araudira egokitzeko: PP, PSE-EE, EA, IU-EB eta EAJ. 2004ko otsailaren 11 eta 26an.
- Bilera, Arabako Enpresarien Sindikatuarekin (SEA). 2004ko otsailaren 12an.
- Bilera, Cultural Álava-rekin, Bartzelonako 2004ko Foruma dela eta, Gasteizen. 2004ko otsailaren 12an.
- Bartzelonako 2004ko Forumari buruzko bilera, Gasteizen. 2004ko otsailaren 23an.

2.2.2 Giza eskubideak babesteko erakundeekiko harremanak eta lankidetzak

Gasteizek bezalaxe 2000. urtean, Bartzelonan, Giza Eskubideak Babesteari buruzko Karta sinatu duten hainbat hiritako sindiko eta herritarren defendatzaileekin bildu izan da Sindiko edo Herritarren Defendatzailea, ordezkatzen duen erakundea sendotze aldera.

- Sindiko eta herritarren defendatzaileen biltzarra, Santa Coloma de Gramenet-en, 2003ko martxoaren 27an.
- Bilera, Gijongo Herritarren Defendatzailearekin, Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak eta bere laguntzaileak hiri horretara egindako bisita batean. 2003ko uztailaren 29an.
- Catalunya eta Lonbardiako sindiko eta herritarren defendatzaileen jardunaldiak, Badalonan, 2003ko irailaren 24an (ikus 2.3. eranskina).

Erakunde hori sortu den hirietako sindiko eta herritarren defendatzaileak foro baten bitartez komunikatzen dira; beren iritziak agertzen dituzte bertan, baita –herritarren eskariei behar bezala erantzute aldera– beren udalerrietan egindako gomendioen berri ematen ere.

Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen lanak askatasunean eta demokrazian sakontzea dakar berekin, aginte politikoaren osagarri diren proposamenak eta bestelako irtenbideak emateko gai den gizarte zibilean sinesten duen demokrazian, hain zuzen ere. Orobat da gizarte zibil horren tresna bat, zeinek, bere independentziaz, kontrapisua egiten baitio boterearen balantzari. Ez da gobernu alternatiboa, ezta demokratikoki aukeratutako ordezkari politikoen ordezkoa ere; hala ere, aurrerapauso bat da demokrazia parte-hartzailearen benetako formetan.

Proposamen berritzaileak egin ditzake erakundeak, baita toki politikaren, erakundeen jokabidearen eta herritarren eskariak ebazteko prozesuen modernizazioa sustatu ere. Horretarako, bitartekaritza lanak egiten ditu herritarren eta administrazioaren artean, liskarrei konponbidea bilatzen laguntzen, baita baliabide gutxi dituzten pertsoneri irtenbideak aurkitzen ere.

Horren ildotik, ekarpen bat egin zuen Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak sindikoen foroan, “Herritarren lantegia” artikulua bitartez. (*ikus 6.1. eranskina*)

Ildo beretik, hainbat erakunderekin bildu da Sindiko edo Herritarren Defendatzailea, gure ordenamendu juridiko konstituzionalak herritar guztiei aitortzen dizkien eskubide eta askatasun guztiak bermatu eta errespetatu daitezkeen, baita horiek ordenamenduak berak ezartzen dituenaz beste mugarik gabe baliatzeko eskubidea ere. Erakundeekin izandako bileren berri ematen dugu ondoren.

- Eusko Jaurlaritzako Gizarte Gaietarako sailburuorde Manuel Vigo jaunarekin, Gizarte Larrialdiko Laguntzen inguruko arazoa zela eta.

- Arabako Foru Aldundiko Errepideen Kontrolerako arduradun Roberto Díez jaunarekin, Lopidanako zerbitzuguneko araztegia zela eta.
- Vitoria-Gasteizko Udalarekin, bai gobernu taldeko zinegotzietako bakoitzaren bilduz, kexei irtenbidea emateko, bai udal talde politikoekin bilduz, Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Araudia Toki Erakundeen Lege berrira egokitze aldera, bai erakunde autonomoetako arduradunekin bilduz...

2.2.3 Kexei konponbidea bilatzeko Vitoria-Gasteizko Udalarekin izandako harremanak

Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak Vitoria-Gasteizko Udalarekin eta bertako zerbitzu, sail eta bestelakoekin dituen harremanak hiru atal hauetan gauzatzen dira:

- a) Vitoria-Gasteizko Udaleko udalbatzaren bilkuretara joatea.

Sindiko edo Herritarren Defendatzailea –Vitoria-Gasteizko Udaleko udalbatzaren komisionatu gorena izaki, berorren araudiaren 1. artikuluan esaten denez, herritarren eta herritar taldeen eskubideak eta interesak babesteko, baita aginte eta botere gehiegikerien aurrean nahiz administrazio lokalaren axolagabekeriaren aurrean babesteko ere– udalbatzaren hainbat bilkuran izan da, edo bere lantaldeko norbait bidali, bertatik bertara izateko zinegotziek hartutako ebazpenen berri.

Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Bulegoko norbait izan den udalbatzaren bilkuren berri ematen dugu ondoren –Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen lehen oroit-idazkia aurkeztu zenetik 2004ko otsailera arte, hots, hau bukatu bitartean–:

- 2003ko uztailaren 18ko udalbatza.
- 2003ko abuztuaren 1.eko udalbatza.
- 2003ko irailaren 19ko udalbatza.
- 2003ko urriaren 2ko udalbatza: udal politikaren inguruko debate orokorra.

- 2003ko urriaren 17ko udalbatza.
- 2003ko azaroaren 14ko udalbatza.
- 2003ko azaroaren 28ko udalbatza.
- 2003ko abenduaren 19ko udalbatza.
- 2004ko urtarrilaren 23ko udalbatza.
- 2004ko otsailaren 20ko udalbatza.

b) Irizpen batzordeetara joatea.

Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Bulegoaren eguneroko lanean, Vitoria-Gasteizko Udaleko zinegotziek osatzen dituzten hainbat irizpen batzordetara joan izan gara, Vitoria-Gasteizko herritarrei zuzenean eragiten dieten gaiak jorratu behar zirelarik horietan.

Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen asistentzia –gehienetan laguntzailearena– batzordeak osatzen dituzten zinegotzietako bakoitzak emandako azalpenak eta egindako gogoetak entzuteko baino ez dira izan, gai jakin bat nola konpondu edo nola bideratu eztabaidatzen zelarik.

2003ko irailetik oroit-idazki hau bukatu bitartean, irizpen-batzorde gehienetara joan izan gara: Hirigintza Batzordera, Gizarte Gaietarako Batzordera, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Batzordera, Ingurumen Batzordera, Ogasun Batzordera eta Herritarren Parte-hartze Batzordera – horretan bakarrik hartu du hitza Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak, Vitoria-Gasteizko Udaleko zinegotziek proposamena egin eta orientabidea eskaintzeko, batzorde hori egin zedin.

Irizpen batzorde hauetan izan gara, hain zuzen ere:

- Hirigintzako Irizpen Batzordea. 2003ko urriaren 7an.
- Gizarte Gaietarako Irizpen Batzordea. 2003ko urriaren 13an.

- Hezkuntza, Kultura eta Kirol Batzordea. 2003ko urriaren 13an.
- Ingurumeneko Irizpen Batzordea. 2003ko urriaren 20an.
- Hirigintzako Irizpen Batzordea. 2003ko urriaren 21ean.
- Hirigintzako Irizpen Batzordea. 2003ko azaroaren 4an.
- Ogasuneko Irizpen Batzordea. 2003ko azaroaren 18an.
- Hirigintzako Aparteko Batzordea. 2003ko azaroaren 19an.
- Gizarte Zerbitzuen Irizpen Batzordea. 2003ko azaroaren 24an.
- Ingurumeneko Irizpen Batzordea. 2003ko azaroaren 26an.
- Hezkuntza, Kultura eta Kirol Batzordea. 2003ko abenduaren 1.ean.
- Herritarren Parte-hartze Batzordea eratzea. 2003ko abenduaren 15ean.
- Hirigintzako Irizpen Batzordea. 2003ko abenduaren 16an.
- Lehendakaritzako Irizpen Batzordea. 2003ko abenduaren 22an.
- Hezkuntza, Kultura eta Kirol Batzordea. 2003ko abenduaren 23an.
- Gizarte Zerbitzuen Irizpen Batzordea. 2004ko urtarrilaren 12an.
- Hirigintzako Irizpen Batzordea. 2004ko urtarrilaren 13an.
- Ogasuneko Irizpen Batzordea. 2004ko urtarrilaren 13an.
- Hezkuntza, Kultura eta Kirol Batzordea. 2004ko urtarrilaren 15ean.
- Gizarte Zerbitzuen Irizpen Batzordea. 2004ko urtarrilaren 26an.
- Lehendakaritzako Irizpen Batzordea. 2004ko urtarrilaren 26an.
- Hirigintzako Irizpen Batzordea. 2004ko urtarrilaren 27an.
- Funtzio Publikoaren Irizpen Batzordea. 2004ko otsailaren 5ean.
- Gizarte Zerbitzuen Irizpen Batzordea. 2004ko otsailaren 9an.
- Hirigintzako Irizpen Batzordea. 2004ko otsailaren 10ean.
- Herritarren Parte-hartze Batzordea. 2004ko otsailaren 16an.
- Lehendakaritzako Irizpen Batzordea. 2004ko otsailaren 23an.
- Hirigintzako Irizpen Batzordea. 2004ko otsailaren 24an.

c) Parte-hartze kontseiluetara joatea.

Herritarren parte-hartze organoak dira kontseiluak, jorratzen dituzten gaien arabera bereizten direnak. Kasu honetan, Vitoria-Gasteizko Udalak deitu dituenetara joan gara, Herritarren Parte-hartze Kontseilura, Berdintasunerako Kontseilura eta Irisgarritasun Kontseilura. Gainerakoetara, aldiz, ez gara joan –Garapenean Laguntzeko Kontseilura, Gazteria Kontseilura, Hirugarren Adinekoen Kontseilura, Osasun eta Kontsumo Kontseilura eta Ingurumen Kontseilura–, dela Sindiko edo Herritarren Defendatzailea bertan izatea ez delako beharrezkotzat jo, dela kontseiluak modu egokian funtzionatzen duelako –hala nola Garapenean Laguntzeko Kontseiluak–, dela deialdirik ez delako egin –Gazteria Kontseilua, Hirugarren Adinekoen Kontseilua, Osasun eta Kontsumo Kontseilua eta Ingurumen Kontseilua.

Guztira, parte-hartze kontseiluen **11 bilkuratara** joan gara, 2003ko martxotik 2004ko otsailera bitartean.

d) Udal sail edo zerbitzuekin, udal erakunde autonomoekin eta udal enpresekin egindako bilerak.

Bulegoan jasotako kexen haritik, hainbat bilera egin dira Vitoria-Gasteizko Udaleko sail eta zerbitzuekin. Erabiltzailearen kexaren berri jaso ondoren, lehenik eta behin dena delako sail edo zerbitzuko arduradunarekin harremanetan jartzea da Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen zeregina, bertatik bertara jakiteko zergatik ez dagoen herritarra pozik udalaren jarduerarekin.

Udal sail eta zerbitzuekin izandako harremanen zerrenda ematen dugu ondoren; gehienetan, bilera bat baino egin izan da horiekin:

- Alkatea.

- Administrazio Arloko zinegotzi ordezkaria.
- Ekonomi Sustapenaren Arloko zinegotzi ordezkaria.
- Herritarrentzako Zerbitzuen Arloko zinegotzi ordezkaria.
- Lurralde eta Mugikortasun Arloko zinegotzi ordezkaria.
- Hirigintza Arloko zinegotzi ordezkaria.
- Ingurumen Saileko arduraduna.
- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako gizarte langileak.
- Gizartegintza Saileko arduraduna.
- AMVISAKo arduraduna.
- Estrategi Plangintzaren arduraduna.
- Hirigintza Saileko arduraduna.
- Hiri Berrikuntzarako Eragintegiko arduraduna.
- ERDU Elkarleen eta Boluntarioen Agentziako arduraduna.
- Ogasun Saileko arduraduna.
- Udaltzaingoaren arduraduna.
- Zerbitzu juridikoen arduraduna.
- Lehendakaritza Saileko arduraduna.
- Kaleko hezitzaileak.
- Hezkuntza Saileko zuzendaria.
- Ingurugiro Gaietarako Ikastegiko arduraduna.
- Mugikortasun eta Garraio Zerbitzuko arduraduna.
- Gizarteratze Zerbitzuko burua.
- 21 Zabalgunea elkarteko arduraduna.
- Berdintasunerako Zerbitzuko arduraduna.
- Eraikuntzen Legezko Jaurbiderako Zerbitzuko arduraduna.
- Funtzio Publikoaren Saileko arduraduna.

- Iparralde gizarte etxeko koordinatzailea.
- Haurtzaro Zerbitzuko arduraduna.
- Hirigintza Arloko zinegotzi ordezkaria.
- Gizarte Gaien Arloko zinegotzi ordezkaria.

2.2.4 Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen ikerketa eta ikuskaritza jarduerak.

Beharrezkotzat jo du Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak ikuskaritza jarduerak egitea bere aldetik, ahalik eta informaziorik gehiena lortzeko eta, hartara, bulegora jotzen duten herritarrei erantzun ahal izateko.

Hala ere, udal administrazioak emandako dokumentazioa bere testuinguruan jarri eta osatze aldera, Vitoria-Gasteizko Udalak emandako argudioetara bakarrik mugatu beharrean, hainbat ikuskaritza-saio egin ditu Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak, gehienetan laguntzailearekin batera, bertatik bertara ikusteko zenbait egoera:

- Holiday zirkoak antolatutako zoo txikia bisitatu eta ikuskatzea, bertako egoera higienikoa eta sanitarioaren berri izateko, 2003ko martxoaren 6an.
- Gaueko patruila, Udaltzaingoarekin, berorren jardueren eta Vitoria-Gasteizen gauez sortu ohi diren arazoen berri bertatik bertara jasotzeko. 2003ko maiatzaren 7an eta maiatzaren 30ean.
- Askartza kalea ikuskatzea, auzoko bati enbarazu egiten dion kutxatila bat nola jarrita dagoen ikusteko. 2003ko azaroaren 19an.
- Olarizu haur eskola ikuskatzea, sarbidea eta egoera higienikoa eta sanitarioa ikusteko. 2003ko maiatzaren 14an.

- Santa Maria kantoia ikuskatzea, gasa instalatzeko bertara sartzeko aukera aztertzeke. 2003ko maiatzaren 14an.
- San Prudentzio hiribidea ikuskatzea, dauden ingurumen arazoak eta trafikoaren zarata aztertzeke. 2003ko maiatzaren 15ean.
- Garbigunea bisitatzea, Sansomendi inguruan. 2003ko uztailaren 21ean.
- Vitoria-Gasteizko Udalak sustatutako zainpeko apartamentuetako arduradun politikoei bisita egitea. 2003ko uztailaren 21ean.
- Venezuela kalea ikuskatzea, bertan kokatutako L.M. enpresak sortutako zarata eta bibrazioak direla eta. 2003ko uztailaren 21ean.
- Udal txakurtegira bisita egitea. 2003ko uztailaren 21ean.
- Lakuabizkarra ingurua ikuskatzea, zaindu gabeko lorategiak zirela eta. 2003ko urriaren 8an.
- L. zerbitzugunea ikuskatzea, isuriak zirela eta. 2003ko urriaren 9an.
- San Antonio kalean egoera txarrean zegoen etxebizitza bat ikuskatzea. 2003ko urriaren 17an.
- Legutianoko ateko auto salerosketarako denda bateko irregulartasunak ikuskatzea. 2003ko urriaren 17an.
- Euskaltzaindiaren plaza ikuskatzea, zikintasun-egoera eta egoera higienikoa eta sanitarioa ikusteko.
- Barrenkalea ikuskatzea, auzoko udaltzainekin batera. 2003ko azaroaren 5ean.
- Iparralde gizarte etxea ikuskatzea, kirol instalazioak nola zeuden aztertzeke. 2003ko abenduaren 11n.
- Oto hiribidearen eta Paula Montal kalearen arteko plaza ikuskatzea, hondatua zegoen ikusteko. 2003ko abenduaren 11n.
- Arriagako ateko 14.a ikuskatzea, Adinekoentzako Zentro Soziokulturalaren proiektua nola zihoan ikusteko. 2004ko urtarrilaren 26an.
- ASAFESen aretoak bisitatzea. 2004ko otsailaren 19an.

2.2.5 Vitoria-Gasteizko Estrategi Plana

Vitoria-Gasteizko Estrategi Planeko lantaldeko kide izan da Sindiko edo Herritarren Defendatzailea; batetik, gai bakoitzaren inguruan egindako bilkuretan izan zen –Lurraren, Etxebizitzaren eta Lurralde Ereduaren Foroa; Enpresa Garapenaren eta Ekonomi Jardueraren Foroa; Merkataritza Foroa; Mugikortasunaren eta Komunikazio Ardatzen Foroa; Aisialdiaren eta Denbora Librearen Foroa–, eta bestetik Herritarren Foroa –Elkarbizitza, Herritarrak eta Gizarteratzea– koordinatu zuen.

Vitoria-Gasteizko Estrategi Plana, hasiera batean, sei gairen inguruan taxutu zen; horiek azalduko ditugu ondoren:

a) *Herritarren Foroa: “Herritarrak eta Elkarbizitza”.*

Bizitza kalitatea eta zerbitzu publikoen aniztasuna dira Vitoria-Gasteizen aurkezpen-txartela.

Bizitza-itxaropena oso handia da, emakume nahiz gizonezkoen artean. Sorospen zerbitzu ugari ditu Vitoria-Gasteizek, herritarren beharrei erantzuteko atonduak. Handia da goi mailako ikasketak dituzten herritarren ehuneko, baina, aldiz, herrialde gehienetan dagoenetik gora dago emakumezkoen arteko langabezia.

Hiriko 2010 Plan Estrategikoaren baitan, hori osatzen duten foroetako baten koordinatzailea izan da Sindiko edo Herritarren Defendatzailea. “Herritarrak eta Elkarbizitza” izan du izena foro horrek, hasiera batean Elkarbizitza, Herritarrak eta Gizarteratzea deitu bazen ere. Hiriko elkarbizitza aztertzerakoan jorratu daitezkeen hiru ardatzei buruzko ahalik eta iritzi eta ideia gehien biltzea du helburu foro horrek: gizarte kohesioa, herritar identitatea eta

elkarbizitza eta liskarra. Hau da, hiria egiten duten elementu materialei buruz ez ezik, osatzen duten faktore sozial eta moralei buruz ere gogoeta egin nahi zen. Hauxe dugu geure buruari galdetu beharrekoa; zein jarduera publiko nahiz pribatuk taxutzen duten gure bizitza kolektiboa hiri bezala; nola bizi garen elkarrekin, auzo bezala, elkarrengandik bereizten gaituzten interes-desberdintasunak eta desberdintasun ideologiko, filosofiko eta erlijiosoak gorabehera; nola hartzen ditugun kanpotik datozenak; zein bizimodu proposatzen diegun hurrengo belaunaldiei eta nola eusten diogun belaunaldi batzuen eta besteen arteko loturari; zerk eraikitzen duen gasteiztar gisa identifikatzen gaituen “gu” hori; zer nolako harremanak ditugun gure bi hizkuntza ofizialekin –euskara eta gaztelaniarekin– eta nola anaikidetzen ditugun diskurtso zibil komunean; nola baloratzen ditugun gure ikurrak, jaiak, eta hiriko erreferentzia enblematikoak; gure historia ezagutzen dugun; nola konpontzen ditugun elkarbizitzak berekin dakartzan eguneroko liskarrak, eta nola egiten diogun aurre terrorismoaren ondorioz gure herritar askok bizi duten jazarpen-indarkeriaren liskar larriari.

b) Lurrari, Etxebizitzari eta Lurralde Ereduari buruzko Foroa

Hiri eredu iraunkor bat, naturarekin eta zabalkundearekin ongi moldatzen dena. Etorkizuneko erronkak hauek ditugu: hiri eredia berraztertu, hiri trinkoagoa lortze aldera; lautadaren garapen osagarria, hiriburu izateari probetxu ateratzea, eta etxebizitzaren prezioak egokitzea.

Espainiako etxebizitza-preziorik handienetako bat du Vitoria-Gasteizek, metro karratuko. Handitu eginda hiriaren bizileku-ahalmena. Industria lur dotazio handia dago, prezio lehiakorretan. Ehun sozialean txertatuko den industri kultura behar dugu; horretarako, hor dugu Jundizko poligonoaren adibidea, industri lurraren alorreko politika aktiboaren baitan kokatzen den ekimena.

c) Enpresa Garapenaren eta Ekonomi Jardueraren Foroa.

Industri hiri indartsua da Vitoria-Gasteiz. Hauek dira etorkizuneko erronkak: dibertsifikazioa, industria aurreratuago eta lehiakorragoa lortzeko; ezagutzaren alorreko azpiegiturak sortzea, eta bete ekonomi sektore batzuen aldeko apustua: ingurumena, zerbitzuak, turismoa eta abar.

Enpresa ertainerako joera dago; aparteko munta dute industri eta administrazio establezimenduek enplegu sorreran. Ahalegin handia egiten da I+Gean laguntzeko, baina Europa mailetatik behera. Ingurumenarekin arduratuta daude enpresak, eta kulturaren eta biltzarren alorreko turismoaren aldeko apustua egin da.

d) Merkataritza foroa

Etorkizuna duen sektorea da merkataritza, bilakaera eta modernizazio prozesu sakonean murgildua. Hauek dira etorkizuneko erronkak: merkataritzaren plangintza eta hirigintza; merkataritza-zentralitate berriak sortzea; lankidetzeta eta modernizazioa; elkarleen eta lankidetzaren sustapena.

EAEn gertatzen ari den merkataritza-integrazio prozesuak denda txikien kopurua urritzea ekarri du berekin. Hala ere, ugaritu egin dira sektoreko lanpostuak. Merkataritza panorama berria hirian, merkataritza ulertzeko beste modu bat dakarrena berekin. Erdiko merkataritzaren prestakuntza erdi-/goi-mailan kokatzen da. Erdi Aroko hiriguneak ez du merkataritza-erakarpen handirik. Elkarte gehiago dago Gasteizko merkatarien artean. Vitoria-Gasteizen merkataritza-egituraren lehiakortasuna areagotzeko modu bat da hori.

e) Mugikortasunaren eta Komunikazio Ardatzen Foroa

Hiri estrategikoa da Vitoria-Gasteiz, zentralitate egoera aitortzen dioten proiektuekin: Y trenbidea, Eibar-Gasteiz autopista... Hauek dira etorkizuneko erronkak: mugikortasun eta

komunikazio proiektuak azkartzea; barne mugikortasuna hobetzea, hiriaren hazkunde eta garapenarekin batera; garraio kolektiborako politikak berdiseinatu eta indartzea.

Garrantzi handia du Vitoria-Gasteizek logistika kontuetan. Eibar-Gasteiz autopista, komunikabide berria; hiriko Iparra/Hegoa ardatza; Vitoria-Gasteizko garraio publikoaren erabiltzaileen gehikuntza; ibilgailu partikularra lanera joateko erabiltzea, garraio publikoa gertu izan arren... guztiak ere foroan joratu beharreko gaiak ditugu. Hiriko trafikoa da herritarrak gehien kezkatzen dituen alderdietako bat, eta bizikleta sustatu beharra dago hirian, garraiobide gisa.

f) Aisialdiaren eta Denbora Librearen Foroa

Aisialdirako, kirolerako eta denbora librerako baliabide eta jarduera bikainak: gizarte etxeak. Elkartzeko bide ematen du kirolak. Kultur ekoizpen propio eskasa dago, lokalaren mugak gainditzen dituenik. Hauek dira etorkizuneko erronkak: elkarlan publiko-pribatu handiagoa; kultur eskaintzaren neurri eta helmen handiagoa, hiriburu den aldetik dagokionez.

Neurri lokaleko kultur merkatua, erakunde publikoen menpe. Aisialdia eta ikuskizunak gutxi garatuak. Vitoria-Gasteizko biztanle gehienek atsedean jardueretan ematen dute aisialdirik gehiena. Gizarte etxeen sarea aisialdirako ekimena da. Gutxitzen ari da kirol "klasiko"etara jotzen dutenen kopurua, eta gora egiten, aldiz, gorputza zaintzeko diren jardueretara jotzen dutenena. Turismo eskaintzaren aldakuntzak aprobetxatzen dira.

2.3 AHOLKULARITZA ETA ORIENTABIDE JARDUERAK

2.3.1 Herritarrei aholkularitza eta orientabidea ematea

Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Bulegoaren eguneroko lanean, azpimarratzekoa da informazio edo orientabide eske bertara jotzen duten herritarrei ematen zaien aholkularitza, udal administrazioan kexa bat nola aurkez lezaketen argitze aldera, Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Araudiaren 18. artikuluan aitortutako eskumenen ildotik.

Bi aholkularitza-modu bereizi beharra dago, zerbitzuaren bigarren etapa honetan. Alde batetik, herritarrek udalari aurkeztu nahi dizkioten erreklamazio-idazkiak egiten laguntzera bideratutako aholkularitza, horiek Sindikoarenera jotzen dutelarik kexa paperera aldatzeko orduan laguntza eske.

Bestalde, bigarren aholkularitza-modu bat, bulegora iristen diren kontsultei erantzutera bideratutakoa da –hitzaurreko lehen atalean eman dugu guztira eginda zaizkigun kontsulten kopurua: 250–. Nora jo behar duen azaltzen zaio herritarrari halakoetan berehalakoan, hau da, zein udal zerbitzuek –edo udalaz kanpokok– duen eskumena erabiltzailea kexu ageri deneko arlo horretan.

Azkenik, ikasturte honetan garrantzi handia izan du Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak kexak direla eta izandako esku-hartzeak. Nahiz eta erabiltzaileak Vitoria-Gasteizko Udalari aurkeztuak izan horiek, udal sail edo zerbitzuaren jarraipena egitea izan da halakoetan Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen zeregina, arinago eta modu eraginkorrean ebatzi dezan hark dena delako kexa, baldin eta uste izan badugu ebazpen baten premiarik gabe konponduko zuela arazoa. Era horretako jarduera eta esku-hartzei dagokienez, ikus bedi ebazpenen atalean sailen jarduera eta esku-hartzeen berri ematen den parte.

Udalari hainbat idazki aurkezteko laguntza eman zaie herritarrei ekitaldi honetan. Horiei erantzun ez zaielarik, bulegora itzuli dira berriro erabiltzaileak, eta, horren ondorioz, hainbat gomendio egin dira bertatik, erabiltzaileari erantzun dakion.

2.3.2. Herritarren Defendatzaile edo Sindikoa eta Iradokizun eta Erreklamazio Batzorde Berezia koordinatzeko proposamena

Tokiko Gobernua eraberritzeko neurriak biltzen dituen abenduaren 16ko 57/2003 Legearen 132. artikulua iradokizun eta erreklamazio batzorde berezi bat sortzea aurreikusten du, zeinaren eskuduntzak eta Herritarren Defendatzaile edo Sindikoarenak ia berberak baitira.

Horregatik, Kexa eta Iradokizunen Batzorde Berezia eta Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen figura koordinatzeko proposamena egin du Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Bulegoak:

57/2003 Legearen 132. artikulua agindutakoaren arabera, legeak eragindako udalek iradokizun eta erreklamazio batzorde berezi bat sortu behar dute, zeinaren eskuduntzak eta Herritarren Defendatzaile edo Sindikoarenak antzekoak izango bailirateke. Dena den, erakunde horien izaera ezberdina denez, posible eta gomendagarria da bien artean koordinatzea, elkarren osagarri izan daitezen. Izan ere:

Batzorde berezia kide anitzeko organoa da, alderdi politikoek proportzionalki osatua; Sindikoa, berriz, pertsona bakarrak osatutako organo independentea.

Sindikoa, bakarra eta independentea izanik, azkar eta berehala jardun dezake, herritarrengandik hurbil; garrantzi eta eragin ezberdineko egoerei arin eta baliabide gutxirekin zein denbora laburrean egokitzeko ahalmena du.

Batzordea, ordea, kide anitzekoa eta politikoa izanik, erakunde geldoagoa da, denbora eta baliabide gehiago behar baitu, baina eztabaida sakonagorako bide eman dezake, Udalaren politika orokorrean eragina izango duena, eta parte hartzeko aukera gehiago ematen du.

Hori dela eta, 2001ean onetsitako Herritarren Defendatzaile edo Sindikoaren Araudian hainbat aldaketa egitea proposatzen dugu. Horiek Iradokizun eta Erreklamazio Batzorde Bereziaren Araudian jaso beharko dira, zeina 57/2003 Legearen 132.1 artikuluan ezarritakoari jarraituz idatziko baita.

Batzorde Bereziaren eta Sindikoaren arteko koordinazioak OINARRI hauek izango ditu:

- 1.- Biak dira Udalbatzaren mandatua duten organoak: Batzordeak 57/2003 Legean du oinarri, eta Sindikoak, konstituzioak bermatzen duen eta Oinarrien Legeak aurreikusten duen berezko antolaketarako ahalmenean.
- 2.- Herritarren Defendatzaile edo Sindikoak 2001eko irailaren 8ko Araudian ezarritako bitartekaritza, informazio eta aholkularitza lanak egiten jarraituko du, independentziaz eta objektibotasunez; HORRETAZ GAIN, Iradokizun eta Erreklamazio Batzorde Bereziaren kide izango da, hitza bai baina botorik ez duelarik.
- 3.- Erakunde ekonomiaren kariaz, Sindikoaren Bulegoak jasoko ditu Batzorde Bereziarentzako idazkiak, eta horietako bakoitzari buruzko TXOSTENA EGINGO DU.
- 4.- Iradokizun eta Erreklamazio Batzorde Bereziak bere kabuz abiarazten dituen prozeduretan aginduzko txostena egingo du Sindikoak.
- 5.- Arrazoi beragatik, Sindikoaren urteko txostena Iradokizun eta Erreklamazio Batzorde Bereziari aurkeztuko zaio aurrerantzean.

Beraz, Sindikoaren Araudian aldaketa hauek egitea proposatzen da:

I. KAPITULUA. IZAERA

.../...

2. artikulua.-

1.- Herritarren Defendatzailea edo Sindikoa, Vitoria-Gasteizko Udalaren eta hiritarren arteko lankidetzarako pertsona bakarreko organo gisa osatzen da, eta, bere betebeharren barruan, aurkezten zaizkion kexei buruzko ebazpenak emango ditu.

*2.- Herritarren Defendatzailea edo Sindikoa Vitoria-Gasteizko Udaleko Iradokizun eta Erreklamazio Batzorde Bereziaren berezko kide izango da, hitza bai baina botorik ez duela.

*3.- Herritarren Defendatzailea edo Sindikoa da Herritarren Defendatzaile edo Sindikoaren Bulegoko burua eta bulego horretan jasoko dira Vitoria-Gasteizko Udalaren Iradokizun eta Erreklamazio Batzorde Bereziari zuzendutako idazki eta eskaerak.

4 .../...

19. artikulua.- Herritarren Defendatzaileak edo Sindikoak honako hau egin ahal izango du:

a) **Hiritar batengan** edo **hiritar talde batengan** eragina duten udal ekintzak edo jarrerak argitzeko ikerketa hastea eta burutzea.

b) Organo eskudunei, **funtzionarioei** edo haien gainean daudenei aholkuak bideratzea edo eginbeharrak gogoratzea, legez kanpo dauden edo zuzenak ez diren ekintzak zuzentzen ahalegintzeko edo udal administrazioaren zerbitzuak hobetu ahal izateko.

*c) Eskudun den gaietan txostenak ematea, Iradokizun eta Erreklamazio Batzorde Bereziak hala eskatzen dionean.

d) Bere esku dituen baliabide guztien bidez, eta Udal Aldizkariaren bitartez batez ere, bere lanaren izaeraren, bere ikerketen eta urteroko txostenaren berri ematea.

***VII. KAPITULUA.- IRADOKIZUN ETA ERREKLAMAZIO BATZORDE BEREZIAREKIKO ETA UDALBATZAREKIKO HARREMANAK**

36. artikulua.-

*1.- Herritarren Defendatzaile edo Sindikoaren bulegoan jasoko dira Batzorde Bereziari zuzendutako iradokizun eta erreklamazioak. 15 egun balioduneko epean helaraziko dizkio Bulegoak Batzordeari jasotako erreklamazio eta iradokizun oro, aurkeztutako agiriekin batera, behar bezala zerrendatuta, eta hala badagokio, proposamen txosten bat erantsiko du.

*2.- Herritarren Defendatzailea edo Sindikoa Iradokizun eta Erreklamazio Batzorde Bereziaren berezko kide izango da, hitza bai baina botorik ez duela; galdetzen zaizkion gaiez ahoz nahiz idatziz informatuko dio Batzordeari.

*3.- Iradokizun eta Erreklamazio Batzorde Bereziak bere kabuz abiarazten dituen prozeduretan aginduzko txostena egingo du Herritarren Defendatzaileak edo Sindikoak.

*4.- Herritarren Defendatzaileak edo Sindikoak, urtero, egindako kudeaketaren berri emango dio Iradokizun eta Erreklamazio Batzorde Bereziari. Horretarako txosten bat prestatuko du eta Batzordearen aurrean aurkeztuko du gai bakartzat hori izango duen aparteko bilkura batean. Jasotako idazki guztien eta Iradokizun eta Erreklamazio Batzordeari aurkeztutako txostenen zerrenda erantsiko dio horri.

11 .../...

41. artikulua.-

*1.- Bestalde, Herritarren Defendatzaileak edo Sindikoak ez ohiko txostenak ere aurkeztu ahal izango dizkio Iradokizun eta Erreklamazio Batzordeari, bere parte hartzea eragin duten ekintzen larritasunak edo garrantziak hala eskatzen dutela irizten badio.

*2.- Hala eskatuz gero, Herritarren Defendatzaileak edo Sindikoak bere eskumeneko gaien berri emango dio Udalbatzari.

2.4 SINDIKOAREN EDO HERRITARREN DEFENDATZAILEAREN EBAZPENAK SAILEZ SAIL (gomendioak, ezesteak, atzera botatzeak, bideratzeak, aholkuak eta beste)

2.4.1 HIRIGINTZA SAILA

2.4.1.1 Zuzendaritza

2.4.1.1.1 Bitartekaritza

- Desjabetzearen ondoriozko konpentsazioa (Erregistro zk.: 05-02)

Erreklamazioa

Funts baten oinordekoaren ordezkartzan, Gasteizko herritar bat Sindikoaren edo Herritarren Defendatzailearen Bulegora jo zuen desjabetzea dela eta Vitoria-Gasteizko Udalarengandik jasotako konpentsazioagatik .

Herritarrak adierazi zigunez, bere ordezkatuak funts bat oinordetu zuen baina udal administrazioak ez zion eskritura eman nahi, jabea hilda zegoelako eta hortaz, legezko oinordekoek ez zuten eskrituren inguruko ezer egiteko ahalmenik, berez ez baitzen agiri legalik existitzen. Orobat, Udalaren ordainketa batzuk oso berandu jasotzeagatik kexatu zen.

Azterketa

Herritarraren kexa onartu ondoren, gai honen berri eman zitzaion Ogasun Sailari.

Eskatutako argibideak lortu eta gero, Hirigintza Sailarekin jarri ginen harremanetan.

Aipatutako bilera eta handik hiru hilabetera, Hirigintza Sailarekin elkarrizketatu ginen eta orduan jakin genuen zinegotzi ordezkariaren izenpea besterik falta ez zela desjabetzea dela eta emandako konpentsazioa amaitutzat emateko.

Eraginpean hartutako sailengandik argibideak jasotzearekin batera, herritarrari egindako izapideen berri eman zitzaizkion.

Zinegotzi ordezkariak sinadura eman ondoren, banketxeak egin beharreko izapideak besterik ez ziren gelditu eta kasua amaitutzat eman zen.

Ebazpena

Desjabetutako funtsaren oinordekoaren ordezkari zen herritarraren eta Hirigintza Sailaren arteko bitartekaritza lanak egin ziren, duela 20 urtetik gora desjabetu zen funts baten baina orain arte egin ezin izan den eskritura egite aldera.

- Handizkarien azokaren ondoko etxebizitza konpontzeko hitzarmena haustea (Erregistro zk.: 292-03, 148-03)

Erreklamazioa

Hainbat kexu zeuden gai honen inguruan. Batetik, hainbat auzokidek handizkarien azokaren inguruan janari-hondarrak eta bestelakoak uzten zirela eta horrek zikinkeria gunea sortzen zuela salatu zuten auzokideek. Beste alde batetik, duela lau urte, Vitoria-Gasteizko Udalaren eta ijito familia talde baten arteko ahozko hitzarmena bete ez izanagatik zeukan haserrearen berri eman zuen Gao Lacho Drom taldeak. Antza familia horiek azokaren aldameneko etxebizitzetan bizi dira eta hitzartutakoaren arabera teilatua, aurrealdea... konpontzea nahiz etxea azokatik bereizteko horma egitea erabaki zen.

Ingurua behar den baldintzetan egokitzea eta erabakia betetzea eskatzen zuten.

Azterketa

Bulego honek hainbat izapide egin zituen handizkarien azokaren inguruko aldea egokitzeke zein bere garaian Gao Lacho Drom taldearen eta Udalaren artean hartutako akordioa betetze aldera. Horretarako, bilerak egin ziren ondokoekin: eragindako Udal Sailak (Udaltzaingoa,

Osasun eta Kontsumo Saila eta Ogasun Saila), handizkarien azokaren emakidadunak eta Gao Lacho Drom taldea.

Hasiera batean, azokan berez higiene-arazo larria zegoela ikusi genuen, auzokideek azokarekiko duten errespetu ezaz gainera. Prebentzio neurri gisa, Udalari hesi-sistema aldatzeko eta arazoan era osagarrian esku hartzeko eskatu zitzaion.

Zikinkeria sortzen zuena azokaren ondoko kontzesionarioa zela adierazi zuen Udalak eta ingurua garbitu nahiz egokitu zezala eskatu zion. Inguruaren garbitasuna azokaren aldameneko kontzesionarioaren ardura zela adierazi zuen Udalak, zerbitzua ematera eta ingurua txukun mantentzera behartzen zuten baldintza orriek erakusten zuten.

Udal arduradunak, azokaren enpresa emakidaduna eta Sindikoa edo Herritarren Defendatzailea bildu zituen bilera ere egin zen arazoa konpontzeko asmotan. Gao Lacho Drom taldearekin ere bildu ginen eta haien etsipenaren berri eman ziguten administrazioak duela lau urte ingurua egokitzeko ahozko hitzarmena bete ez izanagatik.

Ebazpena

Aurreko guztia dela eta, hasiera batean **GOMENDIO** bat egin zen, zeinetan handizkarien azokako higiene-arazo larriaren berri ematen zen, bai eta adierazi ere erantzukizuna ez zela azokaren ondoko kontzesionarioarena soilik, ezpada azokaren zuzentasuna apurtzen zuten auzokideena ere.

Bigarrenez, Gao Lacho Drom taldearen eta Udalaren arteko bitartekaritza egin zen, duela lau urte ahoz hartutako konpromisoa betetze aldera. Udal administrazioak hauek guztiak egiteko hitza hartu zuen: teilategala konpontzea, errepidera ematen duen aurrealdean erretena jartzea, goiko pisuetan teilatupea egitea, errepide aldeko atea (atzekoa) ixtea, atzealdean hustubideak hartuko dituen porlanezko xafla bat jartzea zuhaitzak libre utzita eta azkenik, etxebizitza eta azokaren eremua horma batez banatzea. Bilera batean, 2004ko aurrekontu luzapena gorabehera Udalak obrak bere gain hartzeko hitza eman zuen Hirigintza Arloko zinegotzi ordezkariak sindikoaren edo herritarren defendatzailearen aurrean. Hirigintza Sailarekin bilera gehiago egin ziren obrak egiteko izapideak egiten ari ote ziren jakiteko.

- Eskultura bat hiriaren modernotasunaren sinbolotzat mantentzea (Erregistro zk.: 304-03)

Erreklamazioa

Euskaltzaindiaren plazarako eskultura lehiaketaren irabazle (azkeneko erabakian herritarren beraien iritzia hartu zen aintzat) izan zen eskultorea sindiko edo herritarren defendatzailearenera jo zuen, oztupoak eta trabak sortu eta obrak egiteko kontratuaren negoziazioa zaildu egin baitzen.

Eskultorearen hitzetan, eskultura egiten hasia zela, Konpentsazio Batzarrari proiektuaren aldaketa bat aurkeztu zion, ur-sistemaren ordezkari eskultura argitzeko sistema jartzeko.

Sindikoa edo herritarren defendatzailearen bitartekaritza eskatu zuen “Etorkizunera begiratzen duen hiriaren modernotasunaren sinbolotzat” egindako eskultura ondo zaindu zedin.

Azterketa

Sindikoa edo herritarren defendatzailea Euskaltzaindiaren plazan (eskultura dagoen tokian) egon ondoren eta egileak elkarrizketan adierazitakoari jarraiki, iturria zaindu gabe zegoela adierazi zion sindikoak Udalari eta eskatu “La inocencia, lo inesperado” eskultura kokatzen den urmaela garbitzeko, lan hori udal garbiketa zerbitzuen noizean behingo lanen artean sartzeko eta urmaelean argiak jartzeko.

Sindikoak edo herritarren defendatzaileak bildutako informazioaren arabera, eskultura ez zen Udalaren jabetzakoa, 2. sektoreko Konpentsazio Batzarrarena baizik eta horrek zeukana iturriaren mantentzearen eta egoeraren ardura. Eskultura udalarena bihurtzeko eta ingurua egokitzeko lanak egin daitezzen lortzeko, bilerak egin ziren Hirigintza Arloko zinegotzi ordezkariarekin, Konpentsazio Batzarreko ordezkariarekin, bai eta erreklamazio-egilearekin eta bere abokatuarekin ere.

Hutsak konpondu eta gero, Konpentsazio Batzarrak eskultura Udalari igorri ahal izateko izapideak egiteko eskaria egin zion sindikoak alkateari nahiz Hirigintza Arloko zinegotzi ordezkariari.

Hilabete batzuren ondoren Udalak batere egin ezean, Udalaren aurkako auzi-eskea aurkeztuko zuela adierazi zigun erreklamazio-egileak, multzo eskultorikoa zaintzen ez zela eta hondatuta baitzegoen.

Ebazpena

Hasiera batean, eskultura kokatuta zegoeneko urmaeleko iturria zaindu eta mantentzeko **GOMENDIOA** egin zen. Gerora, Konpentsazio Batzarraren eskuetan zegoen multzo eskultoriko hori Udalari igortzeko izapideak arintzeko **GOMENDIOA** egin zitzaion azken horri berari.

2.4.1.2 Bide Publikoen Zerbitzua

2.4.1.2.1 Gomendioak

- Gasteizko parke bateko zikinkeria eta segurtasun nahiz mantentze eza (Erregistro zk.: 120-02)

Erreklamazioa

Gasteizko auzo bateko auzokideek bulegora jo zuten auzoko parke bateko, Iparraldeko parkeko hain zuzen, zikinkeria eta segurtasun nahiz mantentze ezarengatik.

Azterketa

Idatzizko kexa egin ondoren, parkean bertan inguruko jabe-komunitateko lehendakariarekin bilera egin zen.

Hirigintza Sailari ingurua birmoldatzeko egin litekeen planari buruzko txostena eskatu zitzaion eta Udaltzaingoari, auzo-zain gehiago handik ibiltzeari buruzkoa.

Parke eta Lorategien Ataleko nahiz Udaltzaingoko txostenetan, hartutako neurrien berri eman zen, bai eta aurrerantzean parkea zorrotzago zainduko zela adierazi ere.

Eraginpean hartutako sailek emandako argibideak auzokideei helarazi zitzairen.

Ebazpena

Ebazpena bitan banatuta zegoen. **GOMENDIO**Ari dagokionez, Udaltzaingoaren, auzokideen eta sindiko edo herritarren defendatzailearen arteko bilera egitea iradokitzen zen, hainbat alderdi barne hartuko lituzkeen plana diseinatze aldera (poliziek ingurua gehiago zaintzea, animalien gorozkiak jasotzen diren, animaliak solte uzten diren, parkean bertan gertatzen den droga trafikoa eta kontsumoa). Bestetik, kexa **ZATI BATEAN** besterik ez zen **ONARTU**, jasotzen dituen beste zenbait alderditan administrazioak ongi jokatu baitu.

Kexa zati batean onartzearekin adierazi nahi izan genuena zen parkea behar bezala zainduta ez bazegoen ere eta animalien jabeen arau-hausteak kontrolatzen ez baziren ere, parkeko argiztapena ingururako egokia zela, Parke eta Lorategien Ataleko estandarrekin bat baitzectorren. Azkenik, haur jolasen txokoa azterketa zabalago bat egitea eskatzen zuen zegokion gomendia egite aldera.

- Bide publikoan mahaitxoak kokatzea (Erreg. zk.: 182-03)

Erreklamazioa

Zenbait tabernek batzuetan kalean jartzen zituzten terrazak gehiegizkoak zirela eta oinezkoen ibilbidea oztopatzen zutela salatu zuen gasteiztar batek.

Ostalaritza-establezimendu bakoitzaren kanpoaldean kalera atera ditzakeen mahaitxoek kopurua adieraztea eskatu zuen.

Azterketa

Herritarra kexa aurkeztu eta sinatzera etorri ondoren, espainiar lurraldean indarrean dauden ordenantzei buruzko azterketa egin zen, hark eskatutakoa haietakoren batean jasotzen ote zen ikusteko.

Valladolideko Udaleko Bide Publikoetako Terrazei buruzko ordenantzaren 11.1. artikulua haritik, baimendutako luze-zabalaren planoan agerian egon beharko du establezimenduaren atean.

Hori dela, komenigarritzat jo zen horren inguruko **GOMENDIOA** egitea, hain zuzen, Vitoria-Gasteizko Udaleko ordenantza aipatutakoa jaso zezan aldatzea.

Bulego honek gomendioa egin eta hilabete batera, mahaitxoak zaindu eta kontrolatzeko plana (Bide Publikoan jartzen diren mahaitxoak zaintzeko plana) abian jarriko zutenaren berria eman zuen Udaltzaingoak.

Ebazpena

Bide publikoan mahaiak, mahaitxoak, aulkiak... jartzeari buruzko ordenantza aldatzeko erreforma egiteko **GOMENDIOA** eskatu zitzaion Vitoria-Gasteizko Udalari.

Udaltzaingoak aipatutako plana abian jarri zuela eta, gomendioa **ZATI BATEAN ONARTUTZAT** jo zen, establezimendu publikoek indarreko legeria betetzea helburutzat hartua zelakoan.

- Nieves Cano kaleko lorategia (Erreg. zk.: 107-02)

Erreklamazioa

Nieves Cano kaleko 19.enari dagokion tartea egoera tamalgarrian zegoenaren berri eman zuen gasteiztar batek: garbiketa falta zen, hiri-altzariak zaharkituta zeuden, haurrentzako parkeek ez zituzten segurtasun neurriak betetzen eta zoladura hondatuta zegoen.

Azterketa

Herritarrak bulegoan kexa aurkeztu ondoren, bertara joan ginen eta herritarrak salatutakoak benetakoak zirela ikusi ahal izan genuen.

Horrenbestez, titulartasunari eta erabilerarako araubide juridikoari buruzko txostena eskatu zitzaion Bide Publikoen Zerbitzuari. Denbora baten ondoren, horrek ez zuenez erantzunik eman, titulartasunari buruzko argibideak eskatu zitzaizkien berriro ere baina atzera ez zen batere erantzunik lortu.

Hori dela eta, udal administrazioaren isilune administratiboaren aurrean, Nieves Cano kaleko alderdi publiko hura titulartasun publikokoa zela pentsatu beharra zegoen. Maiatzaren 8an, antzeko kasu batean Arartekoak egindako 13/2003 gomendioan esaten zen argiteria, lorezaintza, garbiketa eta hiri-altzariak direla eta pasabidea mantentzea Udalaren ardura zela.

Oinezkoak igarotzen diren alderdiko zein hiri-altzariak daudeneko zoladura (aurrealdeak, parametroak eta sabaiak izan ezik) eta berdeguneak mantentzeko lanak gutxieneko garbiketa estandar batekin egin beharko lituzkete udal zerbitzuek.

Ebazpena

GOMENDIOA egin zen, non aditzera eman baitzen udal administrazioak ingurua egokitu, lorategiak zaindu eta hiri-altzariak ordezkatzeko ardura zuela.

Gomendioa egin eta handik hilabetera, Bide Publikoen Zerbitzuak, egokitze lanak egiteko ardura zuenak, eta Parke eta Lorategien Zerbitzuak **ZATI BATEAN ONETSI ZUEN** gomendioa. Azken horrek bi berdegune bereiztu zituen: batetik, zerbitzuak zaintzen zuena eta bestetik, etxebizitzaren aurrealdeetara atxikitakoa, zeinaren mantentzea auzokideen ardura baita baina egoera tamalgarrian baitago.

Hirigintzako Irizpen Batzordeak Nieves Cano kaleko lursailak udalaren jabetzakoak zirela berretsi zuen; hortaz, **GOMENDIO** berri bat egin zitzaion, zeinetan adierazten baitzen argiteria, garbiketa eta bideetako nahiz espazio publikoetako zoladura bezalako zerbitzu

publikoak ematea Udalaren ardura zela eta horrenbestez, udalari direlako zerbitzuak bere gain hartzea eskatu zitzaion.

Oroit-idazki hau amaitzerakoan, zerbitzuak gomendioa onartzen zuela eta kalea asfaltatzeko obrak 2004ko abuztuan egingo zirela jakinarazi zuen.

- Gasteizen bizikleta-errei berria jartzea (Erreg. zk.: 176-03, 192-03, 270-03, 272-03) (ikus ondorengo atala: Ingurumena-Zuzendaritza-Gomendioa)
- Euskaltzaindiaren plazako iturria garbitzea (Erreg. zk.: 259-03)

Erreklamazioa

Lakuabizkarra auzoko bizilagun bat Euskaltzaindiaren plazako iturria eta ingurua zikin eta egoera txarrean egoteaz kexatu zen.

Euskaltzaindiaren plaza egokitzea eskatu zuen.

Azterketa

Kexu-egilearekin izandako elkarrizketaren ondoren, bulego honen aurreneko ekintza gisa, Euskaltzaindiaren plazaren aldameneko orubeen titulartasunari buruzko txostena eskatu zitzaion Ogasun Sailari. Horretan, udalaren orubeak zirela adierazi zen; beraz, udalaren ardura haiek mantentzea zen.

Plazan bertan dagoen “La Inocencia, lo Inesperado” izeneko iturriaren zikinaz ere kexatu zen andrea. Udaleko Bide Publikoen Zerbitzuak emandako informazioaren arabera eskultura ez zen oraindik udalarena, konpentsazio batzar batena baizik; orduan, hark zuen mantentzearen eta egoera erantzukizuna.

Sindikoa delako obraren egilearekin bildu zen, haren mantentzeaz zuen iritzia eman zezan. Udaleko Hirigintza Saileko zuzendariarekin ere bildu ginen eta hark esan zigunagatik eskulturaren mantentzea Konpentsazio Batzarraren esku egoten jarraitzen zuen.

Ebazpena

“La inocencia, lo inesperado” eskultura kokatuta dagoeneko urmaela garbitzeko eta lan hori udal garbiketa zerbitzuen eginbehar bihurtzeko (aldian behin egin beharrekoa)

GOMENDIOA egin zen. Bestetik, argiteria eta egokitzea aintzat hartu behar zirela adierazi zitzaien.

Udalak onetsi eta Euskaltzaindiaren plazako urmaela eta haren inguruak garbitu zituen. Eskultura ez zen udal administrazioaren jabetzakoa eta udala eta egilea ez zirenez akordio batera ailegatu, azkeneko horrek auzi-bidera jotzea erabaki zuen.

2.4.1.2.2 Ezestea

- Zapatari kalea trafikorako ixtea (Erreg. zk.: 200-03)

Erreklamazioa

Emakume gasteiztar bat Abuztuan, Zapatari kalea auzokideei abisurik eman gabe itxi izanaren inguruko argibideak eskatzeko kexa aurkeztu zuen emakume gasteiztar batek.

Azterketa

Emakumeak idatziz aurkeztua zuen kexaren inguruko azalpenak egiteko hitzordura agertu zen. Zapatari kalea itxi izanaren inguruko haserrearen berri eman zigun.

Mugikortasun eta Garraio Zerbitzuari hauek guztiak argitzeko txostena egitea eskatu zitzaion: itxierak zein ordutik zein ordura iraun zuen, zergatiak, auzokideei itxieraren berri eman ote zitzaien eta Alde Zaharrean motelgailuak jartzearen ingurukoak.

Txosten eskaerari erantzunez, Zapatari kalea oinezkoentzat dela adierazi zigun delako zerbitzuak baina era berean Alde Zaharreko beste oinezkoen kaleak bezala, alkatetzaren bandoa tarteko zamalanetarako ordutegia zuela (8:00 - 13:00, astelehenetik larunbatera).

Txostenean, halaber, adierazten zen hiriko erdiguneko zenbait kale (Andre Maria Zuriaren plaza eta Mateo Benigno Moraza kalea) larunbateko 16:00etatik igandeko 21:00etara zein jaiegunetan 07:00etatik 21:00etara trafikorako ixten direla.

Azkenik, Zapatari nahiz Errementari kaleetan sartzeko kontrol sistemak (hiriko beste oinezkoen alderditan dauden bolardoen antzekoak) jartzeko proposamena diseinatzen ari zela adierazten zen.

Ebazpena

Hori dela eta, argi geratu zen udalak herritarraren kexuaren aurrean zuzen jokatu zuela.

EZIN IZAN ZEN HERRITARRAREN KEXA ONARTU, udalak zuzen jokatu baitzuen eta Zapatari kalea aipatutako bandoak ezartzen dituen mugen barnean itxi baitzen.

- Bide publikoan hondatuta zegoen kuxteta (Erreg. zk.: 250-03)

Erreklamazioa

Emakumezko gasteiztar batek kexa aurkeztu zuen, amak hondatutako kuxteta batekin estropezu egin zuela eta erori egin baitzen. Udalean erreklamazioa egin bazuen ere, ebazpenak ez zuen asetu.

Udalak eragindako gastu oro bere gain hartzea eskatu zuen, kuxteta norena zen gorabehera.

Azterketa

Udalak kexa dela eta emandako ebazpenean Bide Publikoetako Zerbitzuko ingeniari buruak adierazten zuenez, erorketaren egunean kuxteta lurrarekiko 2 cm altxatuago zegoen.

Kuxteta Iberdrola, S.A. ren jabetzakoa zen eta beraz, mantentzea hari zegokion. Hortaz, zuzena da herritarri kalte-ordaina ordaintzeko erantzukizuna udalaren eta Iberdrolaren artean banatzea.

Erreklamazio-egileari Iberdrolaren erantzukizunaren berri eman ondoren berarekin izandako elkarrizketan, konpainiari erreklamazioa aurkezteko laguntza eskatu zigun eta eman genion.

Ebazpena

Kexa **EZETSI** egin zen, udalak onartutako erantzukizuna egokitzat jo baitzen, kuxtetaren jabeak, hots, Iberdrolak hartu behar zuelako gainerakoa bere gain.

Bestetik, enpresa elektrikoari zuzendutako erreklamazioa egiten lagundu zitzaion herritarri, kuxteta desegokiro zegoela eta ordaindu behar zuen kalte-ordaina erreklamatzeko.

- Geltoki plazatxoko zikinkeria (Erreg. zk.: 71-02)

Erreklamazioa

Herritar batek Geltoki plazatxoan eta inguruetan argi gutxi zegoenaren berri eman zuen. Behartsuek bertan aurkitzen dute babes eta horrek inguruaren degradazioa dakar. Herritarrei Laguntzeko 010 Zerbitzura askotan deitu izan arren, ez zuela batere erantzunik jaso adierazi zigun.

Ingurua egokiro argiztatzeko neurriak har daitezela eskatu zuen.

Azterketa

Herritarrarekin elkarrizketa izan ondoren, bertan kexa aurkeztu eta sinatu zuelarik, plazatxora hurbildu ginen eta ikusi ahal izan genuen bertan ez zela argirik falta. Argi puntu ugari zegoen.

Edonola ere, plazatxoaren zenbait txokotako argi falta edo argi-itzal efektua lonjetako argi gabeziak eragiten zuen. Hortaz, dendetan argia dagoen kaleetan baino argi gutxiago zegoela zirudien.

Beste alde batetik, behartsuen gaia udal administrazioak kontrolpean zuela ulertu beharra zegoen, Gizartegintza Sailak duela urtebete kale-hezitzaileen programa eta aterpea abian jarria baitzuen. Beraz, udal administrazioak erantzuna emana zion arazoari.

Ebazpena

Kexa **EZETSI** egin zen, udalak argiteria publikoari, herritarren segurtasunari eta esku hartze sozialari zegokionez ondo jokatu zuela frogatu baitzen.

2.4.1.2.3 Eskariak atzera botatzea, ez onartzea

- Kableaketa elektrikoa jartzeko bide publikoan egindako obrak (Erreg. zk.: 208-03)

Erreklamazioa

Herritar batek adierazi zigun udalak bere auzoan obrak egiten ari zela eta zoladura altxatu behar izan zuela. Bide batez EUSKALTEL telefoni enpresaren kableaketa egitea iradoki zuen.

Azterketa

Herritarrak aurkeztutako dokumentazioari jarraiki, eskaria ez zen udalaren eskumenekoa, kableaketaren ardura telefoni enpresarena baita.

Ebazpena

Kexa **ATZERA BOTA ZEN**, Sindikoaren edo Herritarren Defendatzailearen Araudiaren 26. artikulua ildotik, gaia haren eskumenetik kanpo baitzegoen.

- Bide publikoan kokatutako edateko ur biltegia kentzea (Erreg. zk. 206-03)

Erreklamazioa

Herritar bat jabe-komunitate baten ordezkari gisa etorri zen Sindikoaren bulegora, udalak berea zen ur biltegia kendu baitzuen. 1972az geroztik, horretarako baimena zuten eta herritarrari jarraiki, lursail pribatuan kokatuta zegoen.

Administrazioaren jokaera egokia izan ote zen jakin nahi zuten auzokideek, kontuan hartuta 2002. urtean 5.600.000 pezetako balioa zuela.

Auzokideen arabera, ez zegoen ur biltegiak kentzea baimentzen zuen udal akordiorik. Hirian beste ere baziren eta AMVISAk berak horiek kentzearen kontrako zen.

Azterketa

Jabe-komunitatearen ordezkariarekin, kexa sinatu zuenarekin, elkarrizketa bat izan ondoren, ur biltegia kentzearen inguruko ebazpenaren berri ematea eskatu zitzaion Bide Publikoen Zerbitzuari.

Herritarrak kexa egin eta egun batzuren buruan, berriro ere bulegora etorri zen etxebizitzaren eskriturarekin, zeinetan biltegia kokatuta zegoeneko lursaila jabetza pribatua zela egiaztatzen baitzen

Lurralde Antolakuntza eta Etxebizitza Arloko zinegotzi ordezkariaren ebazpenaren ildotik, biltegia ez zen jada erabilgarria eta arriskutsua ere izan zitekeen bide publikoan. Orobat, udalak biltegiaren jabetzari buruzko agiriaren berri ez izatea adierazten zen, datuetatik ondorioztatzen zenez baimen idazkia 1972. urtekoa izan behar baitzuen.

Udal administrazioak emandako ebazpena bazegoenez, interesdunek administrazio bidera jotzea besterik ez zuten; beraz, bulego honek Sindikoaren edo Herritarren Defendatzailearen 26. artikulua haritik ez zuen zer eginik.

Ebazpena

Kexa-egileak epaitegietara jotzea beste biderik ez zuenez, kexa **ATZERA BOTA** genuen.

2.4.1.2.4 Orientazioa

- Bide publikoetako mahaitxoak (Erreg. zk.: 122-02)

Erreklamazioa

Kafetegi bateko terrazak auzokideei enbarazurik ez sortze aldera baldintza batzuk bete behar izateaz kexatu zen auzokideen ordezkari batek.

Azterketa

Eraginpean hartutako herritarren ordezkariarekin izandako bileraren ondoren, Ingurumen Zerbitzuari txostena eskatu zitzaion.

Eskatutako txostena jasotzean, jakin genuen kafetegiak bazuela baimena baina ez zekitela mahaitxoak jartzeko baimena ote zuen.

Mahaitxotarako baimenaren ingurukoak Hirigintza Saileko Bide Publikoen Zerbitzuari galdetu zitzaizkion eta delako kafetegiari baimena eman zitzaiola jakinarazi zuen.

Behin txostena jasota, herritarrari horien berri eman zitzaien.

Ebazpena

Jabe-komunitatearen ordezkariari hartu zitzakeen bideei buruzko **ORIENTAZIOA** eman zitzaion, kafetegiak mahaitxotarako baimena zuela jakinarazi ondoren.

- Nekazaritza eremuan asfaltatu gabe zegoen kalea (Erreg. zk.: 247-03)

Erreklamazioa

Bera bizi zen kalea Gasteizko udalerraren baitakoa izan arren asfaltatu gabe zegoela salatu zuen Gasteizko herritar batek. Ipar-mendebaldeko nekazaritza eremuan kokatutako Oto Barren kalea asfaltatzea eskatzen zuen.

Azterketa

Emakumearekin elkarrizketa bat izan zen eta bertan kexa adierazi eta sinatu egin zuen, sindikoak jaso izanaren seinale. Kexaren berri ematen ari zela, bere etxera ailegatzeko (nekazaritza eremuan dago) bidearen asfaltatzea 2004. urteko aurrekontuetan sartzea eskatzeko idatzia egiteko orientazioa eman zitzaion.

Orientazioa eman bazen ere, horrek ez zuen gerora beste izapideren bat egitea galaraziko, hala nola, eragindako sailari kexaren berri ematea.

Ebazpena

Herritarrari kexaren inguruan orientazioa eta aholkularitza eman zitzaion.

2.4.1.2.5 Esku hartzea

- Habana kalean obrek eragindako zaratak (Erreg. zk.: 310-03)

Erreklamazioa

Habana kaleak Brasil kalearekin bat egiten duen tokian, 26 egun lehenagotik, zuntz optikoa kanalizatzeko egiten ari ziren obra batean, ibilgailuak eta oinezkoak pasatzeko xaflak zeuden. Xaflok Pio Baroja ikastetxe publikoko parkingera sartzen diren ibilgailuek zapaltzen zituzten eta ez zieten lorik egiten uzten.

Obra amaitzea eskatzen zuen, geldituta baitzegoen.

Azterketa

Herritarrarekin elkarrizketatu ondoren (kexa aurkeztu eta izenpetu zuen), bulego hau Bide Publikoen Zerbitzuarekin jarri zen harremanetan, udalak eta enpresak zuntz optikoa jartzeko obrak amaitzeko jarritako epearen berri izate aldera.

Salatutako obrak enpresa pribatu bati, Euskalteli, zegozkiola eman zuen jakitera Bide Publikoen Zerbitzuak. Udaleko teknikariak hara bertaratuta, Habana kaleko obrak, zehazki, amaituta zeudela eta kexa eragin zuten xaflak jada ez zeudela ikusi zuten.

Ebazpena

Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak **ESKU HARTU** zuen, ibilgailuek eta oinezkoek Pio Baroja ikastetxe publikoko parkingera sartzeko xaflek egiten zuten zarataren berri Bide Publikoen Zerbitzuari eman baitzitzaion, neurriak har zitzan.

- Baiona kalean, Zumaia plazan eta inguruetan paperontziak jartzea (Erreg. zk.: 260-03; 312-03)

Erreklamazioa

Bi urte pasatxo lehenago Getaria eta Baiona kaleetan etxea erosi ondoren eta udal zergak ordaintzen bazituzten ere, Baiona kalean, Getaria kalean, Zumaia plazan eta inguruetan paperontzirik ez zegoela salatu zuen herritar talde batek.

Paperontziak jartzea eskatzen zuten.

Azterketa

Herritarrekin banakako elkarrizketak izan ondoren (orduan aurkeztu eta sinatu zuten kexa), alde horretan paperontziak faltatzearen zergatiari buruzko txostena eskatu zitzaion Bide Publikoen Zerbitzuari.

Zerbitzuak adierazitakoari jarraiki, kaleok Vital Kutzaren lursailetan zeuden, 9. sektorean hain zuzen, eta hortaz horiek udal administrazioaren eskutan ez zeuden bitartean, lursailak zaindu eta mantentzeko ardura delako erakundearena zen.

Hilabete batzuk geroago eta Sindikoa behin eta berriro saiatu zenez, Kutzak udalari lursailak, jada, emanak zizkiola adierazi zigun azkeneko horrek. Dirlako kaleetan paperontziak jarri ote ziren ikuskatu zen. Lakuabizkarra ia osoan paperontziak jarri izanaren berri eman zuen Bide Publikoen Zerbitzuak.

Ebazpena

Herritarren eskariaren ondoren, Baiona kalean eta Zumaia plazan paperontziak jartzeko **ESKU HARTU** zuen udalak.

2.4.1.3 Eraikuntzen Legezko Jaurbiderako Zerbitzua

2.4.1.3.1 Gomendioak

- Jabe-komunitate batean ke-kanpaiak gaizki jarri izana (Erreg. zk.: 150-03)

Erreklamazioa

Jabe-komunitate berean gaizki jarritako ke-kanpaiak eragindako ke arazoak konpontzeko izapideak egin ondoren, auzokide talde batek Sindikoaren edo Herritarren Defendatzailearen esku hartzea eskatu zuen.

Azterketa

Eraginpean hartutako zerbitzuari, Eraikuntzen Legezko Jaurbiderakoari hain zuzen, aurkeztu nahi zioten salaketa idazkia egiteko laguntza eman zitzaien. Horretan, obretarako baimena izan gabe ke-kanpaiak jarri izana salatu zuten herritarrek eta ke-kanpai partikularren zein etxebizitzaren aireztapen sistema orokorraren loturak ke ugari sortzea eragiten zuela, kea desegokiro irten baitzitekeen.

Hilabete batzuren buruan, bulegora jo zuten berriro udalak baitzuen aurkeztutako idazkiari erantzunik eman.

Bulego honek **GOMENDIOA** egin zion Hirigintza Saileko Eraikuntzen Zerbitzuari, direlako kanpaiak ken zitzan.

Ebazpena

Herritarren salaketari (gaizki jarritako kanpaiak kentzea) jaramon egiteko **GOMENDIOA** egin zen.

Gomendioa egiterakoan, udal teknikari bat miatzera joan zela esan ziguten auzokideek.

Eragindako sailak **GOMENDIOA ONARTU** zuen eta hori 2003-2004ko oroit-idazkiko estatistikarako hartuko zen kontuan.

- Jabe-komunitate batean patioa garbitzea (Erreg. zk.: 249-03)

Erreklamazioa

Eraikuntzen Legezko Jaurbiderako Zerbitzuak Ama Vedruna kalearen, Adriano VI.aren eta Gasteiz hiribidearen arteko etxadiaren patioa garbitzeko bigarren agindua bete ez zenez, emakumezko gasteiztar bat gure bulegora jo zuen.

Udalak zigorra jartzea eta subsidiarioki bere gain hartzea eskatu zuen, patioan kanpotarrak sar zitezela ekidin aldera.

Azterketa

Herritarrak sindikoarekin izandako bilkuran, Ama Vedruna kalearen, Gasteiz hiribidearen, Adriano VI.aren eta Lovaina plazaren arteko etxadiko jabeek patioa garbitzeko ebazpenak, Eraikuntzen Legezko Jaurbiderako Zerbitzuak, aurkeztu zituen.

2001eko uztailaren eta 2002ko urtarrilaren bi ebazpen horien ildotik, etxadiko patioaren jabeari lan hauek egitea agindu zitzaion: zaborra, paperak, botilak... hartzea, belarra moztea, euri-uren erretena garbitzea eta patioa zein arranpaletako bat banatzen dituen sarea konpontzea.

Kexa 2003ko uztailean jaso genuen eta ebazpenek oraindik bete gabe jarraitzen zuten, beraz, patioa zikin.

Hori dela eta, gure bulegoarentzat beharrezkoa zen Eraikuntzen Legezko Jaurbiderako Zerbitzuak direlako ebazpenak betetze aldera emandako ebazpenen jarraipena egitea; kasu jakin honetan, Ama Vedruna kalearen, Gasteiz hiribidearen, Adriano VI.aren kalearen eta Lovaina plazaren arteko patioa garbitzeari buruzko bi ebazpen emanak ziren baina bertan ez zen batere garbitasunik sumatzen.

Ebazpena

Horrenbestez, **GOMENDIOA** egin zitzaion Eraikuntzen Legezko Jaurbiderako Zerbitzuari. Bertan eskatzen zitzaion berak egindako ebazpenen jarraipena egin zezala patioa ikuskatzera joanez edo udaleko garbiketa zerbitzuei garbiketa subsidiarioa egitea eskatuz.

Egin genien gomendioari erantzunez, zikinkeria arazoa Ingurumen Sailari zegokiola erantzun zuen Eraikuntzen Legezko Jaurbiderako Zerbitzuak, bere aurrekontuetan hala baitzegoen ezarrita. Bestetik, patioaren garbiketaz arduratzen zen enpresa ez zen jada existitzen eta patioa higiene-baldintza egokietan mantentzeko arduraduna jabe-komunitatea zen, 1992ko uztailaren 17an onetsitako Udal Garbiketa Ordenantzari heldu ahal ziotelako. Hortaz, eraginpean hartutako zerbitzuak **EZ ZUEN GOMENDIOA** onartu.

2.4.1.3.2 Ezestea

- Ke-kanpaia jartzea (Erreg. zk.: 286-03)

Erreklamazioa

Udalak Vitoria-Gasteizko Antolakuntzarako Plangintza Orokorraren 5.03.03-9 artikulua ez betetzeagatik kanpaia jartzea eragotzi zion herritar batek kexa aurkeztu zuen.

Bere sukaldea aireztatzeko alternatibak eskatu zituen.

Azterketa

Antolakuntzarako Plangintza Orokorraren 5.03.03.9 artikulua arabera, sukaldeetako errekontu-keak husteko hodiak zuzenean eraikinaren estalkira irtengo dira eta ezingo dira hodi beretik zuzendu erauzgailuetako irteerak. Erauzgailu bakoitzak shunt independentea izango du. Erauzgailu bakoitzaren shunta estalkiraino eramanez behar da.

Aurkeztutako dokumentazioaren haritik, administrazioak ebazpena emanaz ongi jokatu zuen. Horretan adierazitakoari ildotik, Lurzoruari buruzko indarreko Legearen 185. artikuluan ezarritakoaren arabera, eraikuntza edo lur-erabilera ekintzak arauzko baimenik gabe egiten

direnean, bi hilabeteko epean, eskatzea galdatuko dio alkateak obrak sustatu dituenari edo haren ondorengoei.

Baldin eta emandako epea igarotzen delarik, delako baimena eskatzen ez bada edo plangintzan nahiz ordenantzetan araututakoaren kontrakoa izaki, ukatu egiten bada, modu ezegokian eraikitakoa interesatuaren kontura eraisteko aginduko da. Eta horixe zen hain zuzen ere zegokigun kasua.

Ebazpena

Kexa **EZETSI** egin zen, etxebizitzaren aireztapen shunt-a ezin baita erauzgailuetako irteerekin konektatuta egon.

- Barneko patioa urak hartzea (Erreg. zk.: 221-03)

Erreklamazioa

Bere etxearen barneko patioa etxeke beste bizilagun baten titulartasuneko zela eta emakume bat etorri zitzaigun kexaka.

Udalak esku hartzea eta egoerari amaiera ematea eskatzen zuen herritarrak.

Azterketa

Egoeraren nondik norakoen berri izateko izapideak egiten hasi ginen. Behatutakoaren arabera eta kexa-egileak egindako informazioari jarraiki, barneko patioaren azpian supermerkatua zegoen eta horren jabeekin jarri ginen harremanetan arazoaz jabetuta ote zeuden jakiteko.

Bestetik, Vitoria-Gasteizko Udaleko Eraikuntzen Legezko Jaurbiderako Zerbitzuarekin elkarrizketatu ginen, herritarrak egindako kexaren berri emateko.

Udaleko teknikariek lekua ikuskatu zuten, hain zuzen, Herrandarren kaleko 24.aren eta 26.aren arteko patioa. Bisita haren ondoren, patioan euri-urak hartzeko hustubide bat behintzat bazegoela baina butxatuta zegoenez hezetasuna aurrealdera pasatu zela adierazten zen txostenean. Patioa pribatua zenez, jabeen arteko kontua zen.

Ebazpena

Kexa **EZETSI** egin zen, partikularren arteko kontua izaki udal administrazioak ongi jokatu baitzuen eta egin beharrekoak egin baitzuten.

- Ke-erazgailuen instalazio desegokia (Erreg. zk.: 195-03)

Erreklamazioa

Bere jabe-komunitatean, beharrezko baimenik gabe, hainbatek ke-erazgailuak jarri zituztela adierazi zigun herritar batek. Usaina sortzen zen eta bere etxebizitza aireztatzeko arazoak zituen.

Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen esku hartzea eskatu zuen direlako erazgailuak ken zitezen.

Azterketa

Sindikoarekin izandako bileran, herritarrak bestelako dokumentazioa aurkeztu zuen.

Herritarrari jabe-komunitateko gainerako auzokideei zuzendutako idazkia egiten lagundu zitzaion, zeinetan ke-erazgailuak desegoki jartzearen ingurukoak eta hori debekatuta zegoela baitzuen hizpide.

Ez ziren erazgailuak kendu eta auzokideei informazioa eman ondoren eta zentzuzko tarte bat pasatzen utzi ostean, **GOMENDIOA** egin zen Gasteizko Hiri Antolakuntzarako Plangintza Orokorraren Berrikuspenaren (ALHAO 01.02.19) 3. artikuluko 9. puntuan oinarrituta, zeinaren arabera:

“Sukaldeetako errekontza-keak husteko hodiak zuzenean eraikinaren estalkira irtengo dira eta ezingo dira hodi beretik zuzendu erazgailuetako irteerak”.

Ebazpena

Auzokideek ke-erazgailuen instalazio desegokiak ekar lezakeen ondorioen berri izateko idatzia egiten **LAGUNDU** zitzaion.

Denbora baten buruan, Gasteizko Hiri Antolakuntzarako Plangintza Orokorraren 9. artikulua ke-erazgailuei dagokienean aintzat hartzeko **GOMENDIOA** egin zen.

Zentzuzko tarte baten ondoren, eraginpean hartutako zerbitzuari egindako gomendioaren jarraipena egin zen eta hainbat bileraren ondoren aditzera eman zen Lurraren Araubidearen eta Hiri Antolaketaren Arloko Presako Neurriak Zehazteari buruzko 5/1998 euskal Legearen arabera, udalak hirigintzako arau hausteengatik jar ditzakeen zigorrak lau urtera preskribituko dutela. Halere, horrek ez zuen esan nahi eraikinaren aireztapen orokorreko shunt-ari konektatutako ke-erazgailuen legez kanpoko instalazioa –baimenik gabe egin zela frogatu zen eta indarreko hirigintza araudia hausten zuen– legezko bilakatzen zenik. Hortaz, kasu honetan, ulertzen zen, gomendioa egin ostean, udal administrazioak ongi jokatu zuela eta bide administratiboa agortuta, Jabetza Horizontalari buruzko 49/60 Legearen arabera jabe-komunitateak auzi-bide zibilera jotzeko aukera zuen. Horrenbestez, kexa **EZETSI** egin zen.

2.4.1.3.3 Orientazioa

- Gas naturaleko sukalde bat balkoi batean jartzea (Erreg. zk.: 256-03)

Erreklamazioa

Duela urte batzuk, bere ondoko bizilagunak balkoi itxi batean gas naturaleko sukaldea jarri zuela eta bere etxera usaina eta kea sartzen zela adierazi zion Gasteizko herritar batek Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Bulegoari.

Udalan arazoa konpontzeko neurriak har zitezela eskatzen zuen.

Azterketa

Herritarrekin izandako elkarrizketan jakin ahal izan genuen aurretik kexa aurkeztua zuela udalean. Kexa eragin zuen arazoa identifikatzera joan ziren eta konponbiderik ez zegoela adierazi zioten.

Hirigintza Kudeaketarako Plangintzaren erabilera arau partikularren 5.01.38 artikuluan keen hustuketari buruz ezarritakoaren haritik, *fatxadetan, patio komunetan, balkoietan eta*

leihoetan ezingo dira keak irteteko hustubideak ezarri, irteera horrek behin-behineko izaera badu ere, banakako gas-galdara estankoen kasuan izan ezik.

Hori dela eta, udalari zuzendutako idatzia egiteko **LAGUNTZA** eman zitzaion. Bertan, alorrean indarrean zegoen araudia gogorarazten zitzaion eta ikuskapen bisita egin zezala eskatzen zitzaion, hirigintza diziplina berriro ezartzeko neurriak har zitezen.

Ebazpena

Udalari zuzendutako idatzia egiten **LAGUNDU** zitzaion, erantzuna jasotzen zenean bulego honek beharrezko neurriak hartu ahalko zituelarik.

2.4.1.3.4 Bitartekaritza

- Etxebizitza bat eraitsi behar zela eta haien etxetik atera behar izatea (Erreg. zk.: 154-03)

Erreklamazioa

Ondoko eraikina bota behar zutela eta bere etxebizitza uzteko agindua jaso zuen Alde Zaharreko auzo-elkarte bateko ordezkariak. Aldi baterako, beste toki batera eraman zituzten.

Udalaren Erdi Aroko Hirigunearen Birgaitze Integraturako Plan Berezian bere etxebizitzek zein egoeratan zeuden argitzea eskatzen zuen.

Azterketa

Herritarrarekin elkarrizketatzean kexa onetsi zen, Hura aztertze aldera, Lurralde Antolakuntza eta Etxebizitza Arloko zinegotzi ordezkariarekin bildu ginen hiriko hirigintza plan orokorrari, eta hain zuzen ere, Alde Zaharrekoari, buruzko argibideak eskatze aldera.

Eraikuntzen Legezko Jaurbiderako Zerbitzuarekin ere bildu ginen eta eraginpean hartutako herritarrei alokairuko pisuak eskaini zizkiela adierazi ziguten. Udalak ahal zuen neurrian, behin-behineko etxebizitzak herritarrentzako egokiak izango zirela adierazi zuen.

Ebazpena

Auzokideen eta udalaren arteko **BITARTEKARITZA** egin zen, aldameneko eraikina botatzen zuten bitartean bizi behar ziren etxebizitzaren baldintzei zegokienez akordio batera iriste aldera.

2.3.1.2.5 Herritarraren eskariz bertan behera utzitako kasua

- Aretxabaletan hiri eraikuntzako etxebizitzarik ez onartzea
(Erreg. zk.: 28-02)

Erreklamazioa

Herritar batek hertsiki juridikoa zen gaiaren berri eman zigun, zeina oso konponbide zaila baitzuen, hirigintza araudietan zehazki zehaztuta baitzegoen.

Onetsitako Armentia aldeko gauzatze unitate bat berriz aztertzeko eta etxebizitza bat eraikitzea ahalbidetuko zion konponbidea aurkitzeko eskatu zuen, lursailaren luze-zabala gutxieneko neurrien azpitik geratzen baitzen.

Azterketa

Herritarrarekin elkarrizketatu ondoren, Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak Hirigintza Plan Orokorra eskatu zion Hirigintza Sailari. Plana ondo aztertu zen eta azkenean, herritarrak berak kasua bertan behera uztea eskatu zuen, batere aukerarik ez zuela ikusirik.

Ebazpena

Kasua herritarraren eskariz **ITXI** zen.

2.4.1.3.6 Atzera botatzea / Ez onartzea

- Etxebizitza baten azpiko enpresak eragindako bibrazioak (Erreg. zk.: 263-03)

Erreklamazioa

Bere etxebizitzaren (Venezuela kalea) beheko lokaletan zegoen enpresak, L.M.-k, sortutako bibrazioak eta zikinkeraren inguruko kexa aurkeztu zuen herritar batek.

Jarduera baimena aztertzea eta arazoa konpontzeko beharrezko neurriak hartzea eskatzen zuen.

Azterketa

Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin izandako elkarrizketan, herritarrak kexa egin eta izenpetu zuen. Herritarrak L.M. delako enpresak zein baimen mota zuen jakin nahi zuenez, argibideak eskatu zitzaizkion Udal Ingurumen Sailari.

Herritarraren hitzetan, delako lokalera tona askoko kamioiak sartzen ziren, delako pasabide baimenak hartarako biderik uzten ez bazuen ere. Antza 26 tonatako kamioak sartzen omen ziren, 20 tona bitartekoak bakarrik sar zitezkeelarik.

Herritarraren terraza-balkoiko harkantoietan pitzadura txikiak aurkitu genituen bertara egindako bisitan. Eraikuntzen Legezko Jaurbiderako Zerbitzuak horrek segurtasunean inolako eraginik ez zuela adierazi zuen. Beste alde batetik, jarduera baimena egokia zela jakinarazi zuen Ingurumen Sailak txosten baten bitartez, bai eta jardueraren titularrari biltegiaren sarrera atean bibrazioen aurkako euskarriak jartzea eta bibrazioak ez gertatzeko konpresorea akustikoki isolatzea eskatu ziola ere.

Herritarrak bibrazioak egoten jarraitzen zutela jakinarazi zigunez, enpresara sartzen ziren ibilgailu motari buruzko informazioa eskatu zitzaion, enpresak indarreko legeria betetzen baitzuen.

Ebazpena

Erantzunik jaso ez genuenez, ulertu beharra dago arazoa konpondu egin zela edo bestela, arazoak jarraitzen bazuen ere, gaia zibila zela (indarreko legeria betetzen zenez udalak ez zuen eskumenik). Kasua atzera bota eta artxibatu egin zen herritarrak besterik esan ez bitartean.

2.4.1.4 Plangintza eta Hirigintzaren Kudeaketarako Zerbitzua

2.4.1.4.1 Ezestea

- Etorkizuneko auditorioko besaulki egokituak (Erreg. zk.: 142-03)

Erreklamazioa

Gasteiztar batek edozein lekutan eseri ahal izatea galarazten zion elbarritasuna zuen. Aulki motako eserleketan bakarrik eser zitekeenez, Gasteizen egiten diren zenbait ekitaldi eta kultur jardueratara joateko zailtasunak zituen.

Egingo ziren eraikuntza berrietan, auditorioan adibidez, bere kasua kontuan hartzea eskatzen zuen.

Azterketa

Kexa idatziz jaso ondoren, auditorioaren proiektuan irisgarritasunerako neurriak kontuan hartzen ote ari ziren galdetu zitzaion Idazkaritza Nagusiari.

Indarrean dagoen legeriari jarraiki, irisgarritasun arazoak dituzten pertsonentzat besaulki kopuru jakin bat uztea proiektatuta zegoela adierazi zuten.

Harekin izandako elkarrizketan, horren berri eman zitzaion eta agerian geratu zen bere eskaerak ez zuela zentzurik indarreko legerian.

Hori dela eta, administrazioa irisgarritasun gaietan legea betetzen ari zela ulertu genuen eta kexa **EZETSI** egin zen. Mota honetako kasuetarako, palkoetan aulki zurrinak jartzeko **IRADOKIZUNA** egin zitzaion zegoen sailari.

Ebazpena

Kexa **EZETSI** egin zen, administrazioa legeriari jarraiki jokatzeko ari baitzen.

2.4.1.5 Nekazaritza Eremuaren eta Mendien Zerbitzua

2.4.1.5.1 Esku hartzea

- Mendiolako Administrazio Batzarrean hasitako obra (Erreg. zk.: 269-03)

Erreklamazioa

Bere etxearen ondoko lursaila ezegonkorra eta arriskutsua zela eta lurra erori egiten zela jakinarazi zigun Mendiolako Administrazio Batzarreko herritar batek.

Lursailean ezponda edo eustorma egiteko eskatu zuen.

Azterketa

Ondoko lursaileko lur-jausiak arazoak sortzen ari zela jakinarazi zion herritarrek Sindiko edo Herritarren Defendatzaileari.

Obra publikoetako udal ingeniari teknikoak egindako txostenean lursailaren desnibela desagerrarazteko balizko irtenbideak zehazten ziren. Alde batetik, goiko lursailean lurraren erorketa naturala gainditzeko moduko ezpona bat egitea eta horren gainean istripuak galarazteko babes-hesia jartzea. Beste alde batetik, goiko lursaila eusteko horma egitea eta babesgarriren bat jartzea (bai hormaren altuera handitzea, bai horma horren goialdean itxituraren bat jartzea).

Herritarrek berriro ere Sindikoaren esku hartzea eskatu zuenez, Nekazaritza Eremuaren eta Mendien Zerbitzuko zuzendariarekin jarri ginen harremanetan eta hark esan zigun bere zerbitzuak ez zuela batere obrarik egiteko asmorik; hortaz, egiten hasi zen obra administrazio batzarraren eskumenekoa izango zen.

Administrazio batzarrak aditzera eman zuenez, obrak epai judizial baten babesu zuten eta obrak eragindako desnibela mozteko eustorma egiteko udal txostena egonik ere (obra egiteko beharrezko baimenak emanda zeuden), bide publikoan egiterakoan, administrazio batzarraren eskumenaren baitan geratzen zen.

Ebazpena

Herritarren eskariz, Sindikoak **ESKU HARTU** zuen. Eraginpean hartutakoekin hitz egin ostean, obra epai batek babestua zegoen eta bide publikoan egin behar zenez, administrazio batzarrak horretarako eskumena zuen.

2.4.2 OGASUN SAILA

2.4.2.1 Ondare Erantzukizunaren Atala

2.3.2.1.1 Gomendioa

- Pitzatuak lokal batean obrak zirela eta (Erreg. zk.: 43-02)

Erreklamazioa

Aldabe kalean Vitoria-Gasteizko Udalak kontratatutako enpresa batek obrak egitearekin batera, bere lokalean pitzatuak agertzen hasi zirela adierazi zigun herritar batek.

Ordura arte pitzatuek handitzen jarraitzen zuten. Arazoa konpontzeko beharrezko neurriak hartzeko eskatu zuen.

Azterketa

Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin izandako elkarrizketan, Aldabe kalean egindako obrak berak Kutxa kalean zeukan lokalaren egitura arriskuan jarri zutela adierazi zigun herritarrak, denbora igarotzen joan ahala pitzatuak hormetan ugaltu egin baitziren.

Herritarrak ekarritako dokumentazioan, Ogasun Saileko Ondasun Inbentarioaren Atalaren txosten teknikoaren haritik, "*baliteke uneren batean lokaleko zolarria kili-kolo geratu izana, zoladura eta hodiak jartzea etab. bezalako obretarako eraikinaren kanpoaldean hondeatu egin baitzen*". Horrenbestez, udal administrazioak pitzatuak agertu izanaren erantzukizuna zuen, berak obrak egiteko enpresa hori kontratatu baitzuen.

Jabetza Hiritarreko Ganbera Ofizialaren txosten teknikoaren haritik, pitzatuek ez zuten inolako eraginik lokala zegoen eraikineko hormigoizko zutabeen egituran baina orobat, adierazi egiten zen zolarria momenturen batean koloka geratu ahal izan zela, espaloiko obrak egite aldera eraikinaren kanpoaldean hondeaketa lanak egin baitziren.

Dokumentazio guztia aurkeztuta zegoela eta herritarrak udalean kexa aurkeztu ondoren, haren salaketa idatzia erantzuteko **GOMENDIOA** egin zuen bulego honek.

Hiru hilabete igaro zirela eta bai herritarrak bai bulegoak batere erantzunik jaso ezean, bigarren **GOMENDIO** bat egin zen, Ogasun Saileko Ondare Erantzukizunaren Atalak ondarearen gaineko erantzukizunari buruzko dosierra ireki zezan, dokumentazioarekin aldameneko espaloiko obrek pitzatuak sortu zituztela egiaztatzen baitzen.

Ebazpena

Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen esku hartzea bi **GOMENDIOTAN** gauzatu zen. Aurrenekoan herritarrak udal administrazioan aurkeztutako idatzia erantzutea eskatzen zen eta bigarrenean, Araubide Juridikoari buruzko 30/92 Legearen 42.1. artikulua ildotik, erantzuna eman behar zutela eta zegokion atalari ondarearen gaineko erantzukizunari buruzko dosierra abiarazi behar zitzaioela, lokalean agertutako pitzatuak udalak egindako obren ondorio zirela justifikatuta baitzegoen.

Ogasun Sailak bidalitako txostenean, bigarren gomendioa **ONARTZERIK EZ** zegoela adierazten zen, kalteak ez baitziren obrek eragindakoak; eta hortaz, ez zegoen zertan dossier zigortzailerik abiarazterik, ezta txosten tekniko berriak eskatzerik ere.

- Judimendiko parkingeko plazako giltzak berandu eman izana (Erreg. zk.: 162-03)

Erreklamazioa

Judimendiko parkinga beranduago ireki zela eta herritar batek udalari erreklamazioa nola egin ziezaiokeen galdetu zigun. Giltzak aurreikusitakoa baino hiru hilabete beranduago eman ziren eta herritarrak beste parking batean leku bat alokatu behar izan zuen bitarte horretan.

Azterketa

Elkarrizketa eta lau hilabetera, udalak batere erantzunik eman ez ziola adierazi zigun herritarrak.

Hori dela eta, herritarraren eskaeraren aldeko **GOMENDIOA** egin zen, eskaerari berariaz erantzuteko eskatuz, Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/92 Legeak ezartzen duenaren haritik, *administrazioak prozedura guztietan berariazko ebazpena eman eta jakinarazi beharko du edozein dela abiarazteko era.*

Ebazpena

Udal administrazioak Judimendiko parkingaren atzerapenarengatik eta horrek eragin zion enbarazuarengatik kalte-ordaina eskatzeko idatzia berariaz erantzuteko **GOMENDIOA** egin genuen.

Gomendioa **OSOTASUNEAN** onartu zen, administrazioak erantzuna eman zuelako eta Kontratazio Zerbitzua gaia bideratzen ari zelako eta ebazpena ematear zegoelako.

- Motorra justifikaziorik gabe kentzea (Erreg. zk.: 220-03)

Erreklamazioa

Motorra justifikaziorik gabe kendu ziotenaren berri eman zigun gasteiztar batek. Motorra non zegoen ez zekienez, hura kendu izanaren eta trafikoko bajaren inguruko salaketa egin zuen. Hirurogeita hemeretzi egun geroago, desagertu zenetik ibilgailua udal egoitzetan egon izanaren berri ematen zion ziurtatu gabeko eskutitza jaso zuen.

Bederatziehun euroko kalte-ordaina eskatzen zuen, ibilgailua justifikaziorik gabe kendu izanagatik eta horrek eragin zion enbarazuarengatik.

Azterketa

Herritarra Sindikoarekin egon zenean, bere kexaren berri eman, hura sinatu eta dokumentazioa aurkeztu zuen.

Kasua aztertu ondoren, udalari zuzendutako idatzia egiteko **LAGUNTZA** eman zitzaion herritarrari. Motorra desagertu eta lapurretaren inguruko salaketa egitera joan zela adierazi zuen bertan. Salaketa egin aurretik, Udal Ibilgailu Biltegiarekin harremanetan jarri bazen ere, motorra han ez zegoela adierazi zioten. Hirurogeita hemeretzi egun geroago, desagertu zenetik biltegian egon izanaren berri eman zen.

Udal administrazioak desegoki jokatu zuen, ez baitzion herritarrari gaizki aparkatzeagatik jarritako isunaren berri eman, ezta hura eramatearen inguruko azalpenik ere.

Udalan aurkeztutako idatziaren erantzunik ailegatzen ez zitzaionez, bulegora etorri zen atzera.

Bi hilabete eta erdiz bere motorrarik gabe egoteagatik kalte-ordaina eskatzeko idatziari erantzuteko **GOMENDIOA** egin zen.

Ebazpena

Erakunde honen partetik, bi ekintza gauzatu ziren. Batetik, herritarrari **LAGUNTZA** eman zitzaion idatzia egiteko eta bestetik, udalak berariazko erantzunik ematen ez zuenez, herritarrari erantzuteko gomendioa egin zitzaion Ogasun Sailari.

Bost hilabetez itxaron ondoren, udalak gomendioa **ONARTU** eta erantzun zuen justifika zitzakeen kalteengatik bakarrik jasoko zuela kalte-ordaina.

- Galtzadan egindako obrengatik etxebizitzan arrailak agertzea (Erreg. zk.: 224-03)

Erreklamazioa

2002. urtean, galtzadan obrak egin ondoren, bere etxean arrailak agertzeaz kexatu zen gasteiztar batek.

Kalteen konponketak eragindako gastuak ordaintzeko eskatzen zuen.

Azterketa

Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin izandako elkarrizketan, herritarrak bere kexa aurkeztu eta izenpetu zuen. Ondarearen inguruko erreklamazioa egiten **LAGUNDU** zitzaion.

Horretan adierazten zen Vitoria-Gasteizko Udalak kontratatutako enpresa batek bere etxearen inguruetan, galtzadan, obrak egin zituela-eta arrailak agertu zitzaizkiola etxean.

Udalan kexa aurkeztu eta hilabete batera, administrazioak ezer erantzuten ez zuelarik, herritarra gure bulegora etorri zen berriro ere.

Erreklamazioak erantzun eta ebatzi gabe jarraitzen zuenez, ebazpena emateko eta jakinarazteko **GOMENDIOA** egin zitzaion udalari.

Ebazpena

Vitoria-Gasteizko Udalak egindako obrek eragindako kalte-galerak erreklamatzeko idazkia egiten lagundu zitzaion herritarri. Beste alde batetik, hark aurkeztutako idatziari erantzuteko **GOMENDIOA** egin genuen.

Udalari gomendioa egin eta handik hilabete batera, herritarrak erantzuna jaso zuela eta, gomendioa **ONETSITAKOTZAT** jo genuen.

- Akats batengatik jarritako isuna (Erreg. zk.: 218-03)

Erreklamazioa

Jarritako isunaren zergatiaren inguruko azalpenik izan gabe, isuna jakinarazi ziotela salatu zuen herritar batek.

Udalari aurkeztuko zion idazkia egiteko laguntza eskatu zuen.

Azterketa

Herritarra Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin elkarrizketatu zen eta orduan kexa aurkeztu eta sinatu zuen. Dokumentazioaren arabera eta kexa aztertu eta gero, helegitea aurkezteko laguntza eskatu zuen.

Berraztertze errekurtoa egiten lagundu zitzaion.

Handik hilabete batera, udal administrazioak erantzun ez zuela eta, atzera bulegora etorri zen, oraindik erantzunik ez zuela salatzen. Hari isuna ordaintzeko epea igaro zenaren berri eman ez zitzaioela eta aurkeztutako erreklamazioari berariaz erantzuteko **GOMENDIOA** egin zen.

Ebazpena

Ordainketa epea amaitzeari buruzko jakinarazpenaren aurkako berraztertze errekurtsua egiteko **LAGUNTZA** eman zitzaion.

Berraztertze errekurtsua egiteko laguntza eman zitzaionetik hilabete batera, Ogasun Sailari aurkeztutako idazkiari erantzuteko **GOMENDIOA** egin zen.

Gure gomendioa aztertu ondoren, Ogasun Saileko Zerga Bilketarako Zerbitzuak erantzuna eman zuen eta beraz, gomendioa onetsi zuen baina erantzuna ez zen herritarraren aldekoa izan.

- Zuhaitz publikoen sustraiek kutxeta batean eragindako kalteak (Erreg. zk.: 280-03)

Erreklamazioa

Udalan erreklamazioa aurkeztu eta ebazpena gauzatu ez izana erreklamatu zuen jabe-komunitate bateko ordezkariak.

Udalak Raimundo Olabide kaleko espaloian landatutako zuhaitzen sustraien hazkundearen eraginez kutxeta eta hustubide bat hondatu ziren eta bertakoei kalte handiak eragin zitzaizkien.

Delako ebazpena betetzea eskatzen zuen.

Azterketa

Herritarrak aurkeztutako dokumentazioari jarraiki, Ogasun Sailak ebazpena emana zuen. Bertan, eragindako komunitateak egindako eskariari jarraiki ondarearen gaineko erantzukizunari buruzko prozedura administratiboa abiaraztearen berri ematen zen baina ez zen zehazten ebazpena erreklamazio-egilearen aldeko edo kontrako zen.

Herritarrak **EZ** zuen Ogasun Sailarengandik **ERANTZUNIK** jasotzen eta bulego honek ahalik eta lasterren erantzutea beharrezkotzat jotzen zuen (ondarearen gaineko erantzukizunari buruzko dosierrari amaiera emateko), zuhaitzek eragindako kaltea neurri handi batean ustekabekoa bazen ere, aurreikus zitekeen, udala baita Gasteizko bide publikoetan jarri behar diren zuhaitzak aukeratzen dituen.

Ebazpena

Horrenbestez, erreklamazio-egilearen idazkiari erantzuteko **GOMENDIOA** egin zen. Delako idazki horretan, zuhaitz baten sustraiek kutxeta eta hustubide batean eragindako kalteen arduradun zela adierazten zen.

Gomendioa **ZATI BATEAN** onetsi zen, sustraiek hustubidea mugitu edo hondatu eta horren barneraino sartzen diren kasuetan arazoa ondarearen gaineko erantzukizuneko zela onartu baitzuen.

- Fontetxako Gazteluaren kalea urak hartzea tutu bat apurtzearen ondorioz (Erreg. zk.: 244-03)

Erreklamazioa

Vitoria-Gasteizko Udaleko Parke eta Lorategien Zerbitzuak Ariznabarreko auzoan, Fontetxako Gazteluaren kalean, tutu bat apurtu zuela eta, urak kalea hartu eta erreklamazio-egilearen autoa eraginpean hartu zuen, zeina galtzadan aparkatuta baitzegoen.

Erreklamazioa onesteko eskatzen zuen, urek eragindako uholdea eta udalaren tutu baten leherketak ekarritakoa ez baita gauza bera.

Azterketa

Herritarra Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin elkarrizketatu zenean, kexa aurkeztu eta sinatzeaz gainera, dokumentazio hau aurkeztu zuen: tutua lehertzearen ondorioz ibilgailuak ekarri zizkion gastuak eta Ogasun Saileko hainbat txosten, zeinak arazoa baitzuten hizpide.

Vitoria-Gasteizko Udalari txostena eskatuko zitzaion, Fontetxako Gazteluaren kaleko uholdeen berri ote zuen zein egiatan arrazoi teknikorik ote zegoen jakite aldera. Aipatutako zerbitzuaren txostenaren haritik, hustubidearen garbiketa gorabehera uholdea gertatuko zatekeela adierazi zen.

Hori dela eta, zerbitzu publiko bat desegoki funtzionatzea bere erantzukizunpean zegoela adierazi zitzaion udalari; kasu honetan, udalak kontratatutako hondeatzaile batek tutua apurtzeak uholdea eragin zuen.

Ebazpena

Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Araudiaren 31. artikulua haritik, **GOMENDIOA** egin zen. Herritarri 339,67 euro ordaintzea gomendatzen zen (267,67 euro fakturaren bitartez justifikatutakoak eta 72 euro autoan zituen gauzak hondatu edo galdu zirela eta).

Udalak **ZATI BATEAN** besterik ez zuen gomendioa onartu, justifikatutako gastuak (autoaren konponketa) bakarrik ordainduko zituela adierazi baitzuen.

- Gas instalazioa dela eta kanto baterako sarbiderik ez izatea (Erreg. zk.: 165-03) (Ikus kexa Etxebizitzarako Eragintegiko gomendioen atalean)
- Iltzeek kalean eragindako erorketa (Erreg. zk.: 222-03)

Erreklamazioa

Kalean, iltze baten ondorioz erori eta lesioek lau hilabeteko baja hartzera behar zutela adierazi zigun herritar batek.

Bide publikoko erorketa baten ondoriozko ondarearen gaineko erantzukizunari buruzko erreklamazioa ezetsi zuen ebazpena berraztertze eskatu zuen.

Azterketa

Herritarra Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin bildu zen, kexa formalki aurkeztu zuelarik. Erorketak argi eta garbi arrastoak utzi zizkiola ziurtatzen zuen dokumentazioa ekarri zuen.

Isilune administratiboa gorabehera, herritarrak berraztertze errekursoaren berriazko erantzuna jasotzeko eskubidea zuen. Bestetik, udalak emandako erantzuna Bide Publikoetako ingeniari buruaren adierazpenean bakarrik oinarritzen zen, zeinak enpresaren seinaleztapena eta txostena (bertan, erorketa gertatu zen egunean, bide publikoan obrak egiten ari zirela adierazten zuena) baitzituen hizpide.

Enpresa kontratistaren hutsegitearen inguruko eskaera arrazoizkoa zenez, gomendioa egin zitzaion udalari. Herritarrak jasan zituen garrantzizko kalteak zirela eta, ezin zitekeen bere eskaria bazter utzi, gertakariak benetakoak zirela frogatu gabe.

Ebazpena

Vitoria-Gasteizko Udalarri herritarraren berraztertze errekurtsuari berariaz erantzuteko eta erorketaren benetako arrazoia frogatze aldera, ondarearen erantzukizunaren gaineko dosierra berriro irekitzeko **GOMENDIOA** egin zitzaion.

Hark **ZATI BATEAN** besterik ez zuen gomendioa onetsi, erantzuna eman bazuen ere, ez baitzuen kalte-ordaina ematearen inguruko ezer adierazten.

- Espazio publikoa merkataritza-helburuekin inbaditzea (Erreg. zk.: 152-03)

Erreklamazioa

Auto kontzesionario baten inguruko haserrearen berri emateko etorri zen gurera herritar bat pertsona talde baten ordezkartzan. Antza, autoen erakusketa eta salmentarako aparkaleku publikoa hartzen zuen. Egoera harekin amaitzeko beharrezko neurriak hartzeko eskatu zion gure bulegoari.

Azterketa

Herritarra gurekin hitz egin ondoren, bertara joan ginen eta herritarrak kexan adierazten zuena benetan zela ikusi ahal izan genuen.

Udaltzaingoari eta Bide Publikoen Zerbitzuari txostena egiteko eskaria egin zitzaient, kontzesionarioak salaketarik ote zuen eta baimena zein motatakoa zen jakite aldera.

Eskatutako informazioa jaso eta kasuak eragindako hiru ordezkariarekin elkarrizketatu ginen. Bide Publikoen Zerbitzuari (udaleko Erregistroan aurkezte aldera) salaketa-idazkia egiteko laguntza eskaini zitzaient. Kasuaren jarraipena egitekotan geratu ginen.

Ebazpena

Udaleko Erregistroan aurkezteko idazkia egiten lagundu zitzaient eta zain geratu ginen.

Handik hiru hilabetera, Udaltzaingoak bide publikoan autoak erakutsi eta saltzearen inguruko ekintzei buruz egindako txostena bidali zuen Bide Publikoen Zerbitzuak. Horretan, esku hartu zela erakusten zen. Beste alde batetik, gure bulegoak jarraipena egin zuen bertara hurbilduz eta autoak espazio publikoan aparkatuta egoten jarraitzen zutela jaso ahal izan zen

argazkitan. Beraz, AIXAM AUTOMÓVILES enpresak salgai zituen autoak erakusteko aparkaleku publikoa okupatzen zuela eta salaketa jartzeko **GOMENDIOA** egin zen.

Udaltzaingoak eta Ogasun Sailak gomendioari erantzun eta **OSOTASUNEAN ONARTU** zuten. Alde batetik, autoek Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legea betetzen ote zuten konprobatuko zen, dokumentazioari eta derrigorrezko aseguruari zegokionez, eta arau-hausteak salatuko ziren. Beste alde batetik, autoek erakusleihoaren jarraipen gisa espazio publikoa hartzen zuten kasuetan (autoek salmenta iragartzen zuten txartelak zituztenean), Udal Jabari Publikoko Ondasunen Erabilera Pribatiboari edo Aprobetxamendu Bereziari buruzko Tasen Ordenantzan aurreikusitako tasa fiskalak kobratzeko txostena egingo zen. Eta beharrezko joz gero, derrigorrezko udal baimenaren ezean, praktika hori zigortu egingo zen.

- Gaizki zegoen seinale batekin talka egitea (Erreg. zk.: 330-03)

Erreklamazioa

2002ko abenduaren 20an, hondatutako trafiko seinale batekin talka egin zuela eta, hortzak apurtu zitzaizkiola eta 2003ko urtarrilaren 3an, oraindik erantzunik jaso gabe zegoela adierazi zigun herritar batek.

Kalte-ordaina jasotzeko eta egiten lagunduko zitzaion idazkiari erantzuteko eskatu zuen.

Azterketa

Herritarra Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin elkarrizketatu zen eta trafiko seinalea gaizki jarrita zegoela eta jasandako kolpearen inguruan udalari bere garaian aurkeztutako erreklamazioa ezagutzera eman zuen.

Dokumentazioari jarraiki, harrezkero urtebete ere pasata zegoen eta udalak ez zion batere erantzunik eman. Hori dela eta, administrazioak oker jokatu zuela ulertu eta herritarrari erantzuteko gomendioa egin zen.

Ebazpena

Herritarrak egindako eskariak erantzunik jasotzen ez zuenez, erantzuna emateko **GOMENDIOA** egin zitzaion Vitoria-Gasteizko Udalari.

2.4.2.1.2 Ezestea

- Katedraleko aparkalekuan plaza bat erabiltzeko ordainketa baldintzak (erreg. zk.: 239-03)

Erreklamazioa

Gasteizko herritar batek Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Bulegora jo zuen Katedral Berriko aparkalekuan plaza bat erabiltzeko eskubidea ordaintzeko baldintzak zirela eta kexatzera.

Analisia

Erabiltzailea Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin bildu zen arazoaren berri emateko eta kexa aurkeztu eta sinatu zuen; ondoren, elkarrizketa izan genuen Katedraleko parkingaren emakida duen enpresarekin, SARKI-LAGUNKETArekin, eta adjudikazio prozesua abian zela jakinarazi ziguten.

Aldi berean, katedraleko aparkalekurako Baldintzen Orrian oinarrituz enpresa adjudikaziodunak aurkeztu eta Vitoria-Gasteizko Udalak onetsitako kontratua aztertu genuen.

Baldintzen orrian emakida arautzen duen erregimena azaltzen da; bertan adierazten denez, ordaintzeko unea ez dago nahitaez legez araututa (Kode Zibilaren 1.500 artikulua), eta kontratu bakoitzak zehazten duenaren arabera izango da.

Hori dela eta, administrazioak zuzen jokatu zuela uste izan genuen, Udala onetsitako Baldintza Orrian zehaztutakoari lotu baitzitzaion.

Ebazpena

Horrenbestez, Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen araudiaren 29. artikulua kontuan izanik, **EZ ZEN ONETSI** erabiltzaileak eskatutakoa, Baldintzen Orriak zehazten baitzuen zein ziren Katedraleko aparkalekua erabiltzen uzteko baldintzak.

- Lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren likidazioa zuzentzea (erreg. zk.: 140-02)

Erreklamazioa

Vitoria-Gasteizko bizilagun batek Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Bulegora jo zuen, 1998an egindako lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren likidazioa haren balioaren %100aren gainean egin zitzaiola eta kexatzera. Erabiltzailearen ustez, ez zen kontuan izan gozamen erreserbaren karga izateagatik zegokion %30eko murrizketa.

Gozamen erreserbari dagokion murrizketa ez ezartzeagatik soberan ordaindu duena itzultzeko eskatzen zuen.

Analisia

Erabiltzailea Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin elkarrizketatu, kexa aurkeztu eta izenpetu egin zuen. Nahiz eta denbora luzea igaro zerga ordaindu zuenetik, soberan ordaindutakoa itzultzeko eskatzen zuen bertan, lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga behin ordaintzen denez ez baitzegoen jakiterik likidazioa zuzena zen.

Likidazioa 1998ko irailaren 25ean egin zen. Egia zen ez zela kontuan izan gozamen erreserbaren karga izateagatik zegokion %30eko murrizketa, erabiltzaileak zioen bezala, baina igaro zen denbora zela eta ekintza posible guztiek preskribituta zeuden eta ezin zen ezer aldatu.

Ebazpena

Horrenbestez, kexa **EZETSI ZEN**, ekintza irmoa eta onartua zela uste baikenuen, zerga likidatu zenetik 4 urte baino gehiago igaro baitziren.

- Erorikoa Gamarrako pilotalekuetan (erreg. zk. 281-03) (Ikus kexa Kirol Saila-Ezesteak atalean)
- Lurrak gutxiago balioestea (erreg. zk.: 305-03)

Erreklamazioa

1994an egindako salerosketa batean Vitoria-Gasteizko Udalak lursail batzuk gutxiago balioetsi zizkiola eta kexatu da bizilagun bat; Olarizuko hiri parkean zeuden lursail horiek adiskidetasunezko kudeaketaz erosi ziren.

1994an egindako erosketan ordaindutako prezioa berraztertze eskatu zuen, eta 2001-02-13an eta 2001-11-15ean aurkeztutako idazkiei erantzuteko.

Analisia

Sindikoa erabiltzailearekin elkarriketatu zen, zeinak kexa adierazi eta horri buruzko agiriak ekarri baitzituen.

Agiriak azterturik honakoa ondorioztatu zen: erabiltzaileak aipatzen zuen lursailarengatiko salerosketak zazpi jaberekin egin ziren, eta egoki balioetsi ziren garai hartako hirigintza eta merkatuko parametroak kontuan hartuz; gainera, antolakuntzako udal arkitekto teknikoak ere egin zuen txostena. Horrenbestez, ez da Udalari prezioa berrikustaraz diezaiokeen baliozkotasun akatsik, erabiltzaileak eskatzen duen bezala. Lursailaren balioespenak Udalbatzaren 1994ko urriaren 21eko bilkuran onetsi ziren, zuzenbidearekin bat etorritik, eta beraz administrazioaren jardura zuzena izan zen.

Ebazpena

Kexa **EZETSI ZEN**, administrazioaren jardura indarreko legearekin bat zetorrela uste izan baikenuen.

- Olagibel kalean lurpeko aparkaleku bat eraikitze hitzarmena baliogabetzea (erreg. zk. 293-03)

Erreklamazioa

Bizilagun batek Olagibel kaleko lurpeko aparkalekua eraikitze lanei buruzko argibideak eskatu zituen.

Udalak eta Administrazio Orokorrak Olagibel kalean lurpeko aparkalekua eraikitze egin zuten hitzarmena baliogabetzeko eskatu zuen.

Analisia

Erabiltzailea Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin elkarrizketatu zen eta kexa formala aurkeztu zuen Olagibel kalean lurpeko aparkaleku bat eraikitzea dela eta.

Sindiko edo Herritarren Defendatzailea Ogasuneko zuzendariarekin bildu zen eta sail horren txosten bat ere jaso zen; horren arabera, Vitoria-Gasteizko Udalak hitzarmen bat sinatua zuen Estatuko Administrazio Orokorrarekin zeinean konpromisoa hartzen baitzuen aparkalekua egiteko espazio kubikoa juridikoki eta erregistroan bereizteko behar diren tramiteak aurrera eramateko eta aparkalekua burutzeko.

Vitoria-Gasteizko Udalbatzak 2003ko otsailaren 21ean egindako bilkuran jakinarazi zenez, Estatuko Administrazio Orokorrak eskubidea du berak bakarrik erabiltzeko aparkaleku bat eraikitzeko Olagibel kaleko udal eraikinaren azpian lanaren eraikuntza eta exekuzioa bere eginez.

Ebazpena

Sindikoak kexa EZETSI ZUEN, Udalbatzak onetsitako hitzarmena indarreko arauekin bat zetorrela uste baitzuen.

2.4.2.1.3 Argibideak

- Zaborra biltzeko gunea adierazteko pilotea gaizki jarrita
(erreg. zk.: 149-03)

Erreklamazioa

El Anglo auzoko bizilagun batek kexa aurkeztu zuen ibilgailua aparkatzerakoan zaborra biltzeko gunea adierazteko pilotea jo zuelako, pilotea oker baitzegoen.

Horrek eragindako kalteak konpontzeak sortutako gastuak ordaintzeko eskatzen zuen.

Analisia

Sindiko edo Herritarren Defendatzailea erabiltzailearekin bildu zen. Hark zehatzago adierazi zuen nola hondatu zitzaion ibilgailua aparkatzeko maniobra egitean, zaborra biltzeko gunea adierazteko pilotea oker zegoenez ezin izan baitzuen ikusi.

Bulegoan Udalean aurkezteko idazkia prestatzen lagundu genion, ez baitzuen erreklamaziorik aurkeztu. Erreklamazioan 208,80 euroko kalte-ordaina eskatu zuen ibilgailuak izandako kalteengatik eta agiri lagungarriak erantsi zituen (argazkiak, ordainagiriak,...) kalteak agerian uzteko.

Ebazpena

Erabiltzaileari ARGIBIDEAK EMAN ZITZAIZKION Vitoria-Gasteizko Udalean berraztertze errekurtsua idazteko.

Zazpi hilabeteren buruan, erabiltzailea bulegora itzuli zen, Udalaren erantzuna ezezkoa izan zela jakinarazteko. Prozesuari jarraitu nahi bazion azken aukera justizia auzitegira jotzea zuela jakinarazi genion.

- Erorikoa kalean zoladura gaizki zegoelako (erreg. zk. 283-03)

Erreklamazioa

Bizilagun batek kalean erori zela eta udal administrazioari erreklamatzeko zer egin behar zuen jakin nahi zuen.

Analisia

Bizilaguna Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin elkarrizketatu, kexa aurkeztu eta izenpetu egin zuen. Elkarrizketan, Ondare Erantzukizunaren Atalak bidalitako ondare erantzukizuneko prozedura abiarazteko txostena aurkeztu zuen.

Bulegoan idazki lagundu bat betetzeko argibideak eman genizkion, erorikoaren ondorioz izandako kalteak justifikatzeko.

Ebazpena

Erregistroan aurkezteko Vitoria-Gasteizko Udaleko Ondare Erantzukizunaren Atalari zuzendutako idazki lagundu bat burutzeko ARGIBIDEAK ETA AHOLKU EMAN ZITZAIZKION.

2.4.2.1.4 Ezestea/ez onartzea

- Zabor tasa bizitzeko egoki ez den etxebizitza batengatik (erreg. zk.: 214-03)

Erreklamazioa

Vitoria-Gasteizko biztanle batek kexa aurkeztu zuen bizitzeko egoki ez zen etxebizitza bat erosi eta birgaitzen ari zela zabor, estolderia eta abarren tasak ordainarazten zizkiotelako.

Analisia

Erabiltzailearekin elkarrizketa izan genuen; bizitzeko egoki ez zen etxebizitza batengatik Udalari zergak ordaindu behar izatea ez zela bidezkoa adierazi zuen hark.

Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatiko tasak arautzen dituen ordenantzak 6.3 atalean zaborrak bildu eta suntsitzeko zerbitzuaz diotenaren arabera, “Ondasunaren titularra joko da tasaren subjektu pasibotzat, Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen ordenantza fiskalaren 7. artikuluan ezarritakoaren ildotik”. Horrenbestez, ondasun higiezin baten titular orok ordaindu behar du zerbitzu publikoengatiko tasa ordainketaren objektua etxebizitzatzat definitu bada, bertan inor bizi ez bada ere. Izan ere, tasaren kuota etxebizitzak katastroko unitate gisa dituen metro karratuen arabera ezartzen da, eta ez erabileraren arabera.

Ebazpena

Beraz, kexa EZ ZEN ONETSI, bi arrazoiengatik: batetik, Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen ordenantza fiskalak ezartzen duenarengatik, eta bestetik, Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Araudiaren 24. artikuluan diotenarengatik, ez baitziren jaso ez interesatuaren datuak ez haren sinadura.

- Igogailua jartzeko diru laguntza (erreg. zk.: 251-03)

Erreklamazioa

Biztanle bat bulegora etorri zen honakoa azaltzera: bai Udalari (Etxebideren bitartez) bai Eusko Jaurlaritzari diru laguntza bana eskatu ziela Venezuela kaleko 6.ean igogailu bat jartzeko. Erakunde horien jakinarazpena jasotzean bizilagun guztien artean hitzartu zuten laguntza kalkulatzeko huts bat zegoela konturatu ziren. Etxebidek Eusko Jaurlaritzari emandako datuen arabera, erabiltzaileak %6ko parte hartzea zuen igogailuaren gastuetan, baina benetan %10 zen, eta beraz, itzuli beharrik gabeko laguntza zein mailegu handiagoa zegozkion.

Hutsa zuzentzeko eta kopuruak aldatzeko eskatzen zuen, erabiltzaileari kalte egiten baitzioten igogailuarengatik egin behar zuen ordainketa zela eta.

Analisisa

Erabiltzailea Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin elkarrizketatu, kexa aurkeztu eta izenpetu egin zuen; agiriak ere aurkeztu zituen. Erabiltzaileak diru laguntzarako eskaera eta ordaindu beharreko ehunekoez auzokoez egindako hitzarmena ere aurkeztuko zituela esan zuen.

Ebazpena

Zentzuzko epe bat igaro ondoren, eta erabiltzaileak erantzuten ez zuenez, dosierra iraungitatu jo zen, eta kexa EZ ZELA ONETSI jo zen, erabiltzaileak ez zuela aurrera jo nahi ulertuta.

2.4.2.1.5 Ezestea-erabiltzaileak

- Udaleko kirol instalazio batzuetan izandako erorikoa (erreg. zk. 230-03)

Erreklamazioa

Gamarrako kirol instalazioetako erabiltzaile bat bulegora etorri zen instalazioen egoera txarra zela kausa han erori zela adierazteko. Izandako kalteengatik udal administrazioak ordaintzeko eskatzen zuen.

Analisisa

Erabiltzailea Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin elkarrizketatu, kexa aurkeztu eta izenpetu egin zuen. Udal administrazioko zenbait sailetan erorikoaren arazoak aztertzeko eta erantzukizuna nori zegokion zehazteko prozeduran bidalitako agiriak zekartzan.

Erabiltzailea berriro etorri zen eta jakinarazi zigun Ogasun Sailak kalte-ordaina ordainduko ziola, horrenbestez, erabiltzaileak ez zuen aurrera jo gure bulegoan aurkeztutako kexarekin, arazoa konponduta zegoelakoan.

Ebazpena

Bulegoa arazoaren inguruko tramiteak egiten hasi baino lehen erabiltzaileak arazoa konpondutzat jo zuen, beraz, **ERABILTZAILEAK EZETSI ZUEN**.

2.4.2.1.6 Bitartekaritzak

- Kalean alferrik jarrita dagoen aldamioa (erreg. zk. 245-03)

Erreklamazioa

Vitoria-Gasteizko herritar bat, denda baten jabea bera, kexu ageri zen eraikin baten fatxada konpontzeko eta lanak oraindik hasi gabe zeudelarik Udalak kontratatuta jarrita zegoen aldamio bat zela eta. Eraikinean berritze lanik egin ez bazen ere, aldamioa bi hilabete jarrita egon zela adierazi zuen herritarrak.

Udalari zenbait idazki bidali zizkion, fatxadan lanak egiteko aldamioa jarri izanaz galdetzeko eta lanak egin ezean hura ken zezan eskatzeko, bai eta Udalak kalte-ordainak ordain ziezazkion ere denda hesi batez estaltzeagatik, fatxada konpontzeko lanak oraindik hasi gabe baitzeuden. Idazki horiei erantzuteko eskatu zuen.

Analisia

Erabiltzailea Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin bildu zen, aldamioa bere dendaren aurrean jarrita zegoelako kexatzeko; horrek galera ekonomikoak zekarzkie, aurrean jarritako hesi eta aldamioek denda estaltzen zutelako.

Erabiltzaileak ekarritako agiriak eta hemerrotekatik ateratako dokumentazioa aztertu ziren. Azken horren arabera, udal administrazioa asko berandutu zen eraikina berritzen hasteko; izatez, lana ez zen gauzatu.

Ebazpena

Sindikoaren Bulegoak Udaleko Ogasun Sailaren eta erabiltzailearen arteko **BITARTEKARITZA PROPOSAMEN** bat egin zuen, aldamiaoa jarrita egon zen bi hilabeteetan dendarri egindako kalte ekonomikoengatik kalte-ordainak ordaintzeko.

Sindikoaren bulegoak Udalaren eta erabiltzailearen artean bitartekaritza egin eta hiru hilabetera, erabiltzaileak jakinarazi zuen Udalak kalte-ordainak ordaintzeko kopuru bat (3.005 euro inguru) proposatu ziola eta onartzeko asmoa zuela. Beraz, bitartekaritzak **ONDORIO ONAK** izan ditu.

2.4.2.2 Trafiko Isunen Atala

2.4.2.2.1 Gomendioak

- TAO alderdian ibilgailua kaletik kentzea (erreg. zk.: 229-03, 252-03)

Erreklamazioa

Herritar batek kexa aurkeztu zuen udal garabiak bere ibilgailua kaletik kendu zuelako, Senda ibilbideko 9.ean behar bezala aparkatuta egon arren, 2003ko TAO-3 txartela ez eramateagatik. Dosierra berraztertzeke eskatu zuen.

Ildo beretik, beste herritar batek Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Bulegora jo zuen ez zegoelako ados udal garabiak bere ibilgailuari egindako kalteak zirela eta Udalak emandako ebazpenarekin. TAO alderdietan ibilgailuak kaletik kentzeko araudia berraztertzeke eskatzen zuen.

Analisia

Herritarrekin elkarrizketatu ondoren, Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak ibilgailuak kaletik kentzearekin lotutako araudia aztertu zuen.

Martxoaren 2ko 339/90 LEDaren bidez onetsitako Trafikoaren Legea aldatu zuen 19/2001 Legearen 71. artikulua arabera, ordu-txartelik ez izatea EZ da berez nahikoa arrazoi ibilgailu bat kaletik kentzeko beste arrazoi pisuzkoagorik ez bada.

Horregatik, Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak uste du Bide Segurtasunari buruzko Legearen 71. artikulua bere horretan ez duela aukerarik ematen ibilgailu bat txartelik ez izateagatik kaletik kentzeko, baldin eta artikulua horretan berariaz aipatzen diren bestelako egokierak gertatzen ez badira: arriskua, zerbitzu publikoei enbarazu egitea, ibilgailuak abandonatu itxura izatea,...

Ebazpena

Beraz, bi kasuetarako GOMENDIOA egin zen, 19/2001 Legearen 71. artikulua (ordutxartelik ez izateaz) oinarritzat hartuz.

Udalak **EZ ZUEN ONARTU** gomendioa, eta argudio hau eman zuen: Udal Ordenantzaren arabera, eta martxoaren 24ko 5/1997 Legeak egin zuen aldakuntzaren ondoren, Administrazioak ibilgailu jakin bat bide publikotik kendu eta udal ibilgailu-biltegira eramateko agindu ahal izango du baldin eta udal aginteak ibilgailua denbora-tarte mugatuko aparkalekutzat jotako leku batean badago horretarako baimentzen duen agiririk gabe, edo ordaindutako txartelaren denboraren bikoitza gainditzen badu.

2.4.3 INGURUMEN SAILA

2.4.3.1 Saileko zuzendaritza

2.4.4.1. Gomendioak

- Jarduera baimenerako eskaera erantzunik gabe (erreg. zk. 194-03)

Erreklamazioa

Vitoria-Gasteizko enpresa baten ordezkariak kexa aurkeztu zuen 2001eko azaroan Ingurumen Sailari jarduera baimen bat eskatu eta 2003ko martxoan oraindik erantzunik jaso ez zuelako.

Jarduera baimena emateko eskatu zuen, Ingurumena Babesteko 3/198 Lege Orokorrean ezarritakoari jarraituz.

Analisia

Erabiltzailea Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin elkarrizketatu, kexa aurkeztu eta izenpetu egin zuen.

Sindikoaren Bulegoak Ingurumen Saileko abokatuarekin hitz egin zuen; hark esan zuenaren arabera, enpresari baimena emateko tramiteak egiten ari ziren, eta laster enpresa kreditatzeko ziurtagiria egingo zuten administrazioaren isiltasuna zela eta.

Ingurumen Sailak enpresa kreditatzeko ziurtagiria egin zegoela jakinarazi bezain azkar, Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Bulegoak horren berri eman zuen.

Ebazpena

Enpresaren ordezkariaren eta Ingurumen Sailaren arteko **BITARTEKARITZA** egin zen, Ingurumen Sailak jarduera baimena kreditatzeko ziurtagiria emateko neurriak har zitzan, administrazioak ez baitzuen ezar erantzun eskatu zenez geroztik.

- Ostatu jarduera irregularra (erreg. zk.: 197-03)

Erreklamazioa

Gasteiz erdialdeko etxe bateko auzokoen ordezkariak Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Bulegora jo zuen kexatzera eraikineko etxebizitza batean ostatu jarduera irregularra gauzatzen zelako eta horrek istilu etengabeak sortarazten zituelako.

Egoera erregularizatzeko edo baimena berrikusteko eskatu zuen.

Analisia

Erabiltzailea Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin elkarrizketatu, kexa aurkeztu eta izenpetu egin zuen. Erakunde honek argibideak eskatu zizkien bai udal administrazioko zerbitzu batzuei –Udaltzaingoa, Gizartegintza, Ingurumena–, bai Eusko Jaurlaritzako Turismo Sailari.

Sindikoaren Bulegora bidalitako txostenen arabera, Vitoria-Gasteizko Udalak irekitzeko eta funtzionatzeko baimena eman zion pentsio horri, garai hartan indarrean zeuden Udal Ordenantzei jarraituz. Hala ere, pentsioa ez zegoen erregistratuta jarduera hori gauzatzeko eskumena duen administrazioan.

Horregatik, Sindikoaren Bulegoak ontzat jo zuen auzokoek salatzen zituzten irregulartasunak konpontzeko **GOMENDIOA** egitea pentsioaren jabeari, EAEko Turismo Enpresen Erregistroan izena eman zezan, bestela baimena baliogabetu baitzitekeen.

Ebazpena

GOMENDIOA egin zen, jardueraren eskumena duen administrazioan erregistratuta ez zegoen jarduera baimen hura kontrolatzeko neurriak har zitezen.

Udalak gomendioa **ONETSI** zuen. Horretarako Udaltzaingoari pentsio horretako jardunari buruzko txostena egiteko eskatu zitzaion, zeinean etxebizitza horretan bizi ziren pertsonen egoera zehazten baitzen. Jasota geratu zen etxebizitzak ez zuela jarduera baimenik eta bertan zazpi pertsona –Gizarte Larrialdiko Laguntzak jasotzen zituztenak– bizi ordez 2003ko urriaren 23az geroztik hiru pertsona biziko zirela, lanak egin ahal izateko.

- Tanis Agirrebengoa kaleko oinezkoen ibilbidea aldatzea (erreg. zk.: 219-03)

Erreklamazioa

Gasteizko auzo elkarte batek kexa aurkeztu zuen San Prudentzio ibilbidean, Mineralen eta Tanis Agirrebengoa kalean ingurumen arazoak zeudela eta. Hesi akustikoak jartzeko eskatzen zuten, eta Mendizorrotza inguruan zebilen trafikoa aztertzeko, Vitoria-Gasteizko Plan Orokorren 2000ko Berrikusketan oinezkoen ibilbidearen ezaugarriak aldatu baitziren.

Vitoria-Gasteizko Plan Orokorrean Tanis Agirrebengoa-Martin Fiz kaleei dagokien 10. Plan Berezia baliogabetzeko eskatzen zuten.

Analisia

Taldea Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin bildu zen eta Vitoria-Gasteizko Plan Orokorren 2000ko Berrikusketak izango zuen eraginari buruzko agiriak ekarri zituzten. Agiri horien arabera, 1986ko Hiri Antolakuntzarako Plangintza Orokorri jarraituz San Prudentzio

ibilbidearen 5. sektorea (Iparraldea) hartzen duen plan partziala onetsi zenean, San Prudentzio ibilbidearen eta Tanis Agirrebengoa kalearen artean dagoen zatia berdeguneetarako eta espazio libreetarako erabiltzea aurreikusten zen. Hain zuzen ere, lursail batzuetan berdeguneak eta espazio libreak izango zirela oinarritzat hartuz eraiki ziren inguru hartako etxebizitzak.

Gero, abenduaren 27ko 135/2000 Foru Dekretuaz onetsi zen Hiri Antolakuntzarako Plangintza Orokorraren Berrikusketan, berdegunea aldatzea aurreikusi zen, bide sareko berdegune bihurtuz, proiektaturiko metro arinerako bide bat eraikitzearen.

Antolamenduko aldaketa hori –parke lineala kentzea eta hiriko ingurabidearen zati den bide bat sartzea eremu horretan– hiri espazioaren kalitatearen kalterako zen.

Sindikoaren Bulegoak lortu zuen informazioa kontuan izanik, Santuaren ibilbidea delakoaren parke lineala kentzeari zegokionez beharrezkotzat jo zen udal administrazioak onetsita zeuden proiektuak aldatzeko jardueren berri ematea une oro, bai aldakuntzek eragindako auzokoei bai Vitoria-Gasteizko herritar guztiei.

Bestalde, Plan Orokorraren aldakuntzak kontuan hartu beharko zituen parke lineala desagertzeak zekartzan kalteak.

Ebazpena

Horrenbestez, **GOMENDIO** bat egin zen, bereziki Ingurumen Sailari zuzendua, Planaren berrikusketa zela eta parke linealaren ordeztariko jarriko zen ibilgailuentzako bide berriarekin mugakide ziren etxebizitzetara eragindako kalteak arintzeko neurri zuzentzaileak areagotu zituzan, zarata gutxitzeko eta trafikoa moteltzeko neurriak hartuz. Gainera, herritarrei oro har eta planaren aldakuntzek eragindako auzokoei bereziki informazioa emateko gomendioa egin zen.

Gomendioa zegoen sailatara bidali eta 15 egunetara, Bide Publikoen Zerbitzuak txosten bat bidali zigun gomendioaren **ZATI BAT ONESTEN** zutela esanez, honen ildotik: Espainian ez zen ezarri behar Europako Parlamentuaren 2002/49/C Zuzentaraua (ikus kexa honekin lotuta egindako gomendioa Gomendioen Eranskinean), eta gainera Bide Publikoen Zerbitzuak ez zuen beharrezkotzat jotzen Tanis Agirrebengoa kalean zaratak gutxitzeko neurri zehatzak hartzea. Gomendioa zati batean onesteko bigarren arrazoibidea honakoa zen: ibilgailuen trafikoa mantsa izango zela eta kalea ez zela bide arintzat erabiliko bermatzeko beharrezko neurriak hartuko ziren zinegotzi ordezkariarekin adostuta, kale berriak hiriko gainerako guztiek duten tratamendu bera izan zezan. Bestetik, Ingurumen Sailaren txostena ere jaso zen, zeinean adierazten baitzen gomendioa onesten zutela baina Sailak jadanik gogoan zuela iradokitakoa.

- Vitoria-Gasteizen bizikletentzako bide berriak jartzea (errek. zk. 176-03, 192-03, 270-03, 272-03)

Erreklamazioa

Hainbat herritarrek kexak aurkeztu zituzten bizikleten erabilera ez delako errazten: Vitoria-Gasteizko bizikletentzako bideek akatsak dituzte, oinezkoak bide horietan sartzen dira eta ez diete txirrindulariei pasatzen uzten. Besteak beste, Ehari-Gobeon zehar Jundizen sartzeko zatian ez dagoela ez bazterbiderik ez bizikletentzako biderik kexatzen zen herritar bat, eta hori arriskutsua dela bizikletaz joan nahi duten langileentzat.

Zikloturistek bide horietan lehentasuna dutela txartel bertikalez adierazteko eta udaltzainek jarraipena egiteko eskatzen zen.

Bizikletentzako bide duin eta ongi argiztatuak jartzeko eskatzen zen. Halaber, bizikletaren erabilera sustatzeko eskatzen zen, eta horretarako bizikletentzako bideak konpondu eta berriak egiteko.

Analisia

Bizikletaren erabiltzaileek Vitoria-Gasteizen garraio-bide hori baliatzearekin lotutako hainbat arazo aurkeztu zuten, esaterako, bizikletentzako hainbat bide konpontzea, hala nola Arriaga, Lakuabizkarra, Pilar, Armentia eta Jundiz ingurukoak.

Sindikoaaren Bulegoak bazekien Euskal Herriko Unibertsitateak bizikletentzako bideei buruzko azterlan bat eginga zuela Vitoria-Gasteizko Udalak hiriko mugikortasunean bizikletak duen eragina zein den jakitearren eskatua.

Mugikortasun eta Garraio Zerbitzuarekin zenbaitetan bildu ginen, Vitoria-Gasteizen bizikleta bideak jartzeaz eta hirian bizikletaren erabilera sustatzeko moduez hitz egiteko.

Gasteizek badu bizikleta bideen sare aski handia (30 km), zein, nahiz eta zatien arteko lotura eskas duen, beste bide seguru batzuen erabilerarekin konbinatu baitaiteke; hartara, bizikleta modu egokian erabili ahal izateko aukera egokiak bildu litzake bere baitan.

Ebazpena

Horrenbestez, Vitoria-Gasteizko Udalarari **GOMENDIO OROKORRA** egin zitzaion bizikletaren erabileraren inguruan, hiru puntutan oinarritua: hiriko bizikleta bideen sarearen erabilera sustatzea eta bizikleta sustatzearekin lotutako gaien ardura bere gain hartuko duen funtzionario bat izendatzea; Jundizko industrialderako bideak bizikletentzat egokitzea; herritarrak garraio bide horren egokitasunaz ohartaraztea.

Ingurumen Sailak azterketa kontuan hartuko zuela erantzun zuen, sailetan erabilgarri zeuden aurrekontuko partidak aintzat hartuz beharrezko neurriak hartze aldera; beraz, gomendioa **ONARTU** zela jo genuen.

- Lokala urez betetzea hodia hausteagatik (erreg. zk. 191-03) (ikus Amvisa-Gomendioak atala)
- Zaborra biltzeko kamioiek sortutako zarata (erreg. zk. 328-04; 329-04)

Erreklamazioa

Judimendiko Urriaren Hamabiaren kaleko auzoko batzuek Sindiko edo Herritarren Defendatzailearengana jo zuten zaborra biltzeko kamioiek egunero egiten zuten zarataz kexatzera.

Inguru horretako bilketa ordutegia txandakatzeko eskatzen zuten, kaltetuak beti auzoko berak ez izateko.

Analisia

Sindiko edo Herritarren Defendatzailea erabiltzaileekin bildu eta haien eskaerak arretaz entzun zituen.

Haiek adierazitakoaren arabera, gauez beren etxeen inguruan hondakinak (kartoiak, kristala, etab.) gaika biltzean zarata handia egiten zen, denbora laburrean bazen ere, eta egunero izanik eta ordu bertsuan lo egiteko arazoak zituzten.

Hondakinen gaikako bilketa zerbitzu publikoa da, nahiz eta kontratu bidez gauzatu, eta zerbitzu publikoa den aldetik hiriko kalitate akustikoa errespetatzeko estandar berriak bete behar ditu, beraz, ahal dela aldatu egin beharko ditu akustikoki kutsatzaileak diren jardueren ordutegiak, horiek ez badute herritarrek gauzez atsedean hartzeko duten eskubidea errespetatzen edo kalte egiten badiote.

Udal Ordenantzak ezartzen duenaren ildotik, bide publikoan egindako lanak ezingo dira burutu 22ak eta hurrengo eguneko 8ak bitartean baldin eta izaera orokorrez ezarritakoak baino soinu-maila handiagoak sortzen badituzte. Igandeetan edo jaiegunetan, aipatutako lan horiek 10ak eta 20ak bitarteko ordutegian burutu ahal izango dira bakar-bakarrik. Halaber, gauzez egin beharreko lana Udalak berariaz baimendu beharko duela adierazten du, eta kasu bakoitzaren xehetasunen arabera bete beharko dituzten soinu-mugak zehaztuko dituela.

Ebazpena

Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak herritarren atsedena errespetatu behar zela iritzi zion eta **GOMENDIO** bat egin zuen, 22ak eta hurrengo eguneko 8ak bitartean zarata sortzen duten bilketa lanik ez egiteko, araudi orokorrarekin bat etorritz. Igandeetan edo jaiegunetan, aipatutako lan horiek 10ak eta 20ak bitarteko ordutegian burutzeko eskatu zuen.

Vitoria-Gasteizko Udalak gomendioa **ONETSI** zuen eta hondakinen gaikako bilketaren ordutegia aldatuko du.

- Saltzeko makinek egindako zarata (erreg. zk.: 232-03)

Erreklamazioa

Vitoria-Gasteizko herritar batek Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Bulegora jo zuen bere etxearen azpian zegoen saltzeko makinaren denda zela eta kexatzeko, bertako zaratek enbarazu egiten baitzioten.

Denda horren instalazio baimena aztertzeko eta makinaren zarata neurtzeko eskatzen zuen.

Analisia

Erabiltzailea Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin elkarrizketatu, kexa aurkeztu eta izenpetu egin zuen. Ondoren, Sindiko edo Herritarren Defendatzailea Alde Zaharrera joan

zen, denda ikuskatzera. Bertan jakiak eta edariak saltzeko lau makina eta izozkiak saltzeko beste bat zeuden. Makinetako bat apurtuta zegoen eta kiratsa zerion. Establezimendua eguneko 24 orduetan egoten zen zabalik, eta metalezko ate bat zuen.

Ahalik eta informazio gehien lortzearren, Ingurumen Sailera jo genuen; haiek lokalak ez zuela jarduera baimenik behar adierazi ziguten. Bestalde, zarata neurtu eta ez zen anomaliarik antzeman, zarata maila baimendutakoaren azpikoa baitzen.

Erabiltzaileak adierazi zuen Arartekoaren Bulegoan ere aurkeztua zuela kexa, beraz, haiek ere aztergai zuten auzia. Hori zela eta, Sindikoaren Bulegoak ezin zuen tramitatzeko onartu Arartekoak berak ebatzi arte.

Ebazpena

Erabiltzaileak adierazitakoa kontuan hartuz, eta Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Araudiak erakundeen arteko lankidetzeta eta koordinazioaz diotenaren arabera, Arartekoak berak auzia ebatzi arte **EZ ZEGOEN** kexa tramitatzeko **ONARTZERIK**.

2.4.3.1.2 Ezesteak

- Lopidako gasolindegiaren isurketak (erreg. zk.: 41-02)

Erreklamazioa

Lopida inguruan bizi zen herritar batek kexa aurkeztu zuen inguru hartako gasolindegietako batek kontrolik gabeko isurketak egiten zituelako ibaira, eta bertako herritarrei kalte egiten zielako.

Neurriak hartzeko eskatzen zuen.

Analisia

Erabiltzailearekin elkarrizketatu ondoren, Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak Lopidako Administrazio Batzarrera eta Nekazaritza Eremuaren eta Mendien Zerbitzura jo zuen, salatutako gasolindegia buruzko informazioa eskatzeko. Helburu berarekin, Vitoria-Gasteizko Udaleko Hirigintza zuzendariarekin eta Eraikuntzen Zerbitzuko arduradunarekin bildu zen, haiei baitagokie jarduera baimena ematea.

Sindiko edo Herritarren Defendatzailea bera Lopidako zerbitzugunera joan zen ikuskatzera eta kexa sakonago ikertzera. Gasolindegia arazgailua behar zuen, isurketek ibaia kutsa ez zezaten.

Zerbitzugunea 1989an hasi zen legezkatzen eta jarduera baimena tramitatzen, eta 2000ko azaroan eman zitzaion irekitzeko baimena. Isurketa ibaiaren ubidera doanez, Ebroren Konfederazio Hidrografikoak eta Eusko Jaurlaritzako Uren Zuzendaritzak dute eskumena isurketa baimendu zein kontrolatzeko. Organo eskudunak eskaturik, jardueraren titularrak hondakin urak tratatzeko sistema aldatzeko proiektu bat aurkeztu behar zion Vitoria-Gasteizko Udalari, efluenta hobetearren. Baina Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak lana baimentzeko tramiteak egin behar zituzten aurretik.

Sindikoaren Bulegoak arazgailua jartzeko lanaren baimena emateko prozesuaren jarraipena egin zuen. Udaleko Eraikuntzen Zerbitzuarekin eta Foru Aldundiko Errepideak Kontrolatzeko Sailarekin bildu ginen zenbait aldiz, haien ardura baitzen lanak baimentzea.

Kexa aurkeztu eta hilabete batzuetara, Arabako Foru Aldundiak baimena eman zuela jakinarazi ziguten, eta zerbitzugunea hornitzen duen enpresari saneamendua egokitzeko eta arazgailua aldatzeko baimena ematearen aldeko ebazpena prestatzen ari zela. Hilabeteko epean, Lopida inguruan zegoen beste gasolindegi bati ere eman zitzaion baimena.

Ebazpena

Sindikoaren Bulegoak arazgailu berria instalatzeko lanak baimentzeko prozesuan egindako etengabeko jarraipenetik ondorioztatu zen udal administrazioak zuzen jokatu zuela, beraz, kexa **EZETS**izat jo zen.

2.4.3.2 Ingurumen Saila-jarduerak eta kontrola

2.4.3.2.1 Gogoan hartu beharrekoak

- Lehendik zaratengatik salatutako lokala, alokatzeko dagoena (erreg. zk. 129-02)

Erreklamazioa

Vitoria-Gasteizko udalerriko herritar batek kexa aurkeztu zion Sindiko edo Herritarren Defendatzaileari udalaren pasibitatea zela eta; izan ere, erabiltzaileak hainbat salaketa eta

informazio eskaera eginak zituen lokalaren hurrengo jabe edo maizterrei eman ahal zien baimenaz.

Analisia

Salaketa egin zen unean lokala itxita zegoen, baina aurretik salaketak izan zituen zarata eta goiko solairuetako auzokoei sortzen zien enbarazua zela eta.

Gero lokala itxi egin zuten; maizter berriei lokala egokitzeko eta abiarazteko zein baldintza ezarriko zitzaien jakin nahi zuten herritarrak.

Eskaeren zio ziren auziak alde batera utzita, Sindikoaren Bulego honetan aurkeztutako kexa Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 3.1, 3. eta 42. artikuluetatik ondorioztatzen den ERANTZUTEKO BETEBEHARRAri zegokion.

Administrazioaren eta administratuen arteko harremanetan nagusi izan behar duten fede onak eta gardentasunak berez dakarte hark herritarrek egindako eskaerei erantzutea. Dena den, kontuan izan behar da administrazioaren isiltasunaren figura.

Ebazpena

Herritarren Defendatzaileari buruzko 2001eko irailaren 28ko Araudiak emandako eskumenaz baliatuz, udal administrazioari **GOGORARAZI** zitzaion erabiltzaileak 2002ko apirilaren 17an, 2002ko uztailaren 24an eta 2002ko irailaren 4an aurkeztu zituen eskaerei erantzun behar ziela, eta kexa egin zen egunean artean erantzun gabe zeudela.

Gogorarazi eta hilabete eta erdi geroago, herritarrak erantzunik ez zuela jaso jakinarazi zigun. Horrenbestez, bulegotik **telefonoz eskatu zen** herritarrari erantzuteko. Ingurumen Sailak 10 eguneko epean erantzungo zuela esan zigun eta herritarrari horren berri eman zitzaion.

2.4.3.2.2 Gomendioak

- Ikastetxe publiko bateko zaratak (erreg. zk.: 157-03)

Erreklamazioa

Vitoria-Gasteizko herritar batek kexa aurkeztu zuen bere etxearen ondoan dagoen ikastetxe publiko batean sortzen zen zarata zela eta; itxuraz, ez zegoen behar bezala isolatuta eta ez zituen beharrezko neurri zuzentzaileak.

Akustikoki isolatzeko beharrezko neurri zuzentzaileak jartzeko eskatzen zuen.

Analisia

Bizilaguna Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin elkarrizketatu zen, eta dokumentazioa ekarri zuen. Aurretik egindako neurketen arabera (dokumentazioan jasota zeudenak) etxebizitzaren eremu batean egunez 38,8 db-ko zarata jasaten zen, eta muga 37 db-koa da.

Elkarrizketaren ondoren, Sindikoa ikastetxera joan zen ikuskatzera. Ikastetxe publikoko zuzendariak jakinarazi zigun ikastetxea udalaren jabetzakoa dela eta Eusko Jaurlaritzari zerbitzua bera ematea dagokiola, ez besterik.

Ondoren, Hezkuntza Sailarekin bildu ginen eta jakinarazi ziguten ikastetxea mantentzea haien ardura zela, eta eraikinaren insonorizazioa aztertuko zutela.

Ebazpena

Hezkuntza Sailari **AHOZKO GOMENDIOA** egin zitzaion, ikastetxeko insonorizazio sistema azter zezan. Zentzuzko denbora tarte bat igaro ondoren auzia aztertzeko hartutako konpromisoaren erantzuna eskatu genuen eta Mantentze Zerbitzuak gomendioa **ONESTEN** zuela erantzun zigun.

- Zaraten ordenantza ez betetzea (erreg. zk.: 261-03)

(Ikus sekzio honetako orientazioen atala)

- Vitoria-Gasteizko diskoteka batek eragindako zarata eta bibrazioak (erreg. zk. 03-02)

Erreklamazioa

Herritar batek kexa aurkeztu zuen Vitoria-Gasteizko diskoteka batek bere etxean etengabe sortzen zituen zarata eta bibrazioak zirela eta.

Herritarrak azaldu zuen bi urte zeramala hori zela kausa behin eta berriro kexak aurkezten, eta Udaltzaingoak neurketa batzuk egin zituela, baina jarduera irregularra izanik neurketek ez zutela benetako egoera islatzen; izan ere, zenbat eta denbora gehiago igaro egoera gero eta zailagoa zen eskatzailearentzat eta familiarentzat.

Analisia

Eskatzaileak bulegoan kexa aurkeztu ondoren, Ingurumen Sailari diskotekako zaratari buruzko txostena eskatu zitzaion.

Ingurumen Sailak diskotekaren egoeraren inguruko argibideak bidali zizkigun, aisialdiko lokaletan zaratak direla eta Jarduteko Protokoloa eta lokalaren jarduera baimena, zehazki.

Bulegoak eskatuta, Udaltzaingoak zaraten salaketekin lotutako esku hartzei buruzko txostena egin zuen.

Hilabete batzuen buruan, herritarrak jakinarazi zigun zarata gutxiago zetorkiola diskotekatik, baina artean bibrazioak zeudela eta ez zela ordutegia betetzen.

Zentzuzko denbora-tarte batean diskotekak araudia betetzen ote zuen kontrolatzen jarraitu zuen auzokoak eta lokalak ez zuela betetzen ikusi zen. Beraz, Gomendio Orokor bat egin zen aisialdiko lokalek sortutako zaratez eta ixteko ordutegia ez betetzeaz. Udal bando baten bitartez ixteko ordutegia jakinarazteko obligazioa (abenduaren 16ko 296/97 Dekretuaren 6. artikuluan ezarritakoa) betearazteko kanpaina bat abiaraz zedin eskatu zen.

Indarreko araudiari jarraituz gomendioan proposatutako kanpaina honakoa zen: udal bandoa argitaratu eta hilabetera, Vitoria-Gasteizko ostalaritzako lokaletan bakoitzari dagokion ordutegia adierazten duen txartelak banatuko ziren doan, eta lokalen titularrek arduratu beharko zuten txartela establezimenduan ikusteko moduan jartzeaz. Kanpaina bukatu eta gero, udal zerbitzu teknikoek txartela jartzeko obligazioa bete zenetz egiaztatuko zuten.

Ebazpena

GOMENDIO OROKORRA egin zen gaueko aisialdiko lokalek sortutako zaratez eta ixteko ordutegia sistematikoki ez betetzeaz, eta ixteko ordutegia jakinarazteko eta lokalean ikusteko moduan jartzeko obligazioa (abenduaren 16ko 296/97 Dekretuaren 6. artikuluan ezarritakoa) betearaztea ardatz izango zuen kanpaina bat abiarazteko proposatu zen.

Eragindako sailek (Ingurumen Saila eta Udaltzaingoa) kanpaina **ONETSI** zuten.

Gomendioa egin arren, diskotekak zarata sortzen eta ordutegi ez betetzen jarraitu zuen, beraz, herritarrari Udaltzaingorako salaketa bat egiten lagundu genion, 296/1997 Dekretuak ezartzen duenari jarraituz ikuskaritza, kontrol eta zigor neurriak har zitzaizkien.

- Floridako ibilbideko pub batek ordutegia ez betetzea eta zaratak sortzea (erreg. zk. 188-03)

Erreklamazioa

Herritar batek kexa aurkeztu zuen bere etxearen azpiko pub batek etengabe zaratak sortzen zituelako eta gauez bizilagunei enbarazu egiten zuelako.

Esku hartzeko eskatu zuen, hainbat salaketa aurkeztu arren zarata egiten jarraitzen baitzuen.

Analisia

Lehenengo, Ingurumen Sailari salatutako pubaren jardura baimenari buruzko txostena egiteko eskatu zitzaion.

Gaueko aisialdiko lokalek sortutako zaratak eta ixteko ordutegia sistematikoki ez betetzea kexa askoren iturri da. Lokalak behin eta berriro gainditzen zituen emandako jardura baimenaren mugak.

Ebazpena

Ixteko ordutegia ez betetzeagatik kexa ugari aurkezten zela ikusirik, **GOMENDIO OROKORRA** egin zen gaueko aisialdiko lokalek sortutako zaratez eta ixteko ordutegia sistematikoki ez betetzeaz, eta ixteko ordutegia jakinarazteko eta lokalean ikusteko moduan jartzeko obligazioa (abenduaren 16ko 296/97 Dekretuaren 6. artikuluan ezarritakoa) betearaztea ardatz izango zuen kanpaina bat abiarazteko proposatu zen. Horrenbestez, aisialdiko lokal guztiek (taberna, pub, diskoteka,...) irekitzeko eta ixteko gehienezko ordutegia adierazten duen txartel bat jarri beharko dute ikusteko moduan. Informazio eta ohartarazteko kanpainak emandako epea igaro ondoren, dagokion araudian ordutegia ez betetzeagatik zehaztutako zigorrak ezarriko dira.

Eragindako sailek (Ingurumen Saila eta Udaltzaingoa) kanpaina **ONETSI** zuten.

- Aldabe kaleko taberna batek sortutako zaratak eta enbarazua (erreg. zk. 161-03)

Erreklamazioa

Herritar batek kexa aurkeztu zuen bere etxearen azpiko tabernak sortutako zarata, enbarazua eta zikinkeria zirela eta. Erabiltzaileak adierazi zuen taberna ez zegoela isolatuta eta kebidea ez zegoela ondo egina.

Lokalari indarreko araudia betearazteko eskatzen zuen.

Analisia

Erabiltzaileak kexa formala egin eta gero, Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak arazoa aztertu zuen, herritarrek atsedean hartzeko duten eskubidea zaintzeak eta lokalak ixtearekin lotuta indarrean dagoen araudia betetzeak kezkatu, eta udal administrazioari eskatu zion Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 16ko 296/97 Dekretuaren 6. artikulua betearazteko, bai eta establezimendu publikoei buruzko udal ordenantza ere, zeinean aisialdiko lokalak zabaltzeko baldintzak zehazten baitira.

Ebazpena

GOMENDIO OROKORRA egin zen, ixteko ordutegia jakinarazteko obligazioa (abenduaren 16ko 296/97 Dekretuaren 6. artikuluan ezarritakoa) betearaztea ardatz izango zuen kanpaina bat abiarazteko. Lokal guztietan ixteko ordutegiaren berri ematen zuen txartel bat jarri beharko zen ikusteko moduan. Kanpaina bukatu eta gero, udal zerbitzu teknikoek araudia bete zenetz egiaztatu beharko zuten eta bete ezean dagokion zigorra ezarri. Gomendioa **ZATI BATEAN ONARTU** zen.

2.4.3.2.3 Ezestea

- Argi transformadore batek egindako zarata (erreg. zk.: 10-02)

Erreklamazioa

Vitoria-Gasteizko herritar batek gure bulegora jo zuen bizi zen inguruan kokatutako argi transformadore bat zela eta neurri egokiak har zitezkeen eskatzeko, zaratak eta osasunerako kaltegarriak diren uhin elektromagnetikoak sortzen baitzituen.

Analisia

Kexa formalki aurkeztu ondoren, Ingurugiro Gaietarako Ikastegiari eta Ingurumen Sailari argibideak eskatu zitzaizkien aipatu transformadoreaz.

Ingurumen Sailak eskatutako informazioa bidali ondoren, Iberdrola konpainiari eskatu zitzaizkion argibideak.

Kasua aztertzeko behar zen informazioa bilduta eta hori aztertuta, **EZETSI** egin zen kexa, administrazioak Iberdrolari transformadorea kentzeko eskatu baitzion eta, beraz, ondo jokatu zuela jo baitzen.

Ebazpena

Kexa **EZETSI** zen, administrazioak zuzen jokatu zuela jo baitzen.

- Gorbeia kaleko taberna batek sortutako usainak (erreg. zk. 294-03)

Erreklamazioa

Erabiltzaile batek Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Bulegora jo zuen Gorbeia kaleko jatetxe batek sortutako usainak bizilagunei enbarazu egiten ziela eta.

Egoera konpontzeko eskatzen zuen, usainek izugarrizko enbarazua egiten baitzieten bizilagunei.

Analisia

Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak herritarrak azaldutako arazoari buruzko argibideak eskatu zituen. Bizilaguna Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin elkarriketatu, kexa aurkeztu eta izenpetu egin zuen. Ondoren, Vitoria-Gasteizko Udaleko Ingurumen Sailari jatetxearen egoerari buruzko txostena eskatu zion.

Udaletik bidalitako txostenaren arabera, lokala ikuskatu eta arazoa eraikinaren atalen artean estankotasunik ez izateak sortzen zuela ondorioztatu zuten; izan ere, eraikina zaharra da eta egurrezko egitura du.

Sailak sukaldeko solairuarterkoan estankotasuna lortzeko proiektu bat egin zuen, leku aproposena baitzirudien. Usainak kontuan izanik, sukaldeko usainak kanporatzeko sistema aldatu eta indar handigoako beste bat jartzeko eskatu zen, bai eta usainak kanporatzeko tximinia aldatzeko ere. Bizilagunek behin eta berriro erreklamatzeko zutela kontuan izanik, Udalak errekerimendua egin zion lokalaren jabeari 15 eguneko epean sukaldeko ke-kanpaiarako aginte sistema bat jar zezan usainek sorturako enbarazua desagerrarazteko.

Ebazpena

Kexa **EZETSI** zen, Udalak dossier zigortzailea abiarazi baitzuen usaina sortarazten zuen lokalaren aurka eta, beraz, zuzen jokatu baitzuen.

- Lokal batean musika altuegi izateagatik sortutako zarata dela eta bizilagunek jarritako salaketa (erreg. zk. 231-03)

Erreklamazioa

Txagorritxu auzoko herritar batek kexa aurkeztu zuen Café Habana izeneko aretoak zarata sortzen zuelako, ez musika altuegi izateagatik, baizik eta bertan dantza eskolak ematen zirelako. Erabiltzaileak azaldu zuenez, aretoak diskoteka balitz bezala jarduten zuen eta ez zuen ixteko ordutegia errespetatzen.

Analisia

Erabiltzailearekin elkarrizketatu, eta hark kexa aurkeztu eta izenpetu egin zuen. Ondoren, Ingurumen Sailari argibideak eskatu zitzaizkion Café Habana aretoaren jarduera baimenaz.

Ingurumen Sailak emandako informazioa eta erabiltzaileak adierazitakoa alderatu ziren eta gomendio orokor bat egin zen zaratez eta gauez ixteko ordutegia ez betetzeaz.

Geroago erabiltzaileak berriro jo zuen bulegora aretoan ematen ziren eskoletako ikasleek oinekin zarata egiten jarraitzen zutela adierazteko.

Ingurumen Sailari txostena eskatu zitzaion, kexaren berri ote zuen jakiteko, eta sailak adierazi zigun aretoaren jarduera baimenak ez dituela debekatzen dantza erakustaldi eta eskolak.

Lokalak, bestalde, indarreko legeria betetzen zuen jarduerarako isolamendu akustikoari zegokionez, eta musika mugatzeko sistema ere bazuen.

Ebazpena

GOMENDIO OROKORRA egin zen, gaueko aisialdiko lokalek sortutako zaratez eta ixteko ordutegia sistematikoki ez betetzeaz.

Ingurumen Sailak osorik **ONETSI** zuen eta lokal guztiei bakoitzaren jarduera baimenaren arabera dagokion ixteko ordutegiaren berri ematen duen txartel bat jarrarazteko prest zegoela azaldu zuen.

Udal administrazioaren jokaera zuzena izan zela ondorioztatu zen, lokalak zaratei eta isolamendu akustikoari buruz indarrean dagoen araudia zorrotz betetzen zuela adierazi baitzuen (egindako neurketek ez zituzten aginduzko mugak gainditzen); beraz, kexa **EZETSI** zen.

2.4.3.2.4 Bitartekaritzak

- Udal baimena zuzen ez duen ostalaritza lokala (erreg. zk. 121-02)

Erreklamazioa

Vitoria-Gasteizko jabe elkarte batzuen ordezkari batek Sindiko edo Herritarren Defendatzailearengana jo zuen beren eraikinaren behealdeko areto batean –ostalaritza enpresa bat da jabea– motorrak eta erregaia gordetzen zirela eta kexatzera.

Istripuren bat gerta zitekeelako kezkatuta zeudenez lokala ikertzeko eskatzen zuten.

Analisia

Eragindako jabeen erkidegoen ordezkaria Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin elkarriketatu zen kexa azaltzarren; agiriak ere aurkeztu zituen.

Hasteko, Sindikoaren Bulegoak argibideak eskatu zizkion Ingurumen Sailari. Handik gutxira, jabeen erkidegoen ordezkaria berriro etorri zen bulegora, artean ezer egin ez zelako kezkatuta.

Ingurumen Sailari txostena eskatu genion eta hark bidali zigun. Ondoren Ingurumen Sailarekin elkarrizketatu ginen; kexa eragin zuen lokalean ziklomotoreak gordetzeko jarduera ixteko dosierra abiarazteko asmoa zutela jakinarazi ziguten, ez baitzuen horretarako jarduera baimenik. Legezko epeak betez, Ingurumen Arloko zinegotzi ordezkariak ebazpena bidali zien interesdunei, zeinean 10-15 eguneko epea ematen baitzien lokala beren kabuz ixteko; hori bete ezean Sailak berak itxiko zuen.

Ebazpena

Salaketa eragin zuen lokalaren inguruan, beraz, diligentzia hauek egin zituen Sindikoaren Bulegoak: eragindako sailen –Hirigintza Saileko Eraikinen Zerbitzua eta Ingurumen Saila- eta kexa aurkeztu zuten erabiltzaileen arteko **BITARTEKARITZA** lana.

BITARTEKARITZAK emaitza onak izan zituen, beharrezko udal baimena ez zuen lokala itxi egin baitzuten. **Horrenbestez, arazoa konpondutzat jo zen.**

- Taberna batek gauez egindako zaratak (erreg. zk.: 257-03)

Erreklamazioa

Herritar batek kexa aurkeztu zuen Zerkabarren kaleko taberna batek ixteko ordutegia eta atea itxita edukitzeko obligazioa sistematikoki betetzen ez zituelako.

Ordutegia betearazteko eskatzen zuen, tabernan sortutako zaratek bizilagunei enbarazu ez egiteko.

Analisia

Erabiltzailea Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin elkarrizketatu zen bere kexa azaltzeko; tabernako jabearekin akordio batera heltzeko prest zegokeela adierazi zuen.

Bulegoa tabernako jabearekin harremanetan jarri zen, bere negozioan gaez egiten zen zarata zela eta auzokoak kexatu zirela jakinarazteko, eta bi aldeen arteko bitartekaritza proposatu zitzaion.

Ebazpena

Erabiltzailearen eta lokalaren jabearen arteko **BITARTEKARITZA** egin zen irtenbide bat bilatzearen. Hiru aldeetako bilera hartan tabernaren jabeak adierazi zuen bezeroek atea zabalik uzten zutelako sortzen zela zarata; izan ere, aretoen bero handiegia egiten zuen. Hori konpontzeko aire egokituko aparatu bat jartzeko asmoa zuen. Erabiltzaileak ontzat jo zuen aretoaren jabeak erantzundakoa; horrenbestez, bulegoak egindako bitartekaritzak **EMAITZA ONA** izan zuela jo zen.

Bestetik, aisialdiko lokalek ordutegia betetzeaz Udalari egin zaion Gomendio Orokorraren berri eman genien bi aldeei.

2.4.3.2.5 Esku hartzeak

- Etxe azpiko areto batetik datorren kea (erreg. zk.: 50-02)

Erreklamazioa

Vitoria-Gasteizko herritar batek kexa aurkeztu zuen bere etxearen azpiko areto batetik kea zetorkiolako eta etxean enbarazu egiten ziolako. **PUB T** izeneko aretoko haizegailu edo haizebidetik zetorren kea.

Hori konpontzeko eskatzen zuen.

Analisisa

Erabiltzailea Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin bildu eta bere etxearen azpiko tabernatik zetozen usain eta ke etengabeez kexatu zen. Aurretik Udalari erreklamazioa aurkeztu ziola adierazi zuen, eta Udalak kebidean iragazkiak jartzeko eskatu ziola aretoaren jabeari, baina neurria ez zela eraginkorra izan.

Gero erabiltzailea berriro etorri zen bulegora eta arazoa sortzen zuen erauzteko hodia aldatzeko proposatu zuen, ke eta usainei buruzko udal ordenantzaren 4. artikuluan oinarrituz.

Ingurumen Sailarekin bildu eta auzi hori zela eta zein jarduera bideratzen ari ziren azaltzeko eskatu genien. Ingurumen Arloko zinegotzi ordezkariak ebazpen bat eman zuen, zeinean hau adierazten baitzuen: Udalak zegokion ikuskapena egina zuen; horren arabera,

haizebideak ordenantzan ezarritako betekizunak betetzen zituen, baina inguruko bizilagunei enbarazu ez egiteko neurri zuzentzaileak eskatzeko aukera ere bazegoela ikusi zen.

Ebazpena

Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak **ESKU HARTU ZUEN**, Ingurumen Saila auzian bideratzen ari zen jarduerak jarraituz; arloko zinegotzi ordezkariak emandako ebazpenak itxi zuen prozesua.

Ingurumen Sailak txostena bidali zigun; bertan adierazitakoaren arabera, ikuskatzeko bisita egin zuten usaina zela eta salatutako aretora, eta Udaltzaingoak neurketak egin zituen. Udalak barruko patiotik kebide bat jartzeko eskatu zion tabernari, baina erabiltzailea ez zegoen ados Udalaren ebazpenarekin; horregatik, berriro eskatu zuen Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak esku har zezan. Ingurumen Sailak beste irtenbide bat proposatu zuen: indar handiagoko ke erauzgailua jartzea eta kea kalearen erdira botatzea.

- Biasteri-Arabar Errioxako Taldearen kalean zaborrontzi bat jartzea (erreg. zk. 276-03)

Erreklamazioa

Mesedetako Ahizpen Komunitateak jakinarazi zuen beren egoitzaatik hurbil ez zegoela zaborrontzirik sortutako zarama botatzeko.

Horregatik, egoitzaren atzealdean zaborrontzi bat jartzetik zegoen aztertze eskatzen zuten, zehazki Biasteri-Arabar Errioxako Taldearen kalean, garajeko irteeraren ezkerrean eta Udalaren pasabidearen ondoan.

Analisisa

Erabiltzailea Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin elkarrizketatu, kexa aurkeztu eta izenpetu egin zuen. Sindikoa inguru hartara hurbildu zen ikuskatzera, erabiltzaileak aurkeztutako kexa egiaztatzen. Gero zaborrontzia jartzeari buruzko informazioa eskatu zitzaion Ingurumen Saileko Hondakinen Kudeaketako Zerbitzuari.

Hondakinen Kudeaketako Zerbitzuak erantzun zuen badagoela dendetarako bilketa zerbitzu bat, eta haren ibilbideak kale nagusiak hartzen dituela. Hiru talde 9etatik 16:52 arte aritzen dira eta beste bat lanaldi zatituan, 14etara eta 16etatik 18:52ra. Azken horrek merkatu eta supermerkatuetako zarama biltzen du. Denda bat zabaltzen denean arauak betetzen ez baditu edo herritarrak kexatzen badira hondakinak non utzi behar dituen eta gutxi gorabehera zein ordutegi dagokion jakinarazten zaio. Garai hartan ez zegoen zerbitzua handitzeko asmorik (emakidaren hasieratik kopuru bera izan da) ingurumenarekin lotutako hainbat programatan ari baitziren.

Salaketa eragin zuen inguruan bazegoen hondakinak biltzeko gune bat, Leon kalean. Ostalaritzako aretoen bilketa gaez egiten zen. Hondakinak sortzen zituzten gainerako lokalak bi ziren eta bie hondakinak kalean uzten zituzten egunean jasotzen zitzaizkien. Bilketa ordutegia 13:00-13:30 zen gutxi gorabehera. Itxuraz dende ordenantza bete ohi zuten.

Ebazpena

Udal zerbitzuari erabiltzailearen kexa helarazi zitzaion, beraz, auzian **ESKU HARTU** zela jo zen; udal ordenantza bete ezean udal administrazioak esku hartuko du komenigarritzat joz gero.

2004an 120 zaborrontzi berri jartzea aurreikusita zuen Udalak, baina ez zuen premiazkotzat jotzen erabiltzaileak eskatutako lekuan bat jartzea.

- Zaborra jaisteko ordutegia betetzea (erreg. zk.: 226-03)

Erreklamazioa

Zaramaga auzoko herritar batek kexa aurkeztu zuen bizilagunek ez zutelako zaborrak uzteko ordutegia betetzen eta desorduetan uzten zutelako.

Sindiko edo Herritarren Defendatzaileari eskatzen zion Fermin Lasuen kaleko 1-17 zenbakien arteko administradoreei gutun bat bidal diezaien zaborra uzteko ordutegiak gogorazteko.

Analisia

Hondakinen Kudeaketako Zerbitzuarekin harremanetan jarri zen bulegoa, Zaramaga inguruan zaborra desorduetan uzten ari zirela jakinarazteko.

Zerbitzuak adierazi zigun zaintza eta kontzientziario neurriak hartzen ari zirela herritarrek zaborra behar den orduetan utz dezaten, udal bando baten bitartez eta auzoetan gehiago zainduz.

Ebazpena

Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak **ESKU HARTU** zuen: zaborra desorduetan jaisten zuten jabeen erkidegoei garbitasun publikoari buruzko ordenantza bete behar zutela gogorarazi zien eta bestela zigorra izan zezaketela.

- Adinekoen zentro batetik datozen zaratak (erreg. zk.: 273-03)

Erreklamazioa

Herritar batek Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Bulegora jo zuen honakoa adieraztera: bere gurasoek -80 urtetik gorakoak– hilabete zeramaten goiko etxebizitzako bizilagunek egindako zaratak jasaten, bereziki gauez, eta osasun arazoak zituzten horren eraginez.

Egoera hori konpontzeko neurriak hartzeko eskatzen zuen.

Analisia

Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Bulegoan lortutako argibideen ildotik, zaratak zetozen etxebizitza adineko pertsona ezindu batena zen, eta Ajuria egoitzako zuzendaria zen haren tutorea. Beraz, Sindiko edo Herritarren Defendatzailea egoitzaren zuzendariarekin elkarriketatu zen arazoa azaltzeko. Bizilaguna etxetik botatzeko aukera ere aipatu zen elkarriketan, baina ez zen horren zantzurik ikusi. Egoitzako zuzendariak adierazi zuen auzokoek auzitara jotzen bazuten epaileak hartutako erabakia beteko zuela.

Ebazpena

Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak kexa konpontzeko **ESKU HARTU** zuela jo zen, zaratak sortzen ziren etxebizitzaren arduradunari horren berri eman baitzitzaion auzokoei enbarazurik ez egiteko neurriak har zitzan.

2.4.3.2.6 Aholkua

- Zaraten ordenantza ez betetzea (erreg. zk.: 261-03)

Erreklamazioa

Herritar batek kexa aurkeztu zuen Dato kaleko Río kafetegiak ez zuelako ate bikoitza izateko obligazioa betetzen, Zaraten Ordenantzaren 22 4.4.2 artikulua hori ezartzen badu ere.

Ahalik eta zarata gutxien sortzeko ate bikoitza jartzeko obligazioa betearazteko eskatzen zuen.

Analisia

Herritarra Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin elkarriketatu ondoren argibideak eskatu zitzaizkion Ingurumen Sailari Río kafetegiaren jarduera baimenaz.

Zaraten Ordenantzaren 22.4.4.2 artikulua honakoa dio:

“Establezimendu hauetako jendearentzako sarbide arruntak edo arruntek ate bikoitzeko sistema bat edukiko dute haizeen aurkako sarrera-gune bat osatuz. Barrualdeko atea kanpoko atea kokatuta dagoen planoarekiko elkarzuta den plano batean kokaturik egongo da. Barrualdeko atearen irekitze-ibilbidearen amaieraren eta kanpoaldeko atearen irekitze-ibilbidearen hasieraren artean metro 1eko gutxieneko tarte bat izango da. Era berean, modu horretan jardueraren eta kanpoko espazio librearen artean sortutako sarrera-gune independentean zurgapen akustiko handiko materialak erabiliko dira apainduretan. Ateak, edonola ere, kanporantz zabalduko dira.

Bulegoak jakin ahal izan zuenez, Ingurumen Sailak beste establezimendu bati ate bikoitza jartzeko agindu zion zarata handiegia sortzen zuelako, zaraten ordenantzako artikulua horri jarraituz.

Ebazpena

Hori zela eta, batetik **GOMENDIO OROKORRA** egin zen aisialdiko lokalak ixteko ordutegia ez betetzeaz, eta bestetik, erabiltzailea eskaera bat idazteko **AHOLKATU** zitzaion, Vitoria-Gasteizko Udaleko Ingurumen Sailari zaratak eta bibrazioak arautzen dituen udal ordenantza betearaz zezan eskatzeko.

- Informazio txartelak kalean jartzea (erreg. zk.: 204-03)

Erreklamazioa

Arte galeria baten jabeak kalean informazio txartel batzuk jartzeko agindu zuen, erakusketa baten berri emateko. Erabiltzaileak azaldu zuenez, Udalak isuna jarri zion garbitasunari buruzko ordenantza ez betetzeagatik.

Idazki lagundu bat betetzen laguntzeko eskatzen zuen.

Analisia

Erabiltzailea Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin elkarrizketatu, kexa aurkeztu eta izenpetu egin zuen.

Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak lortutako argibideen arabera, bada Bilboko administrazioarekiko auzibideetarako 1. zk.ko epaitegiaren epai bat, zeinaren bidez Portugaleteko Udala behartzen baitzen kalean txartelak jartzeagatik banakoei zein erakundeei jarritako isunak itzultzera.

Txartelak jartzeagatik isuna jartzeko agintzen duen udal araua baliogabetzen duen epai horrek aurrekari balioa du udal honetarako.

Beraz, Sindiko edo Herritarren Defendatzailea erabiltzailearen alde agertu zen eta Udalari aurkezteko idazki lagundu bat taxutzen lagundu zion, txartelak areto pribatuetan jarri baitziren bertako jabeen baimenarekin.

Ebazpena

Erabiltzailea idazki lagundu bat idazteko **AHOLKATU** zitzaion, txartelak jartzeagatik ezarritako isuna ken ziezaioten.

- Janari merkatu beteko konpresoreek sortutako zaratak (erreg. zk.: 187-03)

Erreklamazioa

Zaramaga auzoko herritar batek kexa aurkeztu zuen bere etxetik hurbil dagoen janari merkatu batetik zetozkion zaratak zirela eta. Makinek (konpresoreak, aireztatze turbinak, erauzgailuak,...) egiten zuten zaratak enbarazu sortzen zien bizilagunei.

Halaber, arazoa konpontzeko neurriak hartzeko eskatzen zuen.

Analisia

Lehenengo erabiltzailearen etxera joan ginen ikuskatzera; zarata ez zela handiegia iruditu zitzaigun eta erabiltzaileak gauez gehiago nabaritzen zela esan zuen. Gero, Ingurumen Sailari janari merkatuaren jarduera baimena eskatu zitzaion eta merkatua osatzen zuten saltokiak isolatzeko edo intsonorizatzeko araurik zegoen galdetu.

Ingurumen Sailaren txostena jaso zen, zeinean janari merkatuak zein jarduera baimen mota zuen jakinarazten baitzen. Jarduerari eska zekiokkeen isolamendu akustikoari zegokionez,

baimena eman zen garaian ez zegoela parametro hori arautzeko erregelamendurik azaltzen zuen, eta neurri zuzentzaileak indarreko araudian oinarrituz diseinatzen zirela. Inguruko bizilagunei igorritako gehienezko zarata mailak baino ez ziren arauzko irizpideen arabera kontrolatzen.

Udalak egiaztatu zuen konpresoreen zarata eta indarreko araudiarekin bat zetorrela ikusi zen. Bestetik, neurri zuzentzaileak eskatzeko dosierra bideratua zela ohartarazi ziguten.

Ebazpena

Udalak adierazitakoa aintzat hartuz, Sindikoak uste izan zuen udal administrazioak bere egitekoa bete zuela erabiltzaileak aurkeztutako kexari zegokionez. Dena dela, erabiltzailea auzitara jotzeko **AHOLKATU** zitzaion, Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak taxututako idazki baten bitartez.

- Areto batek gaueko ordutegia ez betetzea (erreg. zk.: 203-03)

Erreklamazioa

Aranbizkarreko auzokoen ordezkari batek kexa aurkeztu zuen Gregorio Altube plazako taberna batek gauez zarata handia sortzen zuelako etengabe.

Salatutako lokalaren jarduera baimena berrikusteko eskatzen zuen.

Analisia

Auzokoen ordezkariarekin elkarriketatu, eta hark kexa aurkeztu eta izenpetu egin zuen. Ondoren, Ingurumen Sailari argibideak eskatu zitzaizkion tabernaren jarduera baimenez.

Baimena merkatu txikiari zegokion, beraz, mota horretako aretoen ezaugarrien arabera lokalak ez zuen baimenik musika aparatuak jartzeko. Hala ere, auzokoek berretsi zutenaren arabera, aretoak musika aparatuak zituen, eta soinu mugak ez errespetatzeaz gain ez zuen isolamendu akustikoko sistemarik.

Horren ildotik, Sindikoaren Bulegoak GOMENDIO OROKOR bat egin zuen gaueko aisialdiko lokalek sortutako zaratez, Udalak onetsi zuena. Horren ondorioz, aisialdiko lokaletan bakoitzari dagokion ordutegia jakinarazi beharra betearazteko kanpaina bat jarri zen abian, eta Gasteizko ostalaritzako lokalei bakoitzaren ordutegia zehazten zuen txartela banatu zitzaizkien.

Ebazpena

Gregorio Altube plazako bizilagunek aurkeztutako kexari zegokionez, berriz, Udalean aurkezteko idazki lagundu bat prestatzeko **AHOLKATU** genion erabiltzaileari, salatutako aretoak taberna edo aisialdiko areto gisa jarduteko baimenik ez bazuen baimena berrazter zezaten.

- Ordutegia ez betetzea (erreg. zk.: 336-03)

Erreklamazioa

Herritar batek kexa aurkeztu zuen bere etxearen azpiko tabernak ez zituelako zarata eta ordutegien araudiak betetzen eta bizilagunei etengabe enbarazu egiten zielako. Araudia betearazteko neurriak hartzeko eskatzen zuen.

Analisia

Herritarrek atseden hartzeko duten eskubidea oinarritzkoa da, bai eta aretoen ixteko ordutegiari buruzko araudiak betetzea ere.

Erabiltzailea Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin elkarrizketatu eta kexa aurkeztu zuen. Sindikoak Udaltzaingoari zuzendutako idazki lagundu bat prestatzen lagundu zion; bertan 296/1997 Dekretuaren 14. artikuluan ikuskatze, kontrol eta zigor neurriez ezarritakoa betetzeko eskatzen zen.

Ebazpena

AHOLKU eman zitzaion erabiltzaileari, eta Udaltzaingoari zuzendutako idazki lagundu bat prestatzen lagundu; bertan ikuskatze eta kontrol neurri egokiak hartzeko eta beharrezkoa bazen salaketak bideratzeko eskatzen zen.

2.4.3.3 Parke eta Lorategien Zerbitzua

2.4.3.3.1 Gomendioak

- Gaizki zaindutako lur eta lorategiak (erreg. zk. 207-03)

Erreklamazioa

Arriaga inguruko herritar batek adierazi zuen bere etxetik hurbileko lorategiak (Alfredo Donnay, Pozoa eta Agirrelanda kaleen artean) eta bertan kokatutako haur jolasak gaizki zainduta eta utziak zeudela.

Hobetzeko neurriak hartzeko eskatzen zuen.

Analisia

Erabiltzailearekin bildu eta hark kexa aurkeztu eta sinatu ondoren auzia aztertzeari ekin genion. Bide Publikoen Zerbitzuari txostena eskatu genion orubearen titularra nor zen jakitearren.

Txostena behin eta berriro eskatu eta gero, Bide Publikoen Zerbitzuak lurak titularitate pribatukoak direla jakinarazi zigun. Idazkaritza Nagusiak egiaztatu zuenaren arabera, berriz, Udal Batzorde Iraunkorrek 1982ko martxoaren 22an egindako ohiko bilkuran Alfredo Donnay, Pozoa eta Agirrelanda kaleen arteko lur horiek hiriko garbiketa publikoaren barruan sartzeko proposatu zen.

Ebazpena

Hori ikusirik, lurak garbitzeko **GOMENDIOA** egin zen.

Ingurumen Sailak gomendioa **ONARTZEN** zuela erantzun zuen, eta Alfredo Donnay, Pozoa eta Agirrelanda kaleen arteko berdegune eta bideak aurretik hiriko garbiketa publikoaren barruan sartzeko egon ziren arazoak azaltzen zituen. Eremuan dauden baserria eta hari lotutako lurak, ordea, Eusko Jaurlaritzaren menpeko fundazio batenak dira eta horiek mantentzea ez dagokio Udalari.

- Adurtza inguruko lorategien mantentze eskasa (erreg. zk.: 104-03, 227-03)

Erreklamazioa

Adurtzako bizilagun batzuek kexa aurkeztu zuten Txirula kalearen inguruko lorategiak ez zirelako behar bezala garbitzen eta zaintzen.

Udalari lorategiak zaintzeko eskatzen zioten, haren ardura baita.

Analisia

Erabiltzaileek emandako argibideen arabera, lorategiak jabeen erkidegoarenak badira ere Udalari dagokio ingurua mantentzea.

Analisia Arartekoak 2003ko maiatzean egindako gomendioan oinarritzen da, zeinean erabilera publikoko zona pribatuen lurzorua garbitu eta zaintzea udalaren ardura dela adierazi baitzuen.

Ebazpena

Horrenbestez, **GOMENDIO** bat egin zen Txirula kaleko lorategiak zerbitzu hori ematen ohikoak diren parametroak betez mantentzeko eta zaintzeko lanez; izan ere, gune hori bete-betean sartzan da erabilera publikoko espazio pribatuaren definizioan.

Bide Publikoen Zerbitzuak ez zuen gomendioa onartu, horri erantzuteko zerbitzu egokia ez zela argudiatuz. Parke eta Lorategien Zerbitzuak, berriz, osorik **ONETSI** zuen gomendioa.

- Zuhaitzak dauden inguru batean teilatu-hodiak butxatzea ez garbitzeagatik (erreg. zk.: 134-02)

Erreklamazioa

Denda bat duen Vitoria-Gasteizko herritar batek kexa aurkeztu zuen euri uren zorrotzenak (teilatu-hodiak) butxatu egiten zirelako inguruko zuhaitzetatik eroritako hostoak behar bezala

ez garbitzeagatik. Zorrotenetan eragiten zuen kaltea kontuan izanik, zuhaitzak kentzeko edo Udala garbitzeaz arduratzeko eskatzen zuen.

Analisia

Erabiltzailea gurekin elkarrizketatu eta auziaren inguruko dokumentazioa ekarri zuen.

Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Bulegoak txostena eskatu zion Ingurumen Saileko Parke eta Lorategien Zerbitzuari.

Txostena jaso eta kexa ezetsi zen, ez baitzen udal administrazioaren erantzukizunik ikusi.

Erabiltzailea berriro etorri zen bulegora, ez zegoelako pozik erabakitakoarekin; itxuraz, ez ziren ondo identifikatu arazoa sortzen zuten zuhaitzak. Ingurua ikuskatu zen.

Zuhaitzak ikastetxe publiko baten barruan daude. Arduradunak jakinarazi zigun kalte egiten zuten zuhaitzak kimatu egin zituztela, baina hogeitau urte zeramatela horrelakorik egin gabe.

Horrenbestez, **GOMENDIO** bat egin zen Luis Elejalde ikastetxe publikoaren patioako zuhaitzek hostoak galtzean Domingo Beltran kaleko lokalaren estalkiko zorrotenetan eragindako butxadura zela eta.

2.4.3.3.2 Ezesteak

- Bastiturri kalea oinezkoen alde bihurtzeko lanetan kaltetutako zuhaitzak (erreg. zk. 184-02)

Erreklamazioa

Vitoria-Gasteizko herritar batek Sindiko edo Herritarren Defendatzailearengana jo zuen Bastiturri kalea oinezkoentzako alde bihurtzeko lanetan bertako zuhaitzak kaltetu zirelako. Zuhaitz horien orde berriak jartzeko eskatzen zuen.

Analisia

Erabiltzailea Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin elkarrizketatu, kexa aurkeztu eta izenpetu egin zuen, Sindikoaren Araudian ezarritakoari jarraituz. Ingurua ikuskatzera joan eta ez zegoela zuhaitzak kentzeko beharrik ikusi zen.

Ebazpena

Kasua **EZETSI** zen, ez baitzuen ematen zuhaitzen egoera txarra zenik, udaberrian hostailak indarra berreskuratuko zuelakoan; Parke eta Lorategien Zerbitzuaren esku hartzea egokitzat jo genuen.

Ondoren herritarra berriro etorri zen, ez zegoelako pozik bulegoaren ebazpenarekin.

2.4.3.4 Hondakinen Kudeaketako Zerbitzua

2.3.3.4.1 Gomendioa

- Zabor ez-organikoa botatzeko ontziak jarri beharra (erreg. zk.: 128-02)

Erreklamazioa

Vitoria-Gasteizko herritar batek Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Bulegora jo zuen Alde Zaharrean zabor ez-organikoa botatzeko ontziak jartzearekin lotutako kexa bat adieraztera.

Analisia

Erabiltzailea Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin elkarrizketatu zen, eta kexa azaldu zion. Bulegoak txostena eskatu zion Ingurumen Sailari, hondakinak biltzeko zaborrontzi pneumatikoak jartzeko irizpideak zein ziren eta banaketa zehatza jakitearren.

Sailak bulegora bidalitako txostenaren arabera, honakoak izan ziren irizpideak: eraikuntza, hondakinak non sortzen ziren eta produkzio sektore komertziala, eta Etxebizitzarako eta Hiri Berrikuntzarako Udal Eragintegiak ezarritako irizpide estetikoak. Halaber, erreferentziazko irizpide bat zehaztea aurreikusita zegoen, honakoak kontuan hartuz: hirian birziklatzen diren hondakinen kopurua, biztanle kopurua eta merkataritza alorrek sortutako hondakinak eta haien ordutegiak.

Jasotako informazio aintzat hartuz, zabor organikoarentzako ontzien, merkatarientzako eta bizilagunentzako ontzi mistoen eta merkatarientzako ontzien aldean zabor ez-organikoarentzako ontzien kopurua handitzeko beharra ikusi zen; Anorbin kantoia kasuan, zehazki, zabor organikoarentzako 6 ontzi zeuden eta zabor ez-organikoarentzako bat ere ez.

Ebazpena

GOMENDIO bat egin zen, zabor organikoarentzako ontzien, merkatarientzako eta bizilagunentzako ontzi mistoen eta merkatarientzako ontzien aldean zabor ez-organikoarentzako ontzien kopurua handitu zezaten eta kontuan har zezaten Anorbin kantoian zabor organikoarentzako 6 ontzi zeudela eta zabor ez-organikoarentzako bat ere ez, nahiz eta jakin Udalak sistema instalatu ahala aztertuko zituela bilketa beharrak eta neurriek orokorrak izan beharko zutelara eta ez bizilagun bakoitzaren nahierara.

Ingurumen Sailak gomendioa **ONETSI** zuen; gomendioaren jarraipena egiteko sail horrekin bildu ginen eta neurriak hartzen ari zirela adierazi ziguten.

- Renferen geltokiko lurpeko pasabidearen egoera txarra (erreg. zk.: 228-03)

Erreklamazioa

Vitoria-Gasteizko erdialdeko bizilagun batek kexa aurkeztu zuen RENFERen geltokia unibertitate campusarekin lotzen duen lurpeko pasabidea zela eta. Igarobidearen osasun eta higiene egoera txarra zela adierazi zuen.

Udalak gutxieneko mantentzea egiteko eskatzen zuen.

Analisia

Erabiltzailea Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin bildu eta bere kexa azaldu zion. Txostena eskatu zitzaion Ingurumen Saileko Hondakinen Kudeaketako Zerbitzuari, egoeraren

berri ote zuen eta lekua garbitzeko planik ote zegoen zehazkiago jakitearren. Halaber, Bide Publikoen Zerbitzuari lurpeko pasabidearen titularra nor zen galdetu zitzaion.

Bi hilabeteren buruan eragindako sailen txostenak jaso genituen, zeinetatik hau ondorioztatzen baitzen: pasabidearen titularra RENFE izanda ere, hitzartuta zegoen RENFEk handik pasatzen utziko ziela erabiltzaile guztiei eta argiztapena zein garbiketa udal administrazioaren ardura izango zirela.

Erreklamazioa

Horregatik, **GOMENDIO** hau egin zen: erdialdea eta unibertsitate campusa lotzen dituen pasabidea izanik, eta jende askok erabiltzen duenez, hitzartutako jarduera protokoloan sartutakoaz gain (egunero eskobatzea eta urtean bitan pintadak kentzea) astean behin garbiketa sakonago bat egitea.

Ingurumen Sailak gomendioa ONETSI zuen, baina ohartarazi zuen garbitzeko arazoak zeudela hustubidea ez zuela ura behar bezala husten.

- Hondakinen bilketak sortutako zaratak (erreg. zk.: 237-03)

Erreklamazioa

Herritar batek kexa aurkeztu zuen gauez bere etxearen inguruan hiri hondakinak (kartoiak, kristala, etab.) biltzean zarata handia sortzen zelako, denbora laburrean bazen ere, eta egunero izanik eta ordu bertsuan lo egiteko arazoak zituelako.

Jarduera hori gutxienez ordubete atzeratzeko edo bilketaren ibilbideak aldatzeko eskatzen zuen, kaltea jasaten zuena beti bera ez izateko.

Analisia

Bulegotik txosten bana eskatu genien Vitoria-Gasteizen hondakinak tratatzeko emakida duten enpresei. Enpresetako batek erantzun zuen hondakinak biltzeaz arduratzen zen enpresa Cespa zela, ez bera. DESPANORSA enpresaren instalazioen ordutegia honakoa zen: 06:00etatik 22:00etara astelehenetik ostiralera eta 08:00etatik 13:00etara larunbatetan. CESPAk, berriz, 06:00etatik 13:00etara egiten zuen hondakinen bilketa.

Hondakinen gaikako bilketa zerbitzu publikoa da, nahiz eta kontratu bidez gauzatu, eta zerbitzu publikoa den aldetik hiriko kalitate akustikoa errespetatzeko estandar berriak bete behar ditu, beraz, ahal dela aldatu egin beharko ditu akustikoki kutsatzaileak diren jardueren

ordutegiak, horiek ez badute herritarrek gauzez atsedean hartzeko duten eskubidea errespetatzen edo kalte egiten badiote.

Sindikoaaren bulegoan diligentziak egiten ari ginela erabiltzailea berriro etorri zen bulegora, zabor bilketak artean zarata sortzen zuela adieraztera, eta aldi batez hondakinak biltzeko ordutegia aldatzeko eskatu zuen.

Erabiltzailearen eskaerak bazuela motiborik ulertuta, gomendio bat egin zen: baldin eta zarata eta bibrazioen ordenantzan ezarritako mugak gainditzen baziren, biltzeko ordutegia ordu bat edo bi atzeratzeko aukera aztertzeko, hiriko ingurumen akustikoari egindako kaltea arintze aldera.

Ebazpena

GOMENDIOA egin zen: hondakinak biltzeko ordutegia ordu bat edo bi atzeratzeko edo bilketaren ibilbideak aldatzeko, kaltea jasaten zuena beti erabiltzailea izan ez zedin.

Gomendioa **OSORIK ONETSI** zen eta bizilagunei enbarazu ez egiteko hondakinak biltzeko ordutegia aldatuko zela adierazi ziguten.

2.4.3.4.2 Ezestea

- Supermerkatu bateko zaborrak metatzea (erreg. zk.: 185-03)

Erreklamazioa

Gasteizko herritar batek Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Bulegora jo zuen kexatzera bere etxetik hurbil dagoen supermerkatu batek zabor gehiegi metatzen zuelako, eta desorduetan.

Arazoa konpontzeko neurriak hartzeko eskatzen zuen.

Analisia

Erabiltzailea Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin bildu zen eta bera bizi den auzoan zaborra metatzen zela salatu zuen.

Kexa egileak adierazitakoa egiaztatzeko ikuskatzera bertaratu ginen; establezimenduko atearen ondoko espaloian zikin orbanak ikusi genituen, baina ez zaborrik, erabiltzaileak esaten zuen bezala.

Bestetik, Cespari txostena eskatu zitzaion, supermerkatuek edo antzeko establezimenduek sortzen dituzten hondakinak garbitzeko plan berezirik ote zegoen jakiteko, eta kexa aurkeztu zuen herritarren etxetik hurbil dagoen supermerkatuak ordutegiz kanpo hondakin gehiegirik ateratzen ote zuen.

Hondakinen Kudeaketako Zerbitzuari ere eskatu zitzaion txostena, eta hura ikusirik, administrazioaren jokaera zuzena izan zela ondorioztatu zen.

Ebazpena

EZETSI egin zen kexa, administrazioak zuzen jokatu zuela jo baitzen; izan ere, establezimenduen ardura da hondakinak behar bezala ateratzea eta horiek uzten diren ingurua garbitzea.

- Zaborra jaisteko ordutegia ez betetzea (erreg. zk.: 226-03)

Erreklamazioa

Gasteizko herritar batek Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Bulegora jo zuen kexatzera bere auzoko (Zaramaga) bizilagunek ez zutelako zaborren ordutegia betetzen.

Administradoreei gutun bat bidaltzeko eskatzen zuen, zaborra udal araudiak ezarritako ordutegian uzteko beharra gogorazteko.

Analisia

Erabiltzailea auzoan zikinkeria handia zegoela adieraztera etorri zen bulegora. Udalean kexa aurkezteko aholkatu zitzaion, eskumena duen sailak neurriak har zitzan.

Handik 6 hilabetera, erabiltzailea berriro etorri zen bulegora. Salaketa aurkeztu zuenean neurriak hartu baziren ere –jabeen erkidegoen atarietan txartelak jarri ziren zaborra ateratzeko ordutegia gogorarazteko– ez zen ordutegia betetzen. Beraz, auzoko atarietan txartelak berriro jartzeko eskatu zuen.

Ingurumen Saileko Hondakinen Kudeaketako Zerbitzuarekin harremanetan jarri ginen eta zaborrak ateratzeko ordutegia betearazteko neurriak hartzen ari zirela erantzun ziguten, besteak beste, txartelak jarritz, erabiltzaileak eskatu zuen bezala, eta udaltzainek zaintza estuagoa egiten zutela auzoetan araudia bete zedin.

Ebazpena

Administrazioaren jokaera zuzentzat jo zenez, kexa **EZETSI** egin zen.

- Baiona zein Landaberde kaleetako eta Katalunia plazako lorategiak mantentzea (erreg. zk. 123-02)

Erreklamazioa

Lakuabizkarreko auzokoen ordezkari batek kexa aurkeztu zuen Udalak ez zituelako Baiona zein Landaberde kaleetako eta Katalunia plazako lorategiak mantentzen.

Neurriak hartzeko eskatzen zuen.

Analisia

Bizilagunak 2002ko azaroan aurkeztu zuen kexa bulegoan. Udaleko garbiketa zerbitzuek zergatik ez dituzten lorategi horiek mantentzen jakiteko hainbat tramite egin genuen. Lehenengo eta behin, bertara joan ginen, eta lorategietako belarra ez zegoela moztuta ikusi genuen. Parke eta Lorategien Zerbitzuari eta Bide Publikoen Zerbitzuari lorategiak zergatik ez ziren zaintzen galdetu genien.

Bide Publikoen Zerbitzuak bidali zigun txostenaren arabera, orube horiek ez ziren Udalarenak, Vital kutxarenak baizik, eta hari zegokion berdeguneak mantendu eta zaintzea, jabea zen aldetik. Gero erakunde horrengana jo genuen eta Lakua-10eko 9. sektorea laster Udalari entregatuko ziola adierazi ziguten.

Zentzuzko denbora-tarte baten ondoren, 2004ko urtarrilean Bide Publikoen Zerbitzuak txosten bat bidali zigun, zeinean Lakua-10eko 9. sektorearen urbanizazioa –Baiona zein Landaberde kaleetako eta Katalunia plazako lorategiak bertan daude– jaso zela adierazten baitzen. Gero, Ingurumen Sailak udal zerbitzuek lorategiak mantentzeko beteko zuten ordutegia jakinarazi zigun.

Ebazpena

Kexa **EZETSI** egin zen, administrazioaren jokaera indarreko legeriarekin bat etorri zelakoan, udal zerbitzuek lorategiak garbitzeko plan bat abian jarri baitzuten.

- Alde Zaharreko zabor bilketa pneumatikoaren akatsak (erreg. zk.: 201-03)

Erreklamazioa

Herritar batek kexa aurkeztu zuen Alde Zaharrean zabor bilketa pneumatikorako ontziak jarri ondoren haien inguruan hondakinak eta zabor poltsak pilatzen zirelako eta arratoiak zebiltzalako. Erabiltzaileak adierazi zuen Udalak ez ziela bizilagunei azaldu nola funtzionatzen zuten zaborrontziek martxan jarri baino lehen. Bestalde, antiestetikoak izateaz gain, zaborrontziek zaratak eta bibrazioak sortzen zituzten erabiltzean.

Akats horiek konpontzeko eskatzen zuen, Alde Zaharra garbiago egon zedin.

Analisia

Bulegotik Hondakinen Kudeaketako Zerbitzuari galdetu genion bizilagunek kexarik aurkeztu ote zuten bilketa pneumatikoko ontziak erabiltzea zaila gertatzen zitzaielako. Udaltzaingoari, berriz, galdetu genion salaketarik edo isunik jarri zen zaborrontzien kanpoaldean zabor poltsak pilatzeagatik.

Udaltzaingoaren txostenaren arabera, ez zen zigorrik ezarri Alde Zaharreko zaborrontzi pneumatikoen kanpoaldean zabor poltsak uzteagatik, baina baziren Udaleko Ingurumen Sailak egindako salaketak batzuk.

Hondakinen Kudeaketako udal zerbitzuaren txostenak adierazten zuenez, zaborra biltzeko sistema pneumatikoaren balorazioa aldekoa zen, Alde Zaharreko auzokoentzat zerbitzu berria izan arren. Herritarren jokaera askotarikoa da eta gerta daiteke ezartzen diren sistema berriekin zenbait arrazoiengatik ados ez daudenek parte ez hartzea. Mantentze zerbitzu bat dago egunero eta haien zereginetako bat hondakinak zaborrontzien barruan sartzea da, auzokoek erabili ahal izan dezaten. Ontziak etxebizitzetatik hurbil daude eta Alde Zaharreko biztanleek ontzat eman dituzte egon daitezkeen alde txarrak eskaintzen dituen abantailen aldean.

Ebazpena

EZIN ZEN kexa **ONETSI**, Alde Zaharreko bizilagunek zaborrontzi pneumatikoak erabili zitzaten Udalak lan handia egin zuelakoan. Auzokoen jokaera askotarikoa izan zitezkeen eta

zaborrontziak jartzearekin ados egon ala ez. Gainera, hondakinak biltzeko mantzentze zerbitzu bat dago egunero.

2.4.3.4.3 Esku-hartzeak

- Merkataritzako zabor-bilketarako ordutegia ez betetzea. (erreg. Zk.: 277-03)

Erreklamazioa

Herritar batek adierazi zigunez, Zalburu kaleko 6.ean merkataritzako ordutegian ateratzen zen zaborra eta garbiketa edo bilketako langileek ez zuten jasotzen.

Zaborra horretarako den lekuan utziz gero, jasotzeko eskatzen zuen.

Analisia

Herritarra bulegora etorri zitzaigun kexa adieraztera, hain zuzen ere honakoa: merkataritza gunekoek egunean zehar zaborra ateratzen zutela eta garbiketakoek biltzen ez zutenez, hondar ugari pilatzen zela.

Arazo hori ezaguna ote zen eta inguru horretan (Arana auzoa) zabor bilketa egiteko plan berezirik zegoen argitzeko eskatu zen Ingurumen Sailean.

Ingurumen Sailekoek igorri ziguten txostenaren arabera, Arana Auzoko Zalburu kaleko merkatariek bere ordutegia dute eta Sailekoak ez ziren ohartu ordenantzaren urraketa ohiz gertatzen zenik. Zaborra biltzeko taldeen ordutegia ere adierazi ziguten, hain zuzen ere hiru taldek 9:00etatik 16:52ra eta beste batek lanaldi etena, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:52ra, azken talde honek supermerkatu eta azoketako zaramak jasotzen dituelarik.

Ebazpena

Zalburu kaleko zabor bilketari buruz Ingurumen Sailari eskatutako informazioa zela eta, inguru horretako zabor bilketan izandako hutsak antzeman zitezen ESKU HARTU zuen Sindikoaren bulegoak. Edonola ere, esku-hartze horren ondoren herritarrak bestelako irregulartasunik antzeman ez gero, berriz ere jakinarazteko esan zitzaion herritarrari, hainbat ekimen burutze aldera.

2.4.4 UDALTZAINGOA

2.4.4.1. Gomendioak

- Auto eta motor lasterketak, gauez, Lakuako inguruetan (erreg. zk.: 118-02)

Erreklamazioa

Auto eta motor lasterketak izaten zirela goizeko ordu txikietan jakinarazi zigun Lakuabizkarreko bizilagun batek. Ondorioz, zarata, arrisku, borroka, droga eta beste ere. 092 telefonora maiz deitu arren, ez zutela ezer egiten adierazi zuen.

Neurriak hartzeko eskatzen zuen.

Analisia

Egunkarietako “zuzendariari gutunak” atalean gai honen inguruko kexak maiz agertzen zirenez, eta bizilaguna bulegora bertara kexa jartzera etorri zenez, benetako arazotzat jo genuen.

Lehenik eta behin, auto eta motor lasterketak zirela eta egindako esku-hartzeei buruzko informazioa eskatu zen Udaltzaingoan.

Udaltzainek egindako lanei buruzko agiriak eta gai horri buruzko bestelako informazioa eskuratu ondoren, GOMENDIO bat egin zen; hain zuzen ere, udaltzainek arreta berezia eskaintzeko hilabetez gune hartan, balizko arau-hausleek atzera egin zezaten, eta gizartea larritu eta bizilagunen bakea urratzen zutenen jokaerak salatzeke.

Gomendioa eman zenetik Lakuabizkarreko auzoan egindako jarraipenen berri eman zitzaigun Udaltzaingotik. Hortaz, gomendioa **ONARTU** egin zuten.

Handik hilabete batzuetara arazoak bere horretan jarraitzen zuela adierazi zigun herritarrak. Kanean zaratak, borrokak, eta abar izaten zirela eta egun batean Udaltzainek hainbat lagun atxilotu zituela. Udaltzaingora jo genuen jardun hauen berri izateko eta bidali ziguten txostenean argi geratzen zen udaltzainek arreta berezia zutela gai honekiko eta beharrezko neurriak hartzen zihardutela. Hortaz udal administrazioaren jarduna egokitzat jotzen zenez, bizilagunak aurkeztutako bigarren kexa hau **EZETSI EGIN** zen.

- Akatsa argiketan (Erreg. zk.: 202-03)

Erreklamazioa

Vitoria-Gasteizko bizilagun batek auto-istripua izan zuen eta udaltzainek argiketa agiria egin zuten. Erabiltzailearen ustez, argiketa oker egin zen, istripuaren erantzukizuna egozten baitzitzaion eta honek aseguru-etxe eta besteren aurrean kalte handiak eragiten zizkion. Argiketa berraztertzeko eta akatsa konpontzeko eskatzen zuen.

Analisia

Erreklamaziogilearekin bilera egin zen eta bertan kexa aurkeztu eta argiketaren inguruko agiriak aurkeztu zituen. Argiketan adierazten zenez, Latinoamerika plazako biribilgunearen kanpoaldeko bidean (3 ditu) gertatu zen. "A" autoa biribilgunearen kanpoko aldetik zihoan Euskal Herria bulebarra hartzeko asmotan, eta "B" ibilgailua erdiko bidetik, Forondako atea hartzeko. "B" ibilgailuak norabidea aldatu zuen, ibilgailuaren kontrola galdu eta aurrez aurre jo zuen Forondako atearen ezker aldeko kale-argi bat.

Agiriak aztertu, erreklamaziogilearen azalpenak entzun eta talka egiteko unean autoen kokalekua ikusirik, erdiko bidetik zihoan autoak bidea uzteko zailtasunak zituenez, bi aukera zituela ondorioztatu zen; bata biribilguneari beste bira bat ematea eta bestea, kanpoaldeko bidetik zetorren ibilgailuari pasatzen uztea. Ez da erraz ulertzen bi autoek elkar ez ikustea tope egin aurretik.

Ebazpena

Hori guztia ikusirik, argiketan kontraesanak antzematen ziren eta argiketa berriz ere aztertzeko GOMENDIOA egin zen.

Gomendioa osorik ONARTU zen.

- Ikuskapena eta zaintza-lanak, ordutegia ez betetzeagatik (erreg. zk. 335-03)

Erreklamazioa

Ignacio Diaz Ruiz de Olano Margolariaren kaleko bizilagun bat kexu zen bere etxebizitzaren azpian dagoen pubak ez zuelako kaleko mahaien ordutegia betetzen (00:00ak baino beranduago ixten zuela) eta horretaz gain, 3 mahai jartzeko baimena izan arren lau jartzen zituelako. Gaueko ordutegia betetzen ez zuenez, zaratak eta bizilagunei kalteak eragiten zizkiela adierazi zigun. Hainbatetan egin zituzten neurketak eta beti baimendutako mailatik gorakoak izaten ziren.

Areto horretan soinua isolatzeko baldintzak betetzen ziren aztertzeke, eta neurriak hartzeke eskatzen zuen. Halaber, Udalak emandako ebazpenak bete zitezela eskatzen zuen.

Analisia

Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin elkarrizketatu, kexa aurkeztu eta izenpetu egin zuen. Hainbat agiri ere ekarri zituen. Agiri horietan ikus zitekeenez, bizilagunek maiz salatu zuten aretoa. Aldi berean, Vitoria-Gasteizko Udalak emandako ebazpenen haritik, aretoko ordezkariak hilabeteke epea zuen, 2001eko urriaren 22tik kontatuta, zaraten ordenantzan ezarritakoa betetzeko; alegia, billarreko makilek eta altzariak mugitzearen ondorioz sortutako zaratak leuntzeke neurri zuzentzaileak ezartzeko.

Bestetik, behin eta berriz aretoa ixteko ordutegia betetzen ez zelako ere hainbat salaketa eginak ziren Udaltzaingoan. Hori guztia zela eta, araudian ezarritakoa betetzen zen aztertzeke neurriak hartzea gomendatu zen.

Ebazpena

Ixteko ordutegiak betetzen ziren aztertze aldera, hiru hilabetez jarraipena egiteke GOMENDIOA egin zitzaion Udalari.

Udaltzaingoak osorik **ONARTU** zuen gomendioa.

2.4.4.2 EZESTEAK

- Alde zaharreko taberna bateko zaratak (erreg. zk. 200-03 B)

Erreklamazioa

Zapatari kalean zarata handia zegoelako kexa egin zigun bizilagun batek; kale horretako taberna batek sortzen zuela zarata eta bizilagunei enbarazu egiten ziela adierazi zigun.

Analisia

Bizilagunak ez zuen kexa izenpetu eta ofizioz ekin genion kexa hau aztertzeari, arazoa garrantzitsua zela iruditu zitzaigulako.

Udaltzaingoari txosten bat egiteko eskatu zitzaion salatutako tabernak zarata mailaren araudia eta ordutegia ez betetzeagatik esku-hartzerik izan zen aztertze aldera.

Udaltzaingoak egindako txostenean ikusten zenez, Udaltzainek hainbat esku-hartze egin zituzten areto horretan. Kexan azaltzen ziren arrazoiengatik hainbat salaketa eta isun ezarri zitzaizkion, hortaz, Udaltzainak jakitun zirela eta behar bezala jokatzeko ari zirela ulertu zen.

Ebazpena

Hortaz, administrazioak indarrean dagoen legedia betez jokatu zuela adieraz zitekeen eta ez zegoela eskubide urraketarik Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak esku-hartzeko. Ondorioz, kexa **EZETSI** egin zen.

- Bandalismoa hiriko zabalgunean (erreg. zk.: 199-03)

Erreklamazioa

Gasteizko hainbat bizilagunek Zabalguneko Jose Erbina kalean gertatzen ziren bandalismo ekintzei buruzko kexa aurkeztu ziguten. Esparru publiko zein pribatuak margotu egiten zitzutela, eta inguru horietan poliziarik ez zela ibiltzen adierazten zuten.

Inguru horretan, bereziki asteburuetan, izaten ziren ekintza horiei erreparatzeko eskatzen zuten.

Analisia

Kexa jarri zuen laguna elkarrizketatu ondoren, Jose Erbina kalearen inguruan gertatzen ziren bandalismo ekintzei eta bertan egindako esku-hartzeei buruzko txostena eskatu zitzaion Udaltzaingoari.

Bandalismo hitzak suntsiketa eta hondamena adierazten du eta kale horretan izandako ekintzek kalteak sortu bazituzten ere (batez ere kaleko altzarietan), ekintza hauek trauskilkeriatzat jo zitezkeen.

Txostenean argitu zenez, Udaltzain kopurua mugatua da eta ondorioz zonaldetako taldeek ezin izaten dute toki berean luzaro egon, hainbat arazori ekin behar izaten baitiote.

Udaltzainek igorritako txostenean argi geratzen zen bertan izandako esku-hartzea egokia izan zela, aldiro aldiro eta ahal zen neurrian istiluak sortzen ziren lekuetara joaten baitziren. Hortaz, udaltzaingoan jasotako salaketei kasu egiten dietela frogatuta geratu zen.

Ebazpena

Hortaz, administrazioak legearekin bat jokatu zuela ondorioztatu zen eta erabiltzaileek egindako kexa **EZETSI**.

- Bideo zaintza sistema Barrenkalean (erreg. zk: 213-03)

Erreklamazioa

Barrenkaleko auzo-elkarteak Udalak kale hori utzita zuela adierazi zigun. Bertan gero eta kale istilu gehiago zela, droga-trafikoa, garbitasun eza, argi gutxi, kaleko harlauza, zoladura eta urbanizazioa hondatuta, delituak izatean poliziak kasu ez egitea eta utzikeria, atzerritar ugari pilatzea etxebizitzan egoera latzean. Arazo horiek guztiak bizi zirela kalean adierazi zigun.

Bideo-zaintzako sistemaren bat ezartzeko eskatzen zuten, kaleko segurtasun ezaren arazoa konpontze aldera.

Analisia

Sindikoa edo Herritarren Defendatzaileak auzo-elkartekoak elkarrizketatu egin zituen eta hauek kexa agertu eta hainbat agiri eman zituzten.

Sindikoa egoera aztertzeraz hurbildu zen, gauez, Udaltzain talde batekin. Gerora, Udaleko kale hezitzaileekin bilera bat egin zen eta Vitoria-Gasteizko aterperik gabekoen jarraipen programa bat burutzen ari zirela aipatu zuten, batez ere, alde zaharreko inguruetan bizi zirenean.

Gizarte Gaietarako zinegotzi ordezkariarekin izandako bileran, Barnekaleko meskitatan egin diren esku-hartzei buruzko argibideak jaso ziren, baita meskita hauek auzoan duten eraginari buruzkoak ere.

Berriz ere gaueko ikustaldi bat egin zen, orduan auzoko hainbat lagun elkarrizketatu ziren eta auzoko egoeraren berri eman zuten.

Halaber, Barnekaleko arazoa ikertzeko burutzen ziren lanez gain, taldeko ordezkari batek kalean zehar bideo zaintzako kamerak jartzea proposatu zuen, hartara droga trafikoa, delinkuentzia eta abar murrizteko zedin auzoan.

Ebazpena

Inguru horretako delinkuentzia gutxitzeko bideak aztertu ondoren, honako ondoriora iritsi zen Sindikoaren bulegoa: inguru horretako delinkuentzia kontuan hartuta, gehiegizkoa zela bideo-kamerak jartzea, ez zegoelako proportzionaltasunik, hortaz kexa hori EZETSI egin zen.

Edonola ere, Barnekalea oinezkoentzako bihurtzeko GOMENDIOA egin zen, izan ere auzo-taldeak salatutako delinkuentzia eta droga trafikoa murrizteko balio baitzezakeen. Gomendioa hein batean aintzat hartu, eta kaleko aparkalekuak kendu egin ziren.

2.4.4.3 ATZERA BOTATZEA/ EZ ONARTZEA

- Auzolagun bat inolako arrazoirik gabe erasotzea (erreg.: 181-03)

Erreklamazioa

Goizalde batean Udaltzainek inolako arrazoirik gabe eraso ziotela adierazi zigun herritar batek. Pertsona bat agenteak zirikatzen ari zenez, hauek hitz gogorak erabili zituzten harekin. Guregana kexa aurkeztera etorri zen herritarrak arretoa deitu zien udaltzainei eta horregatik erasotu omen zuten. Eskuburdinak jantzi zizkioten eta lurtean etzanarazi ondoren borra batez jipoitu zuten.

Gertaerak ikertzeko eskatzen zuen.

Analisia

Herritarra sindikoaren bulegora etorri zen kexa aurkeztera eta izenpetu egin zuen. Udaltzainei gertaera egunaren inguruko esku-hartzeei buruzko argibideak eskatu genizkien. Gerora, Udaltzaingoko buruarekin bilera izan genuen eta diligentziak ireki zirela adierazi zigun eta txostena epaitegira igorri zela; hala ere, ez zen egoki ikusten argibide hori bulego honetara bidaltzea. Bestalde, udaltzainaren hitzetan, herritarrak udaltzainari eraso egin zion.

Berriz ere, herritarrarekin harremanetan jarri ginen eta gertaera horretatik epaiketa izango zela eta epaia igorriko zigula adierazi zigun.

Ebazpena

Bulegoan aurkeztutako kexaren inguruko epai judizialaren berri izan ez genuenez, itxi egin zen dosierra, **IRAUNGITZAT** jo zen.

2.4.4.4 Esku hartzea

- Garabiak autoari eragindako kalteak (erreg. zk: 338-03)

Erreklamazioa

2003ko azaroaren 25ean autoa ondo aparkatuta egon arren garabiak autoa eraman ziola eta hainbat kalte eragin zizkiola adierazi zigun herritar batek. 2003ko azaroaren 28an erreklamazioa aurkeztu zuen eta 2003ko abenduaren 15ean garabiaren arduradunak deitu egin zion kalteak konprobatzeko. Udal administrazioak inolako erantzunik ematen ez zionez, 2004ko otsailaren 6an beste erreklamazioa bat aurkeztu zuen ebazpena eskatuz.

Laguntza eskatu zion Sindiko edo Herritarren Defendatzaileari, Udal administrazioak erantzun bat eman ziezaion.

Analisia

Herritarrarekin elkarrizketatu ondoren Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak arretaz aztertu zituen aurkeztutako agiriak.

Ez zen egokitzat jo udal administrazioak ez erantzutea, herritarrak erantzun bat behar zuelako eta ondorioz udalean aurkezteko idazki bat egiten lagundu zitzaion.

Handik egun batzuetara erantzuna jaso zuela adierazi zigun herritarrak eta dosierra abiarazi zela.

Ebazpena

Herritarrari idazki bat egiten lagundu zitzaion eta Udalak horri erantzuten ez bazion, GOMENDIO bat egitea erabaki zen.

2.4.5 GIZARTEGINTZA SAILA

2.4.5.1 Komunitate Jarduerarako zerbitzua

2.4.5.1.1 Gomendioak

- Gizarte etxe eta gizarte zerbitzuetako langileek pairatzen dituzten arrisku egoerak (erreg. zk.: 132-02)

Erreklamazioa

Gizarte etxeetako eta gizarte zerbitzuetako langileak pairatzen ari ziren tentsio eta arrisku egoera jakinarazi zigun herritar batek. Arazoak sortzen zituen jendearekin lan egiteko bestelako aukerak har zitezela eskatzen zuen eta horretaz gain, proposamenen bat ere aurkeztu zigun.

Analisia

Kexa arauz bete ondoren, Gizartegintza Saileko zuzendariarekin bilkura bat izan genuen eta Vitoria-Gasteizko gizarte etxe batean hartutako segurtasun-neurriei buruzko argibideak eman zizkigun. Horretaz gain, hartzekoak ziren neurri orokorrei buruzko argibide gehiago eskatu genuen.

Hainbat hilabete igaro ondoren, Vitoria-Gasteizko gizarte etxeetan hartzekoak ziren segurtasun neurriei buruzko txostena eskatu zitzaion Gizartegintza Sailari.

Herritarrek adierazi bezala, segurtasun- eza zegoela ikusirik, gizarte zerbitzuei buruzko GOMENDIO OROKORRA egin zen, zerbitzua hobea izan zedin hainbat neurri eskatzen zirelarik.

Ebazpena

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak antolatzeko neurriak eskatzeko GOMENDIO OROKOR bat egin zen.

NEURRI BATEAN ONARTU ZEN gomendioa, hain zuzen ere, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan gertatzen zen indarkeriari aurre egiteko neurriak hartuko zirela, hartara funtzionarioek segurtasuna izan zezaten.

- Gizarte Zerbitzuetarako hitzordua emateko denbora (erreg.zk.: 144-03; 168-03)

Erreklamazioa

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek eskaintzen zuten arretaren inguruko bi kexa iritsi zitzaizkigun, biak antzekoak: Judimendiko auzo-lagun batek adierazi zigenez, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara jo zuen (Judimendiko gizarte etxera), alargun geratu zen 83 urteko senitarteko batentzat TEPA (telealarma) eskatzeko, eta hitzordua handik 40 egunerako eman zioten.

Bigarren kexa ere Judimendiko gizarte etxeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara joan zen bizilagun batek egin zuen. Bizilagun hau bere gurasoentzako laguntzarik izan zitekeen galdetzera joan zen, izan ere biak adinekoak eta bizimodu autonomoa egiteko ezintasunak izanik laguntzeko pertsonarik ez zeukatelako. Zalantza hori argitzeko handik 40 egunetara joateko adierazi zioten eta hainbat agiri eskatu.

Bi kasuetan, gauza bera eskatzen zen, laguntza zerbitzuetako epeak laburragoak izan zitezela.

Analisia

Kexak aurkeztutako bizilagunekin bilkurak egin ondoren, Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen egoera aztertzeari ekin zion.

Gizartegintza Sailarekin bilera bat izan zen lehen hitzordua emateko epe luze horrek arazoa sortzen zuela adierazteko. Sailekoek adierazi zigutenez, gizarte langileak gero eta familia gehiagori eskaintzen diete arreta.

Horretaz gain, ingurune guztietan dossier kopuru antzekoa izateko, arreta guneak berriz ere antolatu egin zirela eta bi gizarte laguntzaile gehiago jarri zituztela adierazi ziguten.

Emandako erantzuna eta jasotako informazioa azterturik zerbitzu honetan akatsak bazirela ikusi zen eta Oinarrizko Gizarte zerbitzuetako funtzionamenduaren inguruko **GOMENDIO OROKORRA** egin zen.

Ebazpena

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen funtzionamenduari buruzko **GOMENDIO OROKORRA** egin zen.

- Gizarte Larrialdietako laguntzak atzeratzea (erreg. zk: 211-03; 212-03; 264-03; 295-03; 297-03; 298-03; 303-03)

Erreklamazioa

Antzeko bi kexa jaso genituen; lehengoa auzo-talde batek igorria eta Gizarte Larrialdietako Laguntzak eta Oinarrizko Errenta ordaintzeko atzerapenak izaten zirelako kexu zen, izan ere diru laguntzak jasotzen zituztenengan eragina baitzuten: ordainketa atzeratzea, ez ordaintzea, etxeetatik botatzea.... Ildo beretik beste auzo-lagun batek Gizarte laguntzak izapidetzeko sistemaz kexa egin zigun. Hauek kontrolatzeko ahalegin handiagoa izateko eskatzen zigun, kanpotarrei bertakoei baino laguntza gehiago ematen baitzaizkie. Bestetik, hainbat bizilagun etorri zitzaizkigun bulegora bere egoera azaltzera eta 2003ko azaroan eta abenduan jaso ez zituzten Larrialdietarako Laguntzen premia adieraztera.

Gizarte Larrialdietarako Laguntzak berriz ere jasotzeko laguntza eskatzen zuten.

Analisia

Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak hainbat elkarrizketa izan zuen, bai hiriko taldeekin bai banaka kexak aurkeztu zituzten lagunekin. Hainbat agiri aurkeztu zituzten eta kexa izenpetu.

Kexa horiek iritsi ziren garaian, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen inguruko azterlan bat egiten geniharduen, eta kexa hauek ebazteko abiapuntu balio izan zuen.

Gizarte Bazterketaren aurkako 12/1998 Legeak honela xedatzen du: *gizarte baztertearen aurkako politiketek txirotasun egoera larria bizi duten gizarte alorretako beharrak hartu behar dituzte kontuan, alde batera utzita horien jatorria zein den. Gizarte Larrialdietako Laguntzen egungo sistema txirotasunaren aurkako plan osoa abian jartzean hasi zen (1989an) Euskal Autonomia Erkidegoan. Egun, Gizarte-laguntzaren arloan zuzeneko ekintzak aurrera eramateko eskumena duenez, Eusko Jaurlaritzak bere gain hartzen du lege honetan araututako diru-laguntzak finantzatzea. Foru-aldundiek eta udalek urtero diru-laguntzak eta gizarte arloko gainerako tresnak kudeatzeko eta legean jasotako eskumenak aurrera eramateko beharrezko diru-baliabideak jasota utziko dituzte aurrekontuetan.*

Ebazpena

Bi GOMENDIO OROKOR egin ziren. Bata, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen funtzionamendu-sistemaren ingurukoa zen, eta zerbitzua hobetzeko premia azpimarratzen zen eta zerbitzuen funtzionamendu orokorra hobetzeko eskatu.

Bigarren GOMENDIO OROKORRA, Gizarte Larrialdietarako Laguntzei buruzkoa izan zen. Horren bidez Eusko Jaurlaritzari eta Foru Aldundiari ahalegin finantzario neurrikoa egiteko galda ziezaiela eskatzen zitzaion Vitoria-Gasteizko Udalari, hartara orain arteko elkartasun printzipioa mantendu ahal izan zedin. Gizarte ikuspuntu batetatik ikusita, aurrekontu ezagatik Gizarte Larrialdietarako Laguntzak murrizten badira gizarte-elkartasunaren sistemaren porrota dela esan dezakegu, nahiz eta gerta daitekeen aukera zilegi bezala beren beregi jasota dagoen. Azkenik GLLak egokitu eta beharrezko dirua jaso gabe zituzten lagunei ordaintzen zaie.

- Hiriko garraio publikorako doako txartela berritzea (erreg. zk: 342-04)

Erreklamazioa

Hiritar batek adierazi zigunez, ordura arte hainbat laguntza zituen; batetik, baliabide ekonomiko eskasak zituelako hiriko garraio publikorako doako txartela (TUG) (Gizarte Laguntzetako Ordenantzaren 14. artikulua ildotik) eta bestetik, gizarte larrialdietarako laguntzak. Halaber % 47ko ezintasun psikikoa zuela adierazi zigun. Hiritar honek TUG txartela berritzeko eskatu zuen eta atzera bota zioten eskaera Gizarte Larrialdietarako Laguntzak jasotzen zituelako. Horretaz gain, arauz horrela ezarrita izateagatik, gida baimena izateari uko egin behar ziola jakinarazi zitzaion.

TUG txartelaren eskaera ukatu izana aztertzeke eskatzen zuen.

Analisia

Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin izandako elkarrizketan, hiriko doako garraiorako txartela, gida baimena izateagatik kendu zitzaiola adierazi zigun. Ezintasun psikikoa izateagatik Udaleko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako langileek onuradun berezien taldean sartua dute hiritar hau. Beraz haxe zen kontua: hiriko doako garraio publikoaren txartela eskuratzeko erabiltzen diren irizpideak Gizarte larrialdietako laguntzetarako erabiltzen diren berberak badira, eta hiritarrari laguntza hauek ematen bazaizkio, ea zergatik aldatzen zen garraio txartela eskuratzeko titulua.

Hiritarrak zuen gaixotasun psikiko larriak ez zion normaltasunez laneratzeko aukerarik eskaintzen eta ekonomia-egoera zela eta, Gizarte Larrialdietako Laguntzen beharra zuen.

Ordenantzaren arabera, ezinduek ezin dute ibilgailurik izan garraiorako doako txartela izateko; baina gida-baimenik ez izatea ez da baldintza, ez dago xedatuta. Horregatik larriagoa zen laguntzak ukatu izana.

Ebazpena

Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak egindako GOMENDIOAn, herritar honi berriz ere TUG txartela emateko adierazten zen, Gizarte Larrialdietarako Laguntzak jasotzen zituenez, ordura arteko baldintza berberetan gainera. Ezintasunak direnean ez da ibilgailu propiorik izan behar TUG txartela eskuratzeko, baina ez du esan nahi gida baimena izan behar ez denik (gure kasua).

Gizartegintza Sailera eta Gizarte Gaietarako Arloko zinegotzi ordezkariari igorri zitzaien gomendioa, baita udal taldeei ere gomendioaren berri eman ere.

2.4.5.1.2 A Esku-hartzeak

Udalaren etxebizitza bat alokairu merkean uztea (erreg.zk: 282-03)

Erreklamazioa

Bizilagun bati babes ofizialeko etxebizitza bat esleitu zitzaion zozketan, eta ordura arte beste etxe batean bizi zen alokairuan senitarteko batekin. Bere jabetzakoa zen etxera aldatzean, bere senitartekoak ordura arte bizi izan zireneko etxean gelditzerik zuen galdetu zuen.

Ordura arte bien etxebizitza zen hartan senitartekoak jarraitzerik zuen galdetu zuen (etxebizitza udalarena zen eta bizilagunaren izenean zegoen alokairu-kontratua).

Analisia

Sindikoaren bulegoek erabiltzailearen eta senitartekoaren egoerari buruzko balorazio txostena egiteko eskatu genion Gizartegintza Sailari, baita senitartekoak alokairu baxuko etxebizitzan geratzeko aukerarik zuen adieraz ziezagutela ere.

Gizartegintza Sailekoek onartu egin zuten senitartekoari etxebizitza uzteko proposamena, izan ere, etxebizitza erabiltzeko ezarrita dauden baldintzak betetzen zituen.

Ebazpena

Eskatzailearen senitartekoari alokairu baxuko etxebizitza uzteko esku hartu zen eta onartu egin zuten.

- Gizarte Laguntzei buruzko informazio ez egokia (erreg. zk.: 314-03)

Erreklamazioa

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako erabiltzaile batek Gizarte Laguntzei (GLL, Oinarrizko errenta...) buruzko informazio egokirik jaso ez zuela adierazi zuen. Hegoalde gizarte etxea dagokio eta bertan langile aldaketa ugari izaten denez, ez ziotela argitu 2004ko urtarrileko Oinarrizko Errenta jasotzerik izango ote zuen .

Hutsak konpontzeko eskatzen zuen.

Analisia

Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin izandako bilkuran, gizarte laguntzen sistemari buruzko argibideak eman zitzaizkion, zein baldintzapean ematen diren, betebeharrak...

Ondoren, Hegoalde gizarte etxeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako langileekin harremanetan jarri ginen herritarren egoeraren berri izateko. Bertan adierazi zigutenez, herritarrak ez zuen Oinarrizko Errentagatik kezkatu behar. 2004ko oinarrizko errenta legezko baldintzak betetzen dituzten pertsona guztien eskubide bat da eta jasoko dela bermatzen da. Gure kasuan ere horrela zen eta hala adierazi genion herritarrari.

Ebazpena

Kontuan hartuta guztia hobetzerik izaten dela eta beti akatsak izan daitezkeela, Zerbitzuak egoki jokatu zuela ulertu zen. Hala ere, ESKU HARTU zen hiritarraren kexa jakinaraz zedin. Gizarte Gaien Arloko zinegotzi ordezkariari eta Gizartegintza Saileko zuzendariari jakinarazi zitzairen beharrezko neurriak har zitzairen.

- Larrialdietarako etxebizitza baten emakida luzatzea (erreg.zk: 262-03)

Erreklamazioa

Larrialdietarako etxebizitza batean bizi zen emakume batek emakida bi hilabete gehiagorako, gutxienez, luzatzeko eskatzen zuen; hain zuzen ere pertsona baten mehatxupean bizi zelako eta bere buruaren zein alabaren kontra zerbait egin ote zezakeen beldur zen, eta alokairua ordaintzeko adina diru ez zuelako.

Analisia

Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak emakumeari buruzko argibideak eta gizarte zerbitzuekin izandako harremani buruzko argibideak eskatu zituen Udaleko gizarte zerbitzuetan. Adierazitakoaren haritik, emakumeak gizarte larrialdietarako pisua baliatu izan zuen eta hiru luzapen eskatuta zituen. Gizarte larrialdietarako pisua erabiltzen utz ziezaioten, beste luzapen bat eskatu zuen.

Gizartegintza Sailak kasua aztertu zuen. Gizarte larrialdietarako pisu hauen ardura berari dagokionez Sindikoarekin bildu zen eta pisua erabiltzen uzteko azken luzapena egitea onartu zen, erabiltzaileak zehaztutako data batera bitartean.

Ebazpena

Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak gizarte larrialdietarako etxebizitza erabiltzen jarrai zezan ESKU HARTU zuen, hortaz, esku-hartze honek bere eragina izan zuela ikus daiteke.

- Etxebizitza bateko gizalegez kanpoko jardunak (erreg. zk: 130-02)

Erreklamazioa

Higiezin batean zarata ugari eta giza legez kanpoko jardunak egiten zituzten, bizilagunei enbarazu egiten zitelarik. Logela ordaintzeko gizarte laguntza jasotzen zuen emakume bati alokatuta omen zegoen logela.

Neurriak hartzeko eskatzen zuten, izan ere auzokideek enbarazu eta egoera bereziak pairatzen baitzituzten maiz.

Analisia

Auzokideek aurkeztutako kexari erantzun ahal izateko, ahalik eta informazio gehien lortzen ahalegindu zen Sindiko edo Herritarren Defendatzailea. Oinarrizko Gizarte Laguntzetarako Zerbitzuko arduradunarekin harremanetan jarri zen, zaratak sortzen zireneko etxebizitza horretan laguntza ekonomikoa jasotzen zuenik bazen jakiteko eta halakorik bazela egiaztatu zen.

Bestetik, Udaltzaingoari etxebizitza horretan izandako esku-hartzeei buruzko informazioa eskatu zitzaion. Jabeen elkarteko ordezkari batek Jabegoaren Ganbaran ere salaketa jarria zutela jakinarazi zigun, honek ere neurriak har zitzan.

Eskatutako informazio guztia eskuratu ondoren, Sindiko edo Herritarren Defendatzailea Vitoria-Gasteizko Epaitegietako Fiskal nagusiarekin bildu zen eta arazoa aurkeztu eta agiriak eman zizkion.

Apirilaren 6ko 8/1999 Legeak aldatu zuen Jabetza Horizontalari buruzko uztailaren 21eko 49/1960 Legeak honela ezartzen du 7. artikuluan: “*el Juez podrá acordar con carácter cautelar la cesación inmediata de la actividad prohibida, bajo apercibimiento de incurrir en delito de desobediencia*”.

Europa gizarte etxeko oinarritzko gizarte zerbitzuetakoek jakinarazi zigutenez, laguntza ekonomikoa jasotzen zuen pertsona ez zen etxebizitza horretan bizi, eta etxebizitza ezegokia zelako gizarte laguntza kendu zitzaion. Hori dela eta, udal erakundeak ez zuen inolako loturarik etxebizitza horrekin.

Ebazpena

Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak ORIENTABIDEA eskaini zien bizilagunei, hain zuzen ere jabegoaren ganbarara joateko. Bertan adierazi zitzaenez, Jabetza Horizontalaren legean oinarriturik, zarata eta enbarazuak sortzen zizkietenen kontrako kasazio ekintza eska zezaketen, desobedientzia delitua eginagatik. Udalaren eskumeneko gaia ez zenez eta bizilagunen arteko arazoa izanik, amaitutzat eman zen kasua.

- Behartsuak merkatu plazan (erreg. zk.: 177-03)

Erreklamazioa

Santa Barbara merkataritza guneko merkatariek bizi zuten egoerari buruzko kexa helarazi zigun merkatu plazako ordezkari batek, hain zuzen ere inguru horretan behartsu ugari zebilenez, hiri-segurtasun arazoak sortzen ari zitzaizkiela..

Neurriak har zitezela eskatzen zuten.

Analisia

Sindikoa herritarrarekin elkarrizketatu zen eta honek kexa azaldu eta sindikoaren araudian xedatutakoari jarraiki izenpetu zuen. Udaleko Gizarteratze Zerbitzukoekin bilera bat egin zen Udala behartsuen inguruan egiten ari zen lana ezagutze aldera. Behartsu horiekin zein jarduera egiten zuten, beren eguneroko lanaz eta gizarteratzeko egiten zituzten jarraibideen berri eman ziguten.

Aterpe eta Etxe Irekiari buruzko ponentzia bat izana zela bagenekienez, Gizartegintza Sailari txostena eskatu zitzaion. *Aterpe eta Etxe Irekia Gasteizen erroldatuta dauden aterperik gabeko eta integrazio arazoak dituzten pertsonak hartzeko lekuak dira. Arazo ekonomikoak dituztelako kalean bizitzera behartuta dauden pertsonak gizarteratzea eta suspertzea helburu, hainbat ohitura mota eta gaitasun bultzatzen dira.* Sindikoa ATERPERa joan zen zerbitzu honen lana bertatik bertara ezagutzeko.

Gizarte Gaietarako zinegotzi ordezkariarekin izandako bilkura batean, neurriak hartuko zirela adierazi zigun, Udaltzainen laguntzaz, inguru horretan zeuden behartsuak bertatik joan zitezten.

Vitoria-Gasteizko Udalak Gizarteratze Zerbitzuaren menpe "kaleko hezitzaile" izeneko langileak ditu eta hauek egunero eta zuzenean aterperik gabekoekin lan egiteaz arduratzen dira.

Ebazpena

BITARTEKARITZA bilera bat izan zen Gizarteratze Zerbitzuko kale hezitzaileekin eta merkatu plazako ordezkariarekin, arazo honen aurrean neurriak hartzeko xedez. Gerora, udaltzainen lanari esker arazoa konponduta zegoela jakinarazi ziguten. Kontu horrekin zerikusia zeukaten guztien artean koordinazio lan handiagoa egitea erabaki zen bileran.

2.4.5.1.3 Gogoraraztea

- Herritar batek aurkeztutako idazkiei erantzuteko eskaria (erreg.zk.: 141-02)

Erreklamazioa

Gizarte Zerbitzuen erabiltzaile batek bost eskari egin zituen hainbat alorri buruzko informazio eske eta erantzunik jaso ez zuenez, kexu zen.

Eskari horiei erantzuteko eskatzen zuen.

Analisia

Herritarra bulegora etorri eta ordura arte jasotzen zituen Gizarte Larrialdietarako Laguntzak ez zizkiotela eman azaldu zigun. Arrazoi hori zela eta, bizi zeneko ostatutik bota egin zutela.

Gizartegintza Sailera herritar horrek igorritako eskarien zerrenda eskatu zuen Sindikoak Vitoria-Gasteizko Udaleko eskarien erregistro orokorrean, benetan eskari horiek eginak ziren ziurtatzeko; izan ere, herritarrak ez baitzuen bulegoan uzteko eskarien kopiarik.

Halaber, Gizartegintza Sailarekin harremanetan jarri ginen herritarraren egoeraren berri izateko. Adierazi zigitenez, erabiltzaileak ez zuen idatzizko erantzunik jaso, ahoz bai baina.

Ebazpena

Herritarrak egindako eskariei idatzi erantzun beharra GOGORARAZi zitzaion Vitoria-Gasteizko Udalari .

2.4.5.1.3 Ezespenak

- Familia-arazoak eta eskasiak etxebizitzan (erreg. zk.: 170-03)

Erreklamazioa

Vitoria-Gasteizko bizilagun bat bulegora etorri eta hainbat eskari egin zizkigun, baina guztiz zehaztu gabe. Familia arazoei buruz eta etxebizitzan dituen eskasiei buruz aritu zitzaigun.

Analisia

Sindikoarekin bildu zenean kexa egin eta sinatu egin zuen, hala ere, benetan zer eskatzen zuen zehaztu gabe.

Herritar horren etxebizitza ikuskatzera joan ginen. Emakumea ere hainbat aldiz etorri zen guregana agiriak ekartzera.

Gai honi eta beste hainbati buruzko datuak jasotzeko bilera egin genuen Fiskaltzarekin, Gizarte Zerbitzuen laguntzaz.

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuarekin ere bilera bat egin zen eta herritar honekin lanerako plangintza bat egiten saiatu arren, duen ezintasuna zela medio ezinezkoa izan zela jakinarazi ziguten.

Ebazpena

Kexa **EZETSI** egin zen, izan ere herritarrak ez zituen aintzat hartzen Gizarte Zerbitzuetatik emandako ebazpenak eta administrazioak ondo jokatu zuela ulertu baitzen.

Zuzen jokatu zela ulertu arren, herritarraren semearekin bilera bat izan zen, eta ASAFES elkartera (buruko gaixoen eta horien senitartekoen elkartea) jotzeko ORIENTAZIOA eman zitzaion, hartara herritar horri tratamendua ezar ziezaioten; izan ere, mediku txostenak ikusirik laguntza behar zuen eta elkarteren bitartez erabateko ezintasuna aitortu ahalko zitzaion.

- Oinarrizko errenta ukatzea (erreg.zk: 236-03)

Erreklamazioa

Bizilagun bat kexu zen bere nebari Gizarteratzeko gutxieneko diru sarrera ukatu ziotelako, elkarte terapeutiko batera joan zelako bizi izatera Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo. Kexu zen alkoholismo arazoak izateagatik Euskal Autonomia Erkidegoan ez ziotelako arreta medikurik eskaini nebari.

Oinarrizko Errenta ukatu izana berriz ere aztertzeke eskatzen zuen.

Analisia

Herritarrak kexa aurkeztu zuen Bulegoan eta Sindiko edo Herritarraren Defendatzailearekin egindako bileran azaldu egin zuen.

Gizarte eskubideei buruzko abenduaren 27ko 10/2000 Legeari jarraiki, Euskal Autonomia Erkidegoan gutxienez urtebetez erroldatutako edonork jaso ahalko du oinarrizko

errenta, baldin eta bizikidetza unitateko errenta eta ondareak kontuan hartuta, oinarrizko beharrei eta gizarteratze eta laneratze prozesutik eratorritako beharrei erantzuteko adina baliabide ekonomikorik ez badute. Beharra Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen irizpideak zehaztuko du.

Herritarrak ekarritako agirien arabera, Oinarrizko Errenta eskatzen zuen pertsona Nafarroako zentro terapeutiko batean bizi zen. Bestetik, pertsona horrek gastu pertsonalei bakarrik egin behar zien aurre (tabakoa, garbiketa pertsonala, bidaiak gastuak...), eta horiek ez dira lehen premiazkotzat jotzen, halakotzat hartuak (manutenzioa eta ostatua) zentro terapeutiko batean eskaintzen baitzizkioten.

Hortaz, zentro espezialdu batean suspertzeko prozesu terapeutiko bat egiten ari zenez, bertan zen bitartean oinarrizko beharrak elkarrekin berak asetzen zizkion.

Ebazpena

Eskuratutako agiri guztiak kontuan harturik, udalak zuzen jokatu zuela ulertu zen, eta **EZETSI** egin zen oinarrizko errentaren ukapena berraztertze erabilzailearen arrebak egindako eskaria.

- Gizarte laguntzak ukatzea (erreg. zk.: 265-03)

Erreklamazioa

Udal administratibotik gizarte laguntzak jaso ez zituelako egin zigun kexa herritar batek. Adierazi zuenez, familiako bizikidetza unitateak laguntza horiek behar ez izateko adina baliabide zituela izan zen gizarte laguntza ukatzearen arrazoia.

Laguntza ukatu izanaren arrazoia aztertze eskatzen zuen.

Analisisa

Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin elkarrizketatu zen eta kexa azaldu. Banatzea zela eta, 200 euro jasotzen zuen eta horregatik laguntza eskatzen zion udal administratibotari.

Laguntza ekonomikoak bizikidetza unitateak dituen diru sarreretan oinarriturik arautzen direla azaldu genion eta herritarrak ez zituen baldintzak betetzen.

Aldi berean, Gizartegintza Sailari diru laguntza ukatzearen arrazoia zehazteko eskatu zitzaion. Bidalitako txostenean adierazitakoaren arabera, familia unitateko gainontzeko kideen diru sarrerak aurkezteko eskatu zitzaion herritar horri, hain zuzen ere bere hiru seme-alabena (28,

26 eta 22 urtekoak). Herritarrak ez zituen agiri horiek aurkeztu nahi. Bere ustez, seme-alabek egindako lanagatik jasotako dirua haiei zegokien eta ez ziren bere laguntza eskaeraren datuetan sartu behar.

Ebazpena

Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen bulegoak zuzen iritzi zion udal administrazioaren jokaerari, indarrean dagoen legeria ezarri baitzen. Hortaz **EZETSI** egin zuen erabiltzailearen kexa, hala ezartzen baita Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Araudiko 29. artikuluan.

- Egoera txarrean zegoen etxebizitza baten alokairua (erreg. zk.: 248-03)

Erreklamazioa

Herritar batek etxeko teilatua egoera txarrean zuela adierazteko jo zuen Sindikoaren bulegora. 80 urte zituen etxebizitzak eta ura sartzen zitzaion maiz.

Teilatua konpontzeko edo udaleko gizarte zerbitzuen bitartez etxebizitzaz aldatzeko aukera aztertzeko eskatzen zuen.

Analisia

Lehenik eta behin Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin bildu zen eta kexa adierazi eta izenpetu zuen. Udaleko zerbitzuek hainbat hilabetetan esku hartzeak egin ondoren, herritarrarengana jo genuen berriz ere eta teilatua egoera txarrean jarraitzen zuela adierazi zigun. Aipatu zigunez, udaltzainak ere bertan izan ziren hiru alditan etxebizitzako hezetasun arazoak konpontzen.

Gizartegintza Sailari txosten bat egiteko eskatu genion. Komunitate Jarduerarako Zerbitzuak familiaren ezaugarriak eta egoera aztertu zituen batetik eta, bestetik, etxebizitza horretan bizi ahal izateko baldintzarik ez zela ikusi zuen. Aldi berean, familiak ez zuen etxebizitza –merkatuan etxe bat eskuratzeko aukerarik. Hori guztia kontuan hartuta alokairu merkeko etxebizitza bat eskaintzeko adierazi zuten txostenean. Ogasun Saila arduratzen da etxebizitza mota hau banatzeaz eta honek atzera bota zuen herritar honi etxebizitza alokatzeko eskaria, udal administrazioak kudeatzen dituen etxebizitzak gutxi direla arrazoituz.

Ebazpena

Beharrezko izapideak egin ondoren eta Gizarte Zerbitzuen jarduna ezagututa (Ogasun Sailari alokairu merkeko etxebizitza eskatzea eta honek etxe eskasia dela eta atzera botatzea), **EZETSI** egin zen kexa, administrazioak zuzen jokatu baitzuen.

2.4.5.1.5 Ezeztea, erabiltzaileak eskatuta

- Gizarte laguntzak ukatzea, agiriak falta izateagatik (erreg. zk: 253-03)

Erreklamazioa

Herritar bat etorri zitzaigun Sindikoaren bulegora eta etxebizitza bat alokatzeko eskaria egin zuela adierazi zigun. 2003ko otsailean ukatu egin zizkieten laguntza horiek hainbat agiri falta zitzaizkiolako. Herritarrari ez zitzaion ukapenaren berri eman eta kalte egin zion.

Ez ziotenez laguntza ukatzen zitzaiola jakinarazi, gizarte larrialdietarako laguntzak ordaintzeko eskatzen zuen, atzeraeraginez .

Analisia

Egindako bileran, gizarte laguntzak inolako arrazoirik gabe ukatu zitzaizkiola adierazi zigun herritarrak.

Sindikoaren bulegotik hainbat dilijentzia egin ziren Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetakoekin eta kexa azaldu zen. Herritarrak Erregistro bulegoan aurkeztu zituen agiriak ekarri zituen, eta zegoeneko epaia izan zela adierazi zigun: etxea uzteko agindu zitzaiola.

Ebazpena

Beste etxe bat aurkitu arte, etxeetatik kaleratu dituzten herritarrek altzariak uzteko areto bat dela adierazi eta horren inguruko **ORIENTABIDEAK** eman zitzaizkion. Herritarrak ez zuela kasuarekin aurrera jarraitu nahi adierazi zuen.

2.4.5.1.6 Bideratzeak

- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak Informazio okerra ematea (erreg.zk: 306-03)

Erreklamazioa

Emakume bat Judimendiko gizarte etxeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara joan zen senitarteko batentzat zainpeko apartamendu bat eskatzera. Bertan zegoen gizarte langileak 78 urtetik gorako pertsoneri ez zitzaizkiela zainpeko apartamenturik esleitzen jakinarazi zion eta bere senitartekoak 80 zituenez ez zuen baldintza hori betetzen. Gerora beste senitarteko batek beste gizarte etxe batera jo zuen eta bertan zainpeko apartamentuak 82 urte bitartekoentzat zela adierazi zioten.

Informazio txar hori zela eta, herritarrak beste neurri batzuk hartu behar izan zituen eta gizarte laguntzaileari erantzukizuna eskatzeko eskea egiten zuten.

Analisisa

Herritarrari informazio okerra eman izana lanbideko akastzat jo zen. Horregatik Gizartegintzako zuzendaritzan jakinarazi genuen horiek beharrezko dilijentziak egin zituzan, adinekoentzako zainpeko apartamentuen esleipenei buruzko informazio zuzena eman zedin eta horrelako akatsik berriz ere ez gertatzeko.

Ebazpena

Kasu hau Gizartegintza Sailera BIDERATU zen, sail horretako zuzendaritzaren eskumena baita zainpeko apartamentuen esleipenari buruzko argibide zuzena ematea herritarrei.

Sindikoaren bulegoan jasotako informazioaren arabera, argi geratu zen herritar horri barkamena eskatu zitzaiola baina ez zela inola ere senitarteko horren eskubiderik urratu ezta kalterik sortu ere.

2.4.5.1.7 Orientazioa

- Etxetik kanporatuak izan zitezkeen herritar batzuek Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak esku hartzeko egindako eskaria (erreg. zk: 315-04)

Erreklamazioa

Bost seme-alaba dituen herritar batek larrialdietarako etxe baten beharra zuela adierazi zigun.

Alokairuan bizi ziren eta etxetik kanporatuko zituztelako Sindikoari esku hartzeko eskatu zion.

Analisia

Herritara Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin bildu zen eta kexa azaldu eta izenpetu zuen. Jasotako agirien haritik eta herritar horri laguntzen zioten Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetatik igorritako informazioaren arabera, herritarrak ez zuen kezkatu beharrik. Herritarrak 2003ko abenduaren 23an eskatu zuen Oinarrizko Errenta, familia unitateko elikadura arloa betetze aldera. Baina, administrazio kontuak zirela eta, laguntza horiek otsailera arte ez ziren banatuko; edonola ere, eskubide horrek atzeraeragina zutela.

Etxebizitza alokairua ordaintzen laguntzeko beste laguntza mota batzuk bazirela jakinarazi zitzaion herritarrari, hain zuzen ere Gizarte Larrialdietarako Laguntzak. Horregatik gizarte langilearekin bilera bat egiteko esan genion, hartara egoera aztertu eta etxetik kanporatzeko zegoen aukera ekiditeko. Etxetik kanporatua izateko prozesua hasi gabea zela adierazi genion.

Ebazpena

Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara jo zezan ORIENTABIDEAK eman zizkion, bertan egoera azter zezaten eta, egoki iritziz gero, beharrezko neurriak har zitzaten.

2.4.5.2.Haurtzaro eta Senitarte Zerbitzua

2.4.5.2.1 Ezesteak

- Erakundeen menpeko ordezkoko familia izateari uztea (erreg. zk: 240-03)

Erreklamazioa

Vitoria-Gasteizko senar-emazte bat “adingabekoak hartzeko familia” edo erakundeen menpeko ordezkoko familia” aitortuta zegoen eta lau adingabeko zituen, hiru mutil eta neska bat.

Senar-emaztearekin bizi zen neskak sexu-erasoak pairatu zituela salatu zuen. Udaleko Haurtzaro eta Senitarte Zerbitzuak umeari azterketa medikoa egiteko eskatu zuen. Azterketa

psikologikoaren emaitzen arabera, deskribatutako sexu-erasoak sinesgarritasun maila handikoak zirenez, senar-emazteari adin gabekoen harrera-familia izateko baimena kendu egin zitzaion.

Bestetik, kasu honi buruzko informazioa udalaren Web orrian zabaldu izanaz kexu ziren, izan ere eskatzaileen pribatutasun-eskubidea urratzen baitzen.

Berriz, ere harrera-familia gisa aitortzeko eskatzen zuten. Horretaz gain, horrelako informazio sentikorrak, Udalak hedabideetan banatzen dituen aktetan ez zitezela izen eta guzti agertu eskatzen zuten.

Analisia

Senar-emazteak hainbat agiri aurkeztu zuten eta beren pribatutasun-eskubideak urratu egin zirela jakinarazi zuten, izan ere beren datu pertsonalak argitaratu baitziren, Vitoria-Gasteizko Web orrian, familia hartzaile izateari uzteko ebazpenaren aktan.

Herritarrek egindako kexa benetakoa zela argitze aldera, Udaleko Teknologia Berrien Sailarekin jarri ginen harremanetan. Udalak bere web orrian jarritako aktetan datu pertsonalak bazirela egiaztatu ahal izan zuten aipatutako sailekoek. Beraz, Sindikoak egindako jardunaren haritik eta Teknologia Berrien Sailak datu horiek eman zirela baiestean, Sailak zuzenean konpondu zuen akats hori.

Bestetik, egokia izan zen Haurtzaro eta Senitarte Zerbitzuak eta Adin gabekoen Kontseiluak hala eskatuta adin gabekoari egin zitzaion azterketa psikologikoa, izan ere adin gabekoen eskubideak dira garrantzitsuenak.

Arrisku egoera edo babes eza dela kausa senitartekoekin bizitzerik ez duten haurrentzako aukera bat da etxeetan hartzea, erakundeetara bidali beharrean. Erakundeek bermatu eta zaindu egin behar dute harrera baldintzatzen duten arau guztiak betetzea eta irregulartasunak edo aginte-gehiegikeriak saihestu behar dituzte, izan ere adin gabekoen interesa defendatzen baitute.

Ebazpena

Beraz, lehendabizi sindikoak ESKU HARTU zuen, udalaren web orrian datu pertsonalak agertzearekin izandako akatsa zuzentzea aldera. Jardun honen bitartez, berehala zuzendu zen akatsa.

Bestetik, **EZIN ZEN ONARTU** senar-emazteak harrera-familia izaten jarraitzeko egindako eskaria, izan ere, Erakundeen Menpeko Ordezko Familia izateko egokitasuna galtzeko nahikoa froga zituelako Haurtzaro eta Senitarte Zerbitzuak.

Senar-emaztea ez zen ados geratu emandako erantzunarekin eta berriz ere bulegora jo zuten, erantzun berbera jaso zutelarik. **EZETSI** egin zen berriz ere, *erakundeen menpeko ordezko familia* zer den adierazita: *Familietan Hartzeko programaren atal bat da, eta argi eta garbi hartutako adin gabekoen zerbitzura prestatuta dago, nortasuna garatzeko zainketa eta bizikidetzaren modurik onenean egon daitezten. Hortaz, adin gabekoentzako onura da.* Hau guztia kontuan hartuta, udalak egindako ebazpena legezkoa zen eta adin gabekoen harrerarako baldintza eta segurtasuna ahalik eta ondoen bermatzea zuen xede. Hala ere, interesatuen errugabetasun-presuntzioa kontuan hartu behar da.

- Ama bati adingabekoen zaintza kentzea (erreg. zk: 302-03)

Erreklamazioa

Herritar batek kexa azaldu zuen, 2003ko otsailean Adingabekoen kontseiluak bere seme-alabak etxetik atera eta Osasun Iturri kaleko etxe batera eramane zutelako.

Bere seme-alaba adingabekoen egoera aztertzeko eskatzen zuen: ezarritako bileretatik kanpo ez zioten arretarik eskaintzen eta ez zitzaion prozesuaren berri ematen.

Analisisa

Herritararekin izandako bileran bere kexa azaldu zigun. Horren haritik Gizartegintza Saileko zuzendaritzara gutun bat igorri genuen eta bertan adierazi herritarrari seme-alaben zaintza kendu zitzaionetik ez ziotela prozesuaren jarraipenaren berri eman.

Haurtzaro eta Senitarteko Zerbitzuko arduradunarengana jo genuen eta adingabekoen zaintza kendu zitzaionetik kasua epai judizialaren zain zegoela jakinarazi zigun. Epaia handik gutxira eman zuten eta herritar horri seme-alaben zaintza ukatu zioten.

Epaia irmoa zenez, udal administrazioak ez zuen ezer egiterik eta horregatik seme-alaben zaintza berreskuratu nahi izanez gero, Haurtzaro eta Senitarte Zerbitzuarekin lan egiteko beharra aipatu zitzaion herritarrari, udal zerbitzuetakoak adierazitako prozesu guztiak jarrai zitzala.

Ebazpena

EZETSI egin zen eskaria, seme-alaben zaintza kentzeko epai judiziala izanik, administrazioak adierazitako pausuak jarraitu beharko baitzituen herritarrak.

2.4.6 HIRI BERRIKUNTZARAKO ERAGINTEGIA

2.4.6.1 Gomendioak

- Higiezin batean egindako obrak udalari ez ordaintzea (erreg. zk.: 164-03)

Erreklamazioa

Jabe komunitate bateko bizilagun batek adierazi zigunez, eraikin bat birgaitzeko diru laguntza eskaut zuten baina bi auzokideek ez zituzten ordaindu higiezina konpontzeko egindako lanak. Horregatik Hiri Berrikuntzarako Eragintegiak bizilagun horiei obrak ordaindu beharra galdatzeko eskatzen zuen, bestela diru laguntza gauzatu gabe geratuko baitziren.

Analisia

Herritarrarekin bildu eta gero, Hiri Berrikuntzarako Eragintegira jo genuen eta bertan adierazi zigutenez, azken erabakia Epaitegi Zibilak zuen, berari baitzegokion erabakitzea. Udalak esan zigunez, parte hartzeko kuota metro karratuaren arabera kalkulatuta zegoen eta herritarrak metro karratu gehiago hartu zituzenez gehiago zegokion ordaintzea. Bilera horretatik ateratako ondorioak jakinarazteko beste bilera bat egin zen kexa jarri zuen herritarrarekin.

Sindikoaren bulegotik bi ardatz zituen GOMENDIO bat egin zen; batetik auzokideek diru laguntzak xede zuen helbururako erabili beharra zutela gogorarazteko eta, bestea, eskatutako agiriak emateko herritarrari.

Gomendio hau Hiri Berrikuntzarako Eragintegira ez ezik, Udalbatzari eta herritarrari ere igorri zitzairen.

Hiri Berrikuntzarako Eragintegiko zuzendari Javier Araneguirekin telefonoz elkarriketatu ginen eta bizilagunek zor zituzten gastuak ordaindu zituztela eta agiriak bidaliko zizkigula jakinarazi zigun. Erreklamazio egileak eskatutako informazioari zegokionez, hori ere bidaliko zigutela adierazi zuten guk herritarrari igor geniezaion.

Eskatutako agiriak jaso ondoren eta erreklamaziogile eta Hiri Berrikuntzarako Eragintegiarekin behar beste bilera egin ondoren, bigarren GOMENDIO bat egin zen lehenengoaren zentzu berean; hain zuzen ere, honakoa adierazten zitzaion Hiri Berrikuntzarako Eragintegiari: eraikina birgaitzeko orduan bere gain hartutako betekizunak bete ditzatela eskatzeko obra egin duen jabe komunitateari .

Ebazpena

GOMENDIO bat egin zen; birgaitzeko laguntzen onuradun zirenek (dosier honetako partaide zirenek) jaso zituzten diru laguntza guztiak laguntzak xede zuen jardunetarako erabili zituztela egiazta zezatela eta erreklamaziogileak eskatutako informazioa bidaltzea eskatzen zen.

Bigarren **GOMENDIO** baten bitartez, etxebizitzetako obrak zirela eta hartzen ziren betekizunak betetzeko eska zezala eskatzen zitzaion udalari (Hiri Berrikuntzarako Eragintegiari, zehazki).

Herritarrak Epaitegietara eraman zuen kasua, eta herritarraren aldeko epaia eman zuten, hain zuzen ere 699,91 € (116.456 pta) itzultzea, hau da, emandako diruaren eta obren benetako gastuengatik ordaindu behar zuenaren aldea.

- Alde Zaharreko etxebizitza bat birgaitzeko prozesua etenda (erreg. zk: 166-03)

Erreklamazioa

Herritar bat kexu zen Hiri Berrikuntzarako Eragintegiak eraikina birgaitu behar zuela adierazi baitzion. Gerora, etxebizitza trukea egiteko aukera adierazi zitzaion ahoz, baina harrez gero ez zuen berri gehiagorik izan.

Truke-eskaintza eta horretarako baldintzak zehaztu eta Udalari igorritako idazkiei erantzuteko eskatzen zuen.

Analisia

Herritarra Sindikoarekin bildu zen kexa azaldu eta izenpetzeko, gaiarekin loturik hainbat agiri era aurkeztu zituelarik.

Kexa aztertzeari ekin genion eta Hiri Berrikuntzarako Eragintegira jo genuen kexa aurkeztera. Bertan jakinarazi zigutenez, birgaitzeko obra egiteko baimena eskuratuta zegoen baina eraikin horretan zegoen lonjaren jabea ez zegoen obra egitearen alde. Hortaz ez zegoen adostasunik bizilagunen eta Hiri Berrikuntzarako Eragintegiaren artean, eta printzipioz, ezinezkoa da inolako obrarik egin eraikinen jabeen artean adostasunik ez bada.

Kexa aurkeztu zen unean zer egin aztertzen ari zen, hau zen aukera bat: Udalaren etxebizitzetan sartzeko egiten diren zozketetan lehentasuna ematea birgaitzearen alde egonik kexa aurkeztu zuen emakumeari. Hala ere, horrela eginez gero bi alde txar zituen; herritarrak bi hipotekari egin beharko baitzion aurre, bata lehen etxebizitza birgaitzeko eta bestea lehengo etxebizitza konpondu bitartean bigarrena ordaindu ahal izateko.

Herritarrak aurkeztutako kexa konpontzeko lehen jardun gisa **ORIENTAZIOA** ematea izan zen. Bizilagunen bilera baterako deia egitea gomendatu zen eta bertan erabakitzea Hiri Berrikuntzarako Eragintegiak aurkeztutako proiektua egokia den eta eraikina birgaitu ala ez. Proiektua bizilagunen 3/5ek onartzen badute, JABETZA HORIZONTALAREN LEGEAK ezarritakoari jarraiki burutu ahal izango zituzten birgaitze lanak.

Hainbat hilabete pasa ziren bizilagunen erantzunaren zain. Eragintegi eta bizilagunen arteko akordiorik ematen ez bazen, beste aukeraren bat aztertzeko bilera egin zen Zerbitzu Juridikoekin, hau da, ea plan orokorrak eskaintzen zuen aukera egiterik zegoen. Harresiaren mendebaldeko hormatalari lotutako azalera berreskuratzea, eta hartara egoera txarrean dagoen eraikin osoa birgaitzea. Eraikina aspalditik erabili gabe zegoen ia osorik.

Ildo beretik GOMENDIO bat egin zitzaion Hiri Berrikuntzarako Eragintegiari. Plan Bereziaren aurreikusitako lerroak berriak berreskuratzeak interes handia duenez eta ordura arte birgaitzeko egindako esku hartzeak (proiektu teknikoa eta bizilagunekin izandako bilkurak) kontuan hartuta, aparteko jardunen bat egiteko egokitasuna aintzat hartzea gomendatzen zitzaion, bide horretatik, harresiaren mendebaldeko hormatalari loturatako azalera BERRESKURATUKO baitzen eta eraikina oso osorik birgaitu. Eraikina oro har hartuta, egoera txarrean zegoen, ia gehiena hutsik, inor ez zen bizi bertan. Erdi Aroko hiriguneko Plan Bereziak 71. artikuluan xedatzen duenez, eraikina birgaitzearen kontrako bizilagunik izanez gero (kasu hau), Udalak desjabetzeko ahalmena izango du, baita baldintzak onartzen ez dituen jabearen azalera eraikiak erosteko ere.

Ebazpena

Lehenik eta behin, Jabeen Komunitatearekin bilera bat egiteko ORIENTABIDEA eman zitzaion herritarrari, eta Jabetza Horizontalaren Legean oinarrituta, birgaitzea egiteko adostasunera iristen saiatzeko.

Eraikina birgaitzeko beharra zegoen. Erdi Aroko Plan Berezian ezarritakoari jarraiki, Udalak ahalmena du birgaitzea onartzen ez duen bizilagunak eraikita duen azalera desjabetzeko, eta hartara Erdi Aroko hirigunea birgaitzeko prozesua burutu. Horrela jakinarazi zitzaion Hiri Berrikuntzarako Eragintegiari GOMENDIO baten bidez, izan ere honek baitu Vitoria-Gasteizko udalerrian birgaitze lanak eta etxebizitzaren administraziorako programak kudeatzeko eskumena.

Hasiera batean, Hiri Berrikuntzarako Eragintegiak ez zuen herritarrari etxebizitza trukea eskaintzeko aukerarik ikusten. Horregatik **EZ ZUEN ERABAT ONARTU** gomendioa, eta eraikina birgaitzeko lonja desjabetzeko aukera bazegoela adierazi zuen. Handik denbora batera, etxebizitza trukea eskaini ziotela jakinarazi zigun bizilagunak baina oso baldintza eskasetan. Aukeran etxe gehiago eskaintzeko eskatzen zuen eta bere etxearen balioa Eusko Jaurlaritzak egindakoa izateko (12 milioi pezeta inguru). Guzti honen haritik Hirigintzako zinegotziarekin harremanetan jarri ginen eta negozioan malguagoak izateko adierazi zitzaion. Herritar eta administrazioaren arteko **BITARTEKARI** lanak abian jarri ziren.

Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak egindako bitartekaritza zela medio, hainbat etxebizitza eskaini zizkion trukean herritarrari Hiri Berrikuntzarako Eragintegiak. Gomendioa **ERABAT ONARTU** zenez, Sindikoaren jarduna amaitutzat jo genuen.

- Zozketan behin-behinekoz esleitutako Babes Ofizialeko Etxebizitza bat atzera botatzea (erreg. zk: 243-03)

Erreklamazioa

Herritar bat etorri zen bulegora eta 2002ko abenduaren 20an egin zen Babes Ofizialeko Etxebizitzaren zozketan etxebizitza bat esleitu zitzaioela, behin behinekoz, jakinarazi zigun. BOEn behin betiko zerrendetatik kanpo utzi zutelako kexa egin zigun.

Eskarira berriz ere aztertzeko eskatzen zuen, beste etxebizitzarik erosi ez zuelako.

Analisia

Herritarrekin izan genuen bilkuran kexa adierazi zigun, hau da, gezurra zen arrazoi bategatik kendu ziotela 2002ko abenduaren 20an egin zen zozketan esleitutako etxebizitza. Zozketaren aurretik etxebizitza bat erosi zuela arrazoituz utzi zuten zerrendetatik kanpo baina hori ez zen egia.

Babes Ofizialeko etxebizitzaren erregimenari buruzko araudiak eta 2003ko abenduaren 20ko zozketan babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko oinarriak aztertu ziren.

2002ko abenduaren 20ko zozketa arautzen zuten oinarrietako 3.1 d3 artikuluan oinarrituta bota zuen atzera etxebizitza horren esleipena Hiri Berrikuntzarako Eragintegiak, izan ere kontratu pribatu bat zegoen eta etxebizitza baten jabe izateko zela ulertzen zen.

2002ko ekainaren 14ko aginduak 12.1 artikuluan xedatzen ditu erregistroan baja izateko moduak: *“Etxebizitza bat esleitu edo eskuratuz gero, esleipendunei automatikoki emango zaie baja etxebizitza-eskatzaileen erregistroan. Ondorio horretarako eragin bera izango dute esleipen edo erosketak, behar bezala onetsitako salerosketa kontratu pribatuak edo Agindu honetako 10-1 artikuluan aipaturiko ordainketa edo onarpenak, sailak zuzenean sustatutako gizarte-etxebizitzaren kasuan”*.

Hori dela eta, ez onartzeko arrazoia ez zegoen oinarrietan aurreikusirik. Beraz, Hiri Berrikuntzarako Eragintegiak egindako interpretazioaren arabera, zozketetan parte hartzen dutenek segurtasun juridikoaren falta handia dute. Baztertzeko erabiltzen dituen irizpideak ez dira jaso ez zozketen oinarrietan ez erreferentziazkoa arauetan.

Ebazpena

Horregatik guztiagatik herritar horri babes ofizialeko etxebizitza esleipena atzera botatzeko erabilitako irizpidea zuzentzeko GOMENDIOA egin zitzaion, baita hurrengo zozketetarako esleipenerako oinarrietan, etxebizitza jabeak ez ezik, etorkizunean etxebizitza bat erosteko kontratua izenpetuta duen oro kanpoan uzteko araua sartzeko ere.

Hiri Berrikuntzarako Eragintegiak GOMENDIOAREN ZATI bat onartu zuen, mantendu egin zuen herritarrari babes ofizialeko esleipena atzera botatzeko ebazpena baina oinarriak argitze aldera, hurrengoetan kontuan hartuko zuen etxebizitzarako kontratu pribatua ere baztertzeko arrazoi izango zela.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailak 2003ko abenduaren 16an emandako aginduaren xedapen orokorrak aldatu egin zuen etxebizitza beharrari buruzko 2002ko abenduaren 30ekoa, eta oinarrietako 3.1 artikuluan sartu egin zuen Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak egindako gomendioa:

“Agindu honen ondorioetarako honako hau ulertuko da: etxebizitza librearen erosketa geroraturako kontratua izenpetu duten administratuek ez dutela betetzen jabetzan, azalera-eskubidean, edo jabetza soilean etxebizitzarik ez izateko betebeharra”

- Erabilera publikoko kantoi batera gasa jartzera sartzea debekatzea (erreg.zk.: 165-03)

Erreklamazioa

Partikular batek erabilera publikoko kantoi batera sartzea debekatzen zuenez, gas instalazioa jartzerik ez zeukan bizilagun batek egin zigun kexa. Egoerari ahalik eta azkarren konponbidea emateko, administrazioak esku har zezala eskatzen zuen.

Analisia

Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin egindako bileran kexa azaldu eta izenpetu egin zuen. Kexa ulerturik, Hiri Berrikuntzarako Eragintegira jo genuen. Bertan adierazi ziguten Santa Ana kantoitik sartzeko dagoen ateko sarraila aldatu egin zutela baina hala ere, auzokide batek berriz ere kendu eta kantoira sartzea eragozten zuela.

Hiri Berrikuntzarako Eragintegiarekin batera, Zerbitzu Juridikoetara idazki bat igorri genuen gai honetan parte hartu zezaten. Bestetik, Ogasun Sailarekin ere elkarrizketatu ginean eta hodia ofizioz berreskuratzeko, bizilaguna bertatik botatzeko dosierra abiarazia zela jakinarazi ziguten.

Vitoria-Gasteizko Erdi Aroko Hiriguneko Santa Ana Kantoia Udal Administrazioaren ondasun zerrendan jaso zegoela egiaztatu genuen.

Hortaz, Santa Ana kantoiko bizilagun batek kale horretako 7 eta 9. zk.en artean dagoen hodia hartua zuenez, etxebizitza bateko jabeak ez zuen hodi horri loturiko gas instalazioa jartzerik eta horren inguruan GOMENDIO bat egin genuen.

Ebazpena

Honakoa zen GOMENDIOA: Administrazioak beharrezko neurriak har zitzala, baimena duten instalatzaileek hodia erabiltzeko aukera izan zezaten eta Santa Ana Kantoiko Jabeen Komunitateari gas hornikuntza jartzeko aukera bermatzeko; hau guztiak Administrazioak duen zaintze ahalmena kontuan hartuta.

- Alokairuko etxebizitzetarako legezko eta nahitaezko fidantza jartzea (erreg. zk: 255-03)

Erreklamazioa

Jabegoaren Ganbarako Zerbitzu Juridikoak Udalaren Etxebizitza bulegoek ematen zuten informazioaren inguruko kexa aurkeztu zuen Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen bulegoan, hain zuzen ere legezko eta nahitaezko fidantzarekin etxebizitzaren jabeek nahi dutena egin zezaketela esaten baitzuten: Jabegoaren Ganbaran utzi edo beraiek gordetzea.

Alokairuko etxebizitzetarako fidantza nahitaez Jabego Ganbaran utzi beharra adierazteko eskatzen zuten, hala ezartzen baitu araudiak.

Analisia

Etxebizitzari buruzko informazio bulegoaren bitartez, Udalak bitartekaritza lan garrantzitsua egiten du hirian alokairuan dauden etxebizitzak kudeatzen.

Udal administrazioak arrisku askotarako aseguruia eskaintzen du, baita kauzio-asegurua ere (alokatzen duenari errenta ordaintzen ez zaionerako).

Sindikoa Hiri Jabeagoaren Ganbarako ordezkari batekin bildu zen eta bertan adierazi zitzaionez, udal administrazioak ez zuen guztiz ondo jokatzeko, edozein alokairu egitean jartzen den fidantza gorde beharrari buruzko informazioa ematean.

Arlo hau arautzen duen Dekretuari jarriki, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko etxebizitzak alokatzen direnean, Eusko Jaurlaritzaren esku jarri beharko dira fidantzak, probintzia bakoitzeko Hiri Jabegoaren Ganbaran jarrita, kontratuak iraungi artean.

Jabegoaren Ganbarak erabiltzen dituen kontratu ereduetan, honakoa jakinarazten da:

“En los arrendamientos de viviendas sitas en el territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco la fianza puesta por el arrendatario equivalente a una mensualidad de renta deberá depositarse OBLIGATORIAMENTE a disposición del Gobierno Vasco en las Cámaras de la Propiedad Urbana de cada provincia hasta la extinción del contrato (Disposición Adicional Tercera Ley 29/94 de 24 de noviembre de Arrendamientos Urbanos en relación al Decreto de 11-3-49 y Decreto de 1-8-83 del Departamento de Política Territorial y Transporte del Gobierno Vasco), advirtiéndolo de las sanciones previstas en el Decreto de 11 de marzo de 1949 en caso de incumplimiento”.

Hortaz, Etxebizitzarako Udal Bulegoak egiten duen lana ez zen osoa; ezinbestekoa zuen informazioa ematea, alokairu finantzen legezko gordailuaren araudiak zehazten duena betetze aldera.

Ebazpena

Horren guztiaren haritik **GOMENDIOA** egin genuen: batetik, Etxebizitzarako Udal Bulegoak kontratuatarako erabiltzen dituen ereduetan, Jabegoaren Ganbarak erabiltzen duen informazio oharraren antzekoa agertzeko, eta, bestetik, hiriko alokairuen inguruko azaroaren 24ko 29/94 Legeak ezarritakoa betetzeko; hau da, alokairu kontratu bat egitean nahitaez errentako hilabete baten balioa duen fidantza uztea Hiri Jabegoaren Ganbaran.

Etxebizitzarako Udal Bulegoko arduradun politikoa den Hirigintzako zinegotziak **OSO OSORIK ONARTU** zuen guk egindako gomendioa.

2.4.6.2 Ezezteak

- Konpentsazio eskaria lur sailak desjabetzeagatik (erreg. zk: 135-02)

Erreklamazioa

Vitoria-Gasteizko Udalak hainbat aldiz desjabetu zizkion lurak herritar bati, bere ondasunean galerak eragin zizkiolarik. Horren ordainetan, bere seme-alabei tasatutako etxebizitzaren zozketetan parte hartzen uzteko eskatzen zuen.

Analisia

Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin bilera egin zuen herritarrak. Familiari egindako desjabetzeen ondorioz, seme-alabek ez zuten prezio tasatuko etxebizitzaren zozketetan parte hartzeko baldintzarik betetzen, eta herritarrak hala eskatu arren, ez zegoen inolako arrazoi juridikorik eskatzaileari baldintzak bete gabe parte hartzen uzteko.

Ebazpena

Horregatik, **EZETSI** egin zen eskaria, ez baitzen horretarako arrazoi juridikorik, ezta udalari etxebizitza tasatuen alorrean salbuespen indibidualak egitekorik ere.

2.4.6.3 Atzera botatzea / Ez onartzea

- Ezindu batentzako etxebizitza eskaria (erreg.zk: 308-03)

Erreklamazioa

PRUD enpresatik bidali zioten gutun bati buruzko argibideak eskatzera etorri zen herritar bat Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen bulegora. Gutun horretan bere seme ezindua kooperatibako kide bihurtzeko aukera eskaintzen zioten, horretarako baldintzak betez gero, eta honek Salburu eta Zabalgana inguruetan etxebizitza batzuen sustapenean parte hartzeko aukera emango zion, Eusko Jaurlaritzaren 20/97 Legearen haritik.

Eskaintza hori onartu behar ote zuen jakiteko informazioa eskatzen zuen.

Analisia

Bildu genuen informazioaren arabera, ez zen udalaren eskumenekoa herritarrak aurkeztutako kexa. Etxebizitzari buruzko Eusko Jaurlaritzaren 20/97 Legea bete ez zenez, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza ordezkarietan salaketa bat aurkez zezakeela adierazi zitzaion.

Ebazpena

Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Araudiko 26 e) artikuluan adierazten denez, arlo horretan eskumenik ez izatean ezinezkoa zen kexa izapidetzea. Hortaz, **ATZERA BOTA** zen kexa.

- Etxebizitzen zozketako esleipenak (erreg.zk: 318-04)

Erreklamazioa

Herritar bati etxebizitza bat esleitu zitzaion 2002ko abenduaren 20ko zozketan; 2003ko urtarrilaren 27an Hirigintzako zinegotzi ordezkariaren gutuna jaso zuen esleipena jakinarazteko eta harez gero, ez zuen prozesuaren berri izan. Urte osoa pasa eta gero etxebizitzaren ezaugarriei buruzko informaziorik izan gabe jarraitzen zuen. Horretaz gain, prozesuari buruzko kexa adierazten zigun; hain zuzen ere, esleipendunen batek uko egitean itxaron zerrendakoei deitzen zitzaiela eta ez esleipena jaso zutenei.

Egoera berraztertzeke eskatzen zuen.

Analisia

2002ko abenduaren 20ko etxebizitzen zozketako esleipendunei ez zitzaiela informaziorik bidali adierazteko egindako kexak herritarraren izenpea behar zuen (Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Araudiko 24. artikuluari jarraiki) eta kexa arauz betetzeko adierazi zitzaion herritarrari.

Ebazpena

Herritarrak ez zigun inolako erantzunik bidali eta, denbora zain egon ondoren, kexa **EZ ZEN ONARTU**. Hala ere, herritarrak egokitzen joz gero, izapide berrietarako aukerak badago.

- Babes Ofizialeko Etxebizitzetan hezetasunak eta hutsuneak (erreg. zk: 241-03)

Erreklamazioa

Babes Ofizialeko etxebizitzetan bizi zen bizilagun talde bat etorri zitzaigun. Bi urte zeramaten etxebizitza horietan eta hainbat akats zituzten, bereziki teilatutik eratorriak edo ur zikinak goratzearen ondorioz sortuak.

Udalak zozketatutako etxebizitzak zirenez, administrazioaren eskumenekotzat jotzen zuten akats horiek konpontzea.

Analisia

Bizilagun taldeak Sindiko edo Herritarren Bulegoan aurkeztu zuen kexa eta Arartekoari ere jakinarazi ziotela azaldu zuen.

Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Erakundea sortu zenean erabaki zenez, Arartekoari aurkeztu zitzaizkion kexak baziren, Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak ez zuen iritzirik emango, Arartekoak ebazpen bat eman arte edo Arartekoak berak kexa Sindikoaren bulegora bideratu ezean.

Bikoiztasun kontuetan ez sartzeko, Arartekoak ebazpena eman arte Sindikoak kexa artxibatu egingo zuela jakinarazi zitzaion herritarrari.

Ebazpena

Arartekoaren ebazpenaren zain zirenez, **ATZERA BOTA** zen kexa.

2.4.6.4 Esku hartzeak /Bitartekaritzak

- Txikita kaleko tximini batek ke ugari isurtzea. (erreg.zk.: 110-02)

Erreklamazioa

Alde Zaharreko Txikita kaleko bizilagun batek Sindikoaren bulegora jo zuen bere etxe inguruan zeuden tximini batzuek arropa zikintzen zutela adieraztera. Tximiniak konpontzeko eskatu zioten Udalari baina honek bat konpondu arren, arazo berbera sortzen zuen besteren bat bazela jakinarazi zuen.

Sindikoak egoerari konponbidea ematen laguntzeko eskatu zuen.

Analisia

Kexa egin zuen herritarrarekin elkarrizketa egin ondoren, Sindikoak informazioa eskatu zuen Vitoria-Gasteizko Udalean, egoera txarrean egoteagatik keak sortu eta bizilagunei enbarazu egiten zien tximini horren berririk bazuten jakiteko. Eskaria Hiri Berrikuntzarako Udal Eragintegian egin zen zuzenean, 2003ko otsailean.

Hiru hilabetetan erantzunik jaso ez zenez, Hiri Berrikuntzarako Udal Eragintegiarekin bilera egin zen eta inguru horretako estalkiak konpontzeko proiektua egina zegoela eta aurrekontua ere bazuela jakinarazi ziguten.

Bizilagunak kaltetzen zituen kearen arazoa konpontzeko jardunak burutu ote ziren jakiteko hainbat aldiz eskatu zen txosten bat Hiri Berrikuntzarako Udal Eragintegian.

Hirigintzako zinegotziarekin hainbat bilera egin ziren, Hiri Berrikuntzarako Udal Eragintegiari hainbat errekerimendu egin zitzaizkion eta handik urtebetera jaso genuen Vitoria-Gasteizko Udalak egindako txostena. Bertan adierazten zenez, Santo Domingo kaleko tximini batetik ke ugari irteten zen (herritarrak adierazi zuen bezala). Bebaruko areto batetik zetorren kea, bertako bizilagunak egurrezko hainbat elementu erretzen baitzituen berogailu batean. Txostena jaso zen garaian erosi egin zuten areto hori bertako bizilagunek eta oso osorik eraberritzeko proiektua egina zutenez, keak sortutako arazoak konponduko zirela adierazten zen txostenean.

Ebazpena

Udalak ESKU HARTU zuen kasu honetan eta Udalari tximiniako keen arazoak konpontzeko galdatu zion; eraikinaren birgaitze osoa zela medio arazoa konponduko omen zen.

- Zuia taldearen kaleko eraikin bat birgaitzeko adiskidetze-egintza betetzea (erreg. zk: 56-02)

Erreklamazioa

Emakume batek adierazi zigunez, bere gaineko pisuko bizilagunek obrak egin zituzten etxean eta horiek bere etxean eragin zuten, egoera txarrean geratu zelarik. Harez gero, emakumea laguntza psikiatrikoa jasotzen ari zen. Obra horiek Udalak baimendu zituen.

Sindikoaren laguntza eskatzen zuen bere etxebizitza birgaitzeko beharrezko ziren izapideak egin ahal izateko

Analisia

Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin elkarrizketatu ondoren kexa adierazi eta izenpetu egin zuen herritarrak. Vitoria-Gasteizko Udalari esku hartzea zegokion, bi aldetatik gainera: batetik, obretarako baimena ematen duen administrazioa zelako eta obra horien ondorioz bizilagun batek kalteak izan zituelako. Bestetik, jabe komunitateko administratzaile zelako, izan ere obra horiek komunak ziren elementuei ere eragin baitzien.

Obra-baimenen inguruan epai zibil irmoa zegoenez eta Arartekoak ebazpena eman zuenez, ez zegoen esku hartzerik.

Orubearen administratzaile zen aldetik, Udalari kexa aurkeztu beharra zegoen, izan ere administratzaile izanik, eraikinaren egoerari buruzko informazioa eta obretarako baimen horren berri eman beharra baitzeukan Hiri Jabegoaren Ganbaran.

2003ko urriaren 17ko epai bat tarteko, baimen osoa eman zitzaion kexa egileari bere etxean obrak egitera sar zitezten.

Ebazpena

Hortaz, Sindikoak etxebizitza horretan obrak egin ahal izateko ESKU HARTU zuen.

- Zikinkeria ugari Aiztogile kaleko kainu batean (erreg. zk.: 210-03)

Erreklamazioa

Etxebizitzaren atzeko aldean, zikinkeria ugari pilatzen zuen kainu bat zuela eta aireztatzea oso zaila zela adierazi zigun Vitoria-Gasteizko Aiztogile kaleko bebaruan bizi zen gizon batek. Gainontzeko bizilagunek etxeari lotutako kainuaren zatia beretzat hartua zuten baina berari ez zioten horretarako baimenik eman. Gainontzekoa harresiz itxita zegoenez, garbiketakoek (Cespa) bere etxetik pasa beharra zuten kainua garbituko bazen.

Kainuaren zati bat beretzat izatea baimentzeko eskatzen zuen, hartara ez baitzen hainbeste zabor pilatuko.

Analisia

Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin elkarrizketatu zen, kexa aurkeztu eta izenpetu zuelarik. Hiri Berrikuntzarako Udal Eragintegiarekiko bilerak izan ziren informazioa bildu eta ebazpena eman ahal izateko. Kainu horren garbiketa publikoa egiteko pasabide berria egiteko aukera aztertzen ari zirela adierazi ziguten.

Garbiketako Udal Zerbitzuarekin (Cespa) harremanetan jarri ginen eta garbiketa egiteko etxebizitza batetik pasa beharra zegoela adierazi ziguten. Batzuetan etxebizitza horretan inor egoten ez zenez, kainua garbitzeko lanak zaildu egiten ziren.

Arazo hori konpontzeko jardute plan berezirik zegoen jakiteko informazio gehiago eskatu zitzaion behin eta berriz Hiri Berrikuntzarako Eragintegiari, baita Hirigintzako zinegotzi ordezkariari ere, izan ere ezinbestekoa zen etxebizitza batetik pasatzea garbiketa egiteko.

Herritarrak Sindikoaren bulegora jo zuenetik hainbat hilabete pasa ondoren bidali zuen txostena Hiri Berrikuntzarako Eragintegiak Sindikoaren bulegora. Aiztogile kaleko 92.ean kainua hartzen zuen egitura metaliko bat eraikitzen hasiak zirela jakinarazi zuten. Obra horiek eten egin ziren, nahiz eta kainu horretara sartzea ia ezinezkoa zen, urteetan zehar eraikinek lekua hartuz joan baitziren (Aiztogile kaleko 84. eta 94.era eta Pintore kaleko 53.etik 59.era).

Ebazpena

Hortaz, Sindikoak ESKU HARTU zuen, behin eta berriz adierazi baitzuen kainuan sartzea oso zaila zela eta ezinbestekoa zela konponbideak aurkitzea.

2.4.6.5 Herritarrak berak uko egitea

- Alde Zaharreko etxebizitzak desjabetzea (erreg. zk.: 254-03)

Erreklamazioa

Desjabetze proiektu bat zela medio ama-alabari etxebizitza eta bere jabetzako aretoak kendu zizkieten, desjabetzearen helburua zein zen adierazi gabe. Etxebizitza eta aretoak ondo zeuden eta etxebizitza hori zuten ohiko bizileku bakarra.

Sindiko edo Herritarren Defendatzaileari arazoa konpontzen laguntzeko eskatzen zion emakumeak.

Analisia

Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin bildu eta kexa aurkeztu zuen. Sindikoaren bulegoan jasotako informazioaren harira, Alde Zaharrean proiektu bat egiteko asmoa dago, hain zuzen ere, inguru hori turismorako sustatzeko jardun-programa bat.

Vitoria-Gasteizko Udalak hainbat informazio eman ondoren, desjabetze prozesua etetea zaila izango zela jakinarazi zitzaion herritarrari. Bi arlotan banatutako esparrua egiteko asmoa dago; ostalaritza zerbitzurako gune berri bat Alde Zaharrean.

Ebazpena

Beste leku batean ostatu emateko zegoen aukera aipatu zitzaian bizilagunei, baina konponbiderik ez zela ikusirik, ez zuten kexarekin aurrera jarraitu nahi izan. Hortaz, herritarrak berak **EZETSI** zuen.

2.4.7 MUGIKORTASUN ETA GARRAIO ZERBITZUA

2.4.7.1 Gomendioak

- Taxi baimenari uko egitea eta horri atxikitako bermea (erreg. zk. 178-03)

Erreklamazioa

Taxi baimena esleitu zitzaion bizilagun bati ez zaio jarritako bermea itzuli, nahiz eta baimenari uko egin epearen barruan. Bermea berreskuratze aldera, berraztertze-errekurtsioa aurkeztu ahal izateko informazioa eskatu du.

Analisia

Erabiltzaileak bilera egin du Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin eta hainbat dokumentu aurkeztu ditu. Udaletxean idatzi bat aurkezteko aholkua eman zaio eta Taxi Baimenaren Emakidari dagokion fidantza osoa behin betiko galtzeko aukerari buruzko informazioa eman zaio.

Taxi Baimenaren Emakida arautzen duen Baldintza orrien arabera, fidantzak helburu bakarra du: emakidari lotutako ekarpen ekonomikoen ordainketa bermatzea.

Era berean, ekarpenak ordaintzeko epean uko egiten den kasuetan ez da aurreikusi fidantza galtzea, eta beraz, herritarren aldeko interpretazioa eginez gero, fidantza automatikoki galtzea ez dela egokia pentsatu behar dugu.

Ebazpena

Arestian esandakoaren harira, bi norabidetako GOMENDIOA egin da: maila orokorrean, baldintza pleguetan zehaztea bermea noiz desagertzen den; eta kasu honi dagokionez, bermea itzultzea, baldintza pleguak ez baitu honi buruz ezer esaten.

Gasteizko Udalaren Zerbitzu Juridikoak Gomendioari buruz emandako erantzunean dio Baldintza orrietako 13. klausulak helburu bakarra duela, hain zuzen ere "esleipenaren zenbatekoaren ordainketa osoa bermatzea". Eta beraz, Udalak ulertzen du erabiltzaileari bermea itzuliko zaiola behin esleipenaren zenbateko osoa ordaindu ondoren, eta hortaz, **EZ DA** Gomendia **ONARTZEN**.

Gomendia ez onartzeko erabakia ezagutu ondoren, erabiltzaileari jakinarazi zaio erreklamazioa egiteko aukera bakarra Administrazioarekiko Auzien Jurisdikziora jotzea dela.

- Trafikoa geldotzea Valladolid kalean (erreg. zk. 146-03)

Erreklamazioa

Aranzbizkarra auzoko bizilagun bat kexu da Valladolid kalea delako lerro zuzeneko bide luzean zehar trafikoa moteltzeko inolako elementurik (semaforoak, zebra-bideak "hump" bizkartxoetan...) ez duen gutxitakoa, eta egoera hau arriskutsua da errepidea gurutzatu nahi duten oinezkoentzat.

Egokiak diren seinaleak (semaforoak...) jartzeko eskatu du, Valladolid kalea gurutzatzea ez dadin arriskutsua izan, ibilgailuetako gidariak abiadura handiegian gidatzen baitute, eta kale horretan dauden oinezkoen pasabideak ez dituzte errespetatzen.

Analisia

Erabiltzailea bulegora joan eta bertan kexa egin eta sinatu du. Ondoren, egoera zein den aztertu da tokian bertan, eta horrela egiaztatu da Valladolid kalean hiru zebra bide baino ez daudela, eta ibilgailuetako gidariek ez dituztela errespetatzen. Gainera, ez dago horien berri ematen duen zutikako seinalerik, eta beraz, oinezkoentzat arriskutsua da kalea gurutzatzea.

Horrez gain, Valladolid kaleko tarte batean Ikastola bat dago, eta haurrak kalea gurutzatzeko garaian babesik gabe aurkitzen dira, beren segurtasuna arriskuan jarriz errepidetik dabilzan ibilgailuek ez dituztelako oinezkoentzako pasabideak errespetatzen. Hori dela eta, kale horretan trafikoa moteltzeko neurriak hartzea benetan beharrezkoa da.

Prentsan agertutako albiste baten arabera, Santiago kaletik Gasteizerako sarbidea itxi eta Valladolid kaletik barrena egingo da; eta albiste hori egiaztatuz gero, egungo egoera okerragotu egingo da, kale honetatik dabilzan ibilgailu kopurua handiagotu egingo baita.

Ebazpena

Esandako guztiaren arabera, Udalari GOMENDIOA egin zaio, aurrekontuak ematen dituen aukeren barruan, trafikoa moteltzea eta oinezkoen segurtasuna bermatuko duten neurriak hartzeko; eta horren harira, bi aukera proposatu dira: alde batetik, Aranzabala Ikastolatik gertuen dagoen tartean semaforoa jartzea, eta bestalde, kaleko beste tarte batzuetan abiadura moteltzeko tontortxoak jartzea.

Mugikortasun eta Garraio Zerbitzuak Gomendioa ONARTU du.

- Garabiak auto bat eraman du seinalerik ez zegoen toki batetik (errg. zk. 125-02)

Erreklamazioa

Bizilagun bat kexu da udal garabiak bere autoa eraman zuelako aparkatua debekatua zegoela adierazten zuen seinalerik ez zegoen toki batetik, hain zuzen ere, Mendizorrotzako Cervantes Tribunaren paretik, eta D. Alavesek titulartasuna duen pasabidearen ondotik. Erabiltzailea ohartu zen bazegoela tokia aparkatzeko lehen aipatu pasabidea okupatu gabe. Edonola ere, tarte horretan plastikozko bi pibot koniko zeuden, idatzizko inolako azalpenik gabe, bertan aparkatzea oztopatzen zutenak.

Laguntza eskatu du garabiaren tasagatik ordaindutakoa nola erreklamatu jakiteko.

Analisia

Erabiltzaileak elkarrizketa bat izan du Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin, eta berari jakinarazi dio kexa. Sindikoari adierazi dio bere garaian berraztertzeko errekurtoa aurkeztu zuela Udaletxean, autoa gaizki aparkatua egoteagatik jarri zioten isuna ezabatzeke. Aipatu errekurtoaren erantzuna izan zuen erabiltzaileak eta gaizki aparkatua egoteagatik jarritako isuna ezeztatu zuten; ordea, garabiaren tasagatik ordaindutakoa ez zen ezeztatu.

Ildo horretatik, erabiltzaileak eskatu du garabiaren tasagatik ordaindutakoa berreskuratzeko idatzi bat egiten laguntzeko, ondoren erregistro bidez aurkezteko.

2003ko uztailean, erabiltzaileak garabiaren tasaren ezeztatzeari buruz aurkeztutako idatzia Udaletxean aurkeztu eta lau hilabetera hain zuzen, erabiltzailea bera Institutio honekin harremanean jarri da, eta adierazi du Udalak ez diola idatziari buruzko erantzunik eman.

Hori dela eta, eragindako Sailari, zehazki Ogasun Sailari, GOMENDIOA egin zaio erabiltzaileari erantzuna emateko garabiaren tasagatik ordaindutakoa itzultzeko eskaerari; eta hori guztia Administrazio Prozedura Erkidearen 30/92 Legeko 42.1 artikulua araber, zeinak honakoa dioen:

42.1. Art.- *“Administrazioa behartua dago prozedura guztiei buruzko ebazpena ematera eta hori jakinaraztera, hasiera-modua edozein dela ere”.*

Ebazpena

Espediente honetan bi jarduera egin dira; alde batetik herritarrari **LAGUNTZA** eman zaio idatzi bat aurkez dezan garabiaren erabileragatik kobratutako tasa itzul diezaioten; eta bestalde, Sindikoaren bulegotik **GOMENDIOZKO GUTUNA** egin da lau hilabete lehenago erabiltzaileak aurkeztu zuen idatziari erantzuteko eskatuz, udal administrazioak ez baitu inolako erantzun edo ebazpenik eman kexu horri buruz.

- Bidegorri berriak egitea Gasteizen (erreg. zk.: 176-03, 192-03, 270-03, 272-03) (Ikus Ingurumen Saila-Zuzendaritza-Gomendioa atala)
- Gehiegizko abiadura Wellingtongo Dukearen kalean eta Baiona kalean (erreg. zk.: 209-03)

Erreklamazioa

Gasteiztar bat kexu da ibilgailuen abiadura gehiegizkoa delako Wellington Dukea eta Baiona kaleen artean, eta gainera, gidariek ez dituzte zirkulazio-seinaleak errespetatzen.

Lakuabizkarra guneko kale horietan abiadura gutxitzeko neurriak hartzeko eskatu du.

Analisia

Wellingtongo Dukea kalean autoak azkarregi joatea galaraziko duen neurriak hartu behar den galdetu die Sindikoak eragindako udal departamentuei.

Udaleko Mugikortasun eta Garraio Zerbitzutik jakinarazi digute hainbat berritze-lan egiteko eskatu ziola Udaleko Hirigintza Sailari, eta zehazki Bide Publikoen Zerbitzuari Lakuabizkarrako gunean trafikoa moteltzeko. Era berean, Sindikoaren bulegoak Hirigintza Departamentuari galdetu dio horri buruzko proiekturen bat ba al dagoen.

Bide Publikoen Zerbitzuak ez duenez erantzun, eta erabiltzaileak egindako eskaria kontutan hartuta, Mugikortasun eta Garraio Zerbitzuak egindako Txostenean oinarritutako Gomendioa egin da, eta horren arabera, zenbait obra egin beharko lirateke Wellingtongo Dukea eta Baiona kaleen artean trafikoa moteltzeko. Gomendatzen diren berrikuntza zehatzak honakoak dira:

1. Donostia eta Gabriel Celaya kaleen arteko bidegurutzeta igotzea.
2. Donostia eta Blas de Otero kaleen arteko bidegurutzeta igotzea, edo bertan biribilgunea egitea.
3. Wellingtongo Dukea kalea gurutzatzen duen oinezkoen pasabidea igotzea Ori kalearen parean.
4. Wellingtongo Dukearen kalean, Baiona eta Landaberde kaleen arteko tartearen erdian dauden bi oinezkoentzako pasabideak kendu eta pasabide tontortxodun bakarra jartzea.
5. Baiona kalean "belarri" bat egitea Ondarribi kalearen ondoan dagoen aparkalekua ixteko, eta era horretan, azken kale honetatik irten nahi dutenei ikuspena errazteko.

Ebazpena

Aurrekontuak ematen dituen aukeren barruan, Wellingtongo Dukea eta Baiona kaleen artean trafikoa moteltzeko GOMENDIOA egin da.

- Mugikortasuna murriztua duten pertsonen taxi zerbitzua ukatzea (erreg. zk. 215-03)

Erreklamazioa

2003ko martxoaren 21ean herritar batek erreklamazioa aurkeztu zuen Radio Taxi Gasteizen aurka, mugikortasuna murriztua duen pertsona bat eramateko taxi bat lortzen zailtasunak izan zituelako. Erreklamazioa erantzuteko udalak Radio Taxi Gasteizen deskargu-orria bidali zion, baina udal araudiaren arabera taxi gidaria behartua dago "zentraletik jakinarazten diren bidaia guztiak egiteko".

Radio Taxi Gasteizen aurka espediente berreslea hasteko eskatu du, eta argitu daitezela Araudi bidez, taxi gidariaren nahiz Taxi zerbitzua eskatu duen bezeroaren betebeharrak.

Analisia

Erabiltzaileak bilera egin du Sindiko-herritarren defendatzailearekin, kexa egin eta sinatu egin du, eta era berean, adierazi du Gasteizko Udalak ez duela erantzunik eman ez berak aurkeztutako kexuari buruz, ez eta deskargu-orriari buruz ere.

Gasteizko ibilgailu arinen –taxien– bidezko Hiriko nahiz Hiri arteko Garraio Zerbitzuari buruzko Udal Araudiko 34. artikulua honela dio: "telefonoz edo taxi-irriti bidez zerbitzu bat erabakita dagoen moduan betetzeko eskatzen zaion gidaria ezingo da zerbitzua betetzera ukatu, bidezko arrazoirik gabe".

Ebazpena

Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak GOMENDIOA egin dio Mugikortasun eta Garraio Zerbitzuburuari salaketa egin duenari berariaz erantzuteko, eta argitu dezala, baita ere, salaketa eta deskargu-orria aztertu ondoren, erabiltzaileak salatutako gertaerengatik Radio Taxi enpresaren aurka espediente berreslea hasiko duen edo ez.

2.4.7.2 Ezesteak

- Zapatari kalean zama-lanak egiteko ezintasuna (erreg. zk. 278-03)

Erreklamazioa

Herritar bat kexu da Zapatari kalean zama-lanak egiteko zailtasunagatik, izan ere abuztuko hainbat egunetan kalea moztuta egon baitzen.

Kalte handia eragiten duen egoera honekin amaitzeko eskatu du.

Analisia

Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin elkarrizketa izan du, eta erabiltzaileak bere kexa jakinarazi eta legalki aurkeztu du.

Sindikoaren bulegoa harremanetan jarri da Gasteizko Udaleko Mugikortasun eta Garraio Zerbitzuarekin eta informazioa eskatu dio Zapatari kaleko egoerari eta bertako trafikoari buruz.

Udal zerbitzuak bidalitako txostenak kale horren egoeraren berri ematen du. Egoera jakin bati buruz ari gara eta badu helburu bat: gunea egokitzea bertan bizi diren herritarren mesederako. Baina esan beharra dago, Alde Zaharreko gainontzeko kale guztiek bezala, Alkatetzako Bando bidez erabakita dagoen zama-lanetarako ordutegia duela kale honek ere.

Zapatari kalearen itxiera indartzeko, pibotak erabili ziren, Pedro Egaña kaletik aurrera eta Andra Maria Zuriaren Plazaraino, murrizketa-ordutegian. Erregulazio guztiak Bando bidez jakinarazi dira, eta horrez gain beste baliabide batzuk ere erabili dira horien berri emateko; horrez gain, bizilagunen ordezkariak ere galdetu zaie eta haiekin eztabaidatu da.

Ebazpena

Kexa ezin da aintzat hartu administrazioaren jarduera zuzentzat hartzen delako; Zapatari kalera sartzeko beste aukera batzuk izan dira, eta horiek jakinarazi dira udal bandoen bidez.

- Semaforoen elikadura-sistema egokitzea (erreg. zk.: 153-03)

Erreklamazioa

Ikusmen-arazoak dituen gasteiztar bat kexu da semaforoen elikadura-sistema oso ahula delako eta etengabe hondatzen direlako. Arazo hau eragozteko sistema hobetua bilatzeko eskaera egin du, beste hiri batzuetan, hala nola Donostian eta Logroñon, sistema hobetua bat planteatzen ari baitira.

Analisia

Erabiltzaileak elkarrizketa egin du Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin, eta ondoren, Mugikortasun eta Garraio Zerbitzuari informazioa eskatu zaio Gasteizen itsuentzat egokituta dauden semaforoei buruz.

Ondoren, bilera bat egin zen ONCEko ordezkari batekin, eta bertan, idatziak Braille sistemara itzultzeari buruz hitz egin zen, besteak beste. Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen bulegoari idatziak itzultzen laguntzeko konpromisoa hartu du aipatu erakundeak.

Zuhurtziazko denbora baten ondoren, Mugikortasun eta Garraio Zerbitzuari berriro eskatu zaio hots-seinaleak bidaltzen dituen eta itsuei zuzenduak dauden semaforoei buruzko txostena egiteko.

Mugikortasun eta Garraio Zerbitzuaren Arduradunak Irisgarritasunerako Batzordearen bilera batean parte hartu zuen, eta bertan agindu zuen, publikoki, hiriko semaforo soinudun guztiak berrikusiko direla ondo funtziona dezaten, izan ere hitzarmena sinatua baitago semaforo horien mantentze-lanez arduratzen den enpresa batekin.

Erreklamazioa

Hori dela eta, kexa EZETSI egin da, Bulego honek egokitutako semaforoak jartzeko egin zuen esku-hartzearen ondoren, eragindako zerbitzuaren jarduera egokitzat jo delako.

- Abiadura Gaztelako Atean Armentia Ikastolaren parean (erreg. zk.: 258-03)

Erreklamazioa

Lakuabizkarra auzoko bizilagun bat bulegora etorri da eta Gaztelako atean, Armentia Ikastolaren parean, dagoen zebra bidean neurriak hartu behar direla adierazi du. Egungo marrak ez zaizkio nahikoak iruditzen eta oinezkoa harrapatzeko arriskua handia da.

Ikastetxe-eremu horretan seinale gehiago jartzea eskatu du, eta semaforoa jartzeaz gain, ikastetxea gertu dagoela jakinarazteko zutikako seinaleak ere bai.

Analisia

Erabiltzailearekin elkarrizketa egin ondoren, Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak Mugikortasun eta Garraio Zerbitzuari galdetu dio Gaztelako Atean, Armentia Ikastolaren parean, autoek gehiegizko abiaduran doazela ohartu al den, erabiltzaileak dioen bezala.

Mugikortasun eta Garraio Zerbitzuak bidalitako Txostenak dio puntu horretan, zehatz esanda, ikastetxea dagoen parean, abiadura murrizteko banda batzuk jarri zirela orain hamar hilabete, eta horiek, beren funtzioa betetzeaz gain, oinezkoentzako pasabidea babesten dutela. Zerbitzuak badaki banda horiek hots eta zikinkeria gehiegi sortzen dutela; baina, garbiketa-zerbitzuei txostenak eskatu ondoren, horiek ez dute zikintasuna gehitu denik nabaritu, eta hotsei dagokienez, Txostenak dio gai hori subjektiboa dela, eta horregatik bizilagunei eskatu diete esateko, beren ustez, noiz diren zaratak handiagoak maila egiaztatu ahal izateko.

Ebazpena

Kexa ATZERA BOTA da, Gasteizko Udalak Gaztelako Atean gehiegizko abiadura murrizteko neurriak hartu zituelako bere garaian, abiadura murrizteko bandak jarri baitziren.

2.4.7.3 Jarduerak/esku-hartzeak

- Independentzia kalean autobus-erreia eta tranbia jartzeari buruzko eztabaida (erreg. zk.: 116-02)

Erreklamazioa

Independentzia kalean autobus-erreia jartzeko egitasmoak eragindako herritar batek informazioa eskatu du, eta baita egitasmo hori bertan behera uzteko ere. Era berean, Independentzia kalean tranbia jartzeak eragiten dion kezka azaldu du.

Analisia

Erabiltzaileak hainbat elkarrizketa izan ditu Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin, eta berari jakinarazi dio Independentzia kalean bidegorria eta tranbia jartzeak sortzen dizkion kezkak eta eztabaidak.

Sindikoaren bulegoak hainbat bilera egin ditu Mugikortasun eta Garraio Zerbitzuarekin, eta bertan Independentzia kalean autobus-erreia eta tranbia jartzeko egiten ari diren azterketa teknikoei buruzko informazioa eman da. Era berean, autobus-erreiaren diseinuari buruzko informazioa eskatu zaio Bide Publikoen Zerbitzuari eta Suhiltzaileen Zerbitzuari.

Zerbitzu horiek guztiak eskatutako informazioa bidali dute Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen bulegora, eta jarraian erabiltzailearen eskariei erantzun zaie.

Era berean, erabiltzailearekin batera bisita bat egin da Eusko Jaurlaritzara tranbiaren maketa ezagutzeko.

Ebazpena

Independentzia kalean egin nahi den bideari eta tranbiaren proiektuari buruz ezagutu nahi duen informazio guztia ematen zaio erabiltzaileari.

- Trafiko arazoak Esperantza eta Prudencio Berastegi kaleetan (erreg. zk.: 189-03)

Erreklamazioa

Gasteiztar bat kexu da Esperantza eta Prudencio Berastegi kaleen artean dauden trafiko arazoez, sarrerak ikuspen urria baitu.

Arazoa konpontzeko neurriak hartzeko eskatu du.

Analisia

Erabiltzailea Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin elkarrizketatu da bere kexa egin eta azaltzeko, eta ondoren, bilera egin da Udaletxeko Mugikortasun eta Garraio Zerbitzuarekin, hiriko trafikoa arduratzen dena hain zuzen, eta bertan jakinarazi da badagoela proiektu bat trafikoa berritzeko Esperantza kalean; zehazki, oinezkoentzako pasabidea egin nahi da kale horretan, Autobus Geltokiaren norabidean, eta gainera, eremu hori arautuko duen semaforo bat jarri nahi da.

Ebazpena

Bulego honek Esperantza kaleko trafikoa arautuko duen semaforoa jartzeko egin duen JARDUERA ebazpentzat jotzen da.

Esperantza kaleko trafikoari buruzko kexa Mugikortasun eta Garraio Zerbitzuari jakinarazi eta egun gutxi batzuetara, Udalak semaforoa jarri zuen eremu horretan, eta beraz, kasua amaitutzat eman da.

2.4.8 OSASUN ETA KONTSUMO SAILA-Demsac

2.4.8.1 Gomendioak

- Animaliak babestea zirku-ikuskizunetan (erreg. zk.: 112-02)

Erreklamazioa

Kolektibo batek kexa aurkeztu du zirku-ikuskizunetan animaliak babesteari buruz.

Analisia

Sindikoaren bulegoak gomendioa egin du jabeek abereak babesteko duten obligazioari buruz.

Hirira zirkoa iritsi dela eta, zirko horretan animaliak zer egoeratan zeuden zuzenean ikuskatzea erabaki zen: ikuskizuna eta zirkoko zoota ikuskatu ziren.

Demsac-ek bidalitako txostenarekin batera, animaliak ez daudela egoera onenetan egiaztatu da.

Kasua arretaz aztertu eta zuzenean ikuskatu ondoren, gomendioa egin da zirkoko programazioaren barruan Zoo baten instalazioa debekatzeko, gune zoologikoetako 444/94 Dekretuan ezarritako baldintzak betetzen ez diren bitartean.

Gomendioa egin eta handik hilabete batzuetara, zehazki 7 hilabete geroago, animaliak babesteko gomendioaren hartzailea izan den zirkua Gasteizera itzuli da.

Hori dela eta, Osasun eta Kontsumo Sailari eskatu zaio bere egunean zirku-ikuskizunetan animaliak babesteari buruz egin zen Gomendioari erantzuteko.

Ebazpena

GOMENDIOA egin da Holiday Zirkoari eta beste zirko batzuei Erakusketa Zoologiko ibiltariaren jarduerarako baimenik ez emateko Nukleo Zoologikoei buruzko 444/94 Dekretuko baldintzak betetzen ez diren bitartean.

Eragindako Sailak, hain zuzen ere, Osasun eta Kontsumo Sailak, ez du gomendioari buruzko inolako erantzunik bidali bulego honetara; gomendioak zioen Erakusketa Zoologiko Ibiltariari buruzko arauko baldintzak ez direla betetzen. Gainera, prentsan irakurritakoaren arabera, zirkoari bere jarduerarekin jarraitzeko baimena eman zaio, etxeko animaliak erakutsiz eta animalia basatien erakusketa galaraziz. Demsac udal zerbitzuak gomendioaren ZATI BAT ONARTU du, eta adierazi du nukleo zoologikoei dagokienez, eskumen gehienak Diputazioari dagozkiola. Edonola ere, Udalaren Albaitaritza Zerbitzuek lan-dokumentua egiten ari dira Arabako Foru Aldundiaren Abeltzaintza Zerbitzuarekin batera.

- Osasunarentzako kaltegarriak eta higienikoak ez diren baldintzak Handizkarien Merkatuan (erreg. zk.: 148-03)

Erreklamazioa

Gasteiztar bat kexu da Handizkarien Merkatuan elikagai-hondakinak eta bestelako zaborrak uzten direlako, eta horrek osasungaiztasun eta higiene gutxiko fokoa sortzen du inguru horretan. Tokia baldintza egokietan jartzeko eskatu du.

Analisia

Erabiltzaileak Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin bilera egin du eta kexa idatziz aurkeztu du; ondoren, Demsac-i informazioa eskatu zaio kasu honekin lotuta eremu horretan egin diren jardueri buruz.

Jarraian, Sindikoaren bulegoak kexa eragin duen lekua zuzenean ikuskatu du eta gune horretako zikinkeria eta utzikeria-egoera egiaztatu ditu.

Fruitu, barazki eta arrainen Handizkari Merkatuaren emakida arautzen duten baldintza-orriak eskatu zaizkio Ogasun Sailari.

Eskatutako txostenak jaso ondoren, non kexa aztertzeko dokumentu argitzaileak aurkeztu diren, bai Demsac eta baita Ogasun Sailak ere bilerak egin dituzte Handizkarien Merkatuko ordezkariarekin merkatuan bertan, eta behin eta berriz ikusi da tokiaren osasungaiztasun-egoera.

Bilera horiek egin ondoren, elkarrizketa bat egin da Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin, eta bertan azaldu da eraikina ez dela Udalaren jabegoa, alboko hainbat etxebizitzena baizik, eta gainera, inguruko emakidadun baten erantzukizuna ere bada.

Lortutako datuekin GOMENDIOA egin da, eta Handizkari Merkatuan dagoen higiene faltaren berri eman da.

Ebazpena

GOMENDIOA egiteaz batera, Handizkarien merkatuan arazo higieniko handia dagoela azaldu da, eta gainera, adierazi da erantzukizuna ez dela merkatutik gertu dagoen emakidarena bakarrik, baita merkatu-barrutiaren segurtasuna urratzen duten inguruko bizilagunena ere. Prebentzio-gomendio gisa, Udalari eskatu zaio hesi-sistema aldatzeko eta modu subsidiarioan jarduteko.

Aipatu gomendioa osasun eta Kontsumo-Demsac sailari, Ogasun sailari eta Udaltzaingoiari egin zaio arazoa konpontzeko beharrezkoak diren neurriak har ditzan.

Aipatu sailek gomendioa onartu edo ez onartzeari buruz eman duten erantzunean adierazi dute gomendioa Handizkarien Merkatuaren ondoan dagoen emakidari bidali zaiola, zikinkeria bertatik baitator, eta gainera, kontratazioa arautzen duen Baldintza-orriaren eta indarrean dagoen legediaren arabera, bera da zerbitzua eskaini eta ordena egokiaz arduratu behar duena, ingurunea txukun eta garbi egon dadin.

Egindako Gomendioari jarraiki, Sindikoaren bulego honek bilera baterako deialdia egin zuen, eta bertan izan ziren Udaltzaingo Saileko ordezkari bat, Ogasun Saileko ordezkari bat, Osasun eta kontsumoko –Demsac– ordezkari bat, Handizkarien Merkatuko enpresa emakidaduna eta Sindiko edo Herritarren Defendatzailea.

Bilera horretan horma bat eraikitzeke aukera atzera bota da perimetroa oso altua delako eta oso garesti aterako litzatekeelako. Higieztina noren jabetza den aztertu eta Zerbitzu Juridikoen bidez desjabetzea pentsatu da.

- Labezomorroen ugaritzea Jabekideen Komunitate batean (erreg. zk. 258-03)

Erreklamazioa

Gasteiztar bat kexu da bera bizi den eraikinean labezomorroak asko ugaritu direlako. Jabekideen Komunitatea ez dela gaiaz arduratzen adierazi du, eta horregatik eskatu du Udalak subsidiarioki esku har dezala arazo honetan.

Analisia

Kexa jarri duenak Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin izandako elkarrizketan, dokumentazio ugari aurkeztu du, eta horien artean dago Udaletxeko Osasun eta Kontsumo Sailaren Ebazpena, non honakoa dagoen idatzita: "Komunitate orokorreko Administratzaileak... lekua egokituko du baldintza higieniko eta sanitario egokietan utziz, eta horrela, eraikinean labezorroak egoteak inguruko bizilagunei sor diezazkieken arazoak eragotziko dira,... horrela egin ezean dagokion espediente berreslea hasiko da, eta egokia bada, udalak subsidiarioki exekutatu du jabegoaren kontura".

Jabekideen Komunitateko Administratzailea hiru urte egon da tokia egokitzeko inolako ekintzarik egin gabe, eta beraz, ez du bete udalaren Ebazpena; hori dela eta, GOMENDIOA egin da Udalaren Osasun Zerbitzuak eraikina desinfektatzeko tratamendua egin dezan modu subsidiarioan, eta Jabekideen Komunitateko administratzailearen aurka zehapen-espedientea hasteko kalterik gabe.

Ebazpena

GOMENDIOA egin da Udala eraikineko desinfekzio lanez ardura dadin modu subsidiarioan, Udalaren Ebazpena ez betetzeagatik eraikineko Administratzailearen aurka zehapen-espedientea hasteko kalterik gabe.

Gomendioa egin zenetik bi hilabetera, Udalak EZEZKO erantzuna eman du, eta adierazi du Administratzaileak dagozkion desinfekzio-jarduerak egin dituela. Bestalde, Udalak bidalitako txostenak dio, zehapen-espedientearen kalterik gabe, desinfekzioaren arduraduna Jabekideen Komunitatea dela.

- Gasteizen uhalik gabe dabilzan txakurrak (erreg. zk.: 186-03)

Erreklamazioa

Gasteiztar bat kexu da hirian txakurrak uhalik gabe dabilzalako, eta beren jabeek ez dutelako egungo ordenantza betetzen.

Txakurren tamaina, pisua, arraza kontuan hartuta uhalik gabe dabilzan txakurrei buruzko ordenantza berrikusteko eskatu du... Gainera, txakurrentzako aisiarako eremuak egokitzeko eskatu du.

Analisia

Erabiltzaileak elkarrizketa izan du Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin eta uhalik gabe dabilzan txakurrei buruzko kexua azaldu du, herritarrei eragozpenak sortzen baitizkiete.

Udalak "Zure txakurra hirian" izeneko informazio-kanpaina egin du txakurren jabeek dituzten obligazioei buruz, baina ez da esparrurik erabaki edo seinaleztatu jabeek aukera izan dezaten txakurrak aske eta uhalik gabe ibiltzeko.

Hirian berdegune ugari dago, eta horietan zenbait gune mugatu eta seinaleztatu daitezke, hirian erroldatuta dauden txakurrak askatasun osoz ibil daitezen beren jabeen zaintzapean.

Ebazpena

Animaliak edukitzeari eta babesteari buruzko udal ordenantzaren arabera, txakurrekin bertan ibiltzeko zenbait gune mugatzea aurreikusi da. Hori dela eta, Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Araudiaren arabera, GOMENDIOA egin da Udaleko zerbitzu eskumendunak –Demsac eta Ingurumena– zenbait gune aukeratu, seinaleztatu eta mugatu ditzan, behar bezala erroldatuta dauden txakurrak askatasunean ibili ahal izateko, beren jabeen zaintzapean.

2.4.8.2 Ezesteak

- Etxabeak urez betetzea eta usain txarrak ur zikinen ondorioz (erreg. zk.: 242-03)

Erreklamazioa

Gasteiztar bat bulegora etorri da, eta adierazi du bera bizi den Jabekideen Komunitatean aldameneko Jabekideen Komunitatetik datozen ur zikinez bete direla etxabeak.

Arazoa eragin duen Jabekideen Komunitatea ohartarazteko eskatu dio Udalari, eta zuzenean esku hartu dezala berriro gertatu ez dadin.

Analisia

Erabiltzaileak elkarrizketa egin du Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin, kexaren berri eman dio eta hainbat dokumentazio aurkeztu du.

Instituzio honek Demsac-i eskatu dio, arazoa lehen begiratu batean ezagutzeko Demsac-eko teknikariek tokian bertan azterketa egin ondoren, Ikuskatze Txostenari buruzko informazioa bidaltzeko. Demsac-etik jakinarazi dute Txostena egina dagoela eta Zinegotzi Delegatuak sinatzea baino ez dela geratzen. Era berean, Txostena helarazi digute, non idatzita dagoen arazoa eragin duen Jabekideen Komunitateak hamabost eguneko epea izango duela hustubide-sarea garbitzeko alegazio-epea amaitu ondoren.

Udalaren eskariari entzungor eginez gero, arazoa eragin duen Jabekideen Komunitatearen aurka zehapen-espeditentea hasiko da, eta udal administrazioa modu subsidiarioan arituko da.

Ebazpena

Hori dela eta, erabiltzaileak egindako kexa EZIN DA HAINTZAT HARTU, arazoari buruzko Ebazpenak erakusten baitu udalaren jarduera egokia izan dela, eta ondorioz, kasua itxitzat eman daiteke.

2.4.9. AMVISA

2.4.9.1 Gomendioak

- Gehiegizko ur-hornidura kontagailuen egoera txarragatik (erreg. zk.: 190-03)

Erreklamazioa

Hainbat Gasteiztarren izenean pertsona bat etorri da Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Bulegora Amvisarekin arazoak dituztelako, ez baitira adostasun batera heltzen kontadoreari eta uraren pasoko giltzaren egoerari buruz.

Konpainiak erabiltzaileei egin dien eskaria baztertzeko eskatu du, izan ere, zerbitzua bertan behera uztea proposatu baita, instalazioa lehengo egoerara itzuli dela egiaztatu arte edo agindutakoa ez betetzen jarraitzea eragozteko beharrezkoak diren neurri zuzentzaileak hartu arte, erabiltzaileek zenbait konponketa egin baitituzte konpainiaren baimenik gabe.

Analisia

Herritar horien ordezkariak elkarrizketa egin du Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin, bere kexa jakinarazi dio eta horri buruzko dokumentazioa aurkeztu du.

Amvisarekin elkarrizketa egin da arazoari buruz duen ikuspegia ezagutzeko. Bileran bi aukera planteatu dira: alde batetik hodia baimendutako materialagatik aldatzea –polietilenoa–, bestela konpainia ez bailitzateke egin beharreko konponketez arduratuko, eta beste alde batetik, pasoko giltza lehen zegoen tokian jartzea eta kutxatila bat egitea.

Era berean, Sindikoaren bulegoko ordezkariak arazoa dagoen tokian izan dira, eta Amvisak arazoa konpontzeko proposatu dituen irtenbideak jakinarazi zaizkie kaltetuei. Momentu oro Sindikoaren bulegoak bitartekari lanak egin ditu.

Bi alderdiekin hainbat harreman izan ondoren, bai Amvisako teknikariekin eta baita kaltetuekin ere, honako GOMENDIOA egin da: herritarrei ur-hornidura mantentzea, ez zigortzea eta obran duen kostuaren banaketarekin ebazpen berria egitea.

Ebazpena

Amvisari GOMENDIOA egin zaio erabiltzaileei ura hornitzen jarraitzeko, zehapen-prozedurarik ez hasteko edo bere garaian hasi zena artxibatzeko, eta baita ere egindako obra ordezkatu ahal izateko ebazpen berria emateko, non iturgintza-lanak Amvisak egin beharko dituen eta gainontzekoa erabiltzaileak.

Amvisak gomendioa ONARTU du, baina erabiltzaileak bere kezkak ditu, eta horregatik, bulegora etorri da berriro. Beste behin BITARTEKARI lanak egin dira bi alderdien artean, hau da Amvisaren eta erabiltzailearen artean, eta Amvisari eskatu zaio erabiltzaileak

kontsumitzaileen batasunaren bidez egindako eskariari erantzuteko, erabiltzailea ez baitago gustura egindako jarduerekin, eta horrela, kasua ITXITZAT eman da.

- Lokala urez betetzea hodi baten hausturaren ondorioz (erreg. zk.: 191-03)

Erreklamazioa

SOS Arrazakeria kolektiboak Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen bulegoan salatu du Zapadari kalean duen lokalean gertatutakoa. Lokala urez bete zen hodi baten haustura gertatu ondoren, eta ondorioz, kalteak izan ziren instalazioetan, altzarietan eta dokumentazio-artxiboetan.

Sindiko edo Herritarren Defendatzaileari laguntza eskatu dio, bere jarduerarekin jarraitzeko Udalak beharrezko baliabideak eman diezazkion.

Analisia

Erakunde honek burutzen duen lan garrantzitsuenetakoa Europako Batasunetik kanpo dauden herrialdeetako inmigranteen erroldatzeari eta egoitza-eskaerari dagokion dokumentazioa kudeatzea dela kontuan hartuta, artxibo dokumentaletan kalte handiak izan ditu, eta baita altzarietan eta instalazioetan ere.

Amvisa, Gasteizko uren zerbitzua kudeatzen duen udal sozietate publikoa denez, kolektiboak izandako kalteen arduraduna ere bada.

Kaleen balioespen objektiboa egiteko hainbat gauza hartu behar dira kontuan: dokumentazio-artxiboek izandako kalteak, horiek berreskuratzeko aukera teknikoak, eta baita berreskuratze-prozesu horren kostua ere. Garrantzitsua da esatea, dokumentazio-artxibo horiek balioesteko garaian, kontuan hartu behar dela hirugarren pertsonak konprometitzen dituen datu pertsonalak dituzten dokumentazio-artxiboak direla, eta erabakigarriak izan daitezkeela Espainian egoitza-epeak ziurtatzeko garaian.

Udalak 6.000 € eman zituen lehendabiziko gastuei aurre egiteko, eta era berean, Itziar Elkartearen Etxeko hainbat lokalen eskaintza egin zuen; baina kolektiboak ez zuen eskaintza onartu, uste dutelako lokal horiek ez direla egokiak dituzten beharrak estaltzeko.

Aurkeztutako dokumentazioaren arabera, honako hauengatik kalte-ordaina jaso daiteke: obra zibila eta kaltetutako sistema informatikoak, bulegoko materiala berriz jartzea, berreskuratu daitezkeen dokumentuen tratamendu eta berreskuratze-prozesuaren gastuak, berreskuratu ezin daitezkeen espediente historiko bakoitzari dagokion kalte-ordaina, berreskuratu ezin daitezkeen espediente bizi bakoitzari dagokion kalte-ordaina, lokala urez bete zen garaian zegoen liburutegia birjartzea, Kultura arteko gunearen berariazko materiala birjartzea, atzerritarrei gaztelera erakusteko materiala, espedienteak, artxiboak eta dokumentazioa berriro antolatu eta birjartzeko beharrezkoa den soldatapeko pertsonala, Florida kalean hiru hilabetez alokatu duten behin behineko lokalaren alokairu-gastuak.

Ebazpena

Gasteizko Udalari, eta zehazki Amvisari, GOMENDIOA egin zaio udal enpresako aseguratzaileak kontuan har dezala kalteen erreklamazioa eta arestian adierazitako datuak, kolektiboak izandako kalteak erabat estalita gera daitezen.

2.4.10 KIROL SAILA

2.4.10.1 Ezestapenak

- Gamarrako frontoien egoera txarra (erreg. zk.: 171-03)

Erreklamazioa

Gamarrako Frontoietan pilotan aritzeko ohitura duten gasteiztar batzuk kexu dira, bertan jarri dituzten estalkiak ez direlako egokiak eta duten erabilerarako gaizki planteatuta daudelako.

Analisia

Erabiltzaileek elkarrizketa egin dute Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin eta Gamarrako udal instalazioetan egin dituzten konponketekin ez daudela gustura adierazi dute; era berean, beren kexa jakinarazi eta sinatu dute.

Kexa egin ondoren, instituzio hau egoeraren azterketa egiten hasi da. Horretarako, egoera tokian bertan aztertzeko bisita egin da, eta salaketan ageri diren frontoiak ikuskatu dira.

Jarraian bilera egin da Kirol Sailarekin, eta bertan kexaren berri eman da; horrez gain, zenbait txosten ere eskatu dira gaia sakontasun handiagoarekin aztertzeko.

Kirol Saitetik bidalitako informazioan aurreikusita dago Gamarrako instalazioetan jarduerak edo konponketak egitea; eta horien artean honakoak aipatuko ditugu: aldageletatik gertuen dagoen frontoiko zoruaren amaieran dagoen kanaleta konpontzea; frontoiak estalki-egiturarekin osatzen dituen leihoetan oihalak jartzea pilotak zintzilik geratzea eragozteko eta eguzkiaren islak saihesteko; kanaleta babestea pilotak frontoi txikiak batean zintzilik geratzea saihesteko; egituraren ainguraketek osatzen dituzten hutsuneak babestu eta estaltzea pilotak bertan sartuta geratzea eragozteko...

Hori dela eta, Udalaren jarduerak ikusi ondoren, Sindikoaren bulegoak ulertzen du instalazioak erabiltzaileei egokitzeko beharrezko jarduerak egin direla.

Ebazpena

Erabiltzaileek egindako eskaera **EZ DA ONARTU**, erabiltzaileek aurreikusitako akatsak zuzentzeko Administrazio egiten ari den jarduerak egokiak direla ulertzen delako.

- Udal instalazioetako ordain-agiria aurkeztea (erreg.- zk.: 193-03)

Erreklamazioa

Udalaren kirol instalazioak erabiltzen dituen Gasteiztar batek dio udaleko kirol instalazioetako abonatu-ordainagiriaren itxura ez dela egokiena.

Deserosotasuna saihesteko errezibo mota aldatzeko eskatu du, eta baita inprimatze-kalitatea ere, azkenerako zirriborro bat bihurtzen baita, eta ondorioz, txartelarekin batera erakutsi behar den azal-hegala irakurtzea ezinezkoa da.

Analisia

Udaleko sail eskudunarekin, hain zuzen ere Kirol Sailarekin, harremanean jarri ginen, eta adierazi ziguten ordainagiri mota eta igortzeko modua Caja Vital Kutxaren eskumena dela. Era berean, Caja Vital kutxak jakinarazi digu orain arte ez dutela edizio-sistema hoberik aurkitu, baina edozein iradokizuni irekiak daudela.

Sindikoaren bulegoak uste du administrazioaren jarduera egokia izan dela, bere egunean udal administrazioak kexua helarazi baitzion Caja Vital Kutxari, ordainagiria egitearen erantzulea zen aldetik.

Ebazpena

Hori dela eta, kexa EZ DA ONARTU administrazioaren jarduera egokia izan delako.

- Erorketa Gamarrako frontoietan (erreg. zk.: 281-03)

Erreklamazioa

Bizilagun bat kexu da Gamarrako frontoietan erori eta eskumuturra hautsi duelako.

Kalte-ordainak eskatu ditu erorketa horrek erabiltzailearentzat izan dituen ondorioengatik.

Analisia

Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin bilera egin du, eta dokumentazio ugari aurkeztu du; dokumentazio horren artean dago erabiltzaileak Udaletxean aurkeztu zuen kexuari buruz emandako erantzuna.

Erabiltzaileak Gamarrako frontoietan izan zuen erorketaren errua urak biltzeko kanaleta batena izan zen, eta hortaz, erabiltzaileak kalte-ordainak eskatu ditu izandako ondorioengatik.

Sindikoaaren bulegoan kasua aztertu da, eta jasotako dokumentazioaren arabera ondorioztatu da administrazioaren jardura egokia izan dela, Udalak epearen barruan jakinarazi baitio erabiltzaileari zer pausu eman behar dituen eskatutako kalte-ordaina aztertzeko.

Ebazpena

Kexa EZETSI egin da udal administrazioaren jardura egokia izan delako, eta Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Araudian horrela adierazita dagoelako.

2.4.11 KULTURA SAILA

2.4.11.1 Gomendioak

- San Miguel Elizaren egoera txarra (erreg. zk.: 183-03)

Erreklamazioa

Gasteiztar batek San Migel dorrea oso egoera txarrean dagoela salatu du. Dorrea turismo-gune erakargarria da eta Gasteizko Ama Zuriaren festen irudi sinbolikoa.

Dorreak izan dituen kalteak konpontzeko eskatu du eta San Migelgo dorreari merezi duen kategoria emateko neurri egokiak hartzeko.

Analisia

Sindikoak edo Herritarren Defendatzaileak elkarrizketa egin du herritarrekin, eta honek bere kexa adierazteaz gain, gai honi buruzko dokumentazio ugari aurkeztu du. Jarraian, dorrea bera aztertu da, eta erabiltzaileak bere idatzian dioen bezala, hondatua dagoela ohartu gara.

Hainbat eginbide burutu dira kexa sakontasunean aztertzeko, eta horretarako, Instituzio honek bilera egin du Elizako parrokoarekin. Elkarrizketa izan ondoren ondorioztatu da elizaren hondatzea ekarri duena bandalismo-ekintza bat izan dela, eta dorreko pintadak eragindako kaltea ahalik eta azkarren konpondu nahian, eta izan zitzakeen ondorioetan pentsatu gabe, margoarekin estali ziren, eta horrek kalte handiagoa eragin zion Dorreari.

Hori dela eta, San Migel Dorrearen estalkia zeinen egoera txarrean dagoen ikusita, GOMENDIOA egin zaio Udalari beharrezko neurriak har ditzala hiriaren bereizgarri den irudia –bereziki Ama Zuriaren festetan– udal administrazioak konpon dezan, horrela idatzita baitago 7/85 Toki Erregimeneko Oinarrien Legeko 25.2 artikuluan, zeinek Udalei eskumenak aitortzen dizkien Ondare Historiko-Artistikoari dagokionean.

Ebazpena

GOMENDIOA egin da, eta adierazi da Udalaren eskumena dela San Miguel dorrea garbitu eta izan dituen kalteak konpontzea egoera onean egon dadin.

Kultura Sailak erantzun du egindako Gomendioa onartzen duela, baina era berean argitu du Arabako Foru Aldundiaren eskumena dela, eta beraz, berari dagokiola konponketaren gastuak ordaintzea.

- San Migel elizan izandako kalteak konpontzea (erreg. zk.: 225-03)

Erreklamazioa

Demandatzailearekin elkarrizketa izan ondoren, zeinek kasua aztertzeko dokumentazio ugari aurkeztu baitu, gai honetan eskumena duen Sailari, hain zuzen Kultura sailari, galdetu zaio ea San Migel elizak izandako kalteen berri ba duten, eta arazoa ezagutzen badute, ea hobekuntza planik ba duten.

Kultura Sailak bere erantzunean dio 2003ko maiatzaren 29an, hain zuzen ere Instituzio honek txostena eskatu ondoren, mantentze-lanetako zerbitzuak tokian bertako ikuskatzea egin zuela. Era berean, Gasteizko Udalak Arabako Foru Aldundiari dei egin dio konponketak ordaintzeko ardura bere gain har dezan, elizan egin beharreko konponketen ordainketaren gaineko eskumena instituzio horri baitagokio.

Gasteizko Udalaren Lehendakaritza Arloarekin hainbat bilera egin ondoren, eta prentsan argitaratutako artikuluen arabera, non jakinarazten den Arabako Foru aldundiak hainbat aurrekontu-partida konponketetarako erabiliko duela, Eusko Jaurlaritzari txosten-eskaera egin zaio San Migel elizak Euskal Herriko Sailkatutako Kultura Ondasunen Erregistroan zer katalogazio duen jakiteko.

Jasotako informazioaren arabera, konponketen zenbatekoak Udalaren aukera ekonomikoak gainditzen ditu, eta gainera, Eusko Jaurlaritzaren Euskal Herriko Kultura Ondareari buruzko 7/1990 Legearen arabera, San Migel elizako mantentze-lanak egiteko eskumena Arabako foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren administrazioei dagokie; halere ez dira alde batera utzi behar Gotzaindegia eta Udala bera, beren aukeren barruan konponketak diruz lagunduko dituztenak.

Ebazpena

Udal Administrazioari GOMENDIOA egin zaio San Migel elizaren konponketa eta mantentze-lanak bere gain har ditzala ahal duen neurrian, eta San Migel elizako mantentze-lanak egiteko akordioetara hel dadila administrazio eskudunekin, hala nola, Arabako Foru Aldundia, Gobernua eta Gotzaindegia.

Gomendioa egin denetik hilabetera beharrezkotzat jo da gaiari lotuak dauden instituzioen arteko akordioa lortzea. Horretarako Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak BITARTEKARI lana egitea proposatu da, San Migel elizari buruzko gogoeta bateratua egiteko, hiriko ondare historiko artistikoa zaindu egin behar baita.

2.4.11.2 Bitartekaritzak

- Kafe literarioen antolaketa Gasteizen (erreg. zk.: 267-03)

Erreklamazioa

Kultura-jardueren barruan, Europa Kafetegia izeneko "kafetegi literarioen" proiektua antolatzeke nahia jakinarazi du herritar batek.

Aipatu proiektua Gasteizen abian jartzeko laguntza eskatu du.

Analisia

Elkarrizketa egin da erabiltzailearekin eta bere egunean Gasteizko Alkateari egin zion eskaera jaso da. Erabiltzailearen proposamena da egun ezohikoa den komunikazio literarioko formatua abian jartzea, XX mende hasierako kafetegi literarioen tradizioa berreskuratuz eta idazleen nahiz horien eta irakurleen arteko elkarrizketa-proposamenak gaurkotuz.

Europa Kafetegia Borderland Fundazioaren ekimena izan zen, kulturen arteko hartu-emanak sustatzen dituen erakunde kultural poloniarra hain zuzen. Kafetegia hainbat hiritan garatu den jarduera izan da, hala nola, Ljubljanan, Bukaresten, Estockholmen, Amsterdamen, Iowan, eta orain gutxi Bartzelonan.

Bilera egin da Gasteizko Alkatearekin, eta Kultura Zinegotziarekin harremanean jarri da aipatu ekimena hirian burutzeko.

Ebazpena

Erabiltzailearen eta Udal gobernuko arduradun politikoen arteko BITARTEKARITZAN parte hartu da proiektua aurrera ateratzeko. Hainbat bilera egin ondoren, ekimena hirian egingo dela jakinarazi da.

2.4.12 HEZKUNTZA SAILA

2.4.12.1 Hezkuntza Zerbitzuak

2.4.12.1.1 Gomendioa

- Olarizu Haur Eskolako sarbidearen egoera txarra (erreg. zk.: 198-03)

Erreklamazioa

Gasteiztar bat bulegora etorri da eta adierazi du segurtasun eta higiene arazoak daudela jabekideen komunitate batek eta Olarizu haur eskolak erabiltzen duten eskaileran. Haurrek erabiltzen duten eskailera horretan higiene-baldintzak ez dira egokiak: botila hautsiak, pixa, irazkinak...

Beharrezkoak diren neurriak hartzeko eskatu du, eskailerak eskola barrutiaren zati baitira, eta horiek nahitaez erabili behar dira ikastetxeko patiora sartzeko, zeinaren titulartasuna Gasteizko Udalak duen.

Analisia

Erabiltzailearekin izandako elkarrizketan jakinarazi da eskailerak Jabekideen Komunitateak eta Olarizu Haur Eskolak erabiltzen dituztela. Sarrera hori beharrezkoa da Ikastetxeko patiora sartu nahi duten haurrentzat, nahiz eta, era berean, edozein oinezkok erabil ditzakeen.

Olarizu haur eskolako gurasoak behin baino gehiagotan kexatu dira Eskolako patiora sartzeko eskailerak egoera txarrean daudela eta, baina orain arte udalak ez du esku hartu arazoa konpontzeko.

Haur Eskolaren titularra Gasteizko Udala denez, bera da arazoa konpontzeko beharrezkoak diren neurriak hartzeko ardura duena.

Ebazpena

Hori dela eta, tokian bertan egoera ikuskatu ondoren eta erabiltzaileak egin dituen adierazpenen arabera, komenigarria iduri da GOMENDIOA egitea, eta horregatik, arestian Olarizu haur Eskolako gurasoek egin duen iradokizun bera egin da; eskaileran bi ate jartzea

proposatu da, bat goiko aldean eta bestea beheko aldean, eta horrela, eraikineko bizilagunak eta Eskolako pertsonala bakarrik sartu ahal izango dira; bestalde, sarbide-segurtasuna bermatzen da metodo berriekin, hala nola kodedun teklatura, eta horrela, sarrera kontrolatua izango da.

Gasteizko Udalaren Hezkuntza sailak gomendioa ONARTU du eta arazoa konpontzeko beharrezko neurriak hartuko direla adierazi du.

2.4.12.1.2 Ezesteak

- Luis Dorao ikastetxe publikoko pistaren egoera txarra (erreg. zk.: 217-03)

Erreklamazioa

Gasteiztar bat bulegora etorri da eta adierazi du Luis Dorao ikastetxe publikoko pista egoera txarrean dagoela, eta horrek bertako Kirol Taldeari eragiten diola.

Erregistroan aurkeztutako idatziari erantzuteko eskatu du, non ikastetxe publiko horretako patioa asfaltatzeko eskakizuna egiten zuen.

Analisia

Erabiltzaileak bilera egin du Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin, eta egin duen kexari buruzko dokumentazio ugari aurkeztu du.

Sindikoaren bulegoak Luis Dorao ikastetxe publikoko patioaren egoerari buruzko txostena eskatu dio Hezkuntza Sailari, benetan Sailak patioa zein egoeratan dagoen ba ote dakien ziurtatzeko .

Zentzuzko denbora bat igaro ondoren, eragindako sailak erantzun du bide Publikoetako Zerbitzuak txostena egiteko zain daudela, kexa bidezkoa dela uste baitute, eta beraz, proposamena 2003ko obra Planean sartu dute.

Bide Publikoen Zerbitzuak egindako txostena jaso bitartean, elkarrizketa egin da Hezkuntza Saileko zuzendariarekin eta Sindikoaren bulego honi jakinarazi zaio herritarrak Luis Dorao ikastetxe publikoko asfaltoa konpontzeko egin duen eskaria aintzat hartu dela, baina aurrekontu arrazoiengatik eskaera hori 2004ko aurrekontuetan aztertu beharko da. Halere, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Kontseilaritzaren diru-laguntza jasotzeko aukera zintzilik dago, eta hori jasoz gero, obra epe laburrean egingo litzateke.

Erreklamazioa

Hori dela eta, ikastetxeko patioa konpontzeko beharrezkoak diren kudeaketak egitean eta 2003ko Obra Planean sartzean –2004ko ekitaldiko aurrekontuan onartuko dena-, Sailaren jarduera egokia izan dela uste da. Horregatik guztiagatik eta Sindikoaren bulegoak bitartekaritzan egin ondoren, kexa EZ DA ONARTU.

2.4.12.1.3 Gaitzestea/ez-onartzea

- Atzerapena haurtzaindegiko plaza baten eskaeran (erreg. zk.: 346-04)

Erreklamazioa

Herritar bat kexu da udalak denbora asko behar izan duelako Udal Haurtzaindegiko plaza bati buruzko erantzuna emateko, eta hori dela eta, ezin izan duelako eskaera onartu.

Berrero ere plaza eskatzeko aukera emateko eskatu du, eta Udalak erantzun dezala atzerapena zergatik izan den.

Analisia

Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin elkarrizketa izan du, eta erabiltzaileak bere kexa jakinarazi eta legalki aurkeztu du.

Sindikoaaren bulegoak lortu duen informazioaren arabera, erantzunaren atzerapena ez da udalaren eskumena; Udalak erabiltzaileari bidalitako dokumentuaren irteera-data ezarritako epeen barruan dago, eta beraz, erabiltzaileak ez badu gutuna ezarritako denboran jaso, errua Correos zerbitzuarena da.

Ebazpena

Kexa EZ DA ONARTU ez delako udalaren eskumenekoa, eta horrela adierazita dago Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Araudian.

2.4.13 LEHENDAKARITZA SAILA

2.4.13.1 Esku-hartzeak

- Kalteak kolektibo batek antolatutako erakusketa batean (erreg. zk.: 268-03)

Erreklamazioa

Uztailaren 15etik 31ra bitartean, "Una vida por delante" izeneko argazki-erakusketa antolatu zuen asistentzia izaerako elkarte batek; baina elkarte horretako ordezkari batek esan digunez, Hegoalde Gizarte Etxean burutzen ari ziren obra publikoek erakusketa galarazi zuten, eta gainera, erakusketako zenbait panelek kalteak izan zituzten. Arrazoi horregatik, erakusketarako aurreikusita zegoen data aldatu behar izan zen.

Gai honetan Hegoalde Gizarte Etxearen koordinazio-eza jasota geratzea nahi du, eta baita kolektiboaren kaltetutako panelak konpontzea ere.

Analisia

Kolektiboak bere kexa azaldu du Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen bulegoan eta dokumentazioa aurkeztu du.

Kolektibo erabiltzailearekin eta Gizarte Saileko Zinegotzi Delegatuarekin izandako bilera batean, kolektiboak izan dituen kalteak Udalak ordainduko dituela erabaki da.

Ebazpena

Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak BITARTEKARITZA lanak egin ditu eragindako kolektiboaren eta Udalaren artean, non azken honek adierazi duen obra publikoen ondorioz kolektiboaren erakusketak izan zituen kalteak ordainduko dituela.

2.4.14 TEKNOLOGIA BERRIEN SAILA

2.4.14.1 Sailaren Zuzendaritza

2.4.14.1.1 Gomendioak

- Kableak jartzea Udalaren baimenik gabe (erreg. zk.: 223-03)

Erreklamazioa

San Martin auzoko bizilagun bat Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen bulegora joan da eta adierazi du Udalak kableak jarri dituela auzo horretako bizilagunen garajeetan inolako baimenik gabe. Jakinarazi du 20 cm inguruko bi hodi daudela garajeetatik igaro eta banaketa-kaxa batean amaitzen direnak. Kable bat jartzeko hitzezko baimena eman zen, baina kableak jartzerakoan gehiegikeriaz jokatu du.

Kable horiek kentzeko eskatu du.

Analisia

Erabiltzaileak bilera egin du Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin, eta bertan kexa egin eta sinatu du. Teknologia Berrien Zuzendariarekin bilera egin ondoren, non kexaren berri ba ote duten galdetu zaion, jakinarazi digu gai hori Ogasun Sailaren erantzukizuna dela.

Kableen instalazioa hitzeko baimenez egin zen, hain zuzen ere Jabekideen Komunitateak emana, ez oso modu zehatzean, zenbait kable jartzeko. Baina udalaren gehiegizko erabilera dela eta, bizilagunek pentsatu dute kalte-ordainak eskatzeko eskubidea dutela.

Eta beraz, lortutako informazioan oinarrituta, eta Kode Zibileko 530. artikulua arabera, "eraikin bati jarritako karga beste jabe bat duen higiezinaren mesedetan denean" kalte-ordaina eskatzeko arrazoiak badaude.

Ebazpena

Aurelio Vera-Fajardo margolariaren kalean dauden garajeetan kableak jartzeko beharra aztertzeko GOMENDATU zaio udalari, eta Toki Erregimeneko Oinarrien Legean aurreikusita dagoenaren arabera, diru-konpentsazioa ordaintzeko.

Udalarekin harremanean jarri gara gomendioa onartzen duten edo ez jakiteko, eta jakinarazi digute Jabekideen Komunitatearekin harremanean daudela kalte-ordainei buruzko akordio batera iristeko, eta beraz, ulertzen da Gomendioa ONARTU dutela.

2.4.14.1.2 Esku-hartzeak

- Datu pertsonalak Udaletxeko web orrian (erreg. zk.: 240-03)

Ikus honako sail honetan: 2.3.5.2. Haurtzaro eta Senitarte Zerbitzua –Gaitzestea-Ukatzea Ordezko Familia Instituzionalizatu gisa)

2.4.14.1.3 Ezesteak

- Auzoak kaleen arabera mugatzea (erreg. zk.: 115-02)

Erreklamazioa

Auzo-elkarte bateko ordezkaria bulegora etorri da eta kaleen arabera auzoen mugei buruzko informazioa eskatu du, banaketarekin ez daudelako ados. Zenbait kale auzo baten barruan egon arren, gertuago daude beste auzo bateko zerbitzuetatik.

Analisia

Sindikoaeren bulegoak Gasteizko auzoen banaketa nolakoa den jakin nahi du, eta horregatik, auzoen mugei eta Gasteizko hiria osatzen duten guneen banaketa-irizpideari buruzko informazioa eskatu zaio Errolda Zerbitzuari.

Errolda Zerbitzuari hainbat eskaera egin ondoren, Hiriko Auzoen mugak 1999-3-1eko Errolda Banaketaren arabera direla dioen txostena bidali digu, eta beraz, Auzoak udal-barrutien eta hauteskunde sailen arabera mugatuak daude.

Zehazki egindako kexari lotuta, Errolda Zerbitzuko Txostenaren arabera, eta erroldaren ikuspegitik, banaketa zuzena da, San Cristobal eta Adurza auzoetako kaleak hauteskunde barruti berean baitaude, 4. zk.an hain zuzen; ordea, hauteskunde sail desberdinak dagozkie, 21. eta 26., eta beraz, "auzoaren" irudia ez da erabakigarria banaketa horiek egiteko, hauteskunde sail bera ezin daitekeela bi auzo desberdinetakoa izan dioen irizpidea jarraitzen denean izan ezik.

Ebazpena

Administrazioaren jardura egokia izan dela ondorioztatu da, eta beraz, kexa EZETSI da.

- Katastroko datu pertsonalei buruzko eskubideak urratzea (erreg. zk.: 299-03)

Erreklamazioa

Herritar bat Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen bulegora etorri eta adierazi du bere datu pertsonalak babesteari buruzko eskubideak urratu direla. Horiek zergei buruzko datu gisa eman direla adierazi du, egoitza fiskala, interesatuak zerga honengatik edo besteagatik izan ditzakeen zorrak, eta abar balira bezala.

Hori nola gertatu den ikertzeko eskatu du eta dagozkion isunak aplikatzeko.

Analisia

Erabiltzailearekin bilera egin eta kexa idatziz jarri eta sinatu ondoren, Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak bilera egin du Gasteizko Udaletxeko Segurtasun Arduradunarekin. Bertan adierazi zaigu kexa aztertu eta ahalik eta azkarren erantzungo dutela.

Ogasun Sailak bidalitako Txosten baten arabera, erabiltzailea kexa aurkeztera eramán duten datuak katastralak dira, eta horien artean ez da ageri zergei buruzko daturik –zerga-kuota, zerga-zorraren egoera, helbide fiskala, eta abar...

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen legeko (30/1992 legea) 37. artikulua dio izaera pertsonaleko datuen titularraz gain, datu horiek jakin ahal izango dituztela interes egiazkoa eta zuzena duten hirugarrenek. Era berean, Datuen Babeserako Espainiako Agentziak aurreikusten du titularra ez den pertsona batek datu katastralak ezagutzeko aukera duela.

Kasu zehatz honetan, aipatu ziurtagiri katastrala eskatu zuen pertsonak eraikineko komunitatea osatzen duten bizilagunen baimena zuen, izapide hori burutzeko gaitua baitzegoen.

Ebazpena

Arestian esandakoaren arabera, administrazioaren jardura egokia izan da datuak babesteko indarrean dagoen araudia kontuan hartuta, eta beraz, kexa EZIN DA AINTZAT HARTU. Sindikoaren bulegoak erabiltzaileari adierazi dio inolako zalantzarik izanez gero, Gasteizko udaletxeko Teknologia Berrien Sailera jotzeko.

2.4.14.2 Errolda Zerbitzua

2.4.14.2.1 Gomendioak

- Gasteizen erroldatzeko eskaera (erreg. zk.: 309-03)

Erreklamazioa

Gasteizen bizi den herritar batek adierazi du hirian finkatua dagoela, baina egun Galizian erroldatua dagoela, eta horregatik eskatu du Gizarte Zerbitzuek bere erroldatzearen alde egin dezatela, Gasteizen erroldatu nahi duen arren ez baitu helbiderik.

Analisia

Erabiltzaileak elkarrizketa izan du Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin, eta eskaera aztertuta ulertzen da Espainian bizi den pertsona oro behartuta dagoela bere ohiko bizitokia den udalerrian erroldatzera.

Erabiltzaileak Gasteizen erroldatu nahi du. Erabiltzaileak erroldatze-eskaera formalizatu du eta bertan Estatistikako Institutu Nazionaleko Lehendakaritzaren eta Lurralde Kooperazioko Zuzendari Nagusiaren 1997ko uztailaren 4ko Ebazpena aplikatzeko eskatu du, non marjinatuak erroldatzeko argibideak ematen diren. Sindikoaren bulegoak dakienez, erabiltzaileak ez du gizarte-laguntzarik jasotzen, baina behin baino gehiagotan pasa du gaua ATERPEAN.

Ebazpena

Hori dela eta, GOMENDIO bidez Udalari eskatu zaio erabiltzailearen erroldatze-eskaera onartzeko. Udalak EZ duela gomendioa ONARTZEN erantzun du, eta honela arrazoitu du: Espainian bizi den pertsona orok ohiko bizitokia duen udalerrian erroldatzeko obligazioa badu, udalerrian bizi baina bertan helbiderik ez duten pertsonak udal-erroldan izena eman ahal izateko beharrezkoa da pertsona hori bizi deneko eremu geografikoan eskumena duten gizarte

zerbitzuei kasuaren berri ematea. Horregatik Gizarte Zerbitzuek dute bizitokiaren azturrasunari buruzko informazioa emateko ardura, eta kasu honetan, Gizarte Zerbitzuek uste dute erabiltzailea ezin dela udalerrri honetan erroldatu.

2.4.15 ZERBITZU OROKORRAK

2.4.15.1 Eraikinetako mantentze-lanak

2.4.15.1.1 Ezesteak

- Iparralde Gizarte Etxeko igerilekuak eta aldagelak (erreg. zk.: 307-03)

Erreklamazioa

Iparralde Gizarte Etxeko erabiltzaile bat kexu da Iparralde kiroldegiko igerilekuetan hutsuneak daudelako. Dutxetako uraren maila oso baxua dela adierazi du, eta emakumeen aldagelan dauden 11 dutxetatik bi baino ez dabiltzala. Gainera, adierazi du igerilekuko ura oso hotza dagoela igeri egiteko eta aldageletako lehorgailuak ez dabiltzala.

Hutsune horiek konpontzeko eskatu du.

Analisia

Sindikoaren bulegoak bilera egin du Iparralde Gizarte Etxeko koordinatzailearekin, mantentze-lanez arduratzen diren bi teknikarirekin eta kirol teknikari batekin Kiroldegiko Instalazioetan. Bilera egin dugunok instalazioak ikusten izan gara, zehazki igerilekuak eta aldagelak, eta erabiltzailearen kexak egiaztatu dira.

Erabilera kolektiboko igerilekuen araudi sanitarioa onartzen duen otsailaren 18ko 32/2003 Dekretuaren arabera, uraren tenperaturak 24° eta 28° zentigradu artekoa izan behar du, eta giro tenperatura, berriz, aurreko tenperatura baino $\pm 2^{\circ}\text{C}$. Igerilekuak tenperatura

desberdinetako basoak baditu, erreferentziako tenperatura ur-azalera handiena duen igeri putzuarena izango da.

Udal Eraikinetako Mantentze-lanen Zerbitzuak igerileku eta dutxetako uraren tenperatura-mailari buruzko txostena egin du, eta guztiek indarrean dagoen araudia betetzen dute.

Ebazpena

Kexa gaitzetsi egin da udal zerbitzuek neurketa jarraituak egin dituztelako eta araudiaren barruan daudelako. Egin diren gainontzeko kexei dagokienez, erabiltzaileari jakinarazi zaio zuzendaritzak ezagutzen dituela eta instalazioen birmoldaketa partzial bat egingo dela nahikoa aurrekontu izan bezain laster, baina oraingoz ezingo dira obra horiek egin.

2.4.15.2 Euskera zerbitzua

2.4.15.2.1 Gomendioak

- Gasteizko alde Zaharreko kaleen nomenklatura (erreg. zk.: 145-03)

Erreklamazioa

Gasteiztar bat kexu da kaleen jatorrizko izenak ez direlako errespetatzen. Alde Zaharrean, adibidez, zenbait kartel gaztelaniaz bakarrik daude, eta beste batzuk, euskaraz egon arren, akatsak dituzte.

Gasteizko Alde Zaharrean kartelak euskaraz eta gaztelaniaz jartzeko eskatu du, hiriko gainontzeko lekuetan dauden bezala.

Analisia

Sindikoaren bulegoak jakin ahal izan duenez, Udalaren Gobernu Batzordeak 1999ko martxoaren 12an onartu zuen akatsak zuzentzea eta Gasteizko kaleei euskarazko izenak ematea, erakundeak eta herritarrak hiriko kaleen izenak erabiltzen dituztenean batasuna egon dadin.

Kaleen nomenklaturak hiriko kale-egitura identifikatzeko sistema izan behar du, gune publikoen identitate zeinua, eta bi hizkuntza ofizial dituen hiri honetan nahitaezkoa da errotulazio ortografikoa egokia izatea.

Gaizki idatzita dauden errotuluak honakoak dira: "Machete Plaza", "Aihotz Plaza"-ren ordez, "Los Arquillos", "Arkupeko ibilbidea"-ren ordez, "Barruko Kale Berria", "Barnekale Berria"-ren ordez, "Pintoreria Kalea" "Pintore Kalea"-ren ordez...

Ebazpena

GOMENDIOA egin da Udaleko Kultura Sailak –euskara Zerbitzuak hain zuzen– egin duen Txostena oinarri hartuta, eta Euskaltzaindiaren nahiz GEU elkartearen aholkuarekin, eta adierazi da, 1999ko martxoaren 12an Gobernu Batzordeak hartu zuen erabakiaren arabera, Gasteizko alde Zaharreko kaleetan dauden kartelak zuzendu behar direla. Gomendio honen berri eman zaie eragindako Sailari –Kultura–, Bide Publikoetako zerbitzuari eta eragindako zerbitzu desberdinetako arduradun politikoei.

Udalak gomendioa ONARTU DU.

2.4.16 TUVISA

2.4.16.1 Ezesteak

- Hiribusak sortutako zarata autobus geltokian (erreg. zk.: 266-03)

Erreklamazioa

Gasteiztar batek adierazi du Extremadura kaleko azken autobus geltokian dagoenean eta autobusaren motorra martxan jartzen denean zarata handia sortzen duela.

Zarata-neurketak egiteko eskatu du eta autobusak geltokian horrenbeste denboran zarata ateratzen egotea eragozteko modua bilatzeko.

Analisia

Erabiltzaileak bilera egin du sindikoarekin, kexa idatzi eta sinatu du. Sindikoaren bulegoak txostena eskatu dio Tuvisari erabiltzaileak adierazitakoaren berri ba ote duten jakiteko.

Tuvisa udal garraio enpresaren txostena jaso da, eta bertan jakinarazten da ez dagoela motor ibilgailuen zarata-maila arautzen duen estatuko, erkidegoko edo tokiko araurik. Zaratari buruzko irizpide teknikoei dagokienez, zarata-maila arautzen duen arauak badaude, baina horiek homologazio kasuetan erabiltzen dira. Era berean, txosten horretan idatzita dago Tuvisako ibilgailuek zarata-maila arautzen duten araudia betetzen dutela erosten direnean, eta horrez gain, legeak ezarritako epeetan berrikusten dira.

Era berean, Tuvisaren txostenak dio geltokiak hainbat parametroren arabera zehazten direla, hala nola, joan-etorriko ibilbideak, erregulazio denborak, geltokien arteko distantzia, biztanle-dentsitatea, gune horretako puntu interesgarriena kokatua dagoen tokia, eragin eremua eta bidaiari kopurua 50, 100 eta 150 metrora.

Arestian esandako guztiagatik ulertzen da udal administrazioaren jarduera egokia izan dela, motor-ibilgailuen zarata-maila arautzen duen araudian hutsune bat baitago.

Ebazpena

Kexa ez da aintzat hartu, Gasteizko Extremadura kalean dagoen azken geltokian Tuvisa autobusek eragiten duen zarata eta gas-igorpenengatik egin den salaketaren aurrean administrazioaren jarduera zuzena izan baita.

2.4.16.2 Erabiltzaileak EZETSIa

- Ariznavarra eta beste auzo batzuen arteko autobus bidezko komunikazio urria (erreg. zk.: 288-03)

Erreklamazioa

Bizilagun bat kexu da hiriko bi saihezbideek ez dutelako aukerarik ematen auzo batetik bestera joateko erdigunetik igaro gabe. Autobus bidezko komunikazioa oso urria da Ariznabarra auzoan. Lakuabizkarratik Ariznabarra edo Armentiarra erdigunetik pasa gabe joateko modu bakarra autoz joatea da, autobusez joaten oinez baino denbora gehiago pasatzen baita.

Arazoa konpontzeko neurriak hartzeko eskatu du.

Analisia

Erabiltzailea bulegora etorri da, kexa idatzi eta sinatu du. Erabiltzaileari jakinarazi zaio sindikoaren bulegoak ez duela esku hartzen erabiltzaileak Gasteizko Udalari kexa lehen auzialdian aurkezten dion arte.

Ebazpena

Erabiltzaileak ez duenez inolako dokumentaziorik aurkeztu, denbora bat igaro ondoren ulertzen da ERABILTZAILEAK kexa EZETSI duela.

2.4.17 UDAL ERAKUNDE AUTONOMOAK

2.4.17.1 Ephialte

2.4.17.1.1 Bitartekaritza

- Egile-eskubideak ukatzea (erreg. zk.: 271-03)

Erreklamazioa

Gasteiztar batek Sindiko edo Herritarren Defendatzaileari eskatu dio bitartekaritza lanak egin ditzala ondorengo kasuan:

Udalari eskaria egin zaio erabiltzaileak eskatu eta behar bezala arrazoitu ziren kopuruak ordaintzeko.

Udal agintariak publikoki adierazi dezala erabiltzaileak 1989-1997 urteen artean egin duen kudeaketa-lana Udalttegiko fundatzaile eta Zuzendari gisa.

Udalak utz diezaiola Ephialte marka eta honen logotipoa erabiltzeari, behar bezala erregistratua dagoen jabetza pribatua baita.

Analisia

Erabiltzaileak elkarrizketa egin du Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin, eta kexa idatzi eta sinatzeaz gain, hainbat dokumentazio aurkeztu du. Aurkeztutako kexan hainbat erreklamazio egin dizkio Gasteizko Udalari Ephialte izeneko Udal Erakunde Autonomoan lan egiten zuenean eskainitako zerbitzuagatik.

Lehendabizi ordaintzeke dauden gastu, dieta eta lanei buruzkoa; baina horiei dagokienez, inon ez da ageri Udalak obligazio objektiborik duenik, eta horregatik, guk ezin dugu izaera horretako erreklamazioen alde agertu.

Egindako lana aitortzeari buruzko erreklamazioari dagokionez ulertzen dugu zuzenbideak arautzen duen eremutik kanpo dagoen gaia dela; era horretako balioespen eta estimazio adierazpenak askatasunez egin behar dira, eta ezin dira aldarrikapen gisa planteatu.

Hainbat libururen argitaratze, banaketa eta salmentatik eratorritako egile-eskubideen ordainketa eskatzeko erreklamazioa.

Sindikoaren bulegotik egile eskubideei buruzko erreklamazioari bakarrik erantzun diezaiokegu, ulertzen baitugu ISBNren erregistroetatik ondorioztatzen dela EPHIALTE Institutu

Ikonografikoak argitaratutako hainbat lanen egilea bera dela; eta beraz, aipatu institutuak erantzun beharko du jurisdikzio zibilean, eta egokia bada, Gasteizko Udalak modu subsidiarioan esku hartuko da.

Ebazpena

Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Araudiko 14. art.an adierazita dago "Herritarren Defendatzaileak edo Sindikoak alderdien arteko bitartekari lanak egingo ditu alderdiek horrela erabakiz gero", eta beraz Gasteizko Udalaren eta erabiltzailearen arteko BITARTEKARI izateko proposamena egin da.

Ephialtek argitaratutako liburuetatik Udalaren banaketa bidez zenbat ale saldu ziren argitzeko txostena bidali du Kultura Sailak, eta beraz, beharrezkoa da egile eskubideengatik egileak zenbat diru jaso behar duen kalkulatzeari. Horri buruzko Gomendioa egitea geratzen da.

2.4.17.2 Luis Aramburu Udal Musika Eskola

2.4.17.2.1 Gomendioa

- Piano eskolei dagozkien tasaren kobrantza okerra (erreg. zk.: 327-04)

Erreklamazioa

Herritar batek adierazi du "Luis Aramburu" Udal Musika Eskolako ikasle baten aita dela eta 188,47 €ko ordainagiria igorri diotela; akatsen bat egon ezean honela banakatzen da: matrikulagatik 51,48 €, lehenengo hiruhilekoagatik 137,99 € Piano Tresnari dagozkionak; erabiltzaileak ordainketa helbideratua zuen kontuan ordaindu du kopurua, eta 2003ko abenduaren 11an egin zen kargua.

Kopuru okerra kobratu izanagatik 91,98 € itzultzeko eskubidea aitor diezaiotela eskatu du.

Analisia

Zerbitzu publikoa eskaintzeak eragiten duen kostu ekonomikoaren arabera finkatzen dira Prezio publikoak eta baliokidetasuna gorde behar du eskaintako zerbitzuarekin.

Prezio Publikoei buruzko Udal Ordenantzako 9. artikulua dio sortzapena zerbitzua eskaintzen den momentuan hasten dela, zerbitzua benetan eskaintzen ari den edo ez bereiztu gabe. Baina ordenantza bereko 3.1. artikulua dio tasa "zerbitzuaren eskaintza" bezala definitzen dela, eta beraz, ulertzen da egindako ordainketa ez dela bidezkoa, ez baitu kontuan hartzen eskatzaileak ez duela zerbitzua bere osotasunean jaso, ordea, osorik ordaintzeko eskatu zaio.

Ebazpena

Esandako guztiaren arabera, GOMENDIOA egin da Luis Aramburu Udal Eskolako ikasleari eskola-tasa itzultzeko, Zerbitzua jaso duen denboraren arabera.

Gomendioa egin eta egun batzuetara, Luis Aramburu Udal Eskolak Gomendioa ONARTU du, eta eskatutako kopurua ondorengo hiruhilekoen ordainketan itzuliko dela adierazi du.

2.4.18 BESTE BATZUK: EZ DAGO HORRETARAKO ZERBITZURIK

2.4.18.1 Orientabideak

- Trenbidetik gertu dauden lur-sailak kentzea (erreg. zk.: 173-03)

Erreklamazioa

Herritar bat kexu da trenbidetik gertu dauden lur-sailetan zuen jabetzaren zati bat kendu diotelako, eta gainontzeko jabetza egoera txarrean utzi diotelako. Zein titulurekin eman diren eta kalte-ordainak eska ditzakeen jakitea eskatu du.

Analisia

Hainbat azterketa egin ondoren, Sindikoaren Bulegoa kexa gaitzestea pentsatzen ari da, Renferen eskumena baita, eta ez udal administrazioarena.

Ebazpena

Aurkeztutako kexa EZETSI da, aurkeztutako gaien eskumenik ez duelako. Era berean RENFERi eskaera-idatzi bat egiteko aholkatu zaio.

Kasua itxi da.

2.4.18.2 Bitartekaritzak

- Bizikidetza arazoak eraikinean bizi den familia batekin (erreg. zk.: 196/03)

Erreklamazioa

Auzo-komunitate bateko ordezkari bat Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen bulegora joan da eta eraikin berean bizi den familia batekin dituzten bizikidetza arazoen berri eman du.

Orientabidea eskatu du, aurrez Demsac-Bitartekaritza Zerbitzuan izan baita, eta bertan esan diote ezin duela ezer egin.

Analisia

Auzo-komunitateko ordezkaria eraikineko bizilagun guztiek sinatutako idatzia ekartzera etorri da, eta bertan adierazi dute bizikidetza ezinezkoa dela eraikinean bizi den familia batekin.

Idatzia aurkeztu ondoren, interesatuari dei egin zaio Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin elkarrizketa izan dezan. Erabiltzaileak jakinarazi digu ez duela kexarekin aurrera jarraitu nahi arazoak sortzen zituzten bizilagunak etxea uzteko agindua jaso baitute, eta beraz, pentsatzen dute agindua betetzen denean arazoa bukatu egingo dela.

Ebazpena

Kexa EZETSI egin da erabiltzaileak horrela eskatuta.

- Bizilagunen arteko gatazkak Jabekideen Komunitate batean (erreg. zk. 119-02)

Erreklamazioa

Gasteiztar batek adierazi du bera bizi den eraikineko bizilagunak –bera barne hartuta– arazoak dituztela buru osasuneko arazoak dituen emakume batekin, zarata ateratzen baitu. Bitartekari lanak egiteko eskatu du, Epaitegietara joan beharrik ez izateko.

Analisia

Erabiltzaileak elkarrizketa egin du Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin eta kexa aurkeztu dio. Erabiltzaileari eskatu zaio arazoak sortzen dituen bizilagunaren senitartekoekin harremanetan jartzeko informazioa helarazteko instituzio honi, eta horrela bitartekaritza aztertu ahal izateko.

Ustez bizilagunei arazoak sortzen dizkien pertsonaren senitartekoekin harremanetan jarri ondoren, eta aurkako jarrerak dituzten bi alderdiak aztertu ondoren, ulertu da kexa ez dela sindikoaren eskumena, horrela baitio Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Araudiko 26. artikulua.

Ebazpena

Kexa EZETSI da ez delako Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen eskumena, partikularren arteko arazoa baizik. Kasua bukatutzat eman da.

- Uholdeak kanpin batean (erreg. zk.: 234-03)

Erreklamazioa

Haroko Kanpinean izandako uholdeek eragindako kolektiboaren ordezkari bat bulegora etorri da eta kanpin horretan 2003ko maiatzaren 7an izandako uholdeak salatu ditu.

Analisia

Ordezkariarekin elkarrizketa egin da, eta bertan egindako salaketa azaldu du, baino ez du horri buruzko daturik utzi.

Hori dela eta, ezin da aurrera egin kexarekin, horrela adierazita baitago Araudian.

Ebazpena

Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Araudiko 26. artikulua arabera, kexa EZETSI da ez dagoelako ez sinatua ez eta identifikatua ere.

3. IZAPIDETZEN ARI DIREN DOSIERRAK

- Armentia gunean eraikitzeko baimenik ez ematea (erreg. zk.: 30-02)

Erreklamazioa

Herritar batek aurkeztu duen gaia hertsiki juridikoa da eta konponbide zaila du, hirigintzako araubideak erregulatzen baitu osorik.

Armentia eremuko exekuzio-unitate baten onarpena berrikusteko eskatu du, eskatzaileari eraikitzea eragozten baitio, gutxieneko azalera-mugen azpitik geratzen delako, eta horregatik beharrezkoa da eremu horretan etxebizitza bat eraikitzea ahalbidetuko duten formulak bilatzea.

Analisia

Sindikoaren bulegoa, aurrez Udalari eskatutako Hirigintza Plan Orokorra jaso ondoren, aipatu Plana aztertzen ari da herritarrak egindako kexari irtenbide bat bilatzeko. Eta beraz, espedientea irekitzat jotzen da.

- Alde Zaharrea erabilera anitzeko aldea TAO gunea bihurtzeko eskaera (erreg. zk.: 205-03)

Erreklamazioa

Alde Zaharrea bizi den herritar batek dio aparkatzeko arazoak dituela OTA2 gunean, oinezkoentzat jarritako kaleak ugari baitira gune horretan.

Irtenbideak bilatzeko eskatu du, eta Alde Zaharrea, erabilera anitzeko aldean aparkatu ahal izatea proposatu du, 2 eta 5 guneak konbinatuz. Era berean eskatu du OTA gunean dauden kaleen berri ematen duen kale-izendegia eguneratzeko, izan ere oinezkoentzako burutu diren egokitzapen guztien ondoren zaharkitua baitago.

Analisia

Memoria hau amaitu den momentuan espedientea irekita geratu da ebazpenaren zain.

- Gasolidengi berria Oto hiribidean (erreg. zk.: 233-03)

Erreklamazioa

Gasolindegi baten jabea den gasteiztar bat Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen bulegora joan da, eta kexu da Gasteizko Udalak baimena eman duelako bere gasolindegitik 400 metrora beste gasolindegi bat jartzeko.

Jarduera baimena berriro aztertzeko eskatu du.

Analisia

Erabiltzaileak elkarrizketa izan du Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin, eta bertan kexa egin eta sinatu du. Hainbat dokumentazio aurkeztu du, eta horien artean EAEko

Auzitegi Nagusiak eta Bilboko Udaleko Hirigintza Sailak "Bilbo eta Donostiako gasolindegien kokapenari" buruz emandako hiru Ebazpen.

Memoria hau amaitu den momentuan espedientea irekita geratu da ebazpenaren zain.

- Terrazan legez kontrako pergola jartzea (erreg. zk.: 246-03)

Erreklamazioa

Herritar bat bulegora etorri da eta adierazi du aurreko bizilagunak kristalez estalitako pergola duela terrazan, baina bertan jartzeko behar diren baimenak ez dituela.

Udalak esku hartu eta aipatu pergola kentzeko eskatu du, horretarako ebazpena badagoelako 2001etik aurrera, nahiz eta Udalak ez duen ebazpen hori exekutatu oraindik.

Analisia

Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen bulegoak elkarrizketa egin du erabiltzailearekin, eta honek kexa egin eta sinatu du kasua aurrera eraman ahal izateko.

Erabiltzaileak aurkeztu duen dokumentazioaren artean Alkateak sinatutako ebazpen bat dago, eta bertan gogorarazten da Lurralde Antolakuntza eta Etxebizitza Arloko Zinegotzi Delegatuak 2001eko irailaren 6an eman zuen ebazpenean obra txikientzako baimena eman zela Domingo Beltran kaleko etxebizitza bateko atikoaren terrazan dagoen 14 m2ko begiratokiko estalkia eta leihateak desmuntatzeko.

Begiratokia kentzeko ebazpena eman denez, Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak horri buruzko gomendioa egiteko espedientea du. Memoria hau amaitu den momentuan kasua irekitzat eman da.

- Hutsuneak Sansomendi auzoan (erreg. zk.: 275-03)

Erreklamazioa

Gasteizko Sansomendi auzoan bizi den pertsona batek kexa bat aurkeztu du, auzo horretan hainbat hutsune daudelako: badira bost urte Orreaga kaleko 4. zk.aren parean dagoen orubea zabortegia dela, eta bertan eliza bat eta lorategiak eraikitzea aurreikusita zegoela; era berean, aldamenean haurrentzako jolas-gune bat desmuntatu zen; Antonio Machado kalean autobus geltoki bat dago Erdi parean; gainera, badago oinezkoentzako kale bat ere, "Iratxeko Monasterioaren kalea", taberna horretan amaitzen dena. Geltoki parean oinezkoentzako

pasabidea jartzeko eskatu du, jendeak ez dezan errepidea lorategietatik zehar gurutzatu. Kale horretan gertatzen den gauza bera gertatzen da, baita ere, Aralar Mendiaren kalera ematen duen Lizarra kaleko izkinan. Zorrostea eta Urbasa Mendiaren kaleen artean dauden elektrizitate horniketako dorreak arriskutsuak dira bizilagunentzat, eta azkenik, autobus lineei dagokienez, eskatu du gaia ondo aztertzeke, auzoak erdigunearekin bakarrik baitaude lotuta, eta maiz aztertzen den gaia da gainera. Zehazki, Katedrala-Txagorritxu autobus linea, Katedraleko norabidean doanean, 7 eta 8 lineen geltokietan gera daiteke, Antonio Machado kalean, ibilbidea amaitzeko.

Analisia

Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak elkarrizketa egin du erabiltzailearekin, eta bertan kexa idatzi eta sinatu du; ondoren, herritarren kexa egiaztatzeke tokian bertan azterketa egin da.

Memoria hau amaitu den momentuan, espedientea irekita geratu da kexei buruzko azterketa bat egin eta ebazpena emateke.

- Kalteak etxe baten hegalean eta erortzeke arriskua obra publikoengatik
(erreg. zk.: 279-03)

Erreklamazioa

Gasteizen bizi den emakume bat kexu da bera bizi den eraikinean fatxada konpontzeke obrak egiten ari diren bitartean kalte larriak aurkitu direlako etxearen hegalean, eta erortzeke arriskua dagoelako.

Udalak eraikina premiazko izaerarekin aztertzea eskatu du, etxearen benetako egoera konpontzeke eta neurriak hartzeke.

Analisia

Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak elkarrizketa izan du erabiltzailearekin, eta honek bere kexa aurkeztu du modu formalean. Ondoren, udal arkitektoak kalteak dituen eraikinean egindako jardueri buruzko informazioa eskatu zaio Hiri Berrikuntzarako Udal Eragintegiari.

Hiri Berrikuntzarako Udal Eragintegiak egindako txostenean jarduerak ageri dira, zehazki Udaleko teknikariek egindako ikuskapenak; era berean, adierazita dago eraikinean obrak egiten hasten direla kalte larriak dituzten eta puskatu nahiz/edo erortzeke arriskua duten egitura-

elementuak indartu eta sendotzeko helburuarekin. Udal arkitektoak eraikina behin eta berriz ikuskatu du prozesuan zehar, eraikinari obra-baimena eman zaion arte.

Txostena jaso ondoren Sindiko edo Herritarren Defendatzailea kasua aztertzen ari da, eta beraz, irekita dagoela ulertzen da.

- Oto Montal plazako mantentze-lanak (erreg. zk.: 284-03)

Erreklamazioa

Oto Montal Auzo Elkarteak Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen bulegora jo du eta jakinarazi du Oto Montal plazako mantentze-lanak arazo larria direla gizarte-laguntzako etxebizitzaren jabeentzako.

Plazari eragiten dioten hainbat arazo konpontzeko neurriak hartzeko eskatu du; lauza irristagarriak eta hautsiak, lorategien zaintza, plazako itxiturak, hezetasuna beheko pisuetan aldamenean dauden lorategien ondorioz, argi gutxi, larrialdiko ibilgailuak plazan sartzeko zailtasunak.

Analisisa

Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak elkarrizketa izan du kolektiboarekin beren kexa azaldu dezaten.

2003ko azaroaren 11an egin zen Hirigintza eta Etxebizitzako Informazio Batzordean erabiltzaileak salatutako egoeraren berri eman da. Erabilera publikoko plaza pribatua dela adierazi da, eta zer egoeratan dagoen ikusita mantentze-lanak egin behar direla. Gasteizko Udaleko Gobernuak agindu du Etxe Gorrien – horrela deitua kolore horretako eraikinen artean dagoelako plaza– barneko eremu horretako zoladuraren konponketari buruzko Txostena egingo duela; era berean, adierazi da lurzorua ona dela, baina irristagarria. Gainera, jakinarazi da garajeetan hezetasun arazoak daudela, baina lurzoru pribatua da, eta beraz, jabeen eskumenekoa. Batzorde honetan aztertzeke daude antzeko kasuak –erabilera publikoko gune pribatuak–, eta nola iritsi eremu horien jabe izatera.

Memoria hau amaitu den momentuan, espedientea irekita geratu da kexei buruzko azterketa bat egin eta ebazpena emateko.

- Erdi Aroko Azoka jartzeko ibilgailuak kentzea (erreg. zk.: 289-03)

Erreklamazioa

Herritar bat kexu da alde zaharreko Azoka jarri ahal izateko bigarren aldiz kendu behar izan dituztelako Alde Zaharrean behar bezala aparkatuak zituzten autoak, Erdi Aroko Azokarako salmahaiak jarri ahal izateko. Bi eguneko aurrerapenarekin jakinarazi bazitzaieen ere, ez zaie bidezkoa iruditzen Udalak antolatzen dituen ekitaldietan etengabe kolaboratu behar izatea trukean ezer jaso gabe; esate baterako, ez zen aurreikusi herritarrek Artium-en aparkatzeko aukera izatea. Gainera, Erdi Aroko Azoka izan ondoren, alde Zaharreko kaleak zikinak zeuden eta garbiketa-taldeak ez ziren etorri hurrengo egunean.

Analisia

Erabiltzaileak elkarrizketa izan du Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin eta bertan bere kexaren berri eman du; ondoren, "Campillo Hegoaldeko Plan Gidariari" buruzko informazioa eskatu dio Udalari, erabiltzaileak aipatu guneari eragiten dion plana baita, eta denbora gutxi barru aldatuko dena.

Hori dela eta, Sindiko edo Herritarren Defendatzailea Planaren azterketa egiten ari da, herritarrak jakinarazi duen kexari buruzko ebazpena hartu ahal izateko. Memoria amaitu den momentuan kasu hau erabakitzeke geratu da.

- Zirkulazio anabasa Alde Zaharrean (erreg. zk.: 290-03)

Erreklamazioa

Analisia

Erabiltzaileak elkarrizketa izan du Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin eta bertan bere kexaren berri eman du; ondoren, "Campillo Hegoaldeko Plan Gidariari" buruzko informazioa eskatu dio Udalari, erabiltzaileak aipatu guneari eragiten dion plana baita, eta denbora gutxi barru aldatuko dena.

Hori dela eta, Sindiko edo Herritarren Defendatzailea Planaren azterketa egiten ari da, herritarrak jakinarazi duen kexari buruzko ebazpena hartu ahal izateko. Memoria amaitu den momentuan kasu hau erabakitzeke geratu da.

- Ibilgailuentzako aparkalekuak Santa Maria kalean (erreg. zk.: 291-03)

Erreklamazioa

Herritar bat kexu da, Santa Maria kalean, zehazki 1 eta 9 zenbakien artean, etxe-atarien irteeraren kontrako aldean ibilgailuentzako aparkalekua dagoenez, eta kalearen zabalera ez denez handia, ibilgailuak atariak dauden aldetik ibiltzen direlako. Askotan, abiadura handian ibiltzen dira eta fatxadatik 30 cm. baino gutxiagora. Bide horretan kamioiak dabilzanean, fatxadetako ur-kolektoreak etengabe martxan jartzen dituzte oso tarte gutxi dagoelako.

Kalearen tarte horretan aparkaleku-plazak kentzeko eskatu du eta burdinazko zutabeak jartzeko oinezkoentzako eremua mugatzeko – izan ere oinezkoek beti baitituzte arazoak ibiltzeko–, eta are garrantzitsuagoa dena, autoren batek ez ditzan eraikinetako erabiltzaileak harrapatu ataritik ateratzen direnean. Kendu beharreko plazak bost bakarrik dira eta arriskutsua da ez kentzea.

Analisia

Erabiltzaileak elkarrizketa izan du Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin eta bertan bere kexaren berri eman du; ondoren, "Campillo Hegoaldeko Plan Gidariari" buruzko informazioa eskatu dio Udalari, erabiltzaileak aipatu guneari eragiten dion plana baita, eta denbora gutxi barru aldatuko dena.

Hori dela eta, Sindiko edo Herritarren Defendatzailea Planaren azterketa egiten ari da, herritarrek jakinarazi duen kexari buruzko ebazpena hartu ahal izateko. Memoria amaitu den momentuan kasu hau erabakitzeko geratu da.

- Aparkalekuak Esperantza kalean (erreg. zk.: 296-03)

Erreklamazioa

Herritar bat kexu da Esperantza kaleko 2. zk.ko espaloian autoak aparkatzen direlako debekatua dagoen tartean, eta arriskua sortzen dute Paloma eta Herrandarren kaleen arteko oinezkoei bidea ixten dietelako.

Erabiltzaileak eskatu du udaltzaingoak eta TAO arduradunek gune hori zaintzeko, eta espaloia brearekin konpontzeko, hondatu egin baita autoek bertan aparkatzen dutelako.

Analisia

Erabiltzaileak elkarrizketa egin du Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin, eta bertan kexa idatzi eta sinatu du. Sindikoaren bulegoak Udaltzaingoari Txostena eskatu dio Esperantza kalean, 2. zk.aren parean, debekatutako tokian aparkatzeagatik jarri diren isun eta zigorrei buruz.

Udal administrazioari informazio-eskaera egin zitzaionetik hiru hilabetera, Udaltzaingoak Esperantza kalean hartu diren neurriei buruz egin duen jarraipenaren Txostena jaso da.

Artiumeko aparkalekua jendearentzat ireki zenetik auto gutxiago aparkatzen dira oinezkoentzako gunean. Galdetutako pertsonen arabera, oso ibilgailu gutxi errespetatzen dituzte Artium aparkalekuko irteeren norabideak, eta horrela, nahitaez Herrandarren kalera irten beharrean, Frantzia kalera irteten dira. Arau-hausteak eta arazoak gehiago dira 20.00etatik aurrera, eta batez ere, asteburuetan.

Paloma kaletik Herrandarren kaleraino doan Esperantza kalearen tartean, ibilgailuek espaloi tarte txiki baten gainean aparkatzen dute, eta ondorioz oinezkoak bidera jaistera behartuak daude, ez baitute oinezkoentzako gunetik ibiltzeko tokirik. Arazoa handiagotu egiten da bidetik ibiltzera behartutakoak zaharrak, haur-kotxeekin doazen amak eta pertsona ezgaituak direnean.

Memoria hau amaitu den momentuan espedientea irekita geratu da ebazpenaren zain.

- Autobus geldialdi berriaren eskaera Euskaltzaindiaren izenean (erreg. zk.: 300-03)

Erreklamazioa

Herritar bat kexu da Euskaltzaindia Plazatik gertu autobus geldialdirik ez dagoelako, eta gaez gurutzatzeak beldurra ematen du.

Rafael Alberti kalearen hasieran eta/edo amaieran beste geldialdi batzuk jartzeko eskatu du Euskaltzaindia Plaza gurutzatu beharrik ez izateko.

Analisia

Memoria hau amaitu den momentuan espedientea irekita geratu da ebazpenaren zain.

- Desberdintasunak Gasteizko parkingetara sartzeko garaian (erreg. zk.: 301-03)

Erreklamazioa

Herritar bat kexu da Gasteizko parkingetara plaza bat lortzeko baldintzak desberdinak direlako.

Guztietan baldintza berak izatea eskatu du, parking-plaza edozein dela ere.

Analisia

Gasteizko aparkalekuek sarrera-sistema desberdinak dituzte aparkaleku-plazak erosi edo emateko garaian. Aparkaleku-plaza erosteko sistema desberdina da bakoitzarentzat erabakitako Hitzarmenaren arabera.

Memoria honen amaieran espedienteaz aztertzeke geratu da, eta beraz, kasua irekia dago.

- Hezetasuna Wellington Dukearen eta Andia Mendiaren kaleen artean (erreg. zk.: 311-03)

Erreklamazioa

Herritar bat kexu da Wellington Dukearen kalean 8, 10 eta 12etako fatxadetan, nahiz Andia Mendia kalean, 2. zk.ko fatxadan hezetasun arazoak daudelako.

Hiri Berrikuntzarako Udal Eragintegiari eskatzen diote eraikinetako sustatzaileei eskaera edo jakinarazpenen bat egiteko hezetasun arazo horiek konpon ditzaten.

Analisia

Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin elkarrizketa izan du, eta erabiltzaileak bere kexa jakinarazi eta legalki aurkeztu du.

Erabiltzailearen aldetik dokumentazio ugari jaso ondoren, kasua aztertze-prozesuan dago, eta beraz, Memoria honen amaieran kasua irekitzat jotzen da.

- Tratu atseginagoa herri administrazioetan (erreg. zk.: 316-04)

Erreklamazioa

Herritar batek dio funtzionarioek beren burua aurkeztu beharko luketela herritarrak hurbilago senti daitezen administrazioarekiko tratuan.

Analisia

Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen 30/1992 Legearen 35 b) artikulua arabera, "herritarrak Herri Administrazioekin dituzten harremanetan eskubidea dute prozedurak izapidetzeko erantzukizuna duten agintariak eta Herri Administrazioen zerbitzura lan egiten duen pertsonala identifikatzeko".

Sindiko edo Herritarren Defendatzailea kasua aztertzen ari da, eta beraz, kasua irekitzat jotzen da ebazpena eman arte.

- Biziezinako etxebizitza zikinkeria eta bizilagunei sortzen dizkieten arazoak direla eta.

Erreklamazioa

Herritar bat Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen bulegora etorri da, eta adierazi du bera bizi den jabekideen erkidegoan badagoela familia bat oso eragin txarra duena eraikinean bizi diren gainontzekoen eguneroko bizikidetzan.

Gizarte Zerbitzuek nolabait esku har dezatela eskatu du arazoa konpontzeko.

Analisia

Erabiltzaileak bilera egin du Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin, eta kexa egin eta sinatu du. Erabiltzaileak aurkeztu duen kexan idatzita dago gatazka eragin duen familiak gainontzeko bizilagunen familia-bizikidetzaz aztoratzen duela familia honen eta bizi diren etxebizitzaren higie faltagatik.

Sindikoaren bulegoa harremanetan jarri da Udaleko Gizarte Zerbitzuekin, eta hauek salatutako familia egoerari buruzko Txostena eman diote bulegoko ordezkariari. Txostenean ageri da Gizarte Zerbitzuak saiatu direla familia hori tratatzen, baina familiak berak laguntza ukatzen duela. Era berean txostenak dio familia adin ertaineko emakume batek eta 24 eta 35 urte bitarteko hiru seme osatzen dutela, eta beren eguneroko bizitzan ez dutela jarduera "arruntik" burutzen; familiak ez du jarraipen mediko normalizatu bat, familiako kideak gizartean isolatuta bizi dira, eta gainera, honek ez ditu kezkatzen; eta horrez guztiaz gain, familia ez da duen arazoaz jabetzen.

Bestalde, informazioa eskatu zaio Udaleko Osasun eta Kontsumo Sailari-Demsac, bertatik jarduerarik egin den jakiteko. Osasun eta Kontsumo Siletik-Demsac txostena bidali dute, eta bertan idatzita dago hainbat jarduera egin direla etxebizitza garbitzeko, izan ere etxebizitzan pilatutako hondakinek usaina sortzen zuten Jabeen Erkidegoan.

Udaleko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek nahiz Osasun eta Kontsumo Sailak-Demsac bidalitako txostenak ikusi ondoren, sindiko edo Herritarren Defendatzaileak hainbat bilera egin ditu Auzitegiko Fiskalburuarekin, eta dokumentu baten bidez familiaren egoeraren berri eman dio, kontuan har dadin familia horretako emakumearen balizko ezgaitasunaren kasuan. Era berean, bilerak egin dira hainbat kolektiborekin, hala nola ASAFESekin (Gaixo Mentalen elkarte), eta Jabetza Ganberarekin, ikuspegi zabalagoa izateko ebazpena emateko garaian.

Ebazpena

Dokumentazio guztia eta udal txostenak aztertu ondoren, eta hainbat kolektiborekin egindako bileretan informazio ugari lortu ondoren, Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak GOMENDIOA egin du salatutako familiaren emakumeari buruz, eta eskatu du epaileak azter dezala, eta era berean, azter ditzala hiru semeak ere, bizi duten bazterkeria-egoeragatik.

Gomendioa egin ondoren, Jabetza Ganberak auzitara eraman du familia Sindikoaren bulego honetan kexa egin zutenen izenean, eta eskatu du aipatu familiak etxebizitza utzi dezala 3 urtetan gutxienez. Memoria honen amaieran kasuari buruzko epaia emateko prest dago.

- Eliza Ebanjelista Lakuabizkarra gunean (erreg. zk.: 319-04)

Erreklamazioa

Herritar batek adierazi du Lakuabizkarrako gunean Eliza Ebanjelistaren egoitza bat prestatzen ari direla. Horrelako egoitzak baimenen bati lotuak ote dauden eta horiek betetzen al diren galdetu du.

Analisia

Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak informazioa eskatu dio Gasteizko Udaleko Ingurumen sailari, aipatu jarduera aurrera eramateko egokiak diren izapideak egin diren jakiteko.

Memoria honen amaieran espedientea aztertzeke geratu da, eta beraz, kasua irekia dago.

- Erregistratu gabeko udalaren etxebizitza (erreg. zk.: 320-04)

Erreklamazioa

Herritar batek adierazi du bere senarrak etxebizitza bat erosi ziola Udalari orain urte batzuk. Etxebizitza ez zegoen Jabetza Ganberan erregistratua, eta beraz, egungo maizterrak ezin dituzte etxearen eskriturak egin.

Etxebizitza ahalik eta denborarik laburrenean erregistratzeko eskatu du etxebizitzaren erosketa formalizatu ahal izateko.

Analisia

Erabiltzaileak elkarrizketa izan du Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin, eta kexa egin eta sinatzeaz gain, dokumentazioa aurkeztu du.

Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak bilera egin du Udaleko Ogasun Saileko Zuzendariarekin etxebizitzaren egoera legala ezagutzeko, eta honek jakinarazi dio abokatu baten bidez izapide egokiak egiten ari direla etxebizitzaren eskritura publikoak egiteko. Udalaren Sailak bidalitako informazioaren arabera, erregistratuta dauden azkeneko titularrak orain 30 urtekoak dira, Hipoteka legeak 201 eta 202 artikuluetan dioen legez. Erregistro-datuaren arabera, etxebizitzak bost jabe zituen, eta beraz, horien baimena ezinbestekoa da etxebizitzaren eskritura publikoa egiteko.

Memoria hau amaitzean espedientea irekita geratu da etxebizitzaren eskritura publikoa egiteko baimena eman behar duten etxebizitzaren aurreko jabeak ez direlako aurkitu.

- Hutsuneak Mendizorrozako igerilekuan (erreg. zk.: 321-04; 322-04)

Erreklamazioa

Gasteizko hainbat igeri elkarteetako ordezkariak Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen bulegora joan dira eta adierazi dute Mendizorrozako igerilekuak estalki zurruna duela. Era berean, kexu dira igeri elkarteek igerilekua erabili ahal izateko tasa bat aurreikusita zegoelako.

Igerilekuko estalki zurrunaren egoerari buruzko informazioa emateko eskatu du, Udalarekin hainbat elkarrizketa izan ondoren ez baitute inolako erantzunik jaso. Bestalde, elkarte horiei jartzen zaien tasa kentzeko eskatu dute, izan ere igerilekuen erabilerarako erreserbatzen diren kableen erabilerari dagozkion tasa handiagoak gehiegizkoak baitira.

Analisia

Memoria hau amaitu den momentuan espedientea irekita geratu da ebazpenaren zain.

- Adin txikikoa haurtzaindegira eramatea (erreg. zk.: 323-04)

Erreklamazioa

Herritar batek dio bere alabak garapeneko atzeratasuna eta digestio arazoak dituela, eta zunda nahiz xiringa bidez ematen diotela jaten eta edaten, eta horregatik monitorizazioa behar duela; herritarra Zaramaga auzoko Lourdes Lejarreta Haur Eskolako haurtzaindegira joan da eta kexu da ez diotelako aukerarik ematen alaba bertara eramateko, hain zuzen ere ez dutelako bere alabak behar duen monitorizazioa eskaintzen.

Monitarizazioa izateko duen eskubidea kontuan hartzeko eskatu du, bere alabak dituen beharren arabera arreta jaso dezan.

Analisia

Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak elkarrizketa izan du erabiltzailearekin, eta honek kexa egin eta sinatu du; bertan adierazi du garapen arazoak dituzten haurren monitorizaziorako profesionalak falta direla.

Haurrei eskaintzen zaien arretak hezitzaileen prestakuntzaren arabera izan behar du, hezkuntzarekin lotutako egokitzapen eta errefortzuak baitira, eta kasu jakin batzuetan haurrak/ikasgela edo haurrak/hezitzailea ratioak murriztea eskatzen du.

Hezitzaileek duten prestakuntza ez da nahikoa haur hauei behar duten arreta sanitarioa eskaintzeko, eta haurrak/ikasgela ratioa murrizteko neurriak hartu badaitezke ere, haurrak/hezitzailea ratioa murriztea ez litzateke bideragarria, izan ere ez lirateke hezitzaile gehiago beharko, pertsonal sanitario osagarria baizik (klinikako laguntzaileak, OLT-ak...)

Arlo honetan edozein erabaki hartzeko irizpidea haurraren ongia izango da. Ikuspuntu honetatik arrazoizkoa da haurraren osasuna bere hezkuntzaren aurretik jartzea. Eta beraz, mediku espezialistak ez badu haurra eskolatzeko arazorik ikusten haurra Haur Eskolara bidaltzeak arriskurik ez duelako izango da. Gainera, kontuan hartu beharko dira haurrari egokia den arreta eskaintzeko beharrezkoak diren baliabideak.

Memoria hau amaitu denean, espedientea irekita geratu da Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak ebazpena emateko zain.

- Erorketa Alde Zaharreko kale batean (erreg. zk.: 324-04)

Erreklamazioa

Herritar bat Alde Zaharreko kale batean erori zen 2002ko uztailaren 21ean, eta arrazoi horregatik kalte ordainak eskatu zizkion Gasteizko Udalari; 2003ko abenduaren 5ean jakinarazi zioten eskaera ez zela onartua izan.

Berraztertze errekurtsoa eta kalte-ordaina ukatzearen arrazoia berriro aztertze eskatu du.

Analisia

Memoria hau amaitu den momentuan espedientea irekita geratu da ebazpenaren zain.

- Etxebizitza trukaketa Zaharrentzako Zentro baten eraikuntza dela eta (erreg. zk: 235-03; 325-04; 326-04)

Erreklamazioa

Bi herritarrek adierazi dute Hiri Berrikuntzarako Gasteizko Udal Eragintegiarekin adostua zutela etxebizitza trukaketa, eta gelditu egin dela.

Gaia zertan den jakin nahi dugu, nor den patioaren jabea; eta trukatzeari dagokionez, erosteko prest egongo lirateke Jabekideen Komunitatearen %60 ados balego. Era berean Jabetza Horizontalaren Legearen arabera dituzten eskubideei buruzko informazioa eskatu du.

Analisia

Gasteizko Udalak Arriagako Atea kalean Zaharrentzako Zentroa eraikitzea aurreikusi du. Zentroaren eraikuntzak alboko etxebizitzetara eragiten die, eta horregatik, Gasteizko Hiri Berrikuntzarako Udal Eragintegia kaltetutako bizilagunekin elkarrizketatu da euren etxebizitza trukatzeko.

Bizilagunek uste dute etxebizitza trukeari buruzko negoziazioak ez direla behar bezala burutzen ari, eta horregatik Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen bulegora jo dute bitartekaritza lanak egin ditzan. Hori dela eta, Sindikoaren ordezkaria entzule moduan joan da Udalak etxebizitzaren trukaketa negoziatzeko kaltetutako herritarrekin egindako bilerara.

Memoria hau amaitu den momentuan oraindik ez da akordiorik lortu, eta beraz, kasua irekita geratu da.

- Irregularitasunak 2003ko Udaltzaingorako EPEan (erreg. zk.: 332-04; 333-04; 334-04)

Erreklamazioa

Gasteizko Udalak 2003rako egin duen Udaltzaingo plazen eskaintza dela eta, oposizioz gisa aurkeztu diren hainbat herritarrek adierazi dute Udaltzaingorako 2003ko EPEko oinarrietatik 4.3 eta 4.4 oinarriak urratu direla, eta berdintasun printzipioa hautsi dela, 4. ariketako probak berdina baitziren 5 egunetan, eta beraz, probak ondorengo egunetan egin zituzten oposizioz gileek ezagutzen zituzten erantzunak.

Analisia

Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak elkarrizketak egin ditu oposiziogileekin, ebazpena eman baino lehen ahalik eta informazio gehien izateko; eta era berean, oposiziogileek beren kexaren berri eman diote. Gero, Udaltzaingorako 2003ko EPE-ko 2. ariketako frogan eskatzen zenari buruzko txostena eskatu dio Sindikoaren Bulegoak Funtzio Publikoaren Sailari, eta galdetu zaio, baita ere, egia al den deialdi horretan barne-sustapenerako talde berean egin diren frogak berdinak direla, oposiziogileek adierazi duten lez.

Funtzio Publikoaren Sailak bidalitako txostenaren arabera, frogaren hirugarren ariketaren xedea deialdi honetara aurkeztu direnen gaitasun intelektuala neurtzea da, "Adimen Orokorra" eta "Ahozko Arrazoiketa". Era berean, adierazi da probak egiteko garaian, aurkeztu direnak exekuzio-taldetan banatzeak ez duela inolako eraginik talde barruan lortutako emaitzetan, horrela frogatu baita hipotesi alderaketako proba estatistikoetan.

Funtzio Publikoaren sailak txostena bidali eta gero, non adierazten den ez dela proben filtraziorik egon, Alkate jaunak hedabideetan adierazi du balitekeela probetan zenbait akats egin izana, eta hortaz, Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen esku geratzen da EPE-an egindako irregulartasunak zein izan diren aztertzea.

Memoria hau amaitu den momentuan, espedientea irekita geratu da ebazpena emateko zain.

- Elebakartasuna Arka Plazako lurpeko aparkalekuetan dauden karteletan (erreg. zk.: 340-03)

Erreklamazioa

Herritar bat kexu da Arkako lurpeko aparkalekuetan dauden ohar guztiak gaztelaniaz bakarrik daudelako.

Euskaraz ere jartzeko eskatu du.

Analisia

Memoria honen amaieran espedientea aztertzeke geratu da, eta beraz, kasua irekia dago.

- Udalak genero (emakumeak) indarkeriari buruz egin duen kanpainaren aurka (erreg. zk.: 341-03)
(erreg. zk.: 341-03)

Erreklamazioa

Herritar batek azaldu duen kexaren arabera, Gasteizko Udalak indarkeriaren biktimei (emakumeak) arreta eskaintzeko egin duen kanpainak oso modu nabarmenean ezkutatu eta estaltzen du gizarte honetan *mobbing*-aren biktimek jasaten dutena.

Arazo hau konpontzeko Udalarari giza baliabideak exijitzeko eskatu du.

Analisia

Memoria honen amaieran espedientea aztertzeke geratu da, eta beraz, kasua irekia dago.

4. AZTERTZEKO DAUDEN GAIAK

Jarraian, zenbait gai proposatzen dira, eta horiek datorren urtean aztertzeko asmoa dago zuzendu litezkeen zenbait hutsegite atzeman direlako, Gasteizko herritarrari zerbitzu hobea emateari begira.

- 1) **Erabilera publikoa duten zona pribatuak;** arazo hau oso zabaldua dago Gasteizko hiri guztian barrena. Kexa ugari jasotzen ari gara kaleetako eta hiriko lorategietako garbitasun eta zainketa faltagatik. Zona horiek, printzipioz, titularitate pribatua dute, baina herritar guztiek erabiltzen dituzte. Ildo beretik, aipatutako zona horietan hiri-altzariak eta zaborra biltzeko edukiontziak jartzea falta dela ikus daiteke, Gasteizen herritar guztiek osasuna eta higiena arnastea nahi badugu bederen.
- 2) **Hiriguneak oinezkoentzat bihurtzea;** aurreko txostenean ere aipatu zen gai hori, eta oraingoan ere aztertzea merezi duen gaia da. Aurten, asmo berarekin, Gasteizko Udalarari Gomendio Nagusi bat egin zaio hirian bizikletak erabil daitezela sustatzearen inguruan. Beste alde batetik, Gasteizko kaleetan hainbat obra jasan behar izan ditugu, eta horiek

eragin nabarmena izan dute hiriko trafikoan. Horrexegatik, udal administrazioak alternatibak eskaini behar dizkie herritarrei, eta bide batez, kaleetako obra desberdinak aldezturik jakinarazi, hirian barrena oztoporik gabe ibil gaitezten. Gai hori Sindikoaren Bulego honetan aztertzeko geratu da.

- 3) **Kaleetako Toponimia;** Gasteizko kaleen izenek hainbat aldaketa izan dituzte beren historian zehar; Gasteizko kaleen akatsen zuzenketa eta horien euskarazko izenak proposatutako arazoetako bat da, erakunde eta herritar guztiek hiriko kaleen izenak erabiltzerakoan batasun bat ziurtatzeari begira.
- 4) **Administrazioa herritarrengana hurbiltzea;** Gasteizko herritarrek oso urrun ikusten dute udal administrazioa. Herritarrek arreta egiten zaiela sentitu dezaten eta tratua hurbilagokoa izan dadin, Udal Administrazioa herritarrengana hurbiltzeko kanpainak egin behar dira.
- 5) **Kexa eta iradokizunen Batzorde Bereziarekin koordinatzea, Herria Modernizatzeke Lege Berrira egokitzeko.**

Aurreko Txostenean aurtengo aztergai gisa aipatutako beste zenbait gai, hala nola **Prostituzioa;** esan beharra dago zenbait izapide egin dituela Sindikoaren Bulego honek gai horren inguruan. Hainbat hartu-eman izan dira Bilboko Udalarekin, bertan prostituzio-lokalei buruzko Ordenantza bat daukatela kontuan izanik. Alde horretatik, zenbait elkarrizketa egin dira prostituzioaren gaia lantzen duten Euskadiko hiru elkarteekin, bereziki Gasteizko Gizarterako Elkartarekin, hiri honetan Bilbokoaren antzeko araudi bat sortzeak nolako eraginak izango lituzkeen aztertzeko asmoz. Gasteizko Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen iritziz, horrelako ordenantza batek ez lioke ezer ekarriko Gasteizko biztanleriari, batik bat ez

dirudielako prostituzioak inolako arazorik sortzen duenik gure hirian; gainera, gai hori udal eremuaz harantzago doa.

Adierazi beharra dago, gai honekin loturik, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Sailburuak Sindiko edo Herritarren Defendatzailea eta bere laguntzailea gonbidatu zituela Giza Eskubideen René Cassin I. Sariaren banaketa-ekitaldira, eta sari hori, hain zuzen ere, prostituzioan diharduten emakumeen alde lan egiten duen Madrilgo “Etaira” kolektiboari eman zitzaion.

Azkenik, azpimarratu behar da aztertu den beste gai bat **ibilerraztasunarena** dela, eta hori, Sindikoaren Bulego honetan hasi ginen aztertzen aurreko Txostenean. Gasteizko Udalaren Ibilerraztasun Kontseiluan parte hartuz gauzatu da. Bertan, parte hartzen duten kolektibo desberdinek oso ekarpen landuak eta ongi funtsatuak egin ohi dituzte, minusbaliotasunak dituzten pertsonen irispide hobeak eta erraztasun handiagoak eskaintzeko helburuz, eta aldi berean, ibilerraztasunerako eta oztopo arkitektonikoak, hirigintzakoak eta komunikaziorakoak ezabatzeko maiatzaren 5eko 1/1998 Legea egokitzen joan daitezkeen. Alde horretatik, ikus daiteke udal administrazioak berak kolektibo horiek proposatutako iradokizunak onartzen dituela, betiere horiei konponbide bat ematea bideragarria izanez gero. Halaber, Bide Publikoaren Zerbitzuak Gasteizko hiriaren Ibilerraztasunerako Plan Gidari bat sortu du, oraingoz ibilerraztasun-baldintzak betetzen ez dituzten udal eraikin guztiak eta beste era bateko higiezinak ere lege berrira egokitzeko asmoz.

5. EGINDAKO ANALISIAK

5.1. Gasteizko Udaleko Gizarte Langileak.

Gasteizko Udaleko Gizarte Langileei egindako Galdetegiaren emaitzak (2003ko apirilaren 4an)

Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak jardunaldi batzuk antolatu zituen Gasteizko Udaleko Gizarte Langileekin 2003ko apirilaren 4an, profesional horiek egiten duten lana sakontasun handiagoarekin ezagutzeko eta horiei Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Bulegoan egiten ari diren lana ezagutzera emateko, udal zerbitzuek hobeto funtzionatzea lortzeari begira. Jardunaldi horietan, galdetegi bat banatu zitzaion Gizarte Langileei, beren iradokizunak egiteko eta beren lantoki den Zerbitzuaren funtzionamendu hobetarako beharrezko ikus dezaketen guztia jakinarazteko.

Guztira 63 galdetegi banatu zitzaizkien gizarte-langileei, eta horietatik, % 43k bakarrik erantzun du (hain zuzen ere, gaztelaniazko 26 galdetegi eta euskarazko 1en erantzunak jaso ziren)

Galdetegi horretan 13 galdera izan ziren, Sindikoaren Bulego honek hobeto ezagutu zezan profesionalak nolako lana egiten duten beren jardunean. Jarraian, horiek guztiak azaltzen dizkizuegu:

1.- Zure ustez Gasteizko Udaleko Gizarte Zerbitzuek zein alderdi hobetu dezakete, eta nola?

- Heziketa berezia. Zein? _____
- Baliabide Teknikoak. Zein? _____
- Giza Baliabideak (pertsonek) _____
- Instalazioak _____

- Lan-baldintzak, ordutegiak _____
- Segurtasuna _____
- Beste batzuk _____

2.- Zure ustez, zerbitzu egokia eskaintzen ari al zaie herritarrei Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan dauden giza baliabideen bitartez? Zergatik?

- BAI
- EZ, Zergatik?

3.- Zure ustez, Gasteizko Udalak kontuan hartzen al ditu Gizarte Zerbitzuetako teknikarien jardunari eragiten dioten segurtasun-arazoak?

- BAI
- EZ.
Zergatik?

4.- Zure iritziz, ulertzen al du herritarren gehiengoak nolako zailtasunak dituzuen zuen jardunean, eta baloratzen al zaituztete?

- BAI
- EZ
Zergatik?

5.- Aipa itzazu Gizarte Zerbitzuen 3 abantaila eta 3 eragozpen gutxienez.

Abantailak

- 1.-
- 2.-
- 3.-

Eragozpenak

- 1.-
- 2.-
- 3.-

6.- Zure ustez, ba al dago Zerbitzura joaten den herritarraren kasu baten lan-prozesuan eragiten duen faktorerik (maila teknikoko, politikoko, sozialeko... faktorerik)?

7.- Zure ustez, zure Sail edo Zerbitzuak harreman onak al ditu Gasteizko Udaleko gainerako Departamentu edo Zerbitzuekin? Eta Sailaren edo Zerbitzuaren barruan?

BAI

EZ, Zergatik?

8.- Zure taldean lan egiteko giro egokia al duzue?

BAI

EZ, Zergatik?

9.- Gizarte Zerbitzuek keak jasotzen al dituzte Gasteizko udaleko herritarren partetik zuen jarduerekin loturik?

10.- Pertsonalki eragiten al die teknikariei Gizarte Zerbitzuetako erabiltzaileek egiten duten presioak? Nola?

11.- Zein eratako keak jasotzen dituzue herritarren partetik zuen eginkizunak betetzean?

12.- Zure iritziz, zein arrazoi dago erabiltzaileen hitzorduak atzeratzeko?

13.- Iradokizunak

ERANTZUNAK

GASTEIZKO UDALEKO GIZARTE LANGILEEI EGINDAKO GALDETEGIA (2003ko apirilaren 4an):

1.- Zure ustez Gasteizko Udaleko Gizarte Zerbitzuek zein alderdi hobetu dezakete, eta nola?

- **Heziketa berezia:** 56%): Informatika, legeria, inmigrazioa (testuen itzulpena), eta neurri txikiagoan, haurtzaroa eta emakumeen aurkako indarkeria.

- **Baliabide Teknikoak (5/27) 19%):** Bisitentzako telefono mugikorra, eta zuzenean eskuragarri dauden telefonoak, CD duten ordenagailu berriak.
- **Giza Baliabideak (pertsonala) (21/27): 78%):** administrazio-pertsonal gehiago, lanaldi-murrizpena, oporrak.
- **Instalazioak (21/27): 78%):** arretarako bulego gehiago eta baldintza hobeak (konfidentzialtasuna, segurtasuna, higiena...), argiztapena, aireztapena, ibilerraztasna, giltzik gabeko igogailua, altzariak, garbigelak...
- **Lan-baldintzak, ordutegiak (6/27:%22)** presioa erabiltzaileen eta buruen partetik.
- **Segurtasuna (23/27): 85%):** erasoen aurkako segurtasun-neurri handiagoak, poliziaren presentzia handiagoa, bulego desegokiak, leihatilak jartzea.
- **Beste batzuk:** datuak babestea eta espedienteen konfidentzialtasuna, informazio-zerbitzua (lehen arreta), herritarrei gure lanari buruzko informazioa ematea.

2.- Zure ustez, zerbitzu egokia eskaintzen ari al zaie herritarrei Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan dauden giza baliabideen bitartez? Zergatik?

BAI: 5/27: 19%. EZ: 22/27: 81%

Zergatik?

-Zerbitzuak gainezka egin du.

-Esku-hartzeak berandutu egiten dira.

-Gehiegizko burokratizazioa; izapide-kopurua oso handia da.

-Giza Baliabideak eta bitartekoak urriak.

-Kasuarentzako behar den denbora ez da erabakitzen (arretarako eta gizarte-lanerako denbora erreala mugatua da, esku-hartzeak, diagnostikoa, jarraipena,...)

-Hitzorduak oso epe luzeekin finkatzen dira.

-G.L. bakoitzeko familia-kop. oso handia da, eta horrek berandutzea eta dedikazio txikiagoa dakar.

3.- Zure ustez, Gasteizko Udalak kontuan hartzen al ditu Gizarte Zerbitzuetako teknikarien jardunari eragiten dioten segurtasun-arazoak?

BAI: 8/27: 30 %

EZ: 19/27: 70%

Zergatik?

- Ez da zuzena uste izatea segurtasun-neurriak –poliziaren presentzia– politikoki zuzena ez denik.
- Herritarren eskubideak langileen eskubideen gainetik daude oraindik ere.
- Arau eta zigorren beharra.
- Ez da ohiz kanpoko neurririk prestatzen.
- G.L.ei eraso egiten dieten ekintza ugari gertatzen ari dira (laneko bajak, BABESIK EZA onartzen duten epaiketak).
- Kasu zehatzetarako segurtasuneko pertsonal iraunkorra eta ez behin-behinekoa behar da.
- Plan orokor bat falta da (prebentzioa).

4.- Zure iritziz, ulertzen al du herritarren gehiengoak nolako zailtasunak dituzuen zuen jardunean, eta baloratzen al zaituztete?

BAI: 3/27: 11%

EZ: 23/27: 85%

Ed/Ee: 1/27: 4%

Zergatik?

- Zerbitzuak ospe txarra du (estereotipoetan eta aurreiritzietan oinarritutako ikuspegia, laguntza ekonomikoekin lotua).
- Ez da ezagutzen gure lanaren norainokoa; benetako funtzioak ez dira ezagutzen - prestazioak izapidetu besterik ez du egiten.
- Den-dena G.L.aren menpe dagoela uste da. Herritarrak eskubideak baino ez ditu.
- “Kontrolako agente” gisa ikusten da.
- Kolektibo jakinei –atzerritarrei– bakarrik mesede egiten zaiela uste da.

- Irtenbidea berehala nahi dute.
- Ez dute ulertzen zerbitzuaren funtzionamendua.

5.- Aipa itzazu Gizarte Zerbitzuen 3 abantaila eta 3 eragozpen gutxienez.

ABANTAILAK

- Aitzindariak diziplina arteko azterketan: deszentralizazioa.
- Ibilbide luzea esku-hartzeak eginez.
- Tratua eta arreta.
- Bitarteko ekonomikoak; baliabide ekonomikoak (aurrekontua)
- Pertsonalaren kualifikazioa: profesionaltasuna, esperientzia.
- Gizarte Baliabideak.
- Erabilgarritasuna.
- Gizarte-laguntzak benetan behar dituen jendeari eskaini ahal izatea: arazoei arreta orokorra egitea.
- Taldeko lana.
- Herritarrarengandik hurbil egotea.
- Beste sailekin harreman onak izatea.

ERAGOZPENAK

- Komunitatearekin loturak apurtuta, zailtasunak sareko lanean.
- Zerbitzuak gainezka egin du (erabiltzaileak).
- Pertsonalaren urritasuna edo eginkizunen banaketa; pertsonala txandakatzea.
- Ordutegiak.
- Gizarte Zerbitzuen gehiegizko balioaniztasuna.
- Herritarren eta erabiltzaileen kanpo-irudi negatiboa.
- Denbora eta ahalegin asko inbertitzen da administrazio-lanetan.
- Gorabehera politikoen menpe daude gaiak.

- Burokrazia-lan gehiegi.
- Dezentralizazioa.
- Segurtasun-falta.
- Gehiegizko hierarkia.
- Erabiltzaileen eskakizun-maila.
- Erabiltzailearen arretarako denbora mugatua.
- Gehiegizko hierarkia.
- Espazio fisikoa ez da nahikoa.
- Instalazio desegokiak.

6.- Zure ustez, ba al dago Zerbitzura joaten den herritarren kasu baten lan-prozesuan eragiten duen faktorerik (maila teknikokoa, politikokoa....)

- Hizkuntz arazoak (atzerritarrak).
- Interferentzia politikoen arazoak (ez dute ezagutzen Gizarte Zerbitzuen funtzionamendua).
- Beste erakunde batzuen eskakizunak (Caritas, SOS,...), beharren irizpidearen balorazio profesionala alde batera utziz.
- Lege arloko baldintzatzaileak (legeak, ordenantzak,...), sailaren erabakiak.
- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen errealitatea baino aurrerago doan administrazio politikoa.

7.- Zure ustez, zure Sail edo Zerbitzuak harreman onak al ditu Gasteizko Udaleko gainerako Sail edo Zerbitzuekin? Eta Sailaren edo Zerbitzuaren barruan?

BAI: 13/27: 48%

EZ: 12/27: 41%

Ed/Ee: 1/27: 4%

Zergatik? (ezezkoa baldin bada)

- Sailen eta Zerbitzuen artean gatazka “historikoak” egon izana.

- Komunikazioa ez da beti arina (interes politikoak eta pertsonalak).
- Ez dago koordinaziorik beste zerbitzuekin; zerbitzuak ez dira ezagutzen.
- Koordinazio-zailtasunak eta irizpide komunak finkatzea.
- SOS ARRAZAKERIAN erroldatutakoen balizko poltsa bat egotea.

8.- Zure taldean lan egiteko giro egokia al duzue?

BAI: 15/27: 56%

EZ: 11/27: 41%

Ed/Ee: 1/27: 4%

Zergatik?

- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako arduradunaren arabera dago.
- Lana aurrera ateratzeko presio gehiegi dago.
- Espazio fisikoa ez da egokia jendeari arreta egiteko.
- Taldekako pertsonen, beren heziketa eta jarreraren eta, bereziki, buru eta arduradunen arabera dago.
- Ez dago irizpide profesionalaren aitorpenik zenbait buruzagiren partetik.
- Lanaren hierarkizazioa eta fiskalizazioa.
- Lanaren banaketa desorekatua, antolamendu txarra.

9.- Gizarte Zerbitzuek kexak jasotzen al dituzte Gasteizko udaleko herritarren partetik zuen jarduerekin loturik?

BAI: 21/27: 78%

EZ: 3/27: 11%

Ed/Ee: 3/27: 11%

Zein?

- Hitzordua berandutu, izapideak.
- Laguntzen kobrantza berandutu.
- Gizarte Zerbitzuen inguruko errezeloak (administrazioa)
- Laguntzak ukatu.
- Kontu partikularrak kitatzea.
- Etorkinei laguntza asko ematen zaizkie.

10.- Pertsonalki eragiten al die teknikariei Gizarte Zerbitzuetako erabiltzaileek egiten duten presioak? Nola?

BAI: 25/27:93%

EZ: 1/27: 4%

Ed/Ee: 1/27: 4%

Nola?

- Lanaren saturazioa, zenbait erabiltzaileen gehiegizko eskakizunak; gogobetetasun profesionalik eza, gailkarga.
- Estresa.
- Beldurra erasoei, mehatxuei,...
- Neke psikologikoa.
- Antsietatea, depresioak.
- Presioa, segurtasun eza, erruduntasuna.
- Irizpide-desberdintasuna (erabiltzailearen eta teknikariaren artean)

11.- Zein eratako kexak jasotzen dituzue herritarren partetik zuen eginkizunak betetzean?

- Denbora gehiago behar da kasua aztertzeko.

- Erabiltzaileen itxaropenak geroz eta handiagoak dira, eta ez da ondoegi ulertzen Administrazioaren funtzionamendua.
- Eskaera gehiegi dago eta erantzunak berehala nahi dira.
- Errespetu-falta.
- Agresibitatea.
- Lana ez da ulertzen eta ez da eskertzen.
- Informazioa manipulatzeko dute dirulaguntzak erdiesteko.
- Prozedura ez da ulertzen; hori arautzen duen administrazio-prozedurari buruzko eta prestazioen izapideek eskatzen dituzten lanpostuei buruzko informazioa falta da.

12.- Zure iritziz, zein arrazoi dago erabiltzaileen hitzorduak atzeratzeko?

- Eskaera-kopurua handitzea (erabiltzaileak) eta hori ez dator bat pertsonalak izan duen igoera proportzionalarekin.
- Pertsonal teknikoa falta da.
- Gizarte-langileei dagokienez, administrazio-izapideen kopurua areagotu egin da. administrazioko eta kudeaketako lanak astundu egin dira edozein izapidetan. Gehiegizko burokratizazioa.
- Instalazio desegokiak.
- Gizarte-langileen eginkizunak gehiegi gainbegiratu dituzte Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako arduradunek.
- Antolamendurik ez dago izendatutako eginkizunetan.
- Gizarte Zerbitzuetan heziketarik jaso ez duten administrazio-laguntzaileak.
- Urteko une jakinetan lana pilatu egiten da (laguntzak berritzeko garaian).
- Erabiltzaile atzerritarrek gora egin dute, eta beste hizkuntza batean mintzatzen direnez, luzatu egiten dira arretarako denborak.

13.- Iradokizunak

- Administrazioko pertsonala ugartzea eta laguntzaileen maila profesionala igotzea, administrari izateraino, betetzen dituzten eginkizunekin bat etorri.

- Gizarte-langileei administrazio-lanen zama arintzea.
- Langile-kopurua beharren arabera gehitzea.
- Diziplina arteko lana bultzatzea, beste profil profesional batzuei ahalik eta etekinik handiena ateratzeko (psikologoak, administrazio-laguntzaileak, hezitzaileak,...).
- Prebentziozko esku-hartzeak bultzatzea, komunitate-eremuan.
- Langile-kopurua gehitzea: administrariak eta gizarte-langileak.
- Egiten diren gomendioen jarraipena egitea.
- Profesional bakoitzaren eginkizunak berrikusi eta eginkizunak berriro banatzea.
- Pertsona erasokorrei arretarik ez egitea.
- Instalazioen baldintzei buruzko txostenak egitea eta gomendioak aplikatzea.
- Eginkizunak beren gain hartuko dituzten zerbitzu espezializatuak indartzea.
- Gomendioak aplikatzea, Arartekoarenak esaterako, Gizarte Zerbitzuetan.
- Instalazioak hobetzea.
- Erasoei buruzko arautegia eta era askotako arazoak dituzten familiak.
- Zerbitzu espezializatuak bultzatzea eta eginkizun gehiago beren gain hartzea, ez baitiete oinarriei lanen zama arintzen.
- Abagune politikoetatik ihes egitea.
- Hitzorduen itzarote-denborak laburtzea.
- Prestazio ekonomikoen izapideak bereiztea.
- Instalazioak egokitzea, konfidentziasunerako berme gehiago ematearren.
- Berritze guztiak egun berberetan ez pilatzea; epeen malgutasuna.
- Prestazioei buruzko izapideak horretarako prestatutako bulego batera aldatzea.

5.2. Gasteizko Udaleko Herritarren Arretarako Zerbitzua (010)

Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak Udaleko zerbitzuak sakontasun handiagoz ezagutzeko lanarekin jarraitzen du, eta bide batez, bere horretan eusten dio Sindiko edo

Herritarren Defendatzailearen Bulegoa ezagutzera emateko xede horri, Gasteizko herritarrari zerbitzu hobea eskaintzeari begira.

Horrexegatik, Herritarren Arretarako Zerbitzuko arduradunekin –010 izeneko horrekin– izandako elkarrizketa batean, Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak informazioa jaso du Zerbitzu horrek bere eguneroko lana betetzeko duen moduari buruz: nolako aholkuak eta informazioa eskaintzen dizkioten herritarrari, Zerbitzu horrek nolako iradokizunak egiten dituen funtzionamendua eraginkorragoa izan dadin,...

Herritarren Arretarako Zerbitzu edo 010 izeneko horretara jotzen du lehenik herritarrak, eta bertan erantzuten zaie herritarren galdera edo kexei, edo, baita ere, Gasteizko Udalaren jarduera-eremuaren barruan dauzkaten eskubide eta interes legitimoekin loturikoei.

Herritarren Defendatzaile edo Sindikoaren Arautegiaren arabera, 18. artikuluan, hark bete beharreko eginkizunak honela finkatzen dira:

*“herritarrek Gasteizko Udalarekin, Udal Sozietate Anonimoekin, Udal Erakunde Autonomoekin, patronatuekin, fundazioekin eta Udal Administrazioaren parte diren gainerako erakundeekin dituzten harremanetan **aholkularitzarako, bitartekaritzarako, jakinarazpenetarako eta herritarrekin batera esku-hartzeko** zerbitzu bat eskaintzea da bere eginkizuna”.*

Beste alde batetik, 010 zerbitzuak Herritarren Arretarako Zerbitzua eskaintzen du, eta horren barruan sartuko litzateke herritarren eta dagokien udal zerbitzuen artean komunikazioa eta informazioa trukatea. 010 zerbitzuaren kalitatea eta azkartasuna bere komunikazio-eginkizun horretan oinarritua dago hain zuzen ere, eta horrexegatik da hain garrantzitsua 010 zerbitzuaren eta Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen arteko koordinazioa, batez ere proposatutako gaiaren konplexutasuna dela eta, edo eskatzailea behin eta berriz pozik geratu ez delako, orientazio sakon bat egitea beharrezkoa denean, eta are, gomendio bat egitea egoki denean zenbait administrazio-jarduera aldatu ahal izateko.

Beste alde batetik Sindiko edo Herritarren Defendatzailearentzat oso baliagarriak dira 010 zerbitzuaren hileko txostenak, esku-hartzeen eta aztertzeke dauden kasuen zerrendak jasotzen baitituzte.

Txosten honen amaieran, lehen hartueman bat egin zen Zerbitzuko arduradunekin, eta aurrerantzean, bi Zerbitzuen arteko koordinazio-lan bat burutuko da, bai Herritarren Arretarako

Zerbitzu edo 010 Zerbitzuaren eta bai Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Bulegoaren artean, herritarrek aurkeztutako kexak lehenbailehen aztertu ahal izan daitezten.

5.3 Kexen eta kontsulten estatistika-azterketak 2003-2004 epealdian

2003-2004KO TXOSTENAREN ESTATISTIKA-DATUAK

Sindikoaren Bulego honen helburua kalitatezko udal zerbitzu bat mantentzea da, Gasteizko hiriko erabiltzaile nahiz herritarrek hala eskatu dutenez gero.

Ondoren datorren informazioan, Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Bulegoan 2003ko martxoaren 1etik 2004ko otsailaren 29ra bitartean jasotako kexei dagozkien estatistika-datuak aurkeztuko ditugu.

Azpimarratu beharra dago **jarraian aurkezten ditugun datu guztiak ikuspegi finko batez adieraziak daudela, hau da, zenbait kasutan gure esku-hartzea ez dela norabide bakarrean gauzatu**. Horregatik, ebazpen bakarra izango dugu, kexa bat baino gehiagorentzako baliagarria, edo bestela, kexa batentzat hainbat jarduera proposatu dira, erabiltzaileak azaldutako arazo horri irtenbidea emateko. Beste alde batetik, estatistika-datuetan, ebazpen bakoitza Sail bakar batean bildua dago, eta beraz, ebazpen batek Sail bati baino gehiagori eragin diezaioke, nahiz eta estatistika horiek horietako batean bakarrik agertuko diren zenbakien bidez adieraziak.

Txosten honen hasieran adierazi den bezala, **162 espediente berri** zabaldu dira 2003ko martxoaren 1etik 2004ko otsailaren 29ra bitartean.

Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Bulego honek **342 espediente** ditu guztira bere artxiboan 2004ko otsailaren 29an, eta hain zuzen ere, egun horretan amaitu zen 2003-2004 Txosten hau. Horrenbestez, ulertu beharra dago, Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen

Bulegoa sortu zenetik bigarren ekitaldia den honetan, ez direla 2003-2004 ekitaldian abian jarritako espedienteak bakarrik aztertu, baizik eta, baita ere, irekita dauden eta aurreko Txostenean islatuta egonik oraindik ebazteko zeuden gainerakoak.

2003ko martxoaren 1etik 2004ko otsailaren 29ra bitartean, epealdi hori hartzen baitu Memoria honetarako prestatu den lanak, hainbat **jarduera** egin dira; guztira, **856 asistentzia** gauzatu dira telefono-deien bidez bulegoan bertan, eta neurri txikiagoan, hainbat posta elektronikoko bidali dira. Egindako asistentzia horietatik guztietatik, hau da, 856 asistentzietatik **250 kontsulta** gauzatu dira, eta **36 ikuskaritza** egin dira azterketaren xede zen tokian.


Egindako asistentzia horietatik guztietatik, hau da, **856 asistentzietatik 250 kontsulta** gauzatu dira, eta horietako batzuk kexa bihurtu dira. 176 kontsulta egin dira telefono bidez eta 143 pertsona zuzenean aurkeztu dira bulegoan, eta neurri txikiagoan, bost bat jaso dira posta elektronikoko bidez eta ohiko posta bidez.

1) **Kexa-kopurua hilabeteka sailkatzen dugu:**

2003-2004ko ekitaldi honetan guztira 162 espediente abiarazi dira. Kontuan izan beharra dago, ekitaldi honetako espediente berriez gain, aurreko ekitaldian ebatzi gabe zeuden espedienteak ere aztertu direla, guztira 45. Horrenbestez, ekitaldi honetan, **guztira 207 espediente aztertu dira.**

Jarraian, Sindikoaren Bulego honetan jasotako kexa berrien kopurua erakusten dizuegu hilabeteka banaturik, 2003ko martxoaren 1etik hasi eta 2004ko otsailaren 29ra bitartean, eta azken data horretan amaitu da 2003-2004 Txostena, eta aldi berean, hilero amaitutzat jo diren espedienteen zerrenda.

Hilabete a	Espediente berriak	Amaitua k
03-mar	21	4
03-api	15	4
03-mai	20	4
03-eka	16	12
03-uzt	18	23
03-abu	0	2
03-ira	9	12
03-urr	7	17
03-aza	17	11
03-abe	11	18
04-urt	20	12
04-ots	8	29
GUZTIR A	162	148



Zenbakien bidez ikus daitekeen moduan, ekitaldi berri honetan abiarazi diren espediente guztiak amaitutako espediente guztiekin konparatzen baldin badira –hor ez lirateke sartuko ekitaldi honetan abiarazitako espedienteak bakarrik, baizik eta, baita ere, oraindik ebatzi gabe zeuden aurreko ekitaldietakoak–, kasuen % 91,35 ebatzi da (ikus zerrenda Grafikoa).

2) 2003-2004 ekitaldi honetan abiarazitako espediente guztiak bereizten ditugu, Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen aurrean kexa bat egin duten Gasteizko auzoetako herritarren bizitokiaren arabera.

Auzoa	Espediente kop.	Ehuneko a
Adurtza	2	1%
Ehari-gobeo	1	1%
Arana	5	3%
Aranbizkarra	4	2%
Ariznabarra	12	7%
Arriaga-Lakua	6	4%
Alde Zaharra	26	16%
Koroapena	8	5%
Babesgabeak	2	1%
Anglo	3	2%
Pillare	14	9%
Zabalgunea	19	12%
Judizmendi	6	4%
Lakuabizkarra	8	5%
Lovaina	3	2%
Mendizorrotza	3	2%
San Kristobal	2	1%
San Martin	7	4%
Sansomendi	10	6%
Santa Luzia	3	2%
Santiago	3	2%
Txagorritxu	3	2%
Zaramaga	5	3%
Landa g. eki.	4	2%
Landa g. ipar eki	2	1%
Landa g. hego eki	1	1%
GUZTIRA	162	100%


Taula honetan Gasteizko eremu desberdinetatik jasotako kexa guztiak ikus daitezke. Nabarmendu beharra dago bulego honek kexa-kopururik handiena honako auzoetako herritarrengatik jaso dituela: **Alde Zaharra** –guztira 26 kexa–, **Zabalgunea** –guztira 19 kexa– eta **Pilar** –guztira 14 kexa–.

3) Kexak generoaren aldagaiaren arabera bereizten ditugu:

Jarriaian, beren kexak Sindikoaren Bulego honetan aurkeztu dituzten erabiltzaileak nolakoak diren azalduko dugu.

Ondorengo datuak erabiltzailearen arabera azertu:

- **Gizonak:** 75 espediente (espediente berrien % 46)
- **Emakumeak:** 73 espediente (espediente berrien % 45)
- **Kolektiboak:** 14 espediente (espediente berrien % 9)



4) **Erabiltzaileek adierazitako kexei ebazpen emateko Gasteizko Udaleko Sail desberdinetara bidali diren Ebazpen guztiak sailkatzen ditugu:**

Saila	Gomendioak	Bitartekaritzak	Ezetsiak	Baztertua Ez onartua	Jarduera Esku-hartzea	Aholku idatzi lagundua	Beste batzuk
HIRIGINTZA (32)	GUZTIRA: 9	GUZTIRA: 4	GUZTIRA: 8	GUZTIRA: 3	GUZTIRA: 4	GUZTIRA: 3	GUZTIRA: 1
OGASUNA (24)	GUZTIRA: 13	GUZTIRA: 1	GUZTIRA: 5	GUZTIRA: 2	—	GUZTIRA: 2	GUZTIRA: 1
INGURUMENA (45)	GUZTIRA: 24	GUZTIRA: 2	GUZTIRA: 9	—	GUZTIRA: 5	GUZTIRA: 5	—
UDALTZAINGOA (15)	GUZTIRA: 3	—	GUZTIRA: 4	GUZTIRA: 1	GUZTIRA: 5	GUZTIRA: 1	GUZTIRA: 1
GIZARTE ESKU-HARTZEA (20)	GUZTIRA: 7	—	GUZTIRA: 6	—	GUZTIRA: 5	GUZTIRA: 1	GUZTIRA: 1
HIRIA BERRITZEKO AGENTZIA (13)	GUZTIRA: 5	—	GUZTIRA: 1	GUZTIRA: 3	GUZTIRA: 3	—	GUZTIRA: 1
MUGIKORTASUN ETA GARRAIO ZERBITZUA (11)	GUZTIRA: 6	—	GUZTIRA: 3	—	GUZTIRA: 2	—	—
OSASUNA ETA KONTSUMO-DEMOSAC (6)	GUZTIRA: 5	—	GUZTIRA: 1	—	—	—	—

AMVISA (2)	GUZTIRA: 2	_____	_____	_____	_____	_____	_____
KIROLA (3)	_____	_____	GUZTIRA: 3	_____	_____	_____	_____
KULTURA (3)	GUZTIRA: 2	GUZTIRA: 1	_____	_____	_____	_____	_____
HEZKUNTZA (3)	GUZTIRA: 1	_____	GUZTIRA: 1	GUZTIRA: 1	_____	_____	_____
LEHENDAKARITZA (3)	GUZTIRA:2	_____	GUZTIRA: 0	GUZTIRA: 0	GUZTIRA: 1	_____	_____
TEKNOLOGIA BERRIAK (4)	GUZTIRA: 1	_____	GUZTIRA: 3	_____	GUZTIRA:1	_____	_____
ZERBITZU OROKORRAK (2)	GUZTIRA: 1	_____	GUZTIRA: 1	_____	_____	_____	_____
TUVISA (1)	_____	_____	GUZTIRA:1	_____	_____	_____	_____
EZ DAGO ZERBITZU ATXIKIRIK	_____	GUZTIRA: 3	_____	_____	_____	_____	_____
GUZTIRA (187)	GUZTIRA: 81	GUZTIRA: 11	GUZTIRA: 46	GUZTIRA: 10	GUZTIRA: 22	GUZTIRA: 12	GUZTIRA: 5

Aurreko taula horretan ikus daitezke, Gasteizko Udaleko zerbitzuak hobetzarren, Sindikoaren edo Herritarren Defendatzailearen Bulegoak gauzatu dituen Ebazpen desberdinak, Udaleko sailei eragiten dietenak.

Azalpen modura, kontuan izan behar da estatistika hauetan ebazpen bakoitza sail jakin bati jakinarazi zaiola, hau da, datu horiek **ikuspegi finko batez** egin direla. Horrexegatik, badira zenbait ebazpen sail bati baino gehiagori eragiten diotenak, baina taula honetan horietako bat bakarrik jaso da.

Horrenbestez, esan dezakegu 187 Ebazpen gauzatu direla, eta horien artetik, honako bereizketa egin dezakegu:

- 81 Gomendio
- 11 Bitartekaritza
- 46 Ezespen
- 10 Baztertu edo ez onartu
- 22 Jarduera edo esku-hartze.
- 12 Aholkularitza edo idatzi Lagunduak.
- 5 Beste batzuk (adarkapenak,...)

Ebazpen hauek ez dute zertan izanik Sindikoen Bulego honetan izapidetutako espediente-kopuruaren berdinak. Horrekin esan nahi dugu balitekeela espediente berean hainbat ebazpen eman izana, edo bestela, ebazpen bat baliagarria izatea gai beraren inguruan jasotako kexa desberdinetarako.

Kontuan izan behar da Sindikoak edo Herritarren Defendatzaileak emaniko Ebazpen guztietatik % **43,31**tan –zehazkiago, 81 **Gomendiotan**–, Udalari iradoki zaiola egin dezala jardueraren bat herritarrak azaldutako arazo horri irtenbidea emateko, udal administrazioak ez baitu lehenago zuzen jokatu.


Beste alde batetik, ebazpenen % **24,59**tan –zehazkiago, 46 **Ezesp**en horietan–, Sindikoaren Bulego honek adierazi du Udalak zuzen jokatu duela bere izapideetan.

Azpimarratzekoa da ekitaldi honetan nolako garrantzia duten Sindikoaren Bulego honek egindako jarduera eta esku-hartzeek, ebazpen bat eman aurretik Sindikoak edo Herritarren Defendatzaileak gauzatuak, eta horrenbestez, herritarrak azaldutako arazoa edo kexa ebatzita geratu da berezko ebazpenik eman beharrik izan gabe.

5) Gasteizko Udalak onartu dituen edo ez dituen gomendioak.

Sindikoaren Bulego honek Udalari egin dizkion Gomendio guztietatik jarraian azalduko dugu zein onartu dituen eta zein ez:

	Onartuak	Zati batean onartua	Ez onartua	Erantzun gabe
Gomendioa	36	9	10	26




Ateratako datuetatik, Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Bulego honek egindako Gomendioen % 45 Udalak onartu du. Ildo beretik, zati batean onartuak izan dira horietatik % 32, eta %12 bakarrik ez ditu onartu Udalak.

6) Espedienteen egoera.

Atal honetan adierazi beharra dago zein egoeratan dauden espedienteak 2003-2004ko Txostenaren amaieran, 2004ko otsailaren 29an.

Beraz, espediente horiek honela geratu dira:

- **39 espediente ireki**
- **167 espediente amaitu**



5.4. Zerbitzuaren balioespena Gasteizko herritarren arabera

Erabiltzaileei beren kexetan oinarrituz bidaltzen zaizkien *ebazpenekin* batera, joan den ekitaldian bezalaxe, bulego honek egiten duen lanarekin loturiko galdetegi batzuk bidali ditugu, haiek beren borondatez eta izenik eman beharrik gabe itzul diezazkiguten, gure esku-hartzeei buruzko balioespen bat egiteko eta, ahal baldin bada, herritarrei eskainitako arreta hobetzeko, betiere zerbitzu hobe bati begira.

Erabiltzaileen partetik jaso ditugun inkestei emandako erantzunen bitartez, erabiltzaileek zerbitzuari buruz duten gogobetetasun-mailaren inguruko balioespen bat egin dezakegu. 2003-2004 ekitaldian 148 galdetegi bidali dira; 136 eredu indibidualekoak eta 12 eredu kolektibokoak, eta eredu bakoitzetik, behar bezala beteta, 9 eta 1 jaso dira hurrenez hurren. Beraz, adierazi behar dugu ekitaldi honetan jaso dugun erantzunen ehunekoak ez zaigula adierazgarria iruditzen Gasteizko herritarrek Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen zerbitzuari buruz benetan duten gogobetetasun-maila edo benetako desadostasuna nolakoa den jakiteko.

Galdetegiari erantzun dioten erabiltzaileen datu soziologikoei dagokienez, esan dezakegu batez besteko adina 65 urte ingurukoa dela, eta beraz, erantzun diguten 10 pertsonetatik 7 erretiroa hartuta daude edo pentsiodunak dira. Gainerakoak (3) lanean ari diren herrikideak dira.

Erabiltzaileak, oro har, balioespen positiboa egiten du Sindikoak bere kasuan izan duen esku-hartzeari buruz. Nolanahi ere, eta oinarritzat har dezakegun lagin horren arabera betiere, esan dezakegu, 2003-2004 ekitaldi honetan, zenbait kasutan (5) arazo horri ez zaiola irtenbiderik aurkitu, dela Sindikoak Udalarari bidalitako *Gomendioa* ez delako onartua izan edo dela azaldutako kexa horrek berekin dauzkan argudioen arabera Sindikoak Ezetsi edo Baztertu beharra izan duelako erabiltzailearen eskaera. Gure galderei erantzun dieten gainerako 5en iritziz, beren kexaren sorburu izan zen arazoa nahiko ongi edo oso ongi konpondu da. Halere, kontuan hartzen badugu zenbaitetan arazo hori ez dela konpondu, esan beharra dago, erabiltzaileetako batek izan ezik, gainerakoek beren adostasuna agertu dutela kexa bakoitzari emandako ebazpenarekin eta Sindikoaren irudi hori oso gauza komenigarritzat jotzen dutela.

Hori guztia ikusirik, eta kontuan izanik, herritarrak beren arazoa konponduko den itxaropenarekin etorri arren, beti ez dela itxaropen hori betetzen, Sindikoak, *aldeko gomendio* bat egitea ezinezkoa ikusten duenean, ordainetan datu argigarri batzuk eskaintzen ditu zerbitzu horrek jardun ezinaren inguruan, eta halaber, zenbait orientabide eta aholku, arazo hori beste bide batzuetatik konpontzen ahalegintzeko.

6. ERANSKINAK

6.1. Dibulgaziozko artikulua

Sindikoak edo Herritarraren Defendatzaileak, ordezkatzeko duen erakundearen irudi nabarmenena den aldetik, zenbait artikulua idatzi ditu herritarrei eragiten dieten gai desberdinei buruz. Jarraian, azken urte honetan prentsa idatzian agertu diren artikulua aurkezten dizkizuegu:

HERRITARTASUN TAILERRA

Hiria, gaur egun, topaketa guztien gunea da, eta beraz, aukera guztien gunea. Halaber, kontraesan guztien eta arrisku guztien eremua da: muga zehazgabeen hiri-eremu horretan diskriminazio guztiak langabezian, pobrezian, kultur desberdintasunen gutxiespenean finkaturik ageri dira, baina aldi berean, gizalegezko eta elkartasunezko gizarte-jokaerak taxutzen eta ugaritzen ari dira. (Hiriko Giza Eskubideen Gutunaren Hitzaurretik hartua. Saint Denis 2000)

Bertute demokratikoa, hiriko bertuterik nagusiena ere dei dezakeguna, utopia-puntu batekin gure interes eta jabetza partikularrak albo batera uzteko –baina horiei uko egin gabe– gaitasuna izango litzateke, eta horrekin batera, politikaren esparruan **herritar** soila izateaz baliatzea gainerako herritar guztiekin berdintasunezko egoera batean. Europako tradizio politiko guztia, nolabait ere, botere politikoa jabetzaren partzialtasun horretatik (tribuarena, feudoarena, klasearena...) bereizteko prozesu luze eta korapilotsua da, gauzak orokortzeko ahalegin etengabe baina bete gabe

horretan. Norberekoikeriak gainditzeko gaitasun hori da gizarte osoa egituratzen duena.

“Gu” partzial horren demagogia mozkortzailearen aurka gizabidearen aldeko eztabaida jarri beharra dago, behar hainbat ñabartua eta egituratua, eta ahalbidetuko duena, batetik, atxikipen kultural, etniko eta erlijiosuen manipulazio emozional eta sinboliko interesatua agerian uztea, eta bestetik, gizarte-eremu –ez politiko– bat bideratuko duena, atxikipen horiek adierazteko beren eremu propioa izan dezaten.

Aldaketa teknologiko eta soziologikoen garrantzia eta azkartasunak, pluralismoaren “shockak”, kultur aniztasunaren agerpenak, denbora historiko honen balioen leherketak nolabaiteko ziurgabetasun psikologikoa eta morala eragin ahal izan dute beren nortasun propioa nortasun kolektibo trinko jakin baten inguruan oinarritzen duten guztiengan.

Sindrome honen aurrean, erantzuna ezin daiteke izan utzikeria fatalista, baina ezta ere arrazionaltasun ekonomiko eta juridikoaren oposizio kontzeptual eta doktrinario hutsa ere, eta horrexegatik, ezinbestekoa da alderdi publikoaren emozio berri bat sustatzen eta berritzen jakitea, bizitza politikoa beteko duena, jatortasun politikoaren mamu zaharrak berpizterik izan ez dadin.

Batetik, Estatu nazionalen eremuan ordezkaturik dagoen demokraziak jasan dezakeen konfiantza-krisiaren aurrean, eta bestetik, Europako burokrazien legitimotasun-urritasunen aurrean, hiria eremu politiko eta sozial berritu gisa suspertzen ari da. Udal eremu horretan, hain zuzen ere, zabaltzen ari dira hurbiltasunezko demokrazia baterako baldintzak. Hiriaren eremuan aukera dugu herritar guztiok bizitza politikoan parte hartzeko, herritarrek dituzten eskakizunetara egokitutako modu ulergarri batean: hiriko herritartasuna. Hortik sartua da, hain zuzen ere, udal ordezkarien

aurka, herritarrek gertuen dituzten ordezkarien aurka, zuzendutako indarkeria terroristak euskal gizartean eragin duen urradura larria, ez bakarrik gizabidearen aldetik, baizik eta, baita ere, politikaren ikuspegitik ere. Alkate eta zinegotzien aurkako jazarpenezko indarkeria hori dugu terrorismoaren aurka eta ideologikoki justifikatu nahi dutenen aurka arlo sozialean eta politikoan eman den erantzun handienaren sorburua.

Herritarren bizikidetzaren eremuan nabarmen geratzen dira gatazkarako faktoreak, baina baita ere, batzen gaituzten elkartasunezko loturak ere, Hiriko Giza Eskubideen Gutunak dioen moduan: “Eskubide zehaztu bakoitza bakoitzari baldin badagokio, herritar libre eta solidario bakoitzak ere halaxe bermatu behar die gainerakoei”.

Herritartasunaren asmakuntza botere publikoen aurrean berme batzuk aldarrikatzea baino gehiago da: berarekin batera, gizarte-kontratuaren ulerkera berri bat dakar, herritarraren izatea bera justifikatzen duena. Justifikazio hori ezin daiteke etorri odolkidetasun komunitarioak edo nortasun-kidetasunak finkatua: herritarrak berak dira gure nortasun politikorik preziatuena, izaki autonomo gisa justifikatzen gaituena, menpekoen izate horretatik askatzen gaituena eta zoriontasuna gure adimenaren arabera bilatzeko aukera ematen diguna, eta ez bakarrik gure nortasun-tradizioaren arabera. Herritartasunak askatasuna bermatzen digu, gure komunitatearen jabetza-gogo horien aurrean, eta orijinalak izateko eskubidea ematen digu. Herritartasuna bizikidetzaren nortasuna da.

Gure postmodernotasun politiko eta juridikoarekin bateragarri diren eta batera bizi daitezkeen nortasun bakarrak fundamentalismo orotatik ihes egiten dutenak dira. Horretarako formula **Andrés Ortiz-Osesek** proposatzen diguna izango litzateke,

Josetxo Beriainen “**La identidad Colectiva: Vascos y Navarros**” liburuaren hitzaurrean: “Nortasun absolutu edo dogmatikoaren eta ez-nortasun hustu edo ezereztuaren artean badago nortasun sinboliko ireki eta harremanezko bat”.

Gure bizimodu politikoaren erdian herritartasuna eta arrazoibide gizabidetsua jartzeko gai baldin bagara, alderdi identitarioak eta partikularrak maila pertsonalean eta sozialean aurkituko du bere zentzua, eta atzean geratuko da, behin betiko, gatazka sinbolikoen tentazioa.

Eszenatoki horretara iristeko, erabakigarria da hezkuntza, pedagogia soziala eta instituzionala, arlo politikoaren ulermena **herritartasunaren ardatzaren** inguruan antolatuko duena, sentimendu kolektiboak suminduko ez dituen eta horien manipulazio politikoa errotik eragotziko duena”.

- ANIMALIAK ETA GIZAKIAK

Animalia eta gizakien arteko harremana handia izan da beti. Historiaurretik gaur egun arte, behatu ditugu, beldurra eman digute, miretsi izan ditugu, baina ez hori bakarrik, sakrifikatu ditugu, ehiztatu, gorputzeko zatiak moztu dizkiegu, hazi, zaindu eta ikertu ditugu. Haiek, berriz, eta haien borondatearen kontra, elikatu eta jantzi gaituzte, goldatzen, gure ondareak garraiatzen, gudara joaten, ondo pasatzen, gure etxebizitzak gordetzen eta geure burua defendatzen lagundu digute. Alegilariak gizakion bizio eta dohainak irudikatze erabili izan dituzte, eta horren ondorioz, azeria zuhurtziaren irudi bihurtu da, lehoia basakeriarena, arranoa boterearena, bildotsa apaltasunarena, zezena

suhartasunarena, oiloa koldarkeriarena, indioilarra harrokeriarena, sugea saldukeriarena...

Kontzientzia ekologiko berria da nagusi duela hamarkada batzuetatik hona, gu eta animalien arteko harremana beste ikuspuntutik kontuan hartzera eramaten gaituen kontzientzia, hain zuzen. Ikuspuntu horretatik lurrean dagoen bizia zatikatu ezin den osotasuna da, are gehiago, gizateriak berak hartzen du parte osotasun horretan, **autokontzientziarako** duen ahalmenagatik gaitua, **baina** alderdi, azken finean.

Baina, ez da paradigma ekologikoa behartzen gaituen bakarra, bada ere gure artean garatu den **gizakion duintasunaren beraren** kontzientzia etiko progresiboa, gero eta zorrotzagoa dena, eta animaliekiko betebeharrak inposatzen dizkiguna.

Gure burua definitzeko nahi dugun gizaki etikoaren ideia ez dator bat animalien arrazoirik eta justifikaziorik gabeko sufrimenduarekin; egun ditugun baliabide teknologiko eta materialek animaliekiko harremanekin zerikusia duten jarduerak tratatzeko, zaintzeko eta kudeatzeko bestelako formak erabiltzera behartzen gaituzte; jarduera horien artean, besteak beste, hazkuntza, abelzaintza, ehiza, kirol, elikadura... daude.

Ezin ditugu animaliak gizakiekin identifikatu. Uste dut ez garela zuzen ari “animalien eskubideez” ari bagara, izan ere, ezin dizkiegu betebeharrak inposatu; baina egia da animaliek, bereziki ugaztunek, autokontzientzia autonomoa ez badute ere,

sentitzeko kontzientzia badutela, eta horren aurrean etikak erantzuna ematera eramaten gaitu.

Ezin dugu gizaki eskubideen kontzeptua animalien proiektatu, ezta animalien sentsibilitatea antropomorfikoki isladatu ere, edonola ere animaliekiko justifikaziorik gabeko ankerkeria arkaismo bat da eta moralaren ikuspuntutik gizakion mundua kutsatzen duen elementua.

Gure zuzenbide positiboak, gizakion erantzukizuna kontuan hartua, animaliak babesteko betebeharrak inposatzen digu, eta zuzenbidean gure erreferentzia legala eta politikoa den Europar Batasun, gero eta herri gehiagotan ezarri dira, duela urte batzuk ulertezinak egingo zitzaizkigun neurriak; besteak beste, Norvegiar, zirkoetan fokak edo elefanteak erabiltzea galerazi dute; Erroman, kaleetako katuak hiriko ondare izendatu dituzte; Britainia Handian, txerriak hazten dituzten tokietan animalientzako jolasguneak jartzera behartuak daude; Espainian, ere, azkenean arau-haustetzat hartu da animaliekiko ankerkeria.

Euskal autonomia erkidegoaren eremuan erabakiorra da 6/1993 Legea, animaliak babesten dituen. Bertan, 4.1. artikuluan, hain zuzen, betebeharren artean honakoa jasotzen da:

“Animalia duen pertsonak horren garbitasun eta osasun baldintzak zaindu beharko ditu, aterpea, janaria eta edaria eman beharko dio, albitariarengana eraman, eta animalien beharrak kontuan hartu, ariketa fisikoa egiteko aukera eman beharko dio, .../... edonola ere, galerazita dago: animaliei tratatu txarra ematea eta sufrimendua edo

kalteak, eta espezie eta arrazaren arabera, justifikaziorik gabeko angustia fisiologiko eta etologikoak eragin ahal dizkien gauzak egitea.”

Xedapen horiek betetzen badira bizitza osoa kateatuta ematen duten txakur gizajoak, lonjetan edo sotoetan giltzapetuak egoten direnak desagertuko dira, edo kaleko ikuskizun, edo herrikoak, zeinetan animaliak barregarri uzten dituzten edo berez bereak ez diren jarreretan erakusten dituzten.

Paradojikoak dirudi nola gure gizartean terrorismoaren bortizkeriak eragiten dituen arazoak hor izanda, beste mota bateko ankerkeriaz arduratu ahal izatea. Baina, hor dago defendatzen ditugun balore demokratikoen nagusitasun morala, eta inolaz ere, ezin ditugu ideal horiek haien ageriko etsai direnek pentsatzen edo antolatzen dutenaren menpe utzi.

*El Periódico de Álava
2003ko martxoaren 15a*

- GAITASUNA ETA EZINTASUNA

Antroposofoek diotenez, animalien artean espezimen bakoitza bere espeziearen manifestazio bat da; gizakien artean, ordea, nor bere kasa “gauzatzen” denez gero, gutako bakoitza espezie bakarra da, edo beste era batera esanda, **espezimen bakarra duen espezie bat: gutako bakoitza bere berezitasunean**. Honek zentzu hertsian “berezi” egiten gaitu, “espezial” bihurtzen gaitu.

Gizakien plastikotasun honek era guztietako gizakiak sortzea dakar: Ghengis Kahn eta Leonardo da Vinci, San Frantzisko Asiskoa eta Makiavelo, Shakespeare eta Torkemada. Gutako bakoitza bere “berezitasunean” gaitasunez eta ezintasunez, trebetasunez eta baldartasunez, handitasunez eta miseriez egindako *collage* berezi bat da; gure izatearen izaera zabal honek ere ezinezko bihurtzen du gutako bakoitza zertara iritsiko den iragartzea, izan ere gauzak gehiago korapilatzeke, azken emaitza ez baita itxia eta ziurra. Gaitasun eta ez-gaitasun hauek denbora pasatu ahala aldatu egiten dira; jaioberritan, umetan, nerabetan, helduaroan eta zahartzaroan ahalbide-konbinazio desberdina gara, eta, hala ere, une horietako bakoitzean izaki berbera eta aldi berean desberdina gara. Honek azaltzen du, adibidez, *Einsteinek* umetan hizketan ikasteko zailtasunak izatea; *Beethovenek* bere obra bikainenetako batzuk gorra zenean konposatu izana; *Hydenek*, itsua izanda, Mesias sortu izana; *Cervantesek* esku bat galdu zuenean bestearen loria handitu izana; *Mozartek* nortasun maniakoa izatea; *F.D. Roosevelten*, XX. mendeko politikaririk garrantzitsuenetako bat, poliomielitisa dela eta, gazte zenetik, “minusbaliatua” izatea; gure garaiko fisikaririk garrantzitsuenetako bat, *Stephen Hawkings* gurpil-aulki bati lotuta egotea; *Lord Byron* herrena izanik ere, erromantizismo ingelesaren ikonoa izatea eta bere garaiko gizonik erakargarrienetako bat izatea...

Ez dakigu gutako bakoitzak zenbateraino eman dezakeen.

2003. urte hau, hain zuzen ere, Pertsona minusbaliatuen urtea da, eta beraz, geu guztion urtea da, denok biziko baitugu, ziur, ezintasunen bat gure bizitzaren uneren

batean edo bestean. Gutako inork ezin du, hortaz, arazoarekin zerikusirik ez duela pentsatu. *Egia da*, hala ere, zenbait ezintasun -bati bat mugikortasunarekin zerikusia dutenak- nabariagoak eta esplizituagoak direla. Hauexek, ordea, espazio publikoetako oztopo arkitektonikoei etengabe aurre eginez, arintzen errazenak dira.

Arazoak nolako zenbaki-garrantzia duen kontura gaitezen, kontuan izan dezagun Espainian ia hamar pertsonatik batek duela ezintasun garrantzitsuren bat. Haietatik, milioi batek baino gehiagok ikusmen-arazo larriak ditu, eta 3.325.000 lagunek eragozpen handiak dituzte mugitzeko, Estatistika Institutu Nazionalaren 2002. urteko datuen arabera.

Eusko Legebiltzarreko 20/97 Legeak jarduera-programa bat ezartzen du, espazio publikoa denon erabilerara irekitzeko eta ustez gaituak direnen “itsutasun” moralak mugikortasun murrizta duten pertsonentzako espazio publikoa hesiz eta oztopoz betetzen jarraitzen ez uzteko. Legeak honela dio:

13. artikulua.– Irisgarritasunaren sustaketa.

1.– Lehendik dauden titulartasun, erabilera edo zerbitzu publikoko hirialde, espazio publiko, eraikin, garraio eta informazio eta komunikazio-sistemetara irisgarritasuna bermatu eta sustatzeko, Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek, udalek eta gainerako herri-erakundeek lau urteko egitarauak egingo dituzte irisgarritasuna sustatzeko. Horien xedea aipatutako elementuak lege honetan eta berau garatzen duten arauetan ohartemandako irisgarritasun-baldintzei pixkanaka-pixkanaka egokitzea izango da.

Lehendabiziko lau urteko egitarauak eginda egon beharko du lege hau EHAAan argitaratzen denetik hasi eta bi urteko epean.

2.– Irisgarritasuna sustatzeko egitarauak honako agiri hauek jasoko dituzte:

a) Egokituko diren kanpoko gunek, eraikin, garraio eta komunikazioen inbentarioa jasotzen duen katalogoa.

b) Lehentasunen arabera jardueren hurrenkera, eraginkortasunik handiena eta biltzen duten jendetza kontuan hartuta.

c) Ekonomia eta finantza egitaraua, egokitzapenak egiteko bideratuko diren aurreikuspen ekonomikoak zehaztuta.

d) Egokitzapenak burutzeko egutegia.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek irisgarritasuna sustatzeko egitarauak finantzatzeko partida zehatzak izendatuko dituzte bakoitzaren aurrekontuetan, euren aurrekontuetako diru-eskuartearen arabera.

Gutxiengoekin zerikusia duten gaietan aurkitzen ditugun joerak joera, gure hirian gero eta hobeto betetzen da legea. Irisgarritasun Batzordean, parte-hartzerako udal-organoan, jakinarazi denez, Vitoria-Gasteiz gaur egun Irisgarritasun Plana

definizio-prozesuan dago. Plan hau funtsezko arau-erreferentzia izango da gure hirian irisgarritasunari buruzko lege-aurreikuspenak garatzeko.

Gainera, egiten ari den arau-plangintzaz gain, 2003. urte honetan oztopo arkitektonikoak kentzeko egingo diren obretarako 300.000 €-ko aurrekontua dago.

Oraindik ere lan handia egin beharra dago, jakina, eta funtsezkoa da sentsibilizatuen dagoen eta arazo praktikoak zeintzuk diren ondoen dakien elkarte-mugimenduak gure ordezkari politikoak etengabe estimulatzea, parte-hartzerako organo eta harreman zuzenaren bidez. Horixe da auzoko Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Bulegoaren borondatea: ezintasunak dituzten pertsonen eskubideei arreta berezia ematea, hiritartasun berri baten ideiarekin lotzen baitzaizkio eskubide horiek. Gaur egun arazo hau beste modu batean ulertzen da. Oztopoak kentzeko eta irisgarritasun sustatzeko dugun legeriaren filosofia handinahia da eta aspaldi gainditu zuen beste garai bateko asistentzia-hutserako joera. Gaur egun integrazio-politika guztiak herritar oso eta integratzailearen ideiarekin lotzen dira halaberrez, pertsona guztiok dugun duintasunaren onarpenean oinarrituta.

El Periódico de Álava
2003ko maiatzaren 20a

- KONTSUMERISMOA ETA HIRITARRAK

XX. mendearen azken hamarkadetan kontzientzia publiko berri bat sortu da herrialde garatuetan, eskubide eta betebeharren iturri dena: kontsumerismoa; herrialde garatuetan kontsumitzaile eta erabiltzaile izatearekin zerikusia duen oro hartzen ari den gero eta garrantzi handiagoarekin dago lotuta hori. Hiritartasun estatus klasikoari gehitzen zaion estatus publiko berria da, izaera pribatua ez ezik politikoa ere baduena. Hona hemen definizioa: *edozein erakunde motarekin dituzten truke harremanetan kontsumitzaileen interesak eta eskubideak babesteko diseinatutako politiken multzoa*⁴. Indar-idea da, beraz, merkataritzarekin lotutako harreman partikularretan eragiteaz gain eremu hori gainditu eta bestelako zerbitzuetan ere eragina baitu, hala nola osasun edo kultura zerbitzuetan esaterako, eta zerbitzu publikoekiko harremanetan ere bai. Kontsumerismoa hiritarrek zabarkeria burokratiko ororen aurka erakusten duten erreakziotzat jo daiteke, halaber, zerbitzu publikoekiko harremanak aginte harreman gisa ulertzeko era klasikoaren aurkakoa. Kontsumitzailearen eskubideak hiritartasunaren eremura ere iritsi dira, eta agintari publikoei zerbitzuak kudeatzeko moldeak aldarazi dizkiete, kontzientzia berri horretara egokitu daitezen. Administrazioaren eta administratuen arteko harremanei beste estilo bat ekarri die horrek, eta bestelako eskubideak kontuan hartzea: datuen segurtasuna bermatzeko eskubidea, informazioa jasotzeko eskubidea, entzuna izateko eskubidea, ingurumen garbi eta osasungarria

⁴ Consumer Behaviour (James Engel Roger Blackwell Paul Miniard) The Drilen Press, 6th. Edition USA

izateko eskubidea, gutxiengo pobre edo baztertuek laguntza jasotzeko duten eskubidea,...

Zerbitzu publikoen alorrean kontsumitzailearen eta erabiltzailearen eskubideak zabaltzeko joera horrek eragin handia izan du udalei eta udal zerbitzu publikoei dagokienez, noski, alor horretan hurbilekoagoak baitira Administrazioaren eta administratuen arteko harremanak, eta lotura handiagoa baitute hiritarren eguneroko beharrekin: garraioa, ura, estoldak, etxebizitza, segurtasuna, gizartean esku hartzea,...

2000n taxutu zen Hirian Giza Eskubideak Babesteko Europako Gutunaren hitzaurrean honakoa adierazten da:

*Hiriko bizitzak, egun, eskubide jakin batzuk hobe zehazteko betekizuna eskatzen du, bertan bizi, lana bilatu eta batetik bestera joaten garelako. Era berean, eskubide berriak ezagutzea eskatzen digu: ingurumenarekiko errespetua, osasunerako ona den elikaduraren bermea, lasaitasuna, truke eta aisialdirako aukerak eta beste batzuk. Bukatzeko, nazio Estatuaren esparruaren esku utzitako demokrazia zigortzen duen krisiaren eta Europako burokraziek eragiten dituzten egonezinen aurrean, **espazio politiko eta sozial berri baten baliabide gisa** aurkezten da hiria. Hirian eskaintzen dira **hurbiltasunean oinarrituriko demokrazia** garatzeko baldintzak. Hiritar guztiek hiritartasunean parte hartzeko egokiera aurkezten da: **hiriko hiritartasun bat**.*

Gutuna oinarri hartuz, eta hari atxikita dagoen aldetik, Vitoria-Gasteizek udal *ombusman*-aren figura sortu zuen, Sindiko edo Hiritarren Defendatzailea deritzona. Hain zuzen ere, hiritar eta erabiltzaileak informatu, bideratu eta aldezea da haren zeregina, bai eta beraren gomendioez udal zerbitzu publikoen kalitatea kontrolatzea ere, beharrezkoa bada.

Hiritarren eskubideak kontsumismoaren ikuspegiaren argitan zabaltzeko prozesu horretan, konturatzen ari gara Administrazioak alor askotan zerbitzuen kudeatzaile eta emaile zeregina betetzen duela eta, horrenbestez, hari eskatu behar dizkiogun kalitate eta erantzukizunen estandarrak ezin direla izan merkataritza erakunde handiei exijitzen dizkiogunak baino txikiagoak. Administrazioa aginte publikoa izateak eragin nabariak ditu ematen dituen zerbitzuekiko harremanetan – horietako asko doakoak–. Harreman hori ezin da partikularren artekoa bezalakoa izan, Administrazioak interes orokorra lortzearen legez esleitu zaizkion ahalmenak baliatuz kudeatzen baititu zerbitzuak. Baina ezaugarri horrek, eta banakoentzat (ezen ez gizartearentzat) doakoa izateak ez dira arrazoi nahikoa burokratizazioa, Administrazioaren isiltasuna, begirunerik eza eta zerbitzua ematean zabar jokatzeari justifikatzeko. Horrexetarako sortu da gure erakundea, hiriko administrazioak hiritar eta erabiltzaile garen aldetik eskatzen diogunaren maila eman dezala zaintzeko, eta beste *ombudsman*-ek (Espainiako Hiritarren Defendatzaileak eta Arartekoak) egiten duten lana osatzeko, Udalarekin lotutako arlo guztiek izan behar duten hurbiltasuna eta eskuragarritasuna erantsiz.

Egunero

2003ko ekainaren 17a

El Periódico de Álava

2003ko uztailaren 30a

EKEra (Gasteiz) ere bidalia

- **HIRIAREN BALIOA**

Hiria, zalantzarik gabe, Gizateriaren asmakuntza handienetako bat da, eta edonola ere, pertsonak erakartzen dituen toki bat da, horrela izan da betidanik, baina gaur inoiz baino indar handiagoarekin, lehenengo aldiz planetaren historian hiri-ingurunean bizi diren pertsonen kopururik handienera iritsi garelako. Are gehiago, landan, basoetan edo jenderik bizi ez den Lurreko eremu zabalenetan bizi direnak, hedabideek eta teknologiek izandako aurrerapen sinestezinaren ondorioz, hiriarekin konektaturik bizi dira. Herritartasuna nagusi den testuinguru honetan, beraz, eraginak ikus daitekeenaz harantzago doaz. Munduan bizitzeko moduak egiten gaitu gizaki, **habitatuz** gara gizaki eta hiria da gure habitatik nagusiena.

Hiria, civitas/polis hori, hainbat izenen jatorrian aurkitzen duguna (“zibilizazioa”, “zibila”, “politika”, “polizia”, “politesse”...) **Hiriko Giza Eskubideak Babesteko Gutunak** adierazten duen moduan (Saint Denis 2000), “topaketa guztien gunea da, eta beraz, aukera guztiena.../... aurkaesan guztien eta arrisku guztien lurraldea:

muga zehazgabeen hiri-eremu horretan diskriminazio guztiak langabezian, pobrezian, kultur desberdintasunen gutxiespenean finkaturik ageri dira, baina aldi berean, gizalegezko eta elkartasunezko gizarte-jokaerak taxutzen eta ugaritzen dira”.

Hiria dugu eremu publiko nagusia, etengabeko erabilera duen eremua, eta bertan, egunero eta kale guztietan, era askotako gizonak eta emakumeak gurutzatzen dira, proiektu biografiko desberdinak dituztenak, egitasmo ideologiko edo erlijiosu desberdinak dituztenak, baina aldi berean hirikide direnak. Hiria dugu desberdintasunaren eta aniztasunaren eremua, eta horrexegatik, zibilizazioak desberdintasun horien kudeaketa zibila esan nahi du (ez militarra eta ez apaizena). Beraz, hiriaren oinarri den ondasunik preziatuena, hain zuzen ere, bizikidetzeta da.

Hiri modernoak eta, are gehiago, XXI. mende honetako hiri postmodernoak ez du harresirik eta ez bidesaririk, baina erdi aroko hiriak bezalaxe, harresiak altxatzen ditu sinbolikoki eta erakunde mailan indarkeriaren aurka; **Kainen** ondarea dugu jatorrizko krimen horren lotsaren gainean hiriak fundatu dituen, aipatutako krimen hori berriro ez gertatzeko zinaren gainean. Hiriak, herritarrei eskaintzen dizkien zerbitzu guztiekin, “laguntasun zibilaren” hormen atzealdean eraiki ditu harresiak, gure arteko gatazkak zuzenbidearen eta eztabaida politikoaren bitartez konpondu beharra bere gain hartzen duen obligazio unibertsaleko itunarekin bat eginez.

1998ko urriaren 17an, Europako zenbait hirik konpromiso bat izenpetu zuten Bartzelonan beren udal ahalmenak betearazteko orduan eskubideak sustatzeko. Hiri horiek honakoak ziren: Anvers, Badalona, Bartzelona, Belfast, Berlin, Bordele, Brusela, Cornella de Llobregat, Donostia, Erroma, **Gasteiz**, Geneve, Gernika, Girona,

Granollers, Kirklees, Hospitalet de Llobregat, Irun, Ljubljana, Lleida, Logroño, Mataro, Nuremberg, Orleans, Palermo, Palma, Perpignan, Reading, Riga, Sabadell, Saint-Denis, Santa Coloma de Gramenet, Santiago, Stockholm, Strasbourg, Turin, Venezia, Vartsovia, Xixon, Zaragoza, Zgierz

Hain zuzen ere, konpromiso horien ondorioz, Gasteizko gure hiriak Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen irudia jarri du abian, gure bizitzari eragiten dioten udal eskumen ugariak egunero betearazteko orduan eskumen horiek ez daitezen ohikeriaz gauzatu, baizik eta herritarren eskubide eta interes jakinetatik geroz eta hurbilago egongo den sentikortasun baten arabera.

Eginkizun horrekin konprometiturik gaude. 2003ko ekaina

Herri Kulturako Zentroei zuzendua

- **GASTEIZKO TEORIA**

Hiri bat ez da, soilik, etxeen biltegia, ausaz trazatutako kaleak, mapako koordenatuak. Hiri bat askoz ere gehiago da. Jaiak hurbil ditugun uda garai honetan, une horietan beti izaten dugun alaitasunaren aurrerakinak garbi erakusten digu hiri gisa eratzen gaituzten eta gizarte gisa batzen gaituzten estimuetan eta maitasun sinbolikoetan ere sustraitzen dela gure hiritar bizitza.

Hiria giza asmakizuna da, eta, gizatarra den orok bezalaxe, hiriak berezko ditu eraikuntza, artifizioa, sinbolismoa, oinarri duen borondate ekintza, orientabide duen asmoa.

Hiria izan zen, aro klasikoan, subjektu publiko nagusia, hala nola Atenas eta Erroma, Kartago, eta lehenago Jerusalem edo Tebas. Modernotasunak ekarri du Estatu-nazioa izatea aro garaikideko subjektu politikoa, baina ez bakarra. Eta, egun, Europan, bere elementuen konplexutasuna dela kausa historian aurrekaririk ez duen kontinente subjektu politikoa egituratzen ari gara. Ez aspaldi, Tesalonikan aurkeztu dute Europako Konstituzioaren lehenengo zirriborroa, Valery Giscard D'Estaing buru duen Konbentzioak idatzia.

Hiria, beharbada, ez da jadanik subjektu politikoa, baina bai, dudarik gabe, bizikidetzaren unitate nagusia, gure planetan gehienek bizimodua hiritarra den honetan. Hiria, horrenbestez, asmakizun arrakastatsua dugu. Baina zer da hiria? . Jatorrian, harresituriko espazioa edo esparrua besterik ez zen, bertako biztanleei segurtasuna ematearren ingurutik bereizita. Hiria bere biztanleentzat bake forua ezartzeko asmoz jaio zen, biztanle horiek espazio irekiaren segurtasun ezetik askatuta. Espazio hori zehaztean eta bere biztanleei segurtasuna ematean, *Hic est Victoria quae vincit*, hiria, toki ezin hobe bihurtu zen giza jardueraren instituzionalizaturako; azokak egiteko; enpresak, tabernak, saltokiak, tenpluak, liburutegiak... sortzeko. Eta horrek berekin dakar besteak, auzokoak, hurbilean ugari eta modu erabakigarrian izateak baldintzaturiko gizartekotasuna agertzea. Italieraz, oraindik ere, *auzoko* hitzak 'hurbileko' esan nahi du, hain zuzen.

Hiriko gizartekotasunak, horrenbestez, bake eta segurtasun foru hori du oinarri, bai eta besteen, hurbilekoen presentzia intentsiboa ere. Hurbileko horiekin era «zibil»ean —hots, gizalegearen arauetara jarraituz— lehiatzen eta lankidetzan aritzen naiz.

Hiriko espazioaren erabilera intentsiboa eta besteen hurbiltasuna dira hiritar bizitza bereizten duten ezaugarriak. Bitxia bada ere, gizalegeak urrutze eta anonimotasun forma batzuekin berdintzen du hurbiltasun hori. Horregatik, hirian, paradoxikoki, jende askok inguratuta egon gaitezke, eta aldi berean bakarrik sentitu.

Hiriak biderkatu egiten ditu ekintza indibidualerako aukerak, bai eta aise erabiltzeko moduan gure esku jartzen dizkiguten zerbitzu publikoak, hain zuzen ere botere publikoen hurbiltasunagatik. Baina, orobat, gure originaltasuna lausotu egiten du, *hikako* harremanak ez baina *zukako* harremanak eskaintzen dizkiguten identitate anonimoen itsasoan.

Gure hiriak, Gasteizek, oraindik ere, duen tamainari esker, oso gizarte bizitza pertsonalizatua ahalbidetzen digu, auzuneetan ez ezik, hiri osoan ere. Dugun gizarte etxeen sareak, era berean, udal zerbitzu gehienak deszentralizatzeko aukera ematen du, bai eta gure inguruko erreferentzia hirietan ohikoa dena baino haratago doazen aisialdi, kultura eta kirol prestazioak, hurbiltasun handiko oinarrizko gizarte esku-hartzeko zerbitzuak

2010erako Hiriaren Plan Estrategikoaren esparruan, une honetan, Herritartasuna eta Bizikidetzaren izenburuarekin, herritarren sektore eta sentsibilitate gehientsuenen

ordezkari izan nahi duten biltzarrak egiten ari gara. Hartara, albait iritzi eta ideia gehien bildu nahi da, gure hiriko bizikidetza aztertzeke erabil daitezkeen hiru ardatzak hartuta: (1) Gizarte kohesioa, (2) Hiritar nortasuna, eta (3) Bizikidetza eta Gatazka. Bestela esanda, kontua da, hiria egiten duten elementu materialen gainean ez ezik, eratzen gaituzten gizarte eta moral faktoreen gainean ere gogoeta egitea. Kontua da gure buruari galdetzea, konparazio batera, ea zein ekintza publiko eta pribatuk biltzen duten hiri gisa dugun bizitza kolektiboa; nola bizi garen gure auzokoekin batera interes berak ez izan arren; ideologian, filosofian eta erlijioan ere banantzen gaituzten aldeak izan arren; nola sartzen ditugun gure artera gugana datozenak; zein bizimodu proposatzen diegun belaunaldi berriei eta nola eusten diogun belaunaldien arteko loturari; zerk eratzen duen gasteiztar gisa identifikatzen gaituen «gu» hau; gure bi hizkuntza ofizialekin (euskara eta gaztelania) nola erlazionatzen garen eta diskurtso zibil komun batean nola senidetzen ditugun; nola balioztatzen ditugun gure sinboloak, jaiak, hiriaren erreferentzia enblematikoak; ea gure historia ezagutzen dugun; nola bilatzen diegun irtenbidea bizikidetzak berekin ekartzen dituen ohiko gatazkei, eta nola egiten diogun aurre gure herrikideetako hainbatek eta hainbatek terrorismoagatik nozitzen duten jazarpeneko indarkeriaren gatazka larriari... Uste dut, herritarren defendatzaile eta sindiko naizen aldetik, gogoeta horietatik guztietatik, segur aski, gure burua hobexeago ulertzen lagunduko digun diagnosis aterako dela. Diagnosi horri esker, orobat, udal ekintza orientatu ahal izango dugu; hartara, gure bizikidetzaren aktiboak indartu eta hura oztopatzen duten pasiboak gainditu ahal izango ditugu. Hala izan bedi.

El Periódico de Álava

2003ko uztailaren 14a

- **AZKEN MALKOA**

Kolonbiaren Hegoaldeko Bolivar Eskualdean dauden herrien izen ederrak sarritan entzun ditugu egun hauetan Parisko Nazioarteko Iritzi Auzitegian: Pozo Azul, Virgencita, Aguas Lindas, El Paraiso, El Contento, El Vallecito... baina izen horien doinu ederra, oraingo honetan, indarkeriazko eta krudelkeriazko ekintza beldurgarriekin loturik entzun dugu, talde paramilitarrek ez errurik eta ez armarik zuten zibilen aurka burututako ekintzekin loturik, Kolonbiako Estatuko polizia nahiz militarren erakundeekin ados jarriarik. Kasuak hain dira ugariak eta beldurgarriak, horietako batzuk aukeratzea guztiz bidegabea eta arbitrarioa gerta baitaiteke, zeren eta gertaera horiek, zoritxarrez, ez dira herrialdearen eskualde bakarrera mugatzen, baizik eta lurralde osoan zabalduta daude.

Kasu horietako asko Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordeko errelatoreen bulego desberdinek aztertu eta berretsi dituzte, eta era guztietako krimenak biltzen dituzte (torturak, erailketak, mutilazioak, lesioak, txikizioak...) eta era guztietako pertsonen aurka: nekazariak, zaharrak, emakumeak, haurrak, sindikatueta buruak, “personeroak” (Giza Eskubideen Herrietako Defendatzaileak), zinegotziak, alkateak...

Kasu horietako bat, hain zuzen ere, bizirik irtendako batek Parisen azaroaren 29an berrehun bat lagun hunkituren aurrean kontatua dugu, eta salatutako 209 kasuetaraino luzatzen den zerrenda amaigabe baten lagin gisa har genezake berau:

“1999ko urriaren 8 eta 10 bitartean, 18 urteko G.F. izeneko nekazaria eta 28 urteko E.M. nekazaria torturatu egin zituzten Armadako Bataloi batek eta “Autodefensas Unidas de Colombia (AUC)” izeneko paramilitarrek batera burututako ekintza batean, San Pablo herrian.

G. hori San Pablotik irten zen kamioneta batean, azokarako karga-karga eginda, Aguas Lindas bailaran kokatutako familiaren negozioerantz; halako batean, Batallón Héroes de Majagual izeneko talde militar batek atxilotu zuen, gasolindegian, “La Virgen” izeneko tokian, konfiskatu egin zuten, nortasun-agiriak eskatu zizkieten, ibilgailua eta karga zehatz-mehatz miatu zuten eta, gero, aurrera egiten utzi zioten; minutu batzuk geroago, handik 500 metrora, AUC taldearen beste talde bat topatu zuen, eta han, ibilgailua geldiarazi eta azokarako gaien jatorriari buruz eta jabearen izenari buruz galdetu zioten. Gaztearen erantzuna entzundakoan hauxe esan zuten “hori da itxaroten ari ginen hornidura, badira zortzi egun horren atzetik genbiltzala”. Gero ibilgailu batean sartzera behartu zuten, eta horren barruan, San Pabloko erdigunera itzuli ziren, lehenagoko Armadako taldearen paretik igaro ziren, paramilitarrak beren ibilgailuetan zihoazen arma luzeak eta laburrak agerian zeuzkatela, eta militarrek aurrera egiten utzi zieten, lasai asko. Herrira iritsi zirenean, Villa Josefa izeneko auzunera eraman zuten, eta hantxe eduki zuten 48 orduz gutxi gorabehera, etxe baten patioan aire zabalean, aulki batean, eskuak atzealdean loturik zituela.

Urriaren 9an E. izeneko beste gizona ere toki berera eraman zuten, motoa ostu ondoren, eta hantxe, loturik eduki zuten hurrengo eguneko gauerdia arte. Gero “La Sierra” tokira eraman zituzten “*La última lágrima*” izeneko ibilgailuan, Cimitarra ibaiaren bazterreraino. Han, E. izenekoa ahozpeztan jarri zuten eta 12 aihozkada eman zizkioten, eta lurrean etzanda geratu zen, ustez hilda. Berehala, G. rengana jo zuten, zaurituarengandik 3 metrotara jarri zuten, eta gauza bera egiteko puntuan zeudela, zutitu eta ez hiltzeko eskatu zien, orduan aihozkada bat eman zioten sorbalden parean, eta hori gertatzen zen bitartean, ihes egiteko aukera horretaz baliatu zen E. izenekoa. G. izenekoak, orduan, nahiz lepotik eusten zioten eta bularraldera zuzendurik labana bat jarria zioten, ihes egiten ahalegindu zen, eta harrapatuta zeukan paramilitarrarekin izandako borrokaldi hartan, askatzea lortu eta Magdalena ibaira jauzi egin zuen, baina 90 segundotan gutxi gorabehera ur gainera irten ezinik egon zen, paramilitarrak alde egiten zutela ikusi arte. Igerian bi ordu egin eta egun osoan oinez ibili ondoren, oinutsik, alkandorarik gabe eta ezertxo ere jan gabe, aitarekin topo egin zuen, bere bila atera baitzen”.

Kontakizun beldurgarri horren erdian, oso deigarria egiten zaigu “Azken malkoa/La última lágrima” horren irudi poetikoa, Kristoren pasioa oroitarazten duen Aste Santuko pauso baten izena dirudiena.

Poesia errealitateari begiratzeko modu bat da, egunerokotasunaren eta zentzugabekeriaren lukurreriatik salbatzeko aukera ematen diguna, eta edozein unetan

eta edozein tokitan ager daiteke. Poesia hori Kolonbiako lurralde eder hori oroitarazten diguten izen eder horietan ageri da, baina biktimak hiltegiara daramatzan ibilgailuaren izendapenean ere modu makabro batez ager dakiguke.

Azken malkoa talde paramilitar krudelek harrapatuta eta botere publikoek abandonatuta dauden biktimek isurtzen zutena zen, Magdalena Ibaiaren edo bere edozein ibai-adarren bazterretan hiltzera zigortu ondoren, eta hantxe zatikatuko zituzten gorpuak eta ibaira botako zituzten, arrainen bazka izan zitezen eta horrela haiek identifikatzea ezinezko izan zedin.

Eskualdeko nekazarien eta **Javier Giraldo** Apaiza bezalako izen ospetsuen testigantzek eszenategi bat iruditaratu zuten gure aurrean Nazioarteko Iritzi Epaitegian, paramilitarren eta gerrillaren artean harrapatuta dauden herritar zibilen kontrako indarkeriaz, arbitrariotasunez eta krudelkeriaz betea, Kolonbiako Estatuaren partetik utzikieriazko egoera beldurgarri baten menpe zeuden bitartean.

Gerrillen (FARC, ELN) aurkako eta narkotrafikoaren atzapar kontaezinen aurkako borroka legitimoak ezin dezake inola ere justifikatu eta zilegi egin herritar zibil babesgabeen aurka modu sistematiko eta orokor batez egin izan diren izugarrikeriak, eta gizateriaren aurkako krimen larri horien aurrean ezin gara axolakabe agertu.

Biktimen malkoak sakratuak dira, eta elkartasunaren mesedetan, saminezko olatu bilakatu behar dugu Planetako edozein tokitan zauritua eta kolpatua den

Gizateriaren alde, eta olatu horrek, izugarrikeria horri amaiera emango dien salaketa-
ekitaldi baten aldeko konpromisoa hartzera bultzatu behar gaitu.

Parisko Nazioarteko Iritzi Epaitegiko Kide gisa, 2003ko azaroan.

- **LAIKOTASUNA**

“Laikotasunaren printzipioaren inguruko eztabaida hoska ari zaigu gure kontzientzien barru-barrutik. Laikotasunak erreferentzia egiten dio gure kohesio nazionalari, elkarrekin bizitzeko gure joerari, funtsezkoaren inguruan biltzeko dugun gaitasunari”. Hitz horiekintxe ireki zuen Chirac Lehendakariak laikotasunaren inguruko bere hitzaldia, eta joan den abenduaren 17an entzun genituen telebistaren aurrean, adi-adi jarrita, zenbait kazetari eta lagunek, Perpinyako Alkate eta Senadore den Jean Paul Alduy jaunarekin batera.

Hitzaldi horren bidez Chirac-ek jendaurrean azaldu zuen Stasi Batzordeak laikotasunari buruz emandako gomendioak betetzeko erabakia hartu zuela, eta horrekin batera, Frantzian eremu publiko jakin batzuetan, bereziki ikastetxe publikoetan, erlijio-neutraltasuna defendatzeko lege-ekimena proposatuko zuela.

2003ko abenduaren 17ko hitzaldi hori erlijio, politika eta gizarte arloko hainbat sektoretako ordezkari ziren 400 lagunengana aurrean egin zuen, V. Errepublikaren hurbileko etorkizunean funtsezko erreferentzia politikoa izango da, eta Frantzian krisiak jota zegoen arlo publikoaren emozio jakin bat nolabait islatzea ekarri zuen.

Halere, laikotasunaren ideia hori bera ia ez da ezagutzen gure artean, Espainian. Espainian laikotasunari buruzko ideien arazoak eta gutako askoren artean ulertzeko ezintasun horren jatorria, nire iritziz, batetik Espainiako gizarteak dituen inertzietan eta, bestetik, laikotasunaren aldeko askok ateismo neurritsu moduko baten gisan gaizki ulertze horretan bilatu behar genuke; irakurria dut, posta-zerrenda laiko batean,

laikotasunari buruzko honako definizio hau: “ateismoaren ikuspegitik laikoak gara besteen sinesmenak errespetatzen ditugunok eta gureak azaltzen utzi diezagutela eskatzen dugunok”.

Uste dut definizio hori laikotasunaren formulazio okerra dela, baldin eta laikotasunaren jatorrizko esanahiari erreparatzen badiogu, eta gainera, ez duela aukerarik ematen denek onartu dezaten eta zaildu egiten du ideia laikoak duen birtualtasunik onena: topaketarako eta bitartekaritza politikorako eremu izatearena. Salvador Pánikerrek esan zuen bezala, ezin daiteke nahastu laikotasuna, estrategia politiko gisa harturik –ezinbestekoa–, aukera ateo edo agnostikoekin: “Mundu profano baten ideia, kosmos desakralizatu batena, ‘desmusikalizatu’ batena, giza espirituaren asmakuntza aski berria -eta alegiazkoa- da; modernotasun usatu eta goraiatu horren hutsegiterik larriena da. Ongi dago estatuaren aparatua laiko bihurtzea, etika zibil bat sortzea eta irakaskuntza elizetatik aske egitea. Baina horrek ez du zerikusirik munduaren ustezko desengainuarekin (...). Logosa da, eta ez mitoa, hain zuzen ere, infinituki misteriotsua, ezkutatua, beldurgarria eta liluragarria den errealitate batera bihurtzen gaituena”.

Nire aldetik, uste dut merezi duela denoi, eta ez atoei edo agnostikoei bakarrik dei egingo dien laikotasun bat aldarrikatzea, hau da, aukera metafisiko estali gisa agertuko ez den laikotasun bat, baizik eta formula politiko eta, beraz, termino metafisikoetan erabat neutrala eta politikaren alorrean bakarrik beligerantea den laikotasun bat, laikotasuna askatasunerako estrategia gisa harturik, maila politikoan pertsonen eta gizartearen erlijiotasunari zabalik dagoen laikotasun bat, ateismoa eta agnostizismoa intelektualki elkarren lehian dauden aukera legitimoak diren bezalaxe,

eta bereizten gaituzten zentzuzko desberdintasunen emaitza baino ez direnak, nahiz horien asmoa, oinarritzen den komunitatearen gorespen edo ospakizun izatera mugatzen ez den ordena politiko bat izan, hots, herritarren zerbitzura dagoen botere publikoa finkatzeko laikotasun estrategiko bat.

Laikotasuna “ateismo edo agnostizismo tolerante” gisa ulertu ohi dena kontraesanean dago espiritu laikoarekin, bitartekaritza zibilaren espiritu gisa ulerturik. Botere publikoen laikotasunak ez du ukatzen, baina bai auresuposatzen, sinesmenen eta uste sendoen aniztasuna herritarren artean, eta ez du ukatzen, halaber, baina bai ordea auresuposatzen, predikatzeko eta kritikatzeko askatasuna, gure artean dauden aukera espiritual eta metafisiko desberdinen arteko apologetika eta lehia intelektuala.

Beharrezko laikotasuna, nire iritziz, Norberto Bobbio irakasleak aldarrikatzen duena da: “Espiritu laikoa ez da berez kultura berri bat, baizik eta egon litezkeen kultura guztien bizikidetzarako baldintza. Laikotasunak metodo bat adierazten du, eduki bat baino gehiago”. Laikotasuna ezin daiteke izan, beraz, jarrera metafisiko bat, baizik eta jarrera guztien arteko bizikidetzarako metodologia bat.

Nire iritziz, laikotasunaren benetako birtualtasuna ez da murrizten apaiz-jendearen eta apaiz-jende ez denaren arteko eztabaida batera (nahiz eta eztabaida hori beti interesgarria izan), baizik eta askoz ere baliagarriagoa eta maila politiko sakonagoko zerbait da, hots: oinarritzat duen komunitatearen gorespen edo ospakizun huts izatera soilik mugatzen ez den ordena politiko bat lortu nahi izatea, pertsona mailan kontsideratuta dauden herritarren zerbitzura botere publiko bat finkatzeko, pertsona gisa

ulerturik eta ez horrenbeste beren nazio, etnia, klase edo erlijioarekin loturiko nortasunaren arabera.

Asmo laiko horrekin bat etorritz, arlo politikoaren erdigunea eta funtsa ez da zerizan kolektibo bat, ezta *ius sanguinis* ere, ezta errebelatutako fede batekiko atxikipena ere, denik eta benetakoena izanagatik ere, ezta leinu baten loria edo etnia baten nagusitasuna ere, baizik eta bizikidetzatza-ideal baten gauzatze materiala eta morala.

Kontua da, norbanakoaren berezkitasun komunitarioa aitortuz, nola eman diezaiokegun arlo komunitarioari (eta erlijioa faktore komunitario bat da) berari dagokiona, aldi berean norbanakoaren autonomia bermatuko duen botere sozietario baten proiektua salbatuz, ez bakarrik botere politikoaren beraren aurrean, baizik eta bere Komunitatearen jabetza-eskakizunen aurrean ere.

Galdera hori formulazio berezi bat baino ez da, *ad hoc* esango genuke, laikotasunaren arazo horretan barneratzeko, liberalismo politikoaren kontzeptua eraikitzeke lanari hasiera ematen dionean Rawls-ek aipatzen dituen gai horien ingurukoa:

Nola liteke herritar libre eta berdinek osatutako gizarte zuzen eta egonko batek luzaroan irautea, baldin eta erlijio, filosofia eta moral arloko doktrina zentzudunek guztiz banantzen badituzte herritar horiek?

Laikotasunak ez du esan nahi, besterik gabe, Estatuaren ez-konfesionaltasun pasiboa, baizik eta eremu politiko bat sortu eta sustengatzeko konpromiso

garrantzitsuagoa da, etikak eta sinbolika zibilak bakarrik zehaztua, eta beraz, ateak ixten dizkio arlo konfesionalaren edo etnikoaren nahasmendu politiko orori.

Ikuspegi laiko batetik, botere politikoak herritarraren izaeraren gainean bakarrik du eskumena, eta ezarritako titulu bakar horren arabera ezartzen da norberaren gaitasuna botere politiko horren eraketan eta kontrolean parte hartzeko, beste inolako baldintzarik kontuan izan gabe, ez kidetasun erlijiosua bakarrik, ezta arraza edo kidetasun etnikoa ere.

Ezinbestekoa da laikotasunaren gune eraginkorra berreskuratzea, hots, hura baliagarri egiten duena eta arlo politikoaren oinarriak berraztertzeraz bultzatzen gaituena: Demokrasiaren jatorriaz, bizikidetzarako formula gisa, jabeazten gaituena, herritarrak izanik, eta ez horien odola edo fede erlijiosua, haren zutabe nagusi.

El País

2004ko urtarrilaren 18an

- **LAÏCITE ET SPIRITUALITES A LA CITE.**

« Le débat sûr le principe de laïcité résonne au plus profond de nos consciences. La laïcité fait référence a notre cohésion nationale, a notre aptitude a vivre ensemble a notre capacité a nous réunir autour de l'essentiel ». C'est avec ces mots que le Président Chirac commençait son discours sur la laïcité, mots que nous écoutions dans

l'expectative le 17 Décembre devant la télévision, nous c'est à dire quelques journalistes et amis ainsi que le Maire de Perpignan et sénateur M. Jean Paul Alduy.

Avec ce discours Chirac rendait publique sa décision de suivre les recommandations de la Commission Stasi sur la laïcité et d'instaurer une initiative législative pour défendre la neutralité religieuse de certains espaces publics en France, spécialement celui de l'école publique. Ce discours du 17 Dic. 2003 fait devant 400 personnes représentant les différents secteurs religieux politiques et sociaux de la société française va être une référence, politique clé dans le futur prochain de la V^a République et suppose une certaine récupération de l'émotion pour tout ce qui est public et actuellement en crise en France.

Cependant celle même idée de laïcité est presque inconnue en Espagne.

Le problème de l'idée de laïcité en Espagne et de son incompréhension générale est du côté d'un côté à des inertes de fonctionnement de la société espagnole, d'un autre côté de la mauvaise définition de la laïcité par beaucoup de les partenaires qui la considèrent comme une sorte d'athéisme modéré. J'ai lu, dans des courriers laïques, la définition des « laïques » comme étant ceux qui à partir de leur athéisme respectent les croyances d'autrui et exigent qu'on les laisse exposer les leurs. Je crois que cette définition est une formulation erronée de la laïcité par rapport au sens originaire de la laïcité et que de plus elle ne favorise pas sa prise en charge généralisée, elle rend difficile le succès de la meilleure virtualité que possède l'idée laïque : celle d'être précisément un espace de rencontre et de médiation politique comme l'a dit Salvador

Paniker on ne peut confondre la laïcité comme stratégie politique – indispensable – avec les positions athées ou agnostiques : « l 'idée d'un monde profane, d'un cosmos désacralisé, « demusicalisé » est une invention récente – et une illusion – de l'esprit humain ; c'est la grande erreur de la modernité si malmenée. Il est bon feu l 'appareil de l 'Etat devienne laïque, que se régénere une éthique civile et que l'enseignement s'émancipe des églises. Mais ceci n'a rien à voir avec le suppose désenchantement du monde (...) C'est précisément le logos et non le mythe qui nous ramene à une réalité infiniment mystérieuse, voilée terrible et fascinante ».

Je crois en ce qui me concerne que cela vaut la peine de défendre une laïcité qui réunisse tout le monde et pas seulement les athées ou agnostiques, c'est a dire une laïcité qui ne se manifeste comme une option métaphysique dissimulée mais comme une forme politique, donc strictement neutre en termes métaphysiques, seulement belligérante dans le cadre du politique, une laïcité comme stratégie pour la liberté, une laïcité dans le politique ouverte à la religiosité personnelle et sociale, ainsi qu 'a l'athéisme et l'agnosticisme comme des options légitimes qui rivalisent intellectuellement entre elles et qui ne sont que le fruit des différences raisonnables qui nous séparent, une laïcité qui cherche un ordre politique qui ne se limite pas a être une simple exaltation ou célébration de la communauté dans laquelle elle se fonde, une laïcité stratégique pour établir un pouvoir politique au service des citoyens. Le sens habituel de la laïcité comme étant une forme « d 'athéisme ou d'agnosticisme tolérant », est contradictoire avec l'esprit laïque comme esprit de médiation civil.

La laïcité des pouvoirs publics ne supprime pas mais présuppose la pluralité des croyances et des convictions dans le sein de la citoyenneté. Elle ne élimine pas non plus mais présuppose la liberté de prêcher et de critiquer, l'apologétique et la compétence intellectuelle entre les différentes options spirituelles et métaphysiques qui existent entre nous.

La laïcité nécessaire est d'après moi celle qui propose le professeur Norberto Bobbio : « l'esprit laïque n'est pas en lui-même une nouvelle culture mais la condition pour la coexistence de toutes les cultures possibles. La laïcité exprime plutôt une méthode plus qu'un contenu ». La laïcité ne peut être donc une position métaphysique mais une méthodologie de cohabitation entre toutes les positions.

D'après moi, la véritable virtualité de la laïcité ne se réduit pas à un débat entre cléricaux et anticléricaux (débat par ailleurs toujours intéressant) mais elle consiste en quelque chose de beaucoup plus précieuse, à la fois plus politique, à savoir : prétendre un ordre politique qui ne se limite pas à être une simple exaltation ou célébration de la communauté sur la quelle il se fonde, pour arriver ainsi à établir un pouvoir public au service des citoyens personnellement considérés en tant que tels et non pas en fonction de leur identité nationalitaire, ethnique, de classe ou religion.

Conformément à cette proposition laïque, le centre et le fondement de tout ce qui est politique, n'est aucune essence collective, ni le *ius sanguinis* ni l'adhésion à une foi révélée même si elle est très vraie, ni naturellement la gloire d'une dynastie, ou l'hégémonie d'une ethnie mais la réalisation matérielle et morale d'une idée de cohabitation coopérative et juste pour tous.

La question à traiter est, partant de la reconnaissance de la « consubstantialité » communautaire de l'individu : Comment donner à ce qui est communautaire (et la religion est un facteur communautaire) à qui est à lui en sauvant dans le même temps le projet d'un pouvoir sociétair qui garantisse l'autonomie de l'individu non seulement face au pouvoir politique mais même face aux demandes possessives de sa propre communauté.

Cette question n'est qu'une formulation spécifique ad hoc pour pénétrer le problème de la laïcité, de ces questions avec lesquelles Rawls commence son propre travail de construction du concept de libéralisme politique :

« Comment est possible l'existence durable d'une société juste et stable de citoyens libres et égaux qui ne cessent d'être profondément divisés par des doctrines, religieuses et morales raisonnables ? La laïcité ne suppose simplement la non confessionnalité passive de l'État mais un compromis plus ambitieux pour créer et soutenir un espace politique défini exclusivement par l'éthique et la symbolique civile, fermant la porte à toute confusion politique sur le confessionnel ou l'éthnique.

D'un point de vue laïque, la condition de citoyen est l'unique sûr laquelle le pouvoir politique soit compétent et c'est en vertu de cet unique titre que s'établit la capacité de chacun à participer à la constitution et au contrôle de ce même pouvoir politique sans que l'on puisse prendre en compte aucune autre condition ni l'appartenance religieuse, ni la race ou l'appartenance à une ethnie.

Il est indispensable de libérer le noyau efficient de laïcité, cette chose qui la rend précieuse et nous permet de reconsidérer les fondements de tout ce qui est politique, cette chose qui nous dévoile l'origine de la Démocratie comme formule de cohabitation qui fait de la citoyenneté, et non du sang ou de la foi religieuse, sa pierre de taille.

Participant au Dialogue *Laïcité et Spiritualités à la Cité* FORUM
Barcelona 2004

- **ZER DA SINDIKOA EDO HERRITARREN DEFENDATZAILEA?**

Zer da Sindikoa edo Herritarren Defendatzailea?: bere Arautegiak dioen moduan, Sindiko edo Herritarren Defendatzailea Udal Batzarraren ordezkari bat da, eta bere eginkizuna, herritarrei eta udal zerbitzuak erabiltzen dituztenei arreta, informazioa eta orientabideak ematea da zerbitzu horiekin zerikusirik dauzkaten kexen inguruan, eta egoki izanez gero, horiek hobetzeko gomendioak proposatzen ditu. Urtero, Udal Batzarrari informazioa eskaintzen dio, herritarren eta erabiltzaileen anonimata errespetatuz, egindako kexa eta kontsultak eta egindako hobekuntza-gomendioak jasotzen dituen Txosten bat aurkeztuz.

Lan horri begira, Sindikoaren edo Herritarren Defendatzailearen jardura Auzo Elkarrekin batera eta horiekin elkarlanean gauzatu beharra dago bereziki, hiriaren bizitzan parte hartzeko tresna gisa horiek duten balioagatik eta auzo guztietako arazoekiko duten hurbiltasunagatik. Abetxuko Auzo Elkartea balio horren adibide on bat da.

Gasteizko Sindikoaren edo Herritarren Defendatzailearen berezko eskumenak, funtsean, honako hauek dira:

Herritarren kontsultei erantzutea, norbanakoenak izan nahiz kolektiboenak izan, haien eskubide eta interes legitimoei eragiten dieten gaietan, Gasteizko Udalaren jarduera-eremuarekin loturik betiere, eremu horretatik kanpora geratzen diren gaiak beste erakunde batzuetara bideratuz.

Gomendioak eta iradokizunak, baita oroitzapenak ere, egitea Gasteizko Udaleko edozein Zerbitzuri eta haren organismo eta enpresa publikoei, baldin eta herritarrek dauzkaten interes eta eskubideekin loturik badaude, Hiriko Giza Eskubideen Gutunean horiek barneratuz (Saint Denis 2000), baita Arartekoaren eta Herri Defendatzailearen doktrinan ere.

Ikus dezakezuenetz, zerbitzu publikoarekin konprometituta dagoen eginkizun bat da, eta bertan, Gasteizko herritar guztiak elkarrekin topatu gaitezke.

La voz de Abetxuko
2003ko abendua

- **GORA BIZIKLETA!**

Aspalditik, nolabaiteko adostasuna dago hirigintza, ingurumen, gizarte eta politika arloetan, autoaren erabilerari buruz: aski onartuta dago autoa ezin dela neurririk gabe erabili banakoen bidaietan, nahi dugun bizi-kalitatea lortu nahi badugu, behintzat. Horren ondorioz, Europan aldatuz joan dira mugikortasun eta garraio politikak: garraio publikoa bultzatzen ari dira (metroa, tranbia, autobusa...), eta ibilgailuak partekatzea eta bizikleta erabiltzea ere bai. Gainera, gero eta argiago dago ezinbestekoa dela hiri barneko zirkulazioa mugatzea: oinezkoentzako tokiak handitzea.

Autoa da mugitzeko tresnarik onenetako bat, eta ekonomian garrantzi handia du, baina, egin duen bidean hainbeste zabaldu eta gero, bere arrakastaren biktima ere izaten hasia da: errepideetako ilaretan galduriko orduak, ingurumenean duen eragina (aire kutsadura eta zarata), sortzen dituen arriskuen giza eta ekonomi kostua, aparkatzeko toki falta... Hori guztia gogoan, mota guztietako adituek diote autoari mugatu egin behar zaiola zabaltzeko esparrua (oinekoentzako tokiak egokitzuz, aparkaleku zentzagarriak jarritz...) eta bestelako garraiobideak erabili behar direla. Gero eta argiago dago bizikleta, aisialdirako eta kirolerako tresna ez ezik, hiri barneko garraioa ere izango dela egiaz.

1990eko *Libro verde sobre el medio urbano* / *Livre vert sur l'environnement urbain* liburuan, Europako Batzordeak dio bizikleta tresna ona dela hirietako zirkulazio estutasunak eta zirkulazioari loturiko beste arazo batzuk leuntzeko: zarata, istripuak, aire kutsadura, hiri espazio alferrik galdua, ondare arkitektonikoaren suntsitzea, herritarren osasunaren galera eta hiri erdiko herritarren ihesa.

Proposamen horren bide beretik, Europako Batzordeak bizikleta bultzatu nahian segitu du, eta 1999an eskuliburu bat argitaratu du, Europako herrietan bizikleta nola erabili azaltzeko: *Ciudades cicables, ciudades con futuro / Villes cyclables, villes d'avenir* liburuan, Europako hiriak bultzatu nahi ditu bizikletaren erabilera sustatzearen aldeko konpromisoa har dezaten, baina, sentsibilizazio neurriak ez ezik, modua ere jarririk gero eta ezagunagoa eta erosoagoa izan dadin bizikleta garraio gisa erabiltzea. Gasteizko bidegorri sarea handia da, eta, aski ez bada ere, aukera egokia ematen du bizikleta erabiltzeko, batez ere era berean zirkulazioa lasaitzen bada eta espazioak oinezkoekin batean erabiltzen badira.

Europako Batasunak eginiko ikerketen arabera, bizikleta erabiltzeko ezin hobeak dira 50.000 eta 500.000 herritar bitarteko hiriak, gorabehera handirik gabeak eta klima gogorrik ez dutenak; esaterako, Groningan (Herbehereak), Delft-en (Herbehereak) eta Munster-en (Alemania), hirian egiten diren bidaien %40 baino gehiago bizikletaz egiten dituzte.

Europan, eskaera sozial eta politikoaren ondorioz, hiri asko nabarmendu dira bizikletaren erabilera bultzatzeagatik: Amsterdam, Bremen, Ferrara, Graz, Estrasburgo...

Metropoli handi batzuetan ere lortu dute bizikleta garraio alternatiba egiazkoa izatea, hain handiak izateak zirkulazioa eta bizikleta ezkontzeko omen dakartzan zailtasunen gainetik: esaterako, Basilean, Bartzelonan, Berlinen, Bernan,

Bolognan, Bordelen, Genevan, Groningan, Kopenhagen, Londresen, Naonedan, Nottinghaman, Parisen eta Zurichen.

Hiri horietako asko Ziklatzeko Moduko Hirien Elkarteko kide dira, baita Bizikletaren Lagunen Udalerrietako kide ere.

Gasteizek kontuan hartzeko moduko bidegorri sarea du (30 km), Espainiako Estatuko handienetako bat; nahiz eta bidegorri zatiak elkarri ondo lotu gabe egon, bizikletaz ibiltzeko seguruak diren beste bide batzuk erabiliz gero badira aukera egokiak bizikleta egoki erabiltzeko. Dena dela, oraindik asko falta da lehen aipatu ditugun Europako hiri horietan bezalako egoera izateko.

Gasteizko Udalak Euskal Herriko Unibertsitateari eskaturiko ikerketan, *La bicicleta en la Movilidad Urbana de Victoria-Gasteiz* izenekoan, adierazi dute Gasteiz egokia dela bizikleta hiri garraio gisa gero eta gehiago erabil dadin: gure hiriaren ezaugarri urbano eta fisikoei esker, bidaiak batez beste 7,5 km baino askoz laburragoak dira 7,5 km jotzen dira bizikleta egoki erabiltzeko mugatzat. Hiria, oro har, laua da, salbu Erdia Aroko aldea, baina hori ez da traba handia. Beharbada, gure artean gehien zabalduko aurrejuzgua hauxe da: Gasteizko klima ez dela bizikletan ibiltzeko modukoa. Hala ere, argi eta garbi dago Europako hiri batzuetan, nahiz eta klima gogorragoa izan, lortu dutela bizikleta, garraiobidea ez ezik, bizitzeko modu bat ere izatea. Horretan ari gara.

Berría

2003ko irailaren 21a

El Periódico de Álava

2003ko irailaren 22a

- **EUSKAL HIRIA**

Julio Medemek zuzendutako Euskal pilota filmean elkarrizketatutako guztien artetik, zirrara gehien eragin zutenak, batetik, terrorismoaren biktima gisa agertzen direnak ditugu, beren oinazearen sakontasuna erakutsiz, eta bestetik, José Ángel Cuerdaren hitz emankorrak eta Bernardo Atxagaren sena, metaforen jolas eder baten bitartez euskal herritar gisa dugun identifikazio hori ez “*Herria*” hitzean eraikiz, filmean presenteegi dauden homogeneousotasun etnikoez beterik, baizik eta “*Hiria*” hitzean oinarrituz, nahasmen, elkar menpekotasun eta gizabidetasunaren paradigma gisa harturik. Izan ere, uste dut Espainian eta Euskadin ditugun arazoetako asko gizabidetasunaren inguruan dugun tradizio urriaren ondorio direla; horregatik da hain garrantzitsua hiriaren inguruko gogoeta egitea, ez eremu geografiko gisa ulerturik, baizik eta bizikidetzarako benetako paradigma gisa.

Bertute demokratikoa, hiriko bertuterik nagusiena ere dei dezakeguna, utopia-puntu batekin gure interes eta jabetza partikularrak albo batera uzteko gaitasuna izango litzateke –baina horiei uko egin gabe–, eta horrekin batera, politikaren esparruan herritar soila izateaz baliatzea, gainerako herritar guztiekin berdintasunezko egoera batean.

Europako tradizio politiko guztia, nolabait ere, botere politikoa jabetzaren partzialtasun horretatik (tribuarena, feudoarena, klasearena...) bereizteko prozesu luze eta korapilotsua da, gauzak orokortzeko ahalegin etengabe baina bete gabe horretan. Norberekoikeriak gainditzeko gaitasun hori da gizarte osoa egituratzen duena. “*Gu*” partzial horren demagogia mozkortzailearen aurka gizabidearen aldeko eztabaida jarri beharra dago, behar hainbat ñabartua eta egituratua, eta ahalbidetuko duena, batetik, atxikipen kultural, etniko eta erlijioetsuen manipulazio emozional eta sinboliko interesatua agerian uztea, eta bestetik, gizarte-eremu bat bideratuko duena, atxikipen horiek beren adierazpen-eremu propioa izan dezaten.

Aldaketa teknologiko eta soziologikoen garrantzia eta azkartasunak, pluralismoaren “shockak”, kultur aniztasunaren agerpenak, denbora historiko honen balioen leherketak nolabaiteko ziurgabetasun psikologikoa eta morala eragin ahal izan dute beren nortasun propioa nortasun kolektibo trinko jakin baten inguruan oinarritzen duten guztiengan. Sindrome honen aurrean, erantzuna ezin daiteke izan utzikeria fatalista, baina ezta ere arrazionaltasun ekonomiko eta juridikoaren oposizio kontzeptual eta doktrinario hutsa ere. Ezinbestekoa da alderdi publikoaren emozio berri bat sustatzen eta berritzen jakitea, bizitza politikoa beteko duena, jatortasun politikoaren mamu zaharrak berpizterik izan ez dezagun.

Batetik, Estatu nazionalen eremuan ordezkaturik dagoen demokraziak jasan dezakeen konfiantza-krisiaren aurrean, eta bestetik, Europako burokrazien legitimotasun urriaren aurrean, hiria eremu politiko eta sozial berri gisa suspertzen ari da. Udal eremu horretan, hain zuzen ere, zabaltzen ari dira hurbiltasunezko demokrazia baterako baldintzak. Hiriaren eremuan aukera dugu herritar guztiok bizitza politikoan parte hartzeko, herritarrek dituzten eskakizunetara egokitutako modu ulergarri batean: hiriko herritartasuna. Hortik sortua da, hain zuzen ere, udal ordezkarien aurka, herritarrek gertuen dituzten ordezkarien aurka, zuzendutako indarkeria terroristak euskal gizartean eragin duen urradura larria, ez bakarrik gizabidearen aldetik, baizik eta, baita ere, politikaren ikuspegitik ere. Alkate eta zinegotzien aurkako jazarpenezko indarkeria hori dugu terrorismoaren aurka eta ideologikoki justifikatu nahi dutenen aurka arlo sozialean eta politikoan eman den erantzun handienaren sorburua.

Herritarren bizikidetzaren eremuan nabarmen geratzen dira gatazkarako faktoreak, baina baita ere, batzen gaituzten elkartasunezko loturak ere. Hiriko Giza Eskubideen Gutunak dioten moduan: “Eskubide zehaztu bakoitza bakoitzari baldin badagokio, herritar libre eta solidario bakoitzak ere halaxe bermatu behar die gainerakoei”.

Herritartasunaren asmakuntza botere publikoen aurrean berme batzuk aldarrikatzea baino gehiago da: berarekin batera, gizarte-kontratuaren ulerkera berri bat dakar, herritarraren izatea bera justifikatzen duena. Justifikazio hori ezin daiteke etorri odolkidetasun komunitarioak edo nortasun-kidetasunak finkatua: herritartasuna bera da gure nortasun politikorik preziatuena, izaki autonomo gisa justifikatzen gaituena, menpekoen izate horretatik askatzen gaituena eta zoriontasuna gure adimenaren arabera bilatzeko aukera ematen diguna, eta ez bakarrik gure nortasun-tradizioaren arabera. Herritartasunak askatasuna bermatzen digu, gure komunitatearen jabetza-gogo horien aurrean, eta orijinalak izateko eskubidea ematen digu. Herritartasuna bizikidetzaren nortasuna da.

Gure postmodernotasun politiko eta juridikoarekin bateragarri diren eta batera bizi daitezkeen nortasun bakarrak fundamentalismo orotatik ihes egiten dutenak dira. Horretarako formula Andrés Ortiz-Osesek proposatzen diguna izango litzateke, Josetxo Beriainen “*La identidad Colectiva: Vascos y Navarros*” liburuaren hitzaurrean: “Nortasun absolutu edo dogmatikoaren eta ez-nortasun hustu edo ezereztuaren artean badago nortasun sinboliko, ireki eta harremanezko bat”.

Gure bizimodu politikoaren erdian herritartasuna eta arrazoibide gizabidetsua jartzeko gai baldin bagara, alderdi identitarioak eta partikularrak maila pertsonalean eta sozialean aurkituko du bere zentzua, eta atzean geratuko da, behin betiko, gatazka sinbolikoen tentazioa. Eszenatoki horretara iristeko, erabakigarria da hezkuntza, pedagogia soziala eta instituzionala, arlo politikoaren ulermena herritartasunaren ardatzaren inguruan antolatuko duena, sentimendu kolektiboak suminduko ez dituen eta horien manipulazio politikoa errotik eragotziko duena”.

El Pais

2004ko urtarrilaren 12an

6.2 Prentsako Txostena

6.3 MESTIZAJE-TOPAKETA: “HIRI-KULTURA ETA KULTUR TRUKEA”, GIPUZKOAKO GALIZIA ETXEA ANTOLATUA. 2003 EKAINA.

Herritartasunaren kultura sustatzea

Ekonomia-jarduera merkatuaren indarren pean utz ez dezakegun bezalaxe, gure kontzientzia kolektiboa ere ezin dezakegu utzi gizarte-inertzia itsuen esku, tribu eta komunitateen narzisismo desberdinen esku. **Demokraziak eta bere ideal herritar eta politikoak eduki utopikoa dute, naturalak ez direlako.**

Zientziak, baina baita zuzenbideak, teknikak, erotismoak, gastronomiak eta heziketa onak ere naturala den hori baino harantzago joan nahi dute. Demokrazia, horrenbestez, artifiziala da, arte bat delako, hau da, materia gordina baino ez dagoen tokira arrazionaltasuna ekarri nahi duen tresna bat da; nahiz gaur egunean badakigun arrazionaltasunik onena faktore irrazionalen ekintza kontuan hartzen duena dela, baina ez ordea horien pean erortzeko, baizik eta horiek dominatzeko.

Gure teoria politikoan nagusi den gizabidetasun-politikaren inguruko eztabaida hori ustez gailentzen den arren, gure praktikan, ordea, kutsu herderiarra duen tentazio esentzialistak, nortasun trinkoak, arbasoen ahotsak eta zentzudun samarrak diren jatortasunak ikus ditzakegu zeharka.

Seguruenik, berdintzen gaituen sentimendu-magma hori ezin liteke besterik gabe ukatu zapaldutako sentimendu oro bi aldiz arriskutsua delako, eta beraz, lekutxo bat egin beharko zaio, baina bestalde ere, beharrezkoa da beti jatortasun politikoaren tentazioa

zaintzapean edukitzea eta unibertsaltasunaren, bereizgabetasunaren eta gizatasunaren arrazionalismo herritar-politiko bat are biziago mantentzea. Horrela, ezinezko bihurtuko ditugu nortasun murrizgarriak, eta aldiz, are bideragarriagoak izango dira kultur mestizajeak, heresia, orijinaltasuna eta heterodoxia, eta azken batean, are handiagoa izango da gure askatasun pertsonala.

Betidanik miretsi izan dut erro ilustratuak dituen Frantziako tradizio politikoa. Historikoki horrekin lotu izan dira gure Azkoitiko Zalduntxoak, nahiz eta akats nabarmen batzuk egin, zeren “bertute errepublikarraz” duten ikusmolde horretan eta *Gizonaren eta Herritarraren Eskubide* horien etikan gizakiek inoiz amestu duten zibilizazio-maila gorenetakoa bat topatu izan baitut, berez izaera franko-frantsesa den hori gainditzen duelarik eta gizaki guztiok geureganatu dezakegun eta, nire ustez, geureganatu beharko genukeen herritartasun-maila bihurtzen delarik, nahiz ez diegun horregatik maila horrekin bateragarri diren bereiztasunei uko egin behar.

Jeinutasun politiko hori, nire iritziz, oinarritzat duen komunitatearen gorespen edo ospakizun huts izatera soilik mugatzen ez den ordena politiko bat lortu nahi izatea da, harantzago joatea da: pertsonalki kontsideratutako herritarren zerbitzura dagoen botere publiko bat, pertsona gisa ulerturik eta ez horrenbeste beren nazio, etnia, klase edo erlijioarekin loturiko nortasunaren arabera. Asmo horrekin bat etorritz, arlo politikoaren erdigunea eta funtsa ez da zerizan kolektibo bat, ezta *ius sanguinis* ere, ezta errebelatutako fede batekiko atxikipena ere, denik eta benetakoena izanagatik ere, ezta leinu baten loria edo etnia baten nagusitasuna ere, baizik eta bizikidetzak-ideal baten gauzatze materiala eta morala.

Bertute demokratikoa, hiriko bertuterik nagusia ere dei dezakeguna, utopia-puntu batekin gure interes eta jabetza partikularrak albo batera uzteko gaitasuna izango

litzateke –baina horiei uko egin gabe–, eta horrekin batera, politikaren esparruan herritar soila izateaz baliatzea gainerako herritar guztiekin berdintasunezko egoera batean. Europako tradizio politiko guztia, nolabait ere, botere politikoa jabetzaren partzialtasun horretatik (tribuarena, feudoarena, klasearena...) bereizteko prozesu luze eta korapilotsua da, gauzak orokortzeko ahalegin etengabe baina bete gabe horretan.

Egia da, naturala dena, hasieran emanda dagoena, gizakiari buruzko talde-izaera hori dela, eta horren arabera, gizakia bera parte den osotasun horren adierazpena baino ez da. Bertute zibikoak, hain zuzen ere, naturaltasun horren aurkako sinesmena du oinarri, Renanek adierazi zuen moduan, hau da, hitz egiteko eta sentitzeko gaitasunean, gure egoerari buruzko azalpen berehalakorik eman gabe, edo nahitaez horrek baldintzatuak egon beharrik gabe. Ospakizun komunitario oro ezinezkoa dela esan nahi al du horrek? Nortasun kolektibo oro, azken batean, arrazista eta baztertzailea dela? Legearen aurkakoa al da beti kidetasunaren sentimendua?

Ez. Hori bidegabeki erabiltzea bakarrik.

“Gu” komunitario horren demagogia mozkortzailea ez da topatzen ari bere aurkako eztabaida gizabidetsurik, behar hainbat ñabartu eta egituraturik, eta ahalbidetuko duenik, batetik, atxikipen kultural, etniko eta erlijiosuen manipulazio emozional eta sinboliko interesatua agerian uztea, eta bestetik, gizarte-eremu –ez politiko– bat bideratuko duenik, atxikipen horiek adierazteko beren eremu propioa izan dezaten.

Pluralismoaren “shockak”, kultur aniztasunaren agerpenak, denbora historiko honen balioen leherketak nolabaiteko ziurgabetasun psikologikoa eta moralala eragin ahal izan dute beren nortasun propioa nortasun kolektibo trinko jakin baten inguruan oinarritzen duten guztiengan, eta horrek murriztu egiten du halako jarrerak gorestera bultzatzen gaituzten ezaugarriak; **Eric Fromm**-ek aipatzen zuen askatasunarekiko beldurraren

sindromea dugu berriro, Europako XX. mendearen 30eko hamarraldian hain ondorio larriak eragin zituena.

Sindrome honen aurrean, erantzuna ezin daiteke izan utzikeria fatalista, baina ezta ere arrazionaltasun ekonomiko eta juridikoaren oposizio kontzeptual eta doktrinario hutsa ere, eta horrexegatik, ezinbestekoa da alderdi publikoaren emozio berri bat sustatzen eta berritzen jakitea, bizitza politikoa beteko duena, jatoritasun politikoaren mamu zaharrak berpizterik izan ez dezagun.

Kontua ez da tipikoa den horrekiko atsegina gaitzestea, baina bai ordea “tipismoaren” aldeko politika orotatik ihes egitea, arlo kulturalen eta sozialean bide emanaz halere. XIX. mendeko liberalismoak, askatasun pertsonalaren mesedetan, Elizaren eta Estatuaren –Tronuaren eta Aldarearen– arteko bereizketa sustatu zuen bezalaxe, baina uko egin gabe norbanakoek beren fedea bizitzeko duten askatasunari, nire ustez askatasun pertsonalerako beharrezkoa da botere politikoaren eta jatoritasun etnikoaren artean bereizketa berri bat egitea.

Herritartasunaren eta norbanakoaren gailentasunaren aldeko eztabaida horren aurrean, European eztabaida politiko berriak eraiki dira, hala nola Le Pen-ena, Vlaams Blok izenekoa Belgikan, Jörg Haider-ena Austrian, Rossi eta amets padanoa, Gianfranco Fini-rena Italian... esentzia kolektiboari buruzko teologia politiko batez. Baldin **Gizakiaren eta Herritarraren Eskubideen** inguruko ideia bera lorpen utziezina dela irizten badiogu, horrek esan nahi duen guztiarekin (zibilizazio moral eta juridikoaren mailan), ezin dugu axolagabeziaz aztertu politikaren ikuspegi zoologikoa. Ez da kasualitatea Frente Nazionaleko ideologo den **Bruno Mégreten** kontsigna, hain zuzen ere, “giza eskubideen ideologiaren nagusitasunetik politika berreskuratzea” izatea.

Demokrata gisa dugun eginkizuna, hain justu ere, horren aurkakoa da: inolako ideologia politikok etekinik ateratzerik ez izatea eskubide horiek urratuz edo ez ezagutuz.

Herritartasunaren kultura horrek, politika ulertzeko modu gisa harturik, nolabaiteko bertute pertsonal bat eskatzen du halaberrez, eta horren arabera, gutako bakoitzak jakin egin beharko luke bereizten zein bi planotan mugitu behar dugun gizarte plural batean; batetik, zentzu edo kidetasunaren gaiei buruzko aukera pertsonal arriskutsuen alorra, nekez onartzen baitituzte egiaztapen edo gezurtapen enpirikoak, eta bestetik, eztabaida zibilaren eta eztabaida legegilearen eremu den beste plano hori, eta azken horretan ezin dugu baliagarritzat jo –ezta ulergarritzat ere– guztion begietara egiaztatu edo gezurtatu beharra dagoen hura baino.

Gure arteko bertute zibil hori kontzeptualki eta emozionalki indarrean jartzea lortzen baldin badugu bakarrik ekin ahal izango diogu itxaropenez hastera goazen mende berriari, eta mende berri horretan, maila guztietan topatuko dugun aniztasunen ugaritze horrek eraginda (erlijioan, estetikan, filosofian eta kulturaren), herritartasuna ez da soilik naziotasunaren espediente administratibo bat izango, baizik eta bizikidetzarako agindu bat, denon arteko topaketarako gune bat, eta hori gabe, pluralismoa desintegrazio bilakatzen da eta batasuna zapalkuntza.

Europako tradizio demokratikoak, XXI. mende honetan bizirik iraungo badu, herritartasun politiko, askatu, bereizi bat eraikitzeari ekin beharko dio, gutako bakoitzak geure bihotz ñimiñoan gordetzen dugun kidetasun-joeretatik aske. Azpimarratu nahi dut kontua ez dela joera horien errealitate psikologikoa, afektiboa eta sinbolikoa ukatzea; ez zait zuhurra iruditzen gutako bakoitza den indar irrazional horien errealitateari ez-ikusiarena egitea eta horien elikagai diren bultzada telurikoak galtzea. Atzean utzi berri

dugun XX. mendeak aukera eman digu horrelako fenomenoek beren barruan gordetzen duten suntsipen-indarra ikusteko.

Sinesmen erlijioitsuak ukatu ezin diren bezalaxe, zeren eta horiekin bat egiten dutenei oinarri bat eta zentzu bat ematen baitiete, eta bat-egite horren bitartez kontsolamendua edo salbazioa espero baitute, irrazionala den alderdi hori kontuan izateko modu arrazoizko bat bilatu behar dugu; denok ikasi dugu –eta ez da gauza erraza izan– gure atxikipen erlijioitsuak –positiboak eta negatiboak– gure leialtasun politikotik bereizten. Erlijioak esplikatutako eta Elizak egituratutako mundu batean bizi ziren gure arbasoak, erlijio-kidetasunean topatzen zuten funtsezko nortasun kolektiboa, eta hori gabe ezinezkoa zen politikoki koherentea zen “gu” bat eraikitzea. Hortxe aurkitzen dugu Erreformatik forma politiko eta juridikoetan eragin zuen haustura politikoa, ordu arte “tronua eta aldarea”ren arteko batasun banaezin gisa ulertzen zen horri zegokionez. Hortik sortua da “cuius regio, cuius religio” soluzioaren logika: Erregearen erlijioa, Erresumaren erlijioa. Ez al dugu gaur zentzugabetzat hartzen, Europako tradizio politikoaren testuinguruan bederen, herritarren homogeneotasun konfesionalaren beharra, Estatuaren batasunerako justifikazio gisa?

Politikaren ikuspegi gizabidetsuak, gaur egunean, leialtasun politikoko elkar-ulertze bat hitzartu beharra dakar, kidetasunezko joera horietatik, nortasun komunitario edo nazionalitarioetatik bereizita eta beregaina. Ahots horiek despolitikatzea da xedea, hots, alderdien aukera desberdinek, lider karismatikoek edo sentimenduen demagogia errazak atxikimendu hori bidegabeki ez erabiltzea.

1789. urtean **Herritartasuna asmatu izana** botere publikoen aurrean berme batzuk aldarrikatzea baino gehiago da: berarekin batera, gizarte-kontratuaren ulerkera berri bat

dakar, herritarraren izatea bera justifikatzen duena. Justifikazio hori ezin daiteke etorri odolkidetasun komunitarioak edo nortasun-kidetasunak finkatua: herritarrak berak dira gure nortasun politikorik preziatuena, izaki autonomo gisa justifikatzen gaituena, menpekoen izate horretatik askatzen gaituena eta zoriontasuna gure adimenaren arabera bilatzeko aukera ematen diguna, eta ez bakarrik gure nortasun-tradizioaren arabera. Herritartasunak askatasuna bermatzen digu, gure komunitatearen jabetza-gogo horien aurrean, eta orijinalak izateko, heretiko izateko eta heterodoxo izateko eskubidea ematen digu.

Ezerk ez digu galerazten, baldin hala nahi badugu, nortasun kolektibo jakin baten barruan erroak egitea, eta era berean, ezerk ez digu eragozten guk aukeratutako erlijio-fede hori gutako bakoitzak nahi duen garbitasunez eta intentsitatez bizitzea, baina botere politikoak ez du zilegitasunik erlijio baten edo nortasun baten berme gisa eratzeko, denik eta tradizionalena izanik ere. Gure postmodernotasun politiko eta juridikoarekin bateragarri diren eta batera bizi daitezkeen nortasun bakarrak fundamentalismo orotatik ihes egiten dutenak dira. Horretarako formula **Andrés Ortiz-Oses**ek proposatzen diguna izango litzateke, **Josetxo Beriainen** “*La identidad Colectiva: Vascos y Navarros*” liburuaren hitzaurrean: “Nortasun absolutu edo dogmatikoaren eta ez-nortasun hustu edo ezereztuaren artean badago nortasun sinboliko, ireki eta harremanezko bat”.

Harremanezko nortasun ireki hori erlatibista, dinamikoa eta ez-estetikoa da, mestizoa eta ez-garbizalea, elkarrizketazalea eta ez tradizional hutsa, eta bera dugu botere politiko “nortasun-ingeniaritza” asmo orotatik askatzen duena, ingeniaritza genetiko bano arriskutsuagoa bailitzateke.

Gure bizimodu politikoaren erdian herritartasuna eta arrazoibide gizabidetsua jartzeko gai baldin bagara, alderdi identitarioak eta partikularrak bere zentzua maila pertsonalean eta sozialean aurkituko du, eta atzean geratuko da, behin betiko, xenofobiaren, garbiketa etnikoaren, gatazka sinbolikoen eta nortasunarekiko obsesioaren gainerako adierazpenen tentazioa.

Eszenatoki horretara iristeko, erabakigarria da hezkuntza, pedagogia soziala eta instituzionala, arlo politikoaren ulermena herritartasunaren ardatzaren inguruan antolatuko duena, sentimendu kolektiboak suminduko ez dituen eta horien manipulazio politikoa errotik eragotziko duena. Pedagogia hori ez al litzateke izango Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen bokazio natural bat?

Javier Otaola

Rawls, J. *A Theory of Justice*, Harvard University Press, Cambridge (Mass), 1971, (Justiziaren Teoria, Kultura Ekonomikoaren Funtsa, Mexiko, 1978)

Sandel, M. *Liberalism and the limits of the Justice*, Cambridge University Press, Cambridge, 1982

Karl Popper. *La Leçon de ce siècle*. Paris, 1996. Bibliothèques 10/18

John Rawls. *El liberalismo político*. Bartzelona. 1996. De. Critica.

Maurice Barbier. *La Laïcité*. Argit. L'Harmattan. Paris.

Will Kymlica. *Ciudadanía multicultural*. Paidós. Estado y Sociedad.1996

Salvador Paniker. *Aproximación al origen*. 57-58 or. Bartzelona, 1982.

Mikel Azurmedi. *La Herida Patriótica*. Argit. Taurus. 1998

Manuel Delgado.- *El animal público*. Anagrama. Bartzelona, 1999

Stephen Mulhall y Adam Swift. *El individuo frente a la comunidad. El debate entre liberales y comunitarios* Temas de hoy. Madril, 1996.

6.4. “ESPIRITUALITATEA HIRIAN” GAIARI BURUZKO
HITZALDIA PERPINYA HIRIAN, PERPINYA HIRIKO KANPO
HARREMANETARAKO SAILAK ANTOLATUA

PRENTSA-OHARRA

BARTZELONA 2004 FORUMARI ATXIKITAKO UDALERRI BIHURTU DA PERPINYA, ETA BERTAN LAIKOTASUNAREN IKURRAREN AZPIAN PROGRAMAZIO ZABALA IZANGO DA.

Bertaratu direnen artean Javier Otaola izan dugu, Gasteizko Sindiko edo Herritarren Defendatzailea.

2003ko martxoaren 1ean, astelehena, Bartzelonako Forumaren Barrutian sinadura-ekintza bat izan genuen, eta horren arabera, Perpinyako udala ekitaldiei atxikita geratu zen, bertako balio eta ardatz nagusiak zabaltzeko eta sustatzeko helburu horri begira, hots: bakerako baldintzak, garapen iraunkorra eta kultur aniztasuna. Perpinyako hiriaren ordezkari gisa Joan Pau Alduy izan genuen, bertako Alkate eta Ekialdeko Pirinioetako Departamentuko Senadore, eta Bartzelona 2004 Forumeko ordezkari gisa, berriz, Joan Clos, bertako Lehendakari eta Bartzelonako Alkate, eta halaber, bertaratuen artean aurkitzen ziren Jordi Oliveras jn., Forumeko zuzendari

nagusia, Perpinyako Udaleko kideak, Bernard Valero jn., Frantziako Kontsul Nagusia, Christopher Miles, Bartzelonako Institutuko Frantseseko zuzendaria eta Javier Otaola, Gasteizko Sindiko edo Herritarren Defendatzailea.

Hitzarmen horren bidez, Perpinya Forumaren udal laguntzaile bihurtzen da, eta hain zuzen ere, interesa duten Udalekin bereziki sinatutako hitzarmenaren arabera ematen da izendapen hori. Udalek hainbat ekintza antolatu ditzakete ekitaldiaren hiru programazio-ardatzekin loturik, hots: kultur aniztasuna, garapen iraunkora eta bakerako baldintzak. Jarduera horiek, Forumaren alde aurreko baimena dutela, Bartzelona 2004 Forumaren programazioarekin loturiko ekitaldi gisa iragarri daitezke.

Ekintza atxikiak

Perpinya hiriak Bartzelona 2004 Forumaren barruan duen parte-hartzearen goiburua Laikotasuna da, espiritualtasunak hiriaren barruan. Izenburu horren azpian zortzi adierazpide bilduta daude: Eliz Musikaren 2004 Jaialdia, aurten “Arima bat mundializazioaren alde” izenburutzat duena, Gaurko Espiritualtasuna Literatur Saria, Erlijioen Arteko Elkarrizketarako Eremu baten inaugurazioa, Ondare Espirituala hiriaren barruan izeneko kultur zirkuitua, Musika Etxearen Joan eta Etorriko Jaialdia, Spiritualité dans la Cité liburuaren aurkezpena, Koloreak Kultura eskola-jailadia eta auzoetako kaligrafia eta idazketa poetikoaren tailerrak. Perpinyako Udalak, halaber, El Arsenal izeneko kulturen eremua gauzatzea proposatu du Bartzelona 2004 Forumaren Jardunbide Onen deialdian. Gainera, Perpinyako hiria, Forumari atxikitako udalerrri gisa aurkezpen berezi bat egiteko aukera aztertzen ari da.

Gasteizen, 2004ko martxoaren 3an

Javier Otaola. Sindikoa edo Herritarren Defendatzailea.

**6.5. CATALUNYA ETA LONBARDIAKO SINDIKO ETA HERRITARREN
DEFENDATZAILEEN JARDUNALDIAK, BADALONAN, 2003KO IRAILAREN
24AN**

PROGRAMA

**JORNADA D'INTERCANVI D'EXPERIÈNCIES: SÍNDICS/QUES I DEFENSORS/ES
LOCALS DE CATALUNYA – LOMBARDIA**

**SEU DE LA JORNADA: BADALONA CENTRE INTERNACIONAL DE NEGOCIS
(BCIN)**

23 DE SETEMBRE DE 2003

09.30 **RECEPCIÓ** i lliurament de material.

Break Coffee

10.00 *Salutació i benvinguda per part de la Sra. Alcaldessa de Badalona, Sra. Maite Arquè i del Vicepresident primer i diputat de Participació Ciutadana de la Diputació de Barcelona, Sr. Celestino Corbacho Chaves. Obertura de la Jornada per part del Síndic de Greuges de Catalunya, Sr. Anton Cañellas, i el Difensore Cívico della regione della Lombardia, Dr.*

*Barbetta i salutació del **Coordinador dels Síndics/ques i Defensors/es Locals**, Sr. Francesc Palacín.*

10.20 **INTRODUCCIÓ** – Característiques socio-econòmiques de Catalunya i la regió de la Lombardia del Defensor de la Ciutadania de Badalona, ciutat seu de la jornada , i Difensore Cívico de la Regione della Lombardia

PRIMERA EXPOSICIÓ

10.30 **MARC LEGAL:** Quines són les bases d'on sorgeixen les institucions: lleis, reglament... aquest punt inclouria les relacions formals entre el Síndic/Defensor i els Ajuntaments, l'exposició de les seves competències bàsiques i també podria incloure les relacions i vinculacions amb els nivells regionals.

20 min. Presentació: Sr. Difensore Cívico della città di Bergamo
Sig. Giovanni Paramatti

20 min. Presentació: Defensor del Ciutadà de Mataró
Sr. Jordi Puigderrajols

50 min. Col·loqui Marc Legal

12.00 Pausa

SEGONA EXPOSICIÓ

- 12.15 **ASPECTES ORGANITZATIUS:** Com són les actuació de les institucions: recepció i tramitació de queixes, actuacions de mediació, actuacions d'ofici, informació i assessorament... funcionament general.

20 min. Síndic de Greuges de Reus

Sr. Francesc Palacin

20 min. Difensore Cívico dei comuni di Gardone Riviera, Salò, Tignale e Toscolano Maderno

Sig. Vittorino Zattoni

50 min. Col·loqui Aspectes Organitzatius

- 13.45 **DINAR ofert per l'Ajuntament de Badalona al restaurant del BCIN, seu de la Jornada**

TERCERA EXPOSICIÓ

- 15.15 **ASPECTES VALORATIUS:** Valoració dels resultats obtinguts fins al moment, expansió i difusió de la institució.

20 min. Difensore Cívico della provincia di Lecco

Sig. Luigi Lia

20 min. Defensora del Ciutadà de Girona

Sra. Ma. Teresa Seseras

50 min. Col·loqui Aspectes valoratius

16.45 **CONCLUSIONS FINALS**

17.00 *Acomiadament dels assistents per part de la Sra. Alcaldessa de la ciutat i cloenda de la jornada a càrrec del Difensore Cívico della Lombardia i del Síndic de Greuges de Catalunya*

17.30 **Visita Cultural a la Badalona Romana (Baetulo)**

19.00 FIDE LA JORNADA

CONCLUSIONS DE LA JORNADA CELEBRADA A BADALONA

*En data 23 de setembre de 2003, es va celebrar a Badalona una Jornada d'Intercanvi d'Experiències entre els Síndics/ques de Greuges i Defensors/es del Ciutadà Locals de Catalunya i els Difensores Cívics della Regione della Lombardia, i que va estar presidida per la **Sra. Alcaldessa de Badalona, Sra. Maite Arquè, el Síndic de Greuges***

de Catalunya, Sr. Anton Cañellas, el Difensore Cívico della Lombardia, Dr. Alessandro Barbeta, el Coordinador dels Síndics/ques i Defensors/es Locals de Catalunya, Sr. Francesc Palacín, el Director del Centre per a la Participació Ciutadana de la Diputació de Barcelona, Sr. Antoni Camps i el defensor amfitrió, Defensor de la Ciutadania de Badalona, Sr. Desideri León.

A aquesta trobada van assistir unes seixanta persones i va esdevenir en una interessant i enriquidora oportunitat per contrastar i assolir les diferents formes de fer dels defensors a les diferents ciutats, tant de Catalunya com de la Lombardia.

Les conferències exposades van tractar tres aspectes importants de la institució: marc legal, aspectes organitzatius i aspectes valoratius, i els síndics/ques i defensors/es ponents van ser:

- Sr. Difensore Cívico della città di Bergamo **Sig. Giovanni Paramatti**
- Defensor del Ciutadà de Mataró **Sr. Jordi Puigderrajols**
- Síndic de Greuges de Reus **Sr. Francesc Palacín**
- Difensore Cívico dei comuni di Gardone Riviera, Salò, Tignale e Toscolano Maderno **Sig. Vittorino Zattoni**
- Difensore Cívico della provincia di Lecco **Sig. Luigi Lia**
- Defensora del Ciutadà de Girona **Sra. Ma. Teresa Seseras**

MARC LEGAL

Pels **difensores cívics de la Lombardia** no existeix un precedent històric ja que el marc legal estatal no recull la figura del Defensor del Pueblo. El marc legal ofereix la possibilitat de crear defensores per a les diferents regions i províncies que componen el paisatge polític d'Itàlia, i per a les distintes ciutats i pobles. Els pobles de pocs habitants formaran un conjunt regit per un difensore cívico supra-comunale o de província. Els ciutadans que tinguin en la seva comunitat o província un defensor, hauran accedir a aquest, no podent accedir al de altra ciutat, comunitat o província que no sigui la seva, ja que els defensores tenen molt delimitats les seves competències territorials. Els ciutadans de les comunitats que no tinguin difensore propi sí que poden dirigir-se al de la ciutat, província o regió més pròxima.

El referent legal dels defensores de la regió de Lombardia és l'article 97 de la "Carta Constituzionale italiana", en el qual s'especifica el principi de la "buona amministrazione" de totes les administracions públiques envers els ciutadans. Principi que es recull de la "Carta del dret fonamental de la Unió Europea".

Així mateix, en base a l'article 117 de la Costituzione della Repubblica Italiana, es preveu que siguin garantitzats els drets civil i socials de tots els ciutadans davant de les administracions públiques, amb la figura d'un defensor que vetlli per la bona conducta administrativa a l'hora d'aplicar els seus criteris.

Per altra banda, en l'últim Congrés de la Regió, celebrat al maig d'enguany, es va proposar la regulació estatutària del difensore com a garant dels drets i llibertats dels ciutadans, des del **Codi de Bona Conducta** i sempre des d'una perspectiva de

mediador entre els ciutadans i les administracions, desproveït d'un poder sancionador pels diferents organismes, sent només un mecanisme d'autocrítica per les administracions.

Sí que tenen contemplada la possibilitat **d'actuar d'ofici**, denunciant les situacions irregulars que es puguin donar d'alteració dels drets dels ciutadans per part de les administracions.

El ponent dels síndics i defensors locals de Catalunya va iniciar la seva exposició fent referència a la creació de la institució del defensor local, dient que aquesta figura es va conformar amb la gradual consolidació dels Ajuntaments, com elements fonamentals en el govern dels ciutadans, mitjançant l'aplicació pràctica del principi de subsidiarietat, en mèrits del qual, els ens locals han d'estar dotats de competències i responsabilitats públiques per la seva proximitat a la ciutadania.

En referència a **la situació legal dels Síndics/que de Greuges o Defensors/es del ciutadà Local de Catalunya**, la Llei 21/2002 de 5 de juliol, regula per primera vegada, la possibilitat de creació d'aquesta figura, establint uns mínims, als quals necessàriament han d'adaptar-se les regulacions preexistents i que han de respectar aquelles institucions de nova creació.

Aquesta Llei autonòmica, atorga rang de llei al principi de subsidiarietat, introduint en l'àmbit municipal la figura del Defensor Local, per a defensar els drets fonamentals i les

llibertats públiques dels veïns del municipi, regulant els requisits per al seu nomenament i l'exercici d'aquest càrrec.

Per sota d'aquesta Llei en la jerarquia normativa, se situen els respectius reglaments i normes internes fixades per cada Ajuntament, molt més extenses i detallades.

L'existència d'una organització comú dels defensors locals, mitjançant el Fòrum de Síndics i Defensors, afavoreix la posada en comú dels problemes que sorgeixen i intenta unificar criteris respecte dels molts temes i qüestions que els són comunes, havent arribat fins i tot a l'establiment d'un text recomanat o model recomanable de reglament el contingut del qual va implantant-se gradualment.

La finalitat i objectiu fonamental del Defensor Local, és la de vetllar, defensar i atendre els drets dels ciutadans davant l'administració local.

ASPECTES ORGANITZATIUS.

L'interlocutor italià va fer la següent valoració:

- S'Introdueix a l'ordenament legal la figura del defensore cívico com un servei "amic" per la tutela dels ciutadà davant de les administracions i com un òrgan més de participació ciutadana.
- És una institució poc coneguda per part de la ciutadania i, encara, amb una incerta i contradictòria situació legislativa, jurídica i organitzativa.
- Les valoracions que fan els defensores no tenen caràcter vinculant, no són sentències judicials, és més una tasca de persuasió per a les administracions i una instrument de mediació entre aquestes i els ciutadans.
- Una institució que s'ha de potenciar amb interès, ja sigui per canviar el comportament de les administracions públiques; per facilitar una resolució conciliadora, i no jurídica, per l'actuació incorrecta de les administracions o ja sigui perquè els ciutadans puguin gaudir d'una eina de tutela gratuïta pels seus drets, que no disposen de recursos, i que veuen vulnerats els seus drets fonamentals.
- Es pot fer una anàlisi molt positiu d'una de les possibilitat que tenen els defensores cívici d'advertir a l'administració de possibles irregularitats en serveis públics , o organismes, que són utilitzats pel conjunt de la ciutadania: **l'Actuació d'Ofici**

Per part de la intervenció del **síndic de greuges local català**, els aspectes que va destacar van ser:

- Fa una divisió dels elements que en general conformen l'actuació de la institució i que ha fraccionat en tres:
 - **El ciutadà.** Part imprescindible de l'actuació, vol ser escoltat, de forma particular, i vol tenir una resposta fonamentada, positiva o negativa. I, a la mateixa vegada explicar els mecanismes a seguir per manifestar una queixa al defensor.
 - **L'Ajuntament.** És l'òrgan que té la màxima responsabilitat. té l'obligació de posar-hi tots els elements de forma eficaç, generosa i continuada perquè tirin endavant les actuacions dels defensors. L'exigència d'un respecte Institucional d'atendre en temps i forma les demandes i recomanacions del síndic.
Molts Ajuntaments han signat o signen acords tipus carta Europea de Salvaguarda dels Drets Humans a la ciutat (St. Denis 2000), que els obliga a la implantació, suport i consideració a les actuacions dels síndics.
 - **El Reglament.** És una eina d'actuació del síndic local, de regulació i consolidació dins dels reglaments generals municipals, el qual s'està elaborant amb una proposta d'un redactat estàndard, ja adaptat a la llei, que pugui constituir a la llarga un precedent perquè, almenys en els articles bàsics i fonamentals, hi hagi una unívoca personalitat: competències, relacions amb l'administració de l'Ajuntament, actuacions d'ofici, medis adients, dependències, informes etc., de tal forma que quedin les actuacions fetes pels diversos síndics dins d'una orientació semblant o al menys no contradictòria.

- **Formes d'actuació:**

- **Assessorament i informació al ciutadà.** La ciutadania buscar poder gaudir d'una atenció personalitzada que li doni algun tipus de consell o recomanació a molts ciutadans dels sectors de població més desprotegits.
- **Queixa.** Les queixes exposades per la ciutadania poden tenir diferents tractament, com ara: ser **admeses** a tràmit, per la qual cosa obrirem un expedient pel seguiment d'aquesta o poden ser **desestimades** tancant l'expedient amb una explicació que fonamenti el motiu de la decisió.
- **Mediació.** És una de les tasques que els defensors han de desenvolupar més, per anar perfeccionant la tècnica i que sigui una de les solucions més utilitzada per aquesta institució: actuar com a mediador envers les parts enfrontades i proposar fórmules de conciliació entre els interessats que faciliti una resolució positiva i ràpida de les queixes.
- **Actuació d'Ofici.** Actuacions que el defensor pot iniciar per problemes puntuals que tingui el municipi o voler cridar l'atenció a la corporació pública sobre determinades situacions irregulars o dificultats socials.

ASPECTES VALORATIUS

El **difensore cívico**, va remarcar els aspectes valoratius més destacats que s'apliquen a la regió de la Lombardia i que van ser:

Primer va destacar que **la institució va néixer de la necessitat de tutelar i garantir el tracte de les administracions públiques envers la ciutadania** observant sempre el compliment dels drets i llibertats dels ciutadans pel que fa a la relació de participació del ciutadà amb l'ens públic.

La legislació vigent a Itàlia, que està dintre d'un context canviant pel que fa a la regulació que faculta al Difensore Cívico, li reconeix les següents atribucions:

- 1) Com a òrgan que pot advertir d'un procediment administratiu erroni o que té algun tipus d'irregularitat, **garantint la imparcialitat del procediment administratiu**.
- 2) Intercedir, sempre a petició del ciutadà, entre les parts com a **mediador** del conflicte per trobar una solució que eviti arribar a un processo jurisdiccional.
- 3) Fer que aquest **sigui un servei útil per l'administració municipal** perquè orienti les seves actuacions administratives de manera que faciliti l'accés dels ciutadans a determinats tràmits.

En resum, i per concloure, dir que per fer una difusió eficaç de la institució serà necessari una informació detallada, i freqüent, a la ciutadania del servei que ofereix l'oficina del Difensore Cívico.

La valoració que va fer **la ponent dels Síndic de Greuges o Defensor del Ciutadà Locals de Catalunya** de la institució va estar basada en els diferents aspectes d'aquesta.

- ✓ És una **institució**, relativament novell a les ciutats, **creada** i impulsada per l'interès dels Ajuntaments democràtics de ampliar l'opció de participació ciutadana i **amb l'objectiu de defensar els drets dels ciutadans i ciutadanes en les seves relacions amb l'administració municipal.**

Aquesta institució, per la seva implantació definitiva, necessitava d'una regulació legal que articulés els mecanismes per dur-la a terme i la primera regulació oficial de la institució del Síndic o Sindica de Greuges Municipal, va ser mitjançant la Llei 21/2002, de 5 de juliol, de setena modificació de la Llei 8/1987, de 15 d'abril.

- ✓ Les actuacions dels síndics/ques i defensors/es locals **ajuden a promoure el funcionament intern i eficaç de l'administració municipal**, per tant la seva tasca serà positiva quan aconseguen:
 - a) Arribar a la ciutadania, aconseguir que aquesta conegui la institució, les seves funcions i les seves potencialitats.
 - b) Mantenir una bona relació amb la ciutadania, a qui hem de protegir dels possibles abusos i mal funcionament de l'administració municipal, serveis públics, tramitació dels expedients administratius, etc..

Locals de Catalunya de la institució va estar basada en els diferents aspectes d'aquesta.

- ✓ És una **institució**, relativament novell a les ciutats, **creada** i impulsada per l'interès dels Ajuntaments democràtics de ampliar l'opció de participació ciutadana i **amb l'objectiu de defensar els drets dels ciutadans i ciutadanes en les seves relacions amb l'administració municipal.**

Aquesta institució, per la seva implantació definitiva, necessitava d'una regulació legal que articulés els mecanismes per dur-la a terme i la primera regulació oficial de la institució del Síndic o Sindica de Greuges Municipal, va ser mitjançant la Llei 21/2002, de 5 de juliol, de setena modificació de la Llei 8/1987, de 15 d'abril.

- ✓ Les actuacions dels síndics/ques i defensors/es locals **ajuden a promoure el funcionament intern i eficaç de l'administració municipal**, per tant la seva tasca serà positiva quan aconseguen:
 - c) Arribar a la ciutadania, aconseguir que aquesta conegui la institució, les seves funcions i les seves potencialitats.
 - d) Mantenir una bona relació amb la ciutadania, a qui hem de protegir dels possibles abusos i mal funcionament de l'administració municipal, serveis públics, tramitació dels expedients administratius, etc..
 - e) Mantenir una bona relació amb els responsables municipals.

- f) Recomanar mesures per millorar els serveis i la protecció dels drets de la ciutadania.
- g) Aconseguir que l'administració escolti i atengui les nostres recomanacions, suggeriments, recordatoris.

Per altra banda, per les anàlisis anuals que fan els diferents síndics i defensors hem pogut constatar que una de les qualitats més positives que té la institució és la proximitat amb les parts implicades:

El fet que la institució existeixi a la pròpia ciutat on es troba l'administració fa més fàcil que el ciutadà o ciutadana s'hi apropi i pugui mantenir un contacte personal, ràpid i directe amb el responsable de la institució. També afavoreix, si s'escau, la possibilitat d'intervenir com a mediador entre les dues parts en conflicte.

Això facilita l'accés als expedients, al contacte personal i directe amb els polítics, els tècnics, els administratius, i per tant facilita la tasca de control, la possibilitat d'arribar a acords amb l'Ajuntament per corregir el greuge sofert pel ciutadà, en definitiva facilita que prosperin els suggeriments i recomanacions dels Síndics.

Pel que fa al grau de coneixement de les nostres institucions i l'ús que en fa la ciutadania, coincidim a pensar que, per una part, tot i que es va adquirint dia a dia, els ciutadans encara no tenen prou consciència dels seus drets i per altra part, hi ha una manca de coneixement de l'existència i competències dels Síndics i

Defensors Locals, contribuint al seu coneixement la dotació a la institució dels mitjans personals i materials necessaris pel seu correcte funcionament.

Com a conclusió és important fomentar la creació de Síndics de Greuges o Defensors de la Ciutadania Locals que, des d'una posició independent de l'administració vetllin pels drets i les llibertats públiques i pel bon funcionament dels serveis municipals.